

SITS ETA BITS
GURE GAIAK

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Egilea: Augustin Zubikarai
ISBN: 84-88464-08-8
Lege gordailua: BI-1991-95
Fotokonposaketa: Flash Composition, S.L.
48009 Bilbao

IRAKURLEEI

*Ezagutu eta ikasi gendun
euskeraz eta jatorraren erabidean
tonk egin gendunok,
oraindik ba dogu ausardia
plazara urteteko.
Gure adorea kaletik datorkigun
eskabideak damosku.
Besarkada bat
legez eta barriko euskaldunei.
Nire idazlan labur batzuen
sail onetako agerpenakin,
bururik nekatu barik,
gure kezka ta oituren gogoetak
atsegiñez artu dagizuezala.*

Augustin

AURKIBIDEA

Aberri Eguna	28-III80	Deia
Aita Lizarralde	19-V-84	"
Aita P. Mujika'ren iztegia	19-VL81	"
Aita Plazido Mujika	1-IX-82	"
Aitzaki artean	13-11-84	"
Amets barriak	5-III-85	"
Amezketan Samartolometan	22-VIII76	Diario Vasco
Araba'ko lurretan	8-VIII76	
Ataundik zear...	21-11-76	
Ayamonte ta Ayamendi	3-X-76	" "
Berastegi inguruan	9-IX-82	Deia
Betiko eragiña	7-XII82	"
Bideak alkartzen	28-X-85	"
Bidez-bide	14-VIII82	"
Bizkai'ko sendalariak	14-XII82	"
Bultzagillea	2-VII-84	"
Donianeak Bizkaia'n	20-VI-76	Diario Vasco
Egi bidean	1LIII80	Deia
Eguna ba dator	22-X-82	"
Egunotakuak	11-X-82	"
Egunotakuak	29-11-84	
Ekaitza	15-11-84	"
Ekin barriko	30-XII-82	"
Ereño'ko arri gorriak	28-11-76	Diario Vasco
Ermua'ko arrautzak	21-11-76	" "

Errenta urtea	10-XI-82	Deia
Errietako aldizkariak	21-VIII-82	"
Eskola-umeak	16-IX-82	"
Eteten ez diran kateak	20-V-79	Diario Vasco
Euskal Garizuma	I-III-80	Deia
Euskal Lege Biltzarrean	8-IX-82	i(
Euskal lore jokuak	21-IX-82	"
Gabon zorionak	23-XII-79	i(
Gabonak eta gure antzerkiak	18-XII-84	(i
Gasteiz'era	24-IX-82	"
Gernika'ko oroitza	17-V-84	"
Gure egoera	15-XI-84	"
Gure erregeak	4-1-80	"
Gure lege bidean	24-11-80	"
Gure margolariak	10-XI-84	"
Gure zubiak	18-11-80	κ
Gurutzea eta izenak	5-X-82	"
Kaku, kate ta kuku kantak	2-1-77	Diario Vasco
Kalerik kale	14-11-84	Deia
Kandelerio eguna	31-1-80	"
Kanta ala erreza	23-XII-82	it
Kantu, otoi, orru...	17-XII-84	"
Kardaberaztarrak	29-XII-82	"
Kiroldegiak	15-1-84	"
Iñaki Begiristain	1984	"
Irabazi ondoren	28-11-84	"
Iruña zarrean	11-VII-76	Diario Vasco
Iztegi barria	12-VII-84	Deia
Kontu garratzak	20-XII-81	"
Korta, gudarien kapellaua	18-11-81	"
Jemein-erraztitarrak		(i
Lekuona Jauna	9-II-80	"
Len eta orain	19-XI-81	"
Liburu barriak	1-XII-82	"
Loiolatarra eta gu	31-VII-84	(i
Los Angeles	17-VIII-84	"
Losada eta museoa	8-II-84	"
Maiatz-lorak	23-V-84	"
Maitasun giroan	16-IV-81	"
1839'ko legea	27-X-81	//
Mogel'eri biotzez	9-XII-81	"

Motriko aldean	7-III76	Diario Vasco
Musika gaiak	i-vm-8i	Deia
Naiak eta ametsak	26-1-81	"
Naigabe ta naikeri	6-1-84	"
Noizko laga?	10-X-82	"
Oitura batzuk	22-XII-84	"
OpoiTetan	11-VIII-82	"
Pelotariak	31-III-81	"
Prieto ta Bastida	22-V-84	"
Robustiana Mujika, "Tene"	18-IX-81	"
San Martinak	11-XI-81	"
Sandroke ondoren	19-VIII82	"
Santo Tomas	21-XII84	"
Sasoiko gauzak	28-XII79	"
Serora zarrak	7-IL81	"
Sinonimoak	2-L84	"
Soiñu eta eresi	25-L84	"
Su-siriak	11-VI-81	"
Udabarriko aizetan	2-V-84	"
Udalen azkatasuna	17-1-84	"
Udako ibillerak	15-VIII81	"
Udako ikasketak	1-IX-81	"
Ugao	27-1-80	"
Umeak eta zarrak	29-VII-85	"
Umeen jaunartzeak	12-VL81	"
Urte buruan	7-1-84	"
Urteroko deia	17-X-81	"
Teresarenak	16-X-81	"
Zarra ta biarra	21-XL76	Diario Vasco
Zapladak	1-X-81	Deia
Zazpiki ta zatika	5-XII-81	"
Zineko gauzak	4-III-83	"
Zirikadak	17-XII-82	"
Zoro egunak	23-XII-83	"

"KARMEL"EN AGERTUAK

Akatsak aizetzen	1959-1-17-18
Akatsak aizetzen	1959-2-20
Antigua'ko Amari	1959-5, 12-13
Ikusi, entzun ta esan	1959-5, 26-29
Laztandu daigun	1959-6, 9
Ikusi, entzun ta esan	1959-6, 17-18
Sits eta bits	1960-78
Sits ets bits	1960,115-116
Erririk-erri	1961-20
Gure erriak - Ondarru	1961, 53-54
Bidez bide	1961, 116-117
Itsasoari begira	1970-1, 64-66
Santa Klara'ren egunean,- Erri-oiturazko antzerkitxua	1970-1, 84-88
Arrantzaleak, lengo gizaldietan	1961-2, 45-47
Arrantzialien legeak	1970-3, 73-76
Aurrerakuntzea itxasoetan	1970-4, 48-49
Uretatik mairako bidea	1971-1, 71-74
Arrantzaleak eta kooperatibak	1971-2, 72-76
Gantzeruak izan dira!	1972-2, 70-79
Beti ere ikasten	1979-1, 77-79
Udazkenara begira	1984-1/2, 108-111
Gure gabonak	1983-3/4, 115-121
Oitura zarrak	1985-1, 84-88
San Juanak	1985-2, 84-88
Mikel deunaren inguruan	1985-3, 101-104
Joera barriak arrantzan	1985-4, 48-51
Gabonak eta erregeak	1985-4, 87-89
Aratustetatik paskotara	1986-1, 92-96
Itxasertzeko oiturak	1986-2, 105-107
Santu bustiak	1986-3, 96-99
Arrantzialien oiturak, diru partillak	1986-4, 95-99
Betiko kontuak	1987-1, 105-108
Perutxu eta traganarrua	1987-2, 95-102
Itxasertzetik: Treineru estropadak	1987-3, 95-102
Lenengo maillako irakaskintza, gure errietan lengo gizaldian	1987-4, 77-81
Kofradiak, armarriak eta abar	1988-2, 102-105

Egutegia esaera eta bertsotan	1988-3
"Fray Bartolome Santa Teresa Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba" zenbait gauzen azterketa	1988-4, 19-28
Itxasoetako ondamendiak	1989-1, 105-108
Osasunaren kezka eta edari bizigarriak	1989-2, 83-87
Egunotakuak	1990-1
Txomin Agirre eta itxas giroa	1990-2, 32-43
Antigua deiturari buruz	1991 -2, 71 -75
Oroitza zarrak	1992-3, 73-80
Eusebio erkiaga - Adiskide baten zer esanak	1993-3, 102-108
Txapela	1994-2, 87-95
Itxas bizitza eta gure euskera	1994-4, 33-48
Itxas lapurrak?	1993-1, 115-120
Sozialismoa Bizkaian	1993-2-65-70
Arrantzako tresnak, sareak eta bolantak	1994-3, 36-42

ABERRI EGUNA

Lenengo Aberri egunak bizi genduzan.

Gaurkoen oiñarri ziran.

Eire (Irlanda)'ko aizeak. An zituen sustraiak.

Lenenak besteak baiño sakonago sartzen dira eta luzeago geratu. Oroitzak, gomutak eta sentimenak, biozkadak. Buruaren irudiak eta biotzaren arradak.

Gogoan daukat orduko egunkarien deitura edo titulu bat: "Ito edo Bilbo'ra".

Bermiarrak ba euken orduan be, Alderdiaren barruan, entzute, bultzada eta lotsa.

Eta egun gordiña gertatu zan itxasaldian, baiña txalopak, ordaindik geienak "baporak", itxas-ertzetatik Bilbo'ko Arenaleraiño sartu ziran.

Erritarkeria ei zan ori batzuntzat.

Bilbo'ko andikiak baldar usaifia, erri atsa billatzen eutsen orreri. Eta eurak leioak eta balkoiak eta atea sarratu zituen.

"La Gran Via de los agotes" idatzi eban norbaitek. Biozkor aiña ezten zorrotzeko zan Eli Gallastegi. Beretik urten eban esaera orrek. Berak, "Gudari" izenordez, sits eta bits esaten zitun gauzak. Mingaifiean arantza barik eta idazluman mokoloia zabaltzen daben txistenik barik.

Gaurko geienentzat kondaira (istori) zarra da ori. Okerrena, ezagutu ez eta geroago gogoratzeko be aukerarik euki ez daben kondaira.

Amazortzi urte beteteko neukazan lenengo Aberri eguna ezagutu nebanean.

1932 urtea zan.

Ba ziran orduan be oztopo, traba, eragozpen, toki-mugatze eta abar. Baiña danen gaiñetik eguna ospatu zan.

Bilbo'ko Aberri eguna izan zan lenengoa. Beste urtetan, Donosti, Gasteiz eta Iruña'n ospatuten jarraituko zan, Urtean baten.

Ez ziran egun baketsuak izaten. Euki zituen ondoren larriak, asarre biziak ospatzen ziran lekuetan et agero, etxeratzeko orduetan, bideetan, erri askotako aurkalarien kontura.

Martiaren 27'an gertatu zan lenengo ospakizuna. Pasku igandea. Abertzale Alderdiaren urre-eztaiak beteten ziran urte orretan.

Ba eukan egunak beste tengada bat: Albia'ko zugaztiaren aurrez-aurre euzko abertzaletasunaren umetasuna ezagutu eban etxea, etxezabal lez idegita geratzen zan: "Sabin-etxia".

A be ez dabe ezagutu gerra ondorenekoak. Berrogei urtetako gogorkerien martiri jausi zan.

Lenengo Aberri egunak oroitza ederra laga eban. Argazki eta apainduraz betetako eundik gorako orrialdedun liburu eder bat argitaratu zan.

Abertzaletasun bizi-miña zabal ebillen gure gurasoak. Estukeri eta zitalkeri barik. Erriaren esnatze, itxarkunde argi eta arduratsu bat billatu nairik.

Gogoratzeko dira Kepa Enbeita'k lenengo Aberri egunari buruz egindako bertsuak:

Itxartu eta jagi zaitetz, euzkelduna, argitu sentzuna,
eta zuaz ospatzen Aberri-Eguna, Aberri-Eguna.

Itxasontziz, belbillez, bultziz eta oñez,
egizko joranez,
gustijok Abando'ra bizkor naimen onez,
bizkor naimen onez.

Berrogeta zortzi urte igaro dira ordutik.

"Sabin-Etxia" be begien aurretik kendu eben, ormak eureak be desegiñez.

Baiña itsuak be ba dakie ezagutzen eta biotzak be bai maite-garrari eusten.

Eta lenengo Aberri egunaren 50 urte, urre eztaiak orduko, ez al da agertuko Sabin'en etxe barrien barri?

Deia, 28-111-80

AITA LIZARRALDE

Askotan txalo bigun batek geiago balio dau milla erreguk baiño.

Euskaldunok ba dogu lanei koska billatzeko berezko joera.

Orrek euki lei atze okerra: lanean diarduanari gogoa kentzea.

Aitzaki asko ipinten dautsaguz gure aurretiko eleiz arduradunei. Baiña ezin giñei ukatu euskal saillean egin dan asko, eurei esker egin danik, ta euskereari eusten alegintsu izan diranik.

Geiago egin eikeela?

Sekula ez dogu esango geiegi egin danik. Ori ez. Baiña egin danik egillaeari ukatu be ez.

Zaldibitar fraile bat askotan ezagutu gendun gure eskola urtetako denporetan erriz erri. Fraile asko lez baserriko semea zan. Bera, Aita Jose Adriano, Zaldibi'n dagon iru etxe-bizitzadun Zaldibarrena baserrian jaioa.

Fraile a, gaur beste era baten ermiten kondairak ataraten diarduenen aurretiko zan. Edozatera be Euskalerriko eta beraren kondaira idazle eta agerle.

Jokabide mugatu bategan ebillena. Gure errialdean dagozan Andra Mariaren irudiak ikasi, aztertu eta berezko doai, erti eta zaletasunez jakin eta ezagutu eragiten.

Fraile baten eroapena bear da ortarako.

Beste fraile batek, Aita Emiliano karmeldarrak be ikutu eutsan Euskalerrriak Andra Mariari euki dautsan begirapenari. Onen lana mugatuago da eta errezago. Onek amalau deitura ezagunenetakoak aukeratzen ditu eta Lurdes eta Karmelgoa geitu. Bakoitzak berea. Lenakoak esango ebena: bakoitzak bere lapikoari su. Emiliano'k euskeraz idatzi eban: Lizarralde'k erderaz.

Eta Aita Lizarralde erri, baserri, parroki, baseliz eta ermitarik geienak ikusi eta aztertutera eldu zan. Andra Mari bat nun egon, ara joan barik ez zan geldituko. Mendi-zale zan lez, neke andi barik. Eta ibilteko garretan. Bera izan zan Aitzgorri'ren maldatan dagon urbia'ko eleiza edo ermitaren eragintzalle. Berari esker zabaldu zan a 1924 urtean.

1926 urtean argitaratu eban Gipuzkoa'n basterrik baster dagozan Andra Marien azterketa eta kondaira.

A zala ta Mateo Mujika Gotzaiñak jendearen aurrean Zumaia'n, Arritokietako Ama koroetu zanean, 1930 urtean, zorion txaloa luzatu eutsan, eta orrek poztu eta adoretu ebala, berberak diño, Bizkai'koena argitaratzera, 1934. urtean, gipuzkoarre-na bezin aberats eta oparo.

Oraintsu, 1982 urtean, Arabakoena agertu eban Gerardo Lopez de Guereñu'k.

Araba'n bertan, deitura bat edo bestegaz, 244 irudi izendatzen dira, batzuk zeaztasun osoz, besteak azaltxuago.

Eun urte dira maiatzaren 16'an Lizarralde fraile apal, langille eta kondaira egille izan zana jaio zala. Kontuan euki Oñati'ko Sancti Spiritus Unibersidadearen kondaira be idatzi ebala. Bai eta Azpeiti'ko Sortzez Garbi izeneko konbentuarena be. Eta jakiña, Arantzazu'ko fraileak ez eutsen baketan lagako angoa egin artean, eurena egin barik.

Deia, 19-V-84

AITA P. MUJIKAREN IZTEGIA

Loiola'n, atean egoten dan Anai Irureta'k nai izan ezker, edonora sartu ziñei. Arek laga bear.

Iribarre eta berba gozo, aurrean daukan Garate anaiaren antzeko izan nairik. Ta urrutizkiña eskuan, barrukoen gogoak igarteko aukeran.

Loiola'ko etxe barruan sartu ezker, etxarte eta klaustrotan ibiliarren, arrizko ate gain zabaldun atea bana-banaka ikusiarren, gaitz gura dana aurkitzen.

Ba dago goragailu edo azentsore bat. Be maillatik gora aiña ia beste ainbeste berantza eroaten dabena.

Goian, lenengo oiñaren egal baten, antxe bizi da Plazido Mujika.

Ez alperrik bere izenik billatu atetan.

Baster baten, oar eta guztidun gela bat dago. Baiña ez dau esaten bertan zein bizi dan. Iragarri au bai, euskera ta erderaz: Lanpetua. Ocupado.

Batek esaten dau: Sorgin-etxe baten ez ba nabil, emen egon lei Mujika. Eta orrela pentsaten dabena igarriko dau.

Atea zabaldu ta... zeñen lantegia ete?

Ormak kartoizko oiñetakoentzako kaixaz beterik; iru edo lau mai txiki, ta danen erdian belauniko jarri ta otoi egiteko belaun-aulkia.

Alboan, mai egalean, makila bat: bastoia. Nekez ibiltzen da bera barik gela are-tako jauna, gizaldi baten iru laurden aurten bete ditun jesulaguna. Mujika eta Berrondo tar Plazido da. UrnietaiTa odolez, jesulagun bizikeraz, eta Euskalerriko edozein lekutako bere gogoz.

Zenbategi ezagutzen dabe soiñez Aita Mujika? Ba dauka berak ortaz zer esana. Nik ezin luzatu.

Eta zeñek ezagutzen ez euskeraren bereiztasunen baten bidez? Ortan be luze dabil.

1965 urtean Diccionario Castellano Vasco argitaratu eban. 1900 orrialdedun iztegi luze, mardul eta benetan ugaria.

Agortu zan. Geroago beste argitaratze barri bat dabil salgai. Milla mesede egin-dako iztegia.

Asko ebiltzan itaunka: Zegaitik erderatik euskerarakoa zana, euskeratik erderarako argitaratu ez?

Onelako iztegi bat gizon bakar batek egiteko, Ebangelioko itzak betetera gertu bear: Dana laga ta jarraitu niri. Eta kaixa mordoak, sarri erabilteko eran, fitxaz bete. Atsedean eta atsegin bako lanean. Orduen takadak kontuan artu barik. Osasunaren neurria be sarri etenda.

Mujika'ren gelak bertakoaren bizitza erakusten dau: otoitza eta lana.

Ondo konturatzen da bera osasunaren dei larri bi bitarteko eukia dala; ia dana

bera lagatera beartzen eben odolaren zirrikada biren astiñaldi bi eukia dala, ta bigarrena ondo gaindu barik dabillana. Baiña Iztegi barria osotzen asia da; amaitua, esate baterako.

Milla ta irureun orrialdenako liburu bitan agertuko da.

Eskuan euki dodaz argital-etxetik bialtzen dituen zuzenketarako orriak. I-J rarte zuzenduak. Bialdu-ala, Madrid'en diardue foto-egitura deitzen dana egiten. Orrela, noiz -nai agertu al izateko eran, bein osoaren konponketa egin ondoren.

Eta Iztegia, Aita Plazido'ri osasun erdi jan dautsan Iztegia, bizi barria emoten laster agertu leiken berogarri izan lei.

Beste bost-sei illabetek zer ikusi asko eukiko dabe argitaratzean.

Aita Mujika erriari deika asia da. Ataraten neurritz jokaturako, zenbatak artuko ete leuken jakin guraz, nai ta oraingo izan emote onek eroatera lotu ez, gero eziñen bat agertu ezkeru. Ortaz idatzi ziñei Loiola'ra. Izen bakoitza, Mujika'rentzat arnas barri da.

Iztegia, garbi esan bear da, Aita Mujika'k lengoa egin eban izkuntzari buruzko moldetan agertuko da.

Deia, 19-VI-81

AITA PLAZIDO MUJIKA

Egunean, illaren 26'ean, Azpeiti'ko osagilleak ikusi ebanean esan eutsan: Biotza asko nekatua daukazu, Aita Plazido.

Caceres'tik etorri eta orain Loiola'n gaixo zaindari dagon Laka Anaia izan eban azken ordutako kontu-kontari.

Laka Anaiaren agerpenak: Euskeraz bakarrik ekiten eustan. Berak, erbestean igarotako berrogetak urteen aitzakiz, erderara tarteka joarren, Aita Plazido'k geratu barik jarraitzen ei eutsan euskeraz, eta bertso zarrak gogoratu be bai, ittotasunak jo arte.

Ixilik egon zaite, Aita, ez zaite nekatu, esaten ei eutsan. Baiña berak, irribarre egin eta gero ta biziago euskeraz jardun. Ia buruan kabidu ezin jakon euskal iztegi osoa erabili nairik.

Bedia'ko Anai Batek, bere aldetik, geitzen eban: Aita Plazido lanak menperatu dau, lanak. Neurri barik lanari lotuegi bizi izan da. Bere gelatik eleizara edo jan-

tokira. Ez eukan beste ibillerarik. Laguntzaille bat, idazkari batik ez eban nai izaten. Dana berak: Kartak, fitxak, datu batzeak, okerren zuzenketak, beste iztegiekin ziurtatzeak. Eta ori urte batzuk dirala biotzak bere lenengo oarra emonda eukala.

Zelan deituko ete eutsan berak, bere bostean, biotzaren makaltasun-ezaugarriko kanpai jote orreri? Zelan, beste deiturentzako ainbat urteera eukazan jakintzu ugariak?

11 barria zabaldu ta gero, larunbat arratsaldean, Loiola'ko be aldeko sakristi baten, bakar bakarrik billatu gendun, adiskide bik. Eun (tela) baltzez azaleztutako kaja estu, merke eta apal baten sartuta, abade jantziz, bonete tolestu orreitako bat buruan ebala. Augustin deunaren eguna zan eta bere esaera bat etorri jatan burura: Nire biotza urduri dago, Jauna, zuga atsedean artu artean.

Eta Aita Plazido'ren arpegi baketsuak esaera ori betetzal erakusten eban.

Lora bizidun ontzi bete bat eukan buru-aldean; lore zuri, gorri eta berdedun beste ontzi zabal bat oiñetan, bear ba da euskeraren maitasunean.

Eta bakartadea, Bakartade ixil, kezkatia.

Barrukoentzat bizibideko ondoren oia zan ziurretik. Illa beteren barruan iru il dira Loiola'n Eriotza ta kittu, beste itxaropen batzuk fedeari lagata, Kanpotarrentzat, irratiak zabaltzen iñarduezan barriak, udako ibillera eta jolasen nastean, oraindik zotin eragin barik.

Berari begira, 1952 urtean Donosti'ko liburutegi baten euki neban ezaupedia gogoratu neban. Euskalerritik kanpora ebillan aldi aretan. "Kulixka Sorta" argitaratzen asi zan "Itxaropena" Argitaldaria, eta bere "Noni eta Mani" euskeratura agertzen zan. Svenson islandiarra zan, Jesulaguna. Eta a gizon mardul eta Plazido gazte, Valkenburg'en alkarregaz bizi izan ziran. Samur samurra zala esan eustan liburua eta origaitik euskeratu ebala.

Orrelako lanak jostallu ziran beretzat. Bere asmoa iztegiak ziran.

Latiñezkoa, gerkerazkoa eta euskerari dagokiozanak. Erderatik euskerarakoa eta euskeratik erderarakoa.

Denbora zarretan, ego eta iparretiko zaparrada guztiei aterkiña zabaldua ekin eutsan. Azkenean bere lanak itto, barealdia etorri danean.

Baiña larunbateko bakartadea, domeka arratsaldean, eundaka euskaltzalek osotutako koroia zan, Loiola'ko baratzean zear "Lanpetua"-ri azken laguntzan.

Jakintsu andi zan, jesulagun setatsu, soñez txiki izan ba zan be gure Plazido Aita.

Deia, I-IX-82

AITZAKI ARTEAN

Askotan batek ez dau jakiten ikusten, entzuten, edo irakurten diran gauza batzun aurrean, barre edo negar egin. Aurrean daukana jo ta apurtu, edo ta alegiñak egin bat-bateko asarraldiak eta berotasunak beratzen.

Ba dirudi ba dagozala "Txiki B" ri euren autarkia emoteko barruko kezka daukenak, euskera fosilizatuaren alde agertu zalako alkar-izketa baten.

Beste alderik ez ba lego, bitartean alderantzi sakanogorik ez ba lego, nik ez neuke orrelako kezkarik eukiko, bestetan ez ba da be orretan, nire ustean, zentzu ona agertu dabelako.

Gaur laterrientzat eta errientzat premiñazko da irrati-ikuskiña, nire lagun baten esanetan urruti-irudizkiña. Euskaldunontzat ETB dalakoa.

Erri baten ikuspegirik onena izan lei kanporako, eta biotz ikutugarririk egokiena erri barrurako.

Gaur gaurkoz erri baten izatea erakusteko gaillurik onena. Milla eratan, Batez be, izkuntzen burruka onetan, bakoitzaren sentidu eragiteko armarik biziena. Bai eta asarretu eragiteko be.

Beti esan izan da markiñarren euskera, inguru orretakoak erabilten dabena, jator eta garbia dala. Itxurotsu eta egokia.

Egunotako baten markiñar umetxu batzuk agertu ziran gaillu orren argi ta begi zalatarien aurrean.

Pozik areik, ziurretik, orrelako baten agertzeko. Ez ziran lotsatienak aukeratuak izango be. Eta zelako bizkortasuna eta gatzez ez ete eben erantzungo... eurei itaunak (galderak) egiten eutsazanak, umeak ze euskera erabilten dabena jakin eta konturatu eta euren erakoari lotsa artu eta jarraitzeko argitasunez eta makurpenez orretara jarri ba litz.

Baiña ume errukarriak, gixajoak, "sursun-kordan" geratu ziran, ao zabalik, ia zer erantzun jakin ez-da, gizonari begira, arek erabillan aditzik artu edo ulertu eziñik, uste eta naiko eben erraztasunez erantzunik ezin asmatuta.

Eta umeak, umeak oi dabena errubakotasunez, gure TBE'ko euskal jokabidearen salakuntzerik agiriena egin eben, mutu baiña ikusleak konturatzeko eran. Azkenean tokian tokiko erarik be ez! Ez ete dago erri euskerarik egin leikenik edo nai dabunik? Ortik sortzen dira gero mar-marrak. Or dabil jendea amarretik gora bizkaitar ibili zirala, ETBrako gertuten eta aukeratzeko zorionik ez ebela lortu.

Gaur gaurkoz, or agertzen diran batzuk ikusita, ain makalak ete ziran Bilboko talde aretakuak? Ez ete eutsen ulertuko arei markiñar umeak, eta azken baten, zer da ikus-irrati baten zeregiña, irrati guztiena lez, erriagaz eta erriarentzat berba egitea baiño?

Ez esan au be batuaren aurka jokatzea danik. Batuak be bere muga dauka.

Baiña tokian tokiko umerik ez lotsatu beintzat, eurak (eta besteak be) ezagutzen ez daben eraetan berba egiñez.

Deia, 13-11-84

AMETS BARRIAK

Urtearen amaiera mingarria euki dogu euskal abertzaleak. Gure arteko naste eta eztabaidak garraztuten ezagutu genduzan. Alkar ezin konpondutako enda ete gara euskaldunok?

Jauntxoak aldi baten.

Bizibidean alkarren premiña gordiñeneko erriak be, nastean ipinten ekiezan gure jauregi eta torre zaarretako jaubeak.

Jaso zituen torre indartsuetako arriak aiñako buru gogorak eurak. Torrea zein-jokabideko, erri osoak aretara makurtu eragiten zituen jauntxo arropuxak.

Gero, ia gure denporetan, karlatar eta liberalen burrukak.

Oraintsu, gu-geuk bizi eta esku artutako guda, orduan be euskaldunok gure artean banatuta, mendi eta toki berberetan anaiak anaien aurka.

Karlatar gerratean, eritxiak baiño andikien menpetasunak indar geiago euki eban edo ta siniste batzuen lotuera larregiak.

Gure artean be estadu bateko indarkeriak naastu genduzan.

Len gure ez jakintasunari aitzakituten geuntsan asko. Gure bakartasunari, gure erabideko bizitza bakanari.

Gero, lengo eta oraintsuko irakatsiak artzeko aukera euki dogu.

Gure eritxietan sakonduz, gure erakundeak askatasunez indartu eta osotzen jarduteko aukeraz baliatzen asiak gara. Eta asi ordukoxe... orra gure eritxi ez-bardiñak, legezko eta ezagutu bear diran pentsabide ez-bardiñak, asarretu eta alkarren bekaizkeriz ipintera eroan.

Eta gure etxe barruan bertan, elburu bardiñeko tellatupe berbetan, bata bestearen aurka asi gara indarrez edo oztopoz, aurrez-aurre edo azpikeriz, berbaz edo ta idatzíz. Batzuen ustez, nortasunari eutsi eta eskubideak zaindu bearrezko joko garbi eta bearrekoan; besteen esanez maltzurkeriz.

Problema ez dogu ikusten elburu nausietan, gizonetan baiño.

Barrero ete guaz norberekeriaren itsutasunera?

Konturatu al gara toki batzutan gure arteko anaitasuna be galtzeko zorian gabiltzala, eta danak, guztiok goratu nai dogun erria, ez abertzaletasun eta ez euskaltzaletasunik ez dauken azerien mende lagateko arriskuan sartu gareala?

Danok dakigu politikan bide estu eta txior asko dagozala, erabide asko, elburu nausi baten barruan. Baiña elburu nausi orretan dago bateratzea. Kurutza eta guzti.

Euskaldun zarrak egiten ekien antzera, ur garbitzaillea artuta asi daigun urtea. Begi argi eta gogo garbiz. Borondate onez eta biotz zabalez.

Eritxiak, zapaldu barik, aldeztuten jakin daiguzan. Baiña asarre barik eta batez be itsukeri barik. Gizonen jokoan laster agertzen da ta zein dan joko garbia eta ongarria.

Deia, 5-III-85

AMEZKETA'N SAMARTOLOMETAN

Aita San Bartolome'k ikara egiten du!

Zegama'ko sermolariak deadar biziz ala esan, nai Bizkai aldean Areatza'ko abadeak orru egin, entzun eta ala zala sinistu egingo eban gure erriak.

Ezin ukatu erri sinistetsua osotu ebenik gure asabak. Eta eleiz-gizon askok siniste orren era luzatzen jakin eben, nai eta iñoiz. Berastegi'ko sermoietan bezela, suzko millo-zatia agortu zala ta apaiza lotsaz gelditu.

Gaixo guztien sendagilletzat euki izan dabe San Bartolome. Origaitik berari eskiñi edo ta bere aintzaz jasotako ainbat eleiza ta ermita gure errialdean. Gipuzkoa'n ba dira sei parroki. Ermitetan, fraileen dozena, amairu. Bizkai aldean be, parroketan bakarrik, zazpi ba dira. Gipuzkoa'ko parrokiak Amezketa. Bidani, Elgoibar, Ibarra, Itxaso eta Oikina'n mugatzen dira. Bizkai aldekoak Areatza (Billaro), Arrigorriaga, Orozko'ko Olarte'n, Karrantza'ko Aldeacueva'n, Sopuerta'ko Avellaneda'n, Alonsotegi eta Lexona'n.

Santu au zaindari daben erriak gaitzak dirala eta euretako jentea asarrekorra dala, sumindua? Zegaitik? Santu orren zaindaritza berezia gizon erre eta ziztriñena dalako?

Goazen Amezketa'ra. Amezketarrak ez dira asarrekor, ELBIAK destaiñez deitu ezik.

An ba dakie gogoratzen antxiñakoen esakera zarra: Amabi dira apostuluak;

amaika, Birgiñak; amar, mandamentuak' bederatzi, ordenamenduak; zortzi, zeruak; zazpi, andre dena Mariaren alegrantziak; sei, zeruko argi illeak; bost, Yesukristo gure Jaunaren bost zauriak; lau, Ebangelistak; iru, Trinitatekoak; bi, Jerusalem'go aldareak; bat bakara, gure Yainkoa. Eta... luzatu ezker, apostoluetan aundiena, S. Bartolome Amezketak'koa. Ori da utsa.

Amezketak'ko eleizako ate nausiaren taillugintzak merezi dau ikustaldi eta eza-guera bat. AsaiTeak eta estutasunak kalean lagateko egin ete eban taillugille ez-eza-gunak atadi orretako lana? Leike. Artista berberak bearko eban naiko pazientzi lanean. San Bartolome'ren promesan?

Amezketarrei ez galdetu eleiza ori noiz egiña dan. Samartolome'ren denporetan egiña dala erantzuten dakie. Eta zeatz esan ere, eleiza ori amezketarren gogoz erriko plazan egingo zala, baiña Samartolome'k nai ta Ergon'en egin zala. Origaitik dagola an.

Atea beste kontu bat da. Arte kontuan, kontu luzea. Ba dira Gipuzkoa'n bere erako bakarra dala diñoenak. Peña Santiago'ri galdetu Amezketak' erakusteko dauka. Ezkon barrientzako atea?

Amezketak'n batua da au:

Ezkonbemek poz-giroz daude

egin diralako alkarren jabe

elizan,

gauza ederagorikan ezin izan.

Ai banengoke ni zerorren gisan!

Laster ikusten da Amezketak. Beti izan da erri au ezkutu gabeko erria. Tokiz, izatez eta kontuz. Erri zabala, idegia. Unibersidadea. 1374 urtean Tolosa'kin bat egin eban. Baifia mendiko txoria ez da kaletar karioletan bizitekoa. Eta banandu zan. Umorea billatu ere bai saltzeko aiña. Orra or Pernando. Bengoetxea sortzez. Izatez eta egitez Amezketarra.

Diario Vasco, 22-VIII-76

ARABAKO'KO LURRETAN

Eduarne Zuriñe, Zuriñe Eduarne... Laga margariteri orri eteteari. "Seledon" jaietan dabil. Beretzat, Blanketan.

Gazteiz. Gazte giñala eleizgizon eta soldaduen erri. Konbentu eta kuartel. Euskalerriko abadegaien etxea egin zanean (oraindik 50 urterik ez), Gazteiz'tik urrun geratzen zan, erritik kanpo; eta beti alaxe izango zalakuan.

Ordukoak ezagutu be ez dabe egiten gaurko Gazteiz.

Orduko lagunak... zenbat? Gaur berreun milla. Eta bost urte barru beste berrogetamar milla geitutekotan.

Begi zorrotza euki eban Gazteiz'ek industri edo gintza tokiak eratzean. Ba diardu orretan azken 25 urtetan. Besteak "desarrollo'ko planak" egiten asi aurretik.

Araba'ren kaltez? Arabar erriak lengoan dagoz. Agurain eta Laudio kenduta, eta neurri beragokoan Amurrio, Araia eta Oion, besteak lo.

Gazteiz, amar urtetan, eun milla lagunez ugaritu da. Ba da zerbait. Anditze orrek berekin ekarten ditu buruausteak.

Len iñori emoteko aiña ur eukan. Or Bilbo eta inguruak arabar urekin baliatzen. Gaurko anditze onekin benetan koturatu izan ba litz, emongo ete eutsan Araba'k bere gozotasun eta bustitasuna beste errialde bateri?

Gazteiz bera dago gaur egarri.

Beste bat: irakaskintza. Iparraldeko Atenas deitzen eutsen Gazteiz oneri. Bera lako erri betentzat ez eukan len premiñarik. Gaur... erdi maillan dabilten errien parean gelditua da.

Geiago: etxeak. Etxe barri asko. Pilloka ugaritu dira. Baiña Gazteiz'en be lurrak diru asko balio dabe eta etxeak langilleen irabazien gain geratu dira.

Jaietako beroak kerizpera eroan gaitu. Armentia. Armentegi ere irakurten da iñoiz. Bizkai geiena emengo obispadutzan sartzen zan IX eta X gizaldietan. VI'garren Alfonso'k Araba artu ebanean, arabarrak asarre agertu ziran eta askoren esanetan arabarrak euren euskal izatea agertu ta erakutsi ebelako kendu eutsen Armentia'ko obispadutzari bere nortasuna. Gero. Armentia au, Kalagurri'ko gotzaiñen menpeko kolejiata lez laga eben.

Orduko giroa? Fraileak eta gotzaiñak erdi gudari ziran garaietara ba noa, emen billatuko dot Funes'ko Santxo gotzaiña, bere menpekoak il ebena 1146 urtean. Gero, bere ondoren, Armentia'ren maitale bat, Kaskante'ko Errodrigo. Berari esker leku onek bere nortasun eta entzutea barriztatzea lortu eban.

Erri aundiek iruntsi egiten ditue txikiak. Armentia'ren kondaira Gazteiz'en ezkutatu zan. Orain 111 urte arabarrak barriro obispadutza lortu ebanean, ez eben gogoan euki Armentia'ren izenik, Bilbo'ko obispadutzari Flaviobriga deitzea baiño errezago eta eroso ta egokiago izango zan arabarren oneri Armentia'ko deitzea. Zirikalarien utsa? Euskalerrian ezaguten dan erromaniku erako eleizarik jatorrenatza laga eben emengo au. Ori kenduta errezago zan Bitorixa ri ospe emotea.

Goazen errira. Armentia, Arriaga, Ali, Gamarra, Betoño eta abar gaur Bitorixa'gaz batean kanta kantari. Erri txikien zori illuna!

Diario Vasco, 8-VIII-76

ATAUNDIK ZEAR..

Zegaitik Ataun'dik zear Naparroa'ra kontu zaarrekin pentsatzen asi?

"Gizon bat ba zen mñez zegozenak sendatzen ibiltzen zena, eta gau batian gillenak jo zioten atia. Esantzion ia joango zan eri bat sendatzera. Esantziyon baietz, eta mina zulora...".

Ba dago orrela asten dan ipuin bat gure erriaren esaera eta kontuetan. Nik agertu alako au Nikolas Alzola, Berriotxoana Anaiak, batu eban, era orretan, Bidaso aldean.

Ipuin ori egi biurtu leike gure erriaren jakintzan, aldaketa labur batekin.

Gillenak = Euskaldunak.

Sendatzen ibiltzen dana = J.M. Barantdiaran.

Eri dagona = Euskalerrria.

Ipuiñak jarraitzen dau: "Eintziyon eriyari egin bear-txiyona. Pagatu zuten ondo...".

Bein onera ezkeron ixildu egin bear. Egin nai nuen alkartasunik ezin osotu. Ipuiña aldatzen asi bear. Esker txarrez pagatu bai zioten egiazko sendatzalleari. Ez al da egi?

Ixil nadin. Gaur biotzeko omen ixillak, barru-barmko ezaupide eta makurpenak, zintzo eta egitsuago dira azaleko eta kanpoederreko irristadak baiño.

Ataun.

Joko al dogu aterik gure sendalariaren etxean?

Ezpaian nago. Goazen aurrera. Laga daiogun Joxe Miel'eri ikasten eta ikusten. Bere urteen omenaldirik onena ikasteko denporarik ez kentzea ei da.

Agur ta erdi!

Agauntza eta Aitxu, Alleko eta Arantzamendi, Irumugaeta eta intsusburu, Leizari eta Markorburu eta ainbat mendien oin eta gibelean dago Ataun, jentillak bertan bizi aurretik eta gero.

Ataun'en asi ei ziran jentillak kristauen aurrean makurtzen. Ez maitekeriz, errementari baten sutako burdiñaren berotasun eta erretasunez baiño.

Igarten da oraindik Jentilbatza nun egon zan.

Ango bat joan ei zan Lazkaora arro, bera lakorik iñor ba-ete-egonka. Berari atzamarrrik okertu eutsanik ez egoala-ta. Lazkaoko errementari batek urten. Bere tenazak sutan gori-gori egin eta eurekin zudurretik eutsi ta muturra moztu ere bai. Orduntxe asi ei ziran jentillak, kristiñauak eurak baiño geiago zirala autortzen.

Orrelako kontu asko dira Ataun'en. Nai eta Kismi'ren bildurrez jentillak iges egin bertatik, euren leizak eta etxeak eta arri-arteak utsik lagata.

Gaur, esaerak, kontuak eta ipuiñak liburuetan batuta dagoz. Ezin esan lenakoenik: Ataun'en eta Zegama'n egunez ikusi ta gauez eraman.

Ataun Euskalerrarentzat dei bat da. Bere jentillak eta bere lamiñak, bere kantuak eta soñuak, ipuiñak eta kontuak, oiturak eta ekanduak, lana eta satsa, bizikera eta egikera, sinisteak eta fedeak, pizti eta egaztiak, mendi eta errekarreak... edozein euskal errietan egon izan diranak eta dagozanak dira...

Baiña Ataun'dik irakaspide zur bat emonak dira. Begiak zubaltzen erakutsi...

Lizarrusti'ra eldu naz. Txapelik ez dot kendu, ataundarrak txapela jazten erakutsi dauskuelako.

Diario Vasco, 21-111-76

AYAMONTE TA AYAMENDI

Gureztat Ayamonte erri ezaguna da. Entzutez eta ikusita. Huelva aldera goazenetan, edo ta Portugal goitik bera igarotetan, ara mugan Ayamonte, Huelva'ko errialdetan.

Ondarroa'tik Ayamonte'ra edo ta andik ona ia astero egoten da autobus txiki bat.

Ango gizon eta emakumeak bidean nekatuta etorten dira, maletaz beteta, emengo itxas-arrasteroetan gizonak dauken irabazpiderako aukeraren indarrez.

Ba doguz Ondarroa'n extremeñoak, bai eta andaluziarrak. Ba dira baita be moroak eta portugaldarrak. Babel bat da Ondarroa. Lenago galizitarak asi ziran, baiña asko euren aldera biurtu, ango itxas-ontzietan bizibidea eukitean. Gero Almeria'tik etorraldi batzuk ezagutu genduzan. Ille bete orduko etxera iges egiten eben.

Orain ayamontetarrak doguz lekuko.

Emendik Galizi'ra gure giroa igarten da. Mendi orlegiak Santander eta Asturias'etan. Galiziarren lurak kutsu bereziago, orreo ta gurutze ta arri latzetan.

Baionatik Baionarat, (alako tituloa eukiten dabe patroï askok) ezberdintasun andirik ez da igarten ikuspegietan, baiña oartzen da irabazpidetako aldea, erri, jantzi, eta bizimoduan.

Udan, ostatuz, makal. Ni sartu naizenean, etxe txiki bat; andreak, gabon esanda, bakez lo egiteko borondatea agertu, eta geitu ere bai: "aquí non le faltarán tres cousas: alegría, limpeza e respeito". Gero konturatu nitzan, goizean goiz, zegaitik iñoan. Alaitasuna ollarra zan, garbitasuna katua eta lotsa txakurra.

Portugal. Goi aldea pobrea itxas ertzak politak. Atlantiko ren orruak emen baiño zitalago artzen dira an. Lisboa, erri aundi ta eder Fatima... Sartu orduko, gure giro ustelaren konturagarri bat. Penitentziz belauniko joateko... belaunetarako goma bigunak saltzen. Gure Antigua'ra, arri-koskorrez botatako bidean, aragi gordiñetan belauniko joan izan diranekin gogoratu naz. O tempora, o mores jlenakoena.

Orrez gañera, betiko merkatariak (pitxi ta uskeri askoren salerosle ipokritak) kenduta, ango bakean, Fatima'ko anditasun pobrean, gizonak be ba dakie makurtzen, otoi egiten edo ta nasaitasun egarri.

Portugal en laster konturatzen da bat, emen ez dagon zerbaitez. Utsunea artu: bidean zaindaririk ez da igarten.

Itxas-ertzean ez da emen aiñako aberastasunik, nai eta bertakoak barrutik itxas-aldera beste betetasun bat ezagutu.

Ardua maite dabenak ba dauke Rosse bat, otz artzeko, ondo sartzen dana. Arrain fin ugari. Nai ta Busca Isusi'ri galdetu bear, salmoneteak urdail eta guzti ala garbituta, atsegiñago ta egokiago ete diran. Eta arraiña, erre-erreta ala koipe ta guzti, berogarriago ete dan.

Jantzi eta abar, emengo parean.

Beian, muga. Aspertzeko bidea. Iru itxas ontzi gizon eta tresnak batetik bestera erabilteko. Kotxea eroan ezker, pazientziz artu bear, ordu batzutan.

Portugal'dik urteera Ayamonte'ra.

Ayamonte: gure etxea. Bai, jaunak. Ayamonte aitatzen ez gara asi?

Bar baten sartu, euskaldun-itsura artu, nungoak ete itaundu, ta ondarrutarrak entzutean. "A, Ondárroa! Eze e un pueblo de Ayamonte!" Ordago Txo! Maletak artu ta guazen arin ara. Ayamendira.

Diario Vasco, 3-X-76

BERASTEGIINGURUAN

Berastegi'ko parrokia, Gipuzkoa'n, erriaren alboan egiña dago, landa baten.

Ez dau onek esan nai erria eta eleiza lepoa emonda bizi diranik.

Euskalerrian, gure erri onetan, egon izan dira denbora garratzak, baiña ikusiak ikusita, gaitz etengo da, menpetasunik ez ba dago be, gizaldietako siniskera baten lokarria.

Gerrate guztietan egoten dira egoera larriak.

Gurean, Pizzardo Kardenalak Agirre lendakariagaz euki eban jokabideak, zearo oztuta laga zitun batzuk biotzak. Beste mitradun batzuk negarretan laga ginduezan. Alaz eta ezin esan eleizari begiratzea laga eutsen batzuk, biotzez be aztu ebenik.

Izan be oraiñarte Euzkadi'n eleizaren serbitzurako aukeratu edo eskinitako gizonak, mendebaleko aize brastada guztientzat euki izan dabe zirazko erroa ego-kia.

Berastegi'n, txistua entzuten da kaletik eta kaletan.

Etxe andi eta zatar baten batzen dira ainbat mutiko, txistua ikasten. Irakaslea? Berrogetak urte Argentina'ko erri txiki baten abadetzan egin eta Euskalerrria biurtu danean, erriko mutiltxoei solfa eta txistua erakusten asi da.

Olerkaria, gerra ordurako "Irribertsoak" izeneko liburua zabaldua eukan.

1963 urtean "Gernika'ko Arbola" argitaratu eban Argentina'n. Garcia Viloso'ren erdal antzerki bat zan, euskeratuta.

Urte bete geroago, 1964'n, "Iztegi" izenagaz erderatik euskerarako iztegi bat kaleratu eban Buenos Aires'en. Laburra, baiña ugaria iztegi au. Ez berba bakoitzaren esateko era ugari agertuz. Bai berba askori labur-labur esan nairik egokiena emonez. Orretarako euskeran jakintsu eta bizi-gaietan ezaupide andiko izan bear da.

Gertuta dauka euskeratik erderarakoa. Baiña orretarako ez ei dago dirurik. Ala esan dautse. Ate joka ibili ei da goietan, eta erantzun dollorrez ateak itxi. Eta gure Txomin, naigabez beteta. Berak, oraintsurarte, bost milla peseta artzen zitun illero Argentina'rik, zar-sari lez. Orain asi jakoz emen zerbait emoten. Ortik zelan liburu baten argitaltzea ordaindu? Eskerrak berastegiarrak maite dabela, eta ortuari eskin-tza faltarik ez daukala. Baiña gizonak ez dau pentsua bakarrik bear.

Gure abadea, apaiza, lanerako jaio zan eta orretan jarraitu nai dau.

Eztia emoten daben loraen liburu bat egiten dabil. Erle kontua sakon ikasia da. Ikasi eta erakutsia. Argentina'n, bera egon zan errian, ainbat diru irabazten dabe gaur eztiagaz, an abade zala bere ardurapeoei bizimodu ori erakutsi eutselako.

Jakintzarako liburu egokia izango da Irureun loraen zeaztasunak agertuko ditu, euren euskal izen, erderazko eta zientzi izenekin.

Baiña bildur da. Bein bere lanetako bat erakutsi ebanean, akademiku batek gainetik begiratu eta "au modatik pasauta dago" esan ei eban bere paperak alboratuz.

Erri euskera jatorrean idazten dau berak, sakon eta barrutik ezagutzen daben euskera bizian.

Jakinak jakin, ez dautsa leporik iñori emoten. Errukia lez artzen dau olakoetan eta ixildu. Eta lanean jarraitu.

Berastegi'ko kalean, etxe zar baten bizi da. Izenik emon barik ezin amaitu: Txomin Jakakortajarena. 75 urte. Ikastekoak kenduta, beste guztiak eta ondorengoak lanean eta euskal ametsetan.

Deia, 9-IX-82

BETIKO ERAGIÑA

Noraiño zaindu ete geinkez gure eskubideak?

Nun asi eta nun amaitu?

Oraintsu euskeraren eskubideko legea egin zan. Egin eta onartu.

Zorionak eskubideak eskatu al leikezanei. Eskatze alderako baimena egon lei. Eskubidea da. Baiña ta eskubide orreri zeñnek erantzun ba dago?

Egunotan Donosti'ko gertaera bat irakurri dogu egunkarietan. Gazte bat kalean artu, agiriak eskatu, arek bere euskerari eutsiz erantzun ez, ertzaiña bere aldetik berean, eta azkenean komisarian amaitu bear.

Zetarako dira eskubideak, besteak eurenari eta eurenara beartu nai ba gaitue?

Iñoiz jaurlaritzara deitu, adibidez, eta an be, esateko sailik euskaldunenean, Kulturean, ba dira erantzuten dabenak: mesedez erderaz egizu, euskerarik ez dakit-eta.

Ba dakit onela jardun bearrean egotean diranak esaten dakiela errua ez dala eurena. Baiña ze alegin egiten dabe egunekotzeko, beste gauza askoan lez "aktualizatze"?

Beraz noiz eukiko dogu eskubidea, zenbat denporako epea eukiko dabe, besterik ezean, tokietan dagozanak, gure eskubideei erantzun ona emoteko?

Azken nairik, testamenturik egin ete geinke euskeraz? Eta zeinek egiaztatze, ta nungo protokoloetan sartzeko, bear dan ezaupide eta legez? Legetasunik be emongo ete leutzake gaur-gaurkoz orrelako dokumentu bateri?

Euskalerrria eskribadu jatorren erria zan eta da. Danok dakigu. Or dogu Cervantes bera Santxo'ren aoz El Quijote'n esaten: Bizkaitar on lez, nai ta ez izan bear eskribadu on.

Eta aria egaletik erabilia: Zenbatak irakurri dabe El Quijote euskeraz? Eta zenbatak dakie "Don Kijote Mantxako" izenez BeiTondo jaunak jator euskeratuta dago-la be?

Goazen lengora: Zenbat eskribadu euskaldun dagoz? Edo ta eskribadutzako agiriak euskera jatorrez eroateko aiña zenbat? Ala ta itzulpenak egin bearke ete litzakez, eta zeñnek "Ofizialtasuna"?

Ba goazela legeak egiten? Egia. Baiña ze balio dabe legeak, egiterik ez ba dago?

Danok dakigu azken denporetan asko idatzi zala paperetan. Egiteak nun?

Bein ministru bateri zirikalari batek esan eutsan: Au ta au esaten dabe egunkarietan, au ta bestea zabaltzen dozue irrati eta paperetan. Baiña zure adiskide dan batek esaten dau batetik bestera ibili dala toki askotan, eta paperak esaten daben tokietan ez dauala esaten danik ikusi. Eta ministroak erantzun eutsan: Esan egiozu aker eta lapazorri oiTeri bidetan ainbeste ibili barik, bere tokian nasai egon eta egunkariak geiago irakurri dagiazala.

Emen be ez ete dira gauza asko boletinean geratuko, agintaritzaren aldizkarian **bastei Tuta** geratuko, beste egintza eta betetasunetan ezagutu ez igarri barik?

Betikoari eragiten diardugu. Egia. Baiña zoritxarreko egia beste au: Eragin eta eragiteko izango gareala eta gaitezala. Denporak lekuko, testigu.

Deia, 7-XII-82

BIDEAK ALKARTZEN

Bideak alkartzen, edo obe erraztuten esan.

Batasun bidea. Au bai. Euskaldunok jo ta su ekinbearra daukagu, len erabilten ez genduzan gaiki eta adierazgarri askori deitura zeatz, egoki eta alik ezagunena emoten.

Premiñarik ez gendunean, aske gengoan. Esana da bat, era batera edo bestera esana, eta bestea bear diran esaera eta zeaztasunak paperetan eta liburuetan idaztea.

Euskerale edo itzultzaille askoren akatsa izan da, berba egokirik billatu eziña euren zeregin askotan. Esateko, "recurso" dalakoa, baterako edo besterako izan zeaztu bearra dago. Or datoz recurso de alzada, de amparo, de apelación, de casación, de reposición, eta abar, euren deitura egoki eta zeatza bear dabenak. Ezin leiz danak "gora-jo" esan eta bardindu. Eta ezin leiz bakoitzak al dauan eran esan eta itxi be.

Modan dagoz ertzaiñak. Baiña onetan be ez-bardintasuna dago. Erderaz policia de estrados, judicial, municipal, rural, urbana eta abar erabilten dira. Euskeraz be zeaztu bear dira. Eta lekukotasun kutsuz erabiliarren, oiñarri batera jo bear.

"Polideportivo" dalakoz bete doguz inguruak. Zegaitik kiroldegi soil-soil danentzako erabili ez, "polikiroldegi"ka jardun barik? Ez al gara konturatzen degi azken "poli" ori barruan sartzen dauanik?

Esandako bateratzeko eredu bat Gasteiz'tik dator. Ez dakit beste izkuntz arduradunak zer esango daben. Bakoitzak bere aburuz jarduten oitu eta jarraituko dauanik ezin ukatu, gure giroa ezagututa. Baiña Gasteiz'tik datoiten eredu au benetan mesedegarri eta argi emole izango danik ezin ukatu.

"Agintaritza-Aldizkarietatikako hitz bilduma" deitzen da. Asko dira esaten dabenak agintaritzako euskerarik ezin dabela ulertu, gaitz jakoea. Askotan biurri izaten dala. Alaz eta ez da bardin esaeren eta esanbidearen ingurua eta it z soillen zeaztasuna.

Gaiñera kontuan euki, eta onetan asierako orrialdean be ala agertzen da, Agintaritzaz-aldizkarietan erabilitako itzen zerrenda dala, ez iztegia, egin dabenak arau indarrezko lez ez dabelako atara, erakus aurkezteko baiño. Onetan ezin ukatu egilleen gurari, asmo eta kaleratzea txalogarri diranik. Eta askori, geienoi, argibide emon eta izango jakunik.

Danok dakigu agintaritzako izkuntza berezia dala. Sailla dala. Liburu onen egilleak autortzen daben lez, elkorra eta latza. Baiña zeaztasuna eskatzen dauana. Or dabiltz lege-gizonak be, batez be eskribadu eta ingurukoak, gaur euren ardurak osotasunez beteteko euren euskal ingurua batu, orraztu, alkartu eta osotu nairik.

Onetan, askotan, gertaerak aurrea artu dauskue. Eta bear ba da gure ainbestean ain arin elduko giñan uste ezak. Eta guk, euskeran, euskaldun lez jokatu bear dogu. Gure sustrai eta emaitzez. Or dago kakua. Or dago nortasuna.

Edozetara be milla mesede egingo dauz euskal arloan, argibide baterako, orain agertu dan liburu onek. Orrela uste dogu.

Deia, 28-X-85

BIDEZ-BIDE

Oraintsu, adiskide bategaz Gernika'n nebillala, an bazkaldu bearra euki gendun. Kale estu bateko jantoki ezagun batera joan, "karta" eskuetan artu, eta alkarri geure poza erakusten gebiltzan, gauzak alaxe bear zirala-ta, janari guztiak euskerazko izen jatorrekaz izentatuta, beste izkuntzekin batean.

Neskatil gaztetxu bat etorri zan, guk an ipinita lez eztekiak eskatu eta... perdonen, no sé euskera.

Ea'ko batzokian, udaldian, kosteria egiten dabe bilbotarren kontura.

Alaz eta diru ugari erabilliarren, Bilbo'n bertan baiño euskera gitxiago entzuten da.

Bilbo'n, batzokietan, egunaren ordu askotan, bertakuak ez dira joaten eta inguratzan diranak euskaldun errietakoak izaten diran lez, noz-nai billatzen dira "alako lekuan" euskera egiten dabenak.

Baiña Ea'n, zorioneko Ia "Bilbo txikian", Euskadi bat enparantza deitura ipini dautse Angelutxu'ko etxearte aizetsu bateri, ametsez beteta.

Bataioko izen ori sendotu edo konfirmatuko ete da euskaldunen denporan?

Bolibar gaiñean Zenika (Zinke) auzoa dago. ZiaiTotzako fraile abatekin ez ei ziran lengo denporetan konpontzen bertakoak. Areik latíñez egiten eben; zinketarrak... heleneraz, gerkeraz?

Oraindik, beintzat, maite ditue an helenoak. Eta ori agertzeko, azken jaietako egitarauan be izki (letra) andiekin ipinten eben helenoak edo antzekoak ezik beste iñok astelenari, edo nai ba da astelehenari, emon ez dautsen deitura. Zinketarrek astehelena deitzen dautse.

Gorde egin bearko da egitarau ori, emendik urte batsutara, "antxiñako textoe-tan" alaxe erabilten zalata, gure semien semeak be erabili dagien.

Eusko jaurlaritzak, "mundialetan" Santi Mari'ren zelaiko zuzenbidea zala-ta errepidetan edo jaun-bidetan euki zitun oztopoen ondoren, bideetan ibiltea erraztu eta argitzeko asmoari ez dautsa laga nai izan. Ez gero!

Zorionak origaitik. Baiña orain, batxe eta zuloak bardindu baiña len, turismozko bideak izentatu, gidatu eta ezaugarritzen asia da.

Zoritxarrez, iragarkietan argi ikusten da, euren egilleak, erri-euskerarik ez dabela ezagutu nai izan, mapan be. Euskaldunok "turismo" ordez ba dogu geure berba ezagun bat: Txango. Eta txango-bideak izen polita izango zana, eta erraz esango zana, naiago izan dogu biurritu eta zaildu eta euskaldunok gaitz oguzten dogun era eta berbaz adierazi: Turismozko.

Zaartuaz batera burua zorabiatzen doakit, baiña Sabin Maixuarena ez eta zan guk abestuten gendun a: Ze ikusten dabe nire begiak... orain motzak sartuta, dana birrindu dabela?

Deia, 14-VIII-82

BIZKAI'KO SENDALARIAK

"Euskera, Euskal-izkuntza, beren gustizko Antxiñatasunagaitik, ez da bakarrik Euskal Jakintzarena, baita ere Izadi guztiaren Jakintza-ondasuna da".

Ala diño, oraintsu agertu dan liburu barri baten egilleak, bere sarrerako esanaldian.

Eta geroago, itz-aurrean: "Jakindi alorrean itz orokorrak erabilten diran ezke-ro, Bizkai'ko Sendalarien "Euskera Taldea"gaz kezkatuik gagozanontzat, Sendalarien iztegi bat antolatzeak (gure ele zarrean jakindi adarretan argitaltzen asi diran bezelako bat) gauza saila ez dirudi".

Gogoz asi dira lanean eta gogor.

Aurten, oraintsu agertu da lenengo zenbakia. Izena: Euskerazko Senda-jakindi izen saila (Terminología científica médica en euskera) Español-euskera eta euskera-español. A-B izkiak.

Zuzendari lez Jon Alberdi sendalaria agertzen da eta bere lagunkideen artean Francisco Iturriaga, Jon Hormaza, Bizente Ondarra eta Rikardo Uriarte.

Liburua Bizkai'ko Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntza'k lagunduta atara da.

Benetan liburu jakingarria da, ardura eta arretaz ikusi eta erabili bear dana, bertan agertzen diran berbak gure izkuntza jatorren egonarren, azken urteotan, urte gixtitan bastertu doguzan berben oiñarri ta jokera asko gogoratu eta zeaztu eragiten dauskuzalako.

Sendagintzan erabilten diran berba gakoak, giltzak (claves) datoz lenengo: atropia, célula, desprendimiento, actomia, ectopia, patia, plastia, síndrome, tosis, tumor eta abar, tartean batzuk lagata, eurei dagokiezan euskera jatorreko giltz itzak erakutsiz. Orrela, giltz orreik, beste berba askoren osotasunaren atea zabaltzen dabe.

Beste orrialde bear-bearrezko bat: "Lege izenak langilleen gaixo eta sendaldi agirietaz: Alta, baja, baja temporal, invalidez provisional... Noiz artuko ditu, eta aurrez, nork zabalduko ditu gizarte babesetarako, "seguro sozialetarako" emoten diran senda-agiria, osatze-agiri, epedun gaixoaldi, lanbiderako ezintasun, ezintasun-oso eta antzerako izenekin?

Ezin ukatu gure erria euskaldundu nai ba dogu, eguneroko zeregin diran gaixoaldiko gertaeretan be euskera erabili beariko dogunik. Noiz? Eskubideak onartuta ez dagoz ba?

Liburu onek kezka bat agertzen dau. Egunero euren lanean ekin eta atsedean ordeztu liburu au gertuteko egin bear diran azterketa, ikerketa, ikasaldi, parekatze eta abarretan lotute berberak, ordu, neke, ardura eta bizibideko atsegin askoren ukapena adierazten dau.

Ezagunak doguz len agertutako batzuk. Baiña Bizkai'ko sendalari oneik sako-nago daroe euren iztegia, batez be eritasun edo gaixoa zer dan azaldu eta euskal itza zeaztuten.

Euskeraren bizitzak nortasun bat eta osotasun bat eukiko ba dau, nai eta ezko dira onelako liburuak.

Ba dago osagilleei buruzko latinezko esaera: cura te ipsum. Eta uste dogu euskera osatuko ba da, euskera lez, berbera osatzen asi bear da, berberaren indarrekaz. Onetan Bizkai'ko sendalari "Euskera taldea"k euskaldunon adosa eukiko dau.

Deia, 14-XII-82

BULTZAGILLEA

Ba dirudi euskeraren arazoak eta egoerak gure erriaren gidariak kezkatuten ipini ditula.

Ez noa oraingotan Jaurlaritza maillara. Ez eta irakaskintza edo antzerako mailletara.

Eusko Alderdi Jeltzalea be, alako baten!, asi da gai au sakon aztertu naian. Utsune ori bete naian. Eta or sortu da, ortarako arduradun lez, nortasun bereziko aukeratu bat: bultzagillea.

Gu edozetan aituak garelakoan, laster asi da norbait zirikatzen. Lapiko txikia dogu beintzat euskaldunok, txikiegia, babak lapikoan sartu orduko gal-gal egosita ikusi nairik.

Ia bultzakari ez ete zan egokiago izango, bultzagille baiño.

Onetan nik esan neike bultzakari edo bultzagille deitu, eragille jatorra izan dedilla eskatzen dodala, gaur euskerak gure artean bear daben lako zirikalari asperbakoa. Euskeraren auspoa, beste berba baten esanda.

Ba dakit arduradun onen zeregiña ez dala jokabide bat edo besteren alegiñetan jardutea; ez dala euskeraren bideak landu eta jorratzea, euskerari ateak zabaldu eta aizetara ataratea baiño, jakiña, alderdi barruan. Antxiñakoen kantua gogoratuz, euskera plazaratzea baiño.

Onetan budatar monje buru-soil eta arpegi estu bat, ikusi utsak langille bete, jator eta fedetsu izango dana iruditu eragiten dabena aukeratu dabe Bizkairako. Galdakanotik Gorbea mendira aize billa joaten dakian bat.

Ziur nago zorrotz eta zentzuz eta artez jokatu bearrean aurkituko dala. Nik berari Inghaterran erabilten dan esaera bat gogoratuko neukio: Ez zaitez etsipenean jausi edo uste-bakotu, eta ala gertatuta be, ekin lanean. Ez erre.

Nik ez dakit alderdiaren lenengo denporetan jokabide batzuk zuzenak izan ziran edo ez. Baiña alderdiari esker, erdaldun jaio ziran asko euskaldundu zirala eta euskera ondo erabiltera eldu zirala, ori ukatu ezin neikena da. Eta ez etorri berba barri edo neologismo batzuen ez-egokitasuna maira ataraten. Berba bakarrak ez dabe izkuntzarik egiten, inguru guztiak baiño-ta. Onetan izkuntza bizitik jokatu bear dala esaten gatozanak geu gara.

Sekula ez dogu gaur aiña zentzu bako berba geiagorik entzun eta irakurri. Euskal senik bako esaera geiagorik irakurri. Iztegian lenengo datorren berba artu, "sentidurik" billatu barik eta aurrera.

Orrela agertu dira "trenen azpigonak", "combinaciones de trenes"en euskeratze garbia balitz lez, bat esateko. Orrela irakurri al izan da: Santa Polonia, sendagilen ugazaba andrea, erderazko patrona esateko, kontuan euki barik edonun be santuak zaindari edo gidari izaten dirala. Orrela errebertxatu, volver a violentar eta millaka

abar, euskal berbetan, alkar-izketan, sekula euskal kutsurik artu eta eukiko ez dabenak.

Edozetara be, euskal alegiña eskatuten dautsagu Aurrekoetxea gazteari, euskeraren mesederako.

Deia, 2-VII-84

DONIANEAK BIZKAIA'N

Toki askotan egiten da jai Donianez. egokiago esan leike: Nun ez da jai San Joanetan? Ez al da esaten eguzkia bera dantzan igarten dala egun onetan?

Parrokitako zaindari ez danetan, ermita eta baselizak goratzen dabe santu au.

Murelaga'n alai eta garrez gogoratzen dakie:

*San Juan Bagillean,
denpora ederrean,
edozein bedarrek usaiña dauko
Doniane goizean.
Da San Juan,
beti oi zaukadaz goguan.*

Bernagoiti'n (Euba'tik zear gora joan eta mendi gaiñean billatzen dogun Zornotza-aldeko auzo polit eta txukuna da au), an san Juan bezperan umeak kantari ibiltzen dira era onetan:

*Gaur dala, biar dala Doniane,
etzi san Juan biaramone,
gure soloan lapurrik ez,
ba dagoz bere, erre beitez.*

Andik Berriz-aldera biurtu ta Garai-ingurutako mendietan kanta esangarri ederrren oiartzunak belarrietan sartuko dira:

*San Juan, san Juan,
nik ez daukat besterik goguan:
arrautza bi kolkuan,
beste bi altzuan,
artoak eta gariak gorde,
lapurrak eta sorgiñak erre.*

Sorgiñekin gogoratzen? Egun onetan ainbat tokitan ez ditue geldi lagako:

*San Juan, san Juan eldu da,
sorgin-begia galdu da,
galdu ba 'da galdu bedi,
sekulan agertu ez ba'ledi!*

Ikusgarri da Itxasou-aldean il onetan egiten dan "keriza-eguna". Ainbat bestaldeko anai batzen dira egun onetan; bear bada, gure errietan keriza-zuatzik geien daukan erri orretan Baiña Bizkaian be frutu ori gogoan eukiten da egunotako kantetan. Natxitu eta ingurutan abestutzen diranak gogoratu:

*Gure ortuan ginda lorea
san Juanetako eldua,
san Juanak baiño lenago
gure usoak batua.*

Edo ta beste era onetako au:

*San Juan, san Juan goizean
atsoa gindaren gaiñean,
agurea azpian negarrez
il eztaiten bildurrez*

Batzuk kantari. Ta besteak?

Elorrio-inguruan amak ez dautse alabei, eguna etenda gero, ordu askotan lotan lagaten. San Juan egunean goiz dabilena, ala ibilten ei da urte-buruan.

Zeanuri'n amonak illea ebagiten dautse illobei, gero ondo garbitu ta orraztuz, Osasungarri ei da. Egun orretan ulea ebagi ezkerro, gero bardintsuago azten ei da.

Edo ta San Juan goizean ebagiten dan bedarra, beste inguruko egunetan ebakia baiño gozoago izaten dala esango dabe bestetan.

San Juan! Zenbat esateko, san Juanez! Baiña... au egia: "San Juan nekez etorri ta arin jua". Kontuak esateko be denpora barik.

Diario Vasco, 20-V1-76

EGI BIDEAN

Alderdia, Euzko Alderdi Jeltzalea, egitsua danik iñok ez dau ukatuten.

Asko dira bere lankideen artean egi izena edo deitura erabilten dabenak: "Egizale", "Egiandi", "Egieder" eta abar.

Bere seme gazte Egi, baita.

Eta egizko garaitza bear ebanean, Garaikoetxea atara dau, izenak izana jatorrizko dabela-ta.

Ezagutzen dodan euskaltzain bat, erromatarren garaia buruan darabillala bizi da.

Beretzat, euskeraren asko, geiena ez ba da be, erromatarretatik datorrena da.

Besteak berba batzuen sortzean nun billatuko orduak igaroten dituen artean, berak, "alaxe bear dalako", erromatarrekana jotzen dau. Gorosti lako gogorra da onetan. Auntzak mendira jotzen ei dau eta gorostiak be gorostia maite.

Garaikoetxeak ba dau bere sustarretan garaitzaren zerbait. Ba dirudi bakoitzak aurrez ekarten dabela bere ikurra eta bere zeregiña. Arraiñak itxaso bear daberen lez, Garaikoetxeak be garaitza bear, edo artara jo bear.

~~*

Poztu bai, baiña ez gaitezen lotan geratu.

Erri filosofia zurra da. Urtetan sakondua. Eta adarra joteko nai bildurra uxatzeko, ba daki luze ikusten, unerik itsuenetan be.

Irabazteak, garaitzak be, nasaitu bearra ekarten dau. Kantuz eta egitez.

1926 urtean ondarrutarrak Donostia'ko arraun estropadetan irabazle geratu ziranean, ba euker zer esan.

Sekulako poza artu eben nire errian. Eta auzo errietara zirikadaka be asi ziran. Baiña zirikadak izanarren, norberetzako deia be ba zan. Alaz eta lotan ez geratzeko oarra, abisua. Besteen adi egoteko, zur.

Bertso askoren artean onelako au kantaten eben:

*Donostiarrek asi dira
babaurrunak jaten,
datorren urterako
indarrak gertuten.*

Zirikada, olgeta batetik, baiña geroaren kontu eukiteko deia be bai.

Etxahun-Iruri bertsolaria, "Agur Xiberua"ren egille azkarra, Zubero'ko kantore andi ta ugariena, Donostia'ra joan zan bein, orain dirala sei bat urte, dantzari talde bateko txirulari.

Eta oi eban lez, bertsoetan laga zitun inguru arek berari sortutako gogoetak.

Bere "donostia'ri kantuan", onelako bertsoen amaierak irakurten dira:

"Zer balio du edertazunak ez ba da libertatia!"

Eta beste au, beretzat siniskaitza:

"Posible deia ba diren martirak leku maitagarri ortan!"

Alderdiak be, andi eta garaille, bere utsunak agertu leiz uste baiño lenago, gu, berari autarkia (botoa) emon dautsagunak gure kemen eta indarrez, gure zinzotasunez, oraingo garaitza sendotu eta egiztatzen alegintzen ez ba gara.

Gerra eta guda berbak german izkuntzatic ei datoz. Guda... ez ei da erabilten ain zuzen gerratzat, gerrako jokaldi lez baiño, konbate bat, batalla bat lez baiño.

Beraz gure legien gerra onetan guda bat irabazi dogu. Baiña gerraren erne-miñik ez ei da gainduten, zuzentza eta biotzez jokatu ezik.

Onetan, gerralari izan ez da be gudari gareanok, ba dogu zetan oiñarritu asiera emon bear dautsagun bide barriko ibillaldian.

Euskaldunen erria eratzen asi gaitez. Eta zintzo jokatu.

Naparroa'ko adiskide bat zorion emole neban atzo bertan.

Aren zorionak artu eta "Santxo Azkarra" pastoralean entzuten dan kantuetako bat gogoratu erazi eustan:

"Primaderak goxo dira Nabarrako bortietan...

Iturriño baten aldean bi biotz amodiotan..."

Zorionak ondo dagoz. Baiña noiz ezkonduko ete gara?

Deia, H-III-80

EGUNA BA DATOR

Aurtengo auteskundeak egun izendatua dauke gure egutegian: San Simon eta San Juda.

Danok dakiguz egun onetako kantu zarrak.

Atsegiñez abestu eta entzuten dira bazterretan.

Beste aldetik esaerei begiratu ezkerro, egun au neguko egun illuna izan leike: "San Simon eta San Juda, negua eldu da" esaten dau batek.

Esan nai bardiñean dabil beste bat, baiña eguraldien menpe bizi bear daben artzaiñari errukia artuta: "San Simon eta San Juda, uda joan da ta negua eldu da, artzai gaixoa galdu da".

Otzak eta edurrak datozalako? "San Simonetan kapa zuria mendietan" erakusten dau beste batek.

Ba dago itxastarrekin gogoratzen dan esaera be: "San Simon eta San Judaetan, ontziak ankoraetan".

Ankora berba ori ez dakit euskalduna ete dan. Nai eta nire adiskide J. Goitia'k esan "kendu, asteko, ganeko jake-narrua, gero elaztikua, gero alkondara eta gero agertzen dan atorrea euskerazkoa dala".

Itxastar eta arrantzalien artean ez da ainbestean erabilten ankora berba ori. Aingura dala dirudi berba jatorra. Edo ta aiT-ainkila. Ondarrutarrak arlanka, ezpai barik len esanaren biurpena.

Ba dirudi gero izen ori oituraz zabaldu eta nasteen erabiliarren, arlanka ori arriz egiñiko arri-uzta edo arri-lotze'tik datorrela. Burdiñazkoa izatean, aingura.

Euskaldunok euki genduzan aingura lantegi ospatsuak, batez be Gipuzkoa aldean.

1739 arte aingura andiak Holanda'tik ekarten ziran. Ez ekien emen indar aretakorik egiten. Bein urte orretatik asita, Gipuzkoa'n bertan amazortzi aingura lantegi billatzen dira, geienak Aia, Billabona, Ernani, Errenderi, Lasarte, Tolosa, Urnieta, Usurbil eta ingurutan.

Dana dala, gu ez goaz, gaur beintzat, "atraka eta fondo" egitera onetan.

Aurten, egun ori, ez da etxean lotzeko, norbere eritzia emoten kalera urteteko baiño. Au da, arlanka jaso eta gure erriari komenien jakon bidean ibilteko baiño.

Euskaldunok jai zale gara eta tripandi. San Martin ospatu nai izaten dogu. Bete beteko eguna. Baiña ortaz be euskaldun zarrak esaten ekien: San Simon eta Juda zerekin San Martin arekin.

Ondo dator aurtengoz esaera ori.

Origaitik gero egun onak igaro al izateko, San Simon eta Judaetan zelan portatu garean gogoratu bearko da.

Ezin lei estadistika eta aurreko azterketak irabazpide erraza emoten dabela ta etxean gelditu. Eginbearra danona da. Eskumatik ezkerrera.

Ezin lei, ez eta be, txikikeri batzukaitik, norbere abegiko alderdiari botorik ukatu. Dana dalakoari.

Auteskundeak jokabide nausi baten aurre-eredu lez izaten dira. Gero dator barriro gure ekiña eta gure etena, guk, gure jardunean, erabideko, eskubideko eta zuzentzadun uste doguzan naiak agertu, erakutsi eta lortu arte jo ta ke alegintzeko denpora. Orain elburu nausi batzuk lotu bear gaitue. Guretzat eta erriarentzat mese-degarri izango diran ukatu eziñiko elburu nausiak.

Deia, 22-X-82

EGUNOTAKUAK

Egunei dagokien gaien bat argitaratzea nai izaten dot tartetan.

Nire fitxei begiratu eta 1936 urtean, Urri oneko 9an, gure jaurlaritzaren boletiniaren asiera billatzen dot.

"Euzkadi"ko Agintaritzaren Egunerokua" deitzen zan gure agintarien egunkaria.

Berrogetak urte geroago, lo luzetik esnatu ginanean, oker edo zuzen Euzkadi sortu zanari kendu eta sartu geuntsan, eta Euskaltzaindiari berari be tranpak egiten ikasi gendun, euskeraren droga biurtu dan hatxisa sartzeko. Konsonantearen ondoren h'rik ez dala erabili esaten asi ordukoxe, Euskalerra berba eten gendun eta agintarietatik asita kontrabandoan asi, droga ori baimen guztiekin sartu eta zabaldu eragiteko.

Baina auteskunde denbora da. Txikikeriak alboratzeko garaia, beti be eskubi-deak zapaltzea kontuan euki barik, eta gai au, sortzez illun dan gai au, egotez argi laga daigun.

Indarrak batu daiguzan nai ta illeak kizkurtu edo ta buru-soil geratu. Urrengo baten elduko jaku gure jokabideari eskertzat uste ez dogun eskupekoren bat.

Egunotako egutegiak, beste gai batera eroaten nau.

II onen 11'an, 1642 urtean, Saint Cyran il zan. Eleiz gizona. Eleiz erakunde batzuk, gaur Opus Dei dalakoak lez, eleiza barruan eukiten ditue eta izan ditue euren areriorik andienak. Saint Cyran euskalduna zan, baionarra, eta beste euskaldun baten erakundearen arerio zital izan zan, jesulagunen arerio. Era guztiak billatzen zitun Lagundi onen aurka jokatzeko. Eta ez zan eleizaren arerio, ez gitxiago be.

Kontun euki Richelieu kardenal andiki eta altsuak, zortzi bidar gitxienez eskin eutsala obispadutza bat, baiña berak, Jansenioaren adiskide zintzo arek, sekula ez eban orrelakorik aintzat artu.

Richelieu berbera izan zan, urte batzuk geroago, Jansenio il ondoren, Saint Cyran kartzelan sartu ebana. Eta bost urtetan giltzapean euki.

Orrelako gertaerak ez dira erriak ezagutu barik igaroten. Gaitz izaten da. Origaitik zabal ibili zan Frantzian esaera au: "Frantzian santuak kartzeletan euketzala eta obispoak teatroa egiten".

Ikusten danez argalkeria, gizon-txikikeria, beti ezagutu izan da gure gizarteko mailla guztietan. Eta, zoritxarrez, ezagutuko be.

Gure gizaldian bertan, 1903 urteko Urrian, Begoña'ko Ama Bizkai'ko zaindარი lez ospatzeko eratu eta egin ziran jaietan, gure errietatik Bilbo'ra joan ziranak ezagutu zituen lez, etenbako ostopo, bidebagekeri, indarkeri eta itsukerien artean.

Orduan be ba egoan zerbait gure Bilbo ketsu eta lainotsuan. baina areik be partatu ziran, aztu ez, eta guretarrak oraindik gogoan dauke orduko abestia:

*AndraMari Begoñakua,
Euskal erriko gloria,
zure egapean artu egizu
euskaldun gente guztia.*

Deia, II-X-82

EGUNOTAKUAK

Garaian dago garaiko.

Tokiz eta giroz.

Euskal etxeke garaian, jakiña.

Kristo'ren urtetarako bat falta lagunetan.

Ez ete da agertuko etxeari lotsa zainduko dautsanik?

Soka-tira ibili bearko ete gara etxe barruan?

Batzuk diñoe eztiketa edo indiziñoren bat artzea komeniko jakola.

Orain arte ez da izan bera botika zale.

Izadiak berez emoten dauana artu ta kittu.

Baiña bitaminak artzea noizbeinka ez ei da txarra izaten.

Ori be ikusi bear. Askotan gogoak geiago egiten dau. Batzeko ta banatzeko.

Gu txiki giñala, bakallauaren gibekeko olio artzera beartuten ginduezan. Eta batzutan kalte geiago egiten euskuen artzoko negar eta zalantzak, bere ontasunen onurak baiño.

Gure artean, ezagutu barik, osasun bedar onak egon leiz. Bai eta ezagutzen diran kutsatuak be.

Edo ta indarra galdutakuak. Perretxikuen artean be egoten dira urdin ederrak, baiña tartetan urdin lako ikusgarriak ba dakie maltzur izaten.

Bai ni lako agureak be, azala eder eta barrua ustel.

Alaz eta ba dira Alderdi onak.

Jainkoaren legez indarrari eusten dakienak gizonen mesedean eta indar barria zabaltzen dakienak errien onuran.

Etxe andirako gallurragaz batera, tenteko edo eusteko aga sendoak noiz-nai ataraten dakien alderdiak.

Gallur ona bear dau etxeak, tellatua zuzen egon dedin. Baiña bai egaleko eutsigarriak be.

Tartetako urak ez dira onak izaten.

Ba dakigu urarena. Tanta-tantaka zulatu egiten dauala aitza.

Edozetara be adoretu bearrean gara.

Egun larrien ondoren ba dator Egun Zuri edo Ostegun gizona. Geroago aratuzteak. Iñauteri baiño sartuago da Bizkaian aratuzte eguna. Ba dirudi gaitz egiten dauan kentzea edo lagatea adierazi nai dauala berba orrek. Zek kalte egiten dauan dakian erakunde baten aolkua da. Orrela etxean be.

Ezagutzen dogu lendik be gure etxea. Ba dakigu lustrea emoteko zelako ola daukan eta zelako adarbegiak olean. Ba dakigu laztasunak nun daukazan. Origaitik gertaera eta gertuera onean gagoz barriro bera eroaten ekiteko.

Ezaupideak gogoa biztu eta argitu egiten dauala esaten da. Bizi erdi dala. Ez da indar makala gogo ona.

Erriaren arnasagaz datorrena, obeagoa.

Lau urte, lau urte barri, zer barriztuteko?, iñoztan andre batek.

Ai ene! Ez giñan danok ibili Garaiko garaitzekotan?

Gurea da aren garaitza sendotzen jakitea. Asi gaitezcan jokoan. Eta ez adar topekan.

Deia, 29-11-84

EKAITZA

Gure azken gudako egitada batzuk gogoratzeko oitura daukat.

Aurten, il onen 5'an, ez neban betarik artu gure itxas gizonak 1937'ko egun orretan euki eben itxas gudaketa bizi eta odoltsu bizi erazteko. Penatxoa euki neban.

Itxasoa sarri da ustebako barrien emole. Ez neban pentsatuko, orraitik, gure gizonak ainbesteko erasoaldirik artuko ebenik, egunotan artu daben aiñakorik.

C.E.E.ko erabagiak iñori kalterik egin ba dautse, euskal arrantzaleak sartu leikez aurrenengo maillan.

Gure kaietako gintza eta bizi-modu guztia bera ekarteko eran artu ziran neurriak.

Neurri orreik, lengoari kalte barik artu izan ba ziran, gerorako jokabide barri bat eratzeko luzera begiratuta, ez eben ainbesteko kalterik egingo, eta euren arrastaka eiTezago artuko zan.

Baiña nekez eta izerdiz eta zorretan egiña egoan erakunde bateri estuntzak ipini ta kateak leporatzean, barruko beste gai asko eskutuan lagata, bizi-beaiTaren kezka, ardura eta ittotasuna agertu ziran bereala azalean.

Gero, egin diran artu-emon eta itunak, urtetik urtera estutzen eta txikitzen eto- rri dira.

Ainbat orrelakoak, itxasoetan muga barik ibilten oituta egozan gure arrantza- leak alboratuta lagaten zituen.

Eta gosea asmotxa dan lez, gure gizonak, bizibidearen premiñan, arnas artzeko aoa nun zabaldu ibili dira, ez beti aize garbitan, ez eta ur baketsuetan be.

Orrelakoetan oi dana, batzuk, baimendunak, neurri estu batzuen artean be, zela- ala, euren alegiñaren beian, nasaitxuago ibili al izan dira. Baiña eta danentzako aiña ez egoalako baimenik barik gelditzen ziranak, zer egin?

Beste edozeiñek egingo leukena. Ogia irabazteko "pekatu" egin bear. Batzutan onez, bestetan zirika, urrengoetan mozolo lez, bestetan lotsagabetuta. Batzutan gabaz, bestetan jai egunekaz baliatuta, iñoiz ekaitz egun gogorretan itxasoaren asti- ñaldiak artuta, beste askotan zaindarekaz txakurtu eta arpegia emonda. Au da, itxastarrakaitik beti esaten dana eginda: biziagaitik bizia amskatuta.

Arrantzalien problema, osotasun baten au da: Itxasoetan libre ibilteko jaiio eta onetan oitu ziran gizonak, ordezeko ezelako laguntza eta egokitze barik, erbesteko errialde batzuen aginduz eta erabagiz, euren bizimoduak etenda billatu izan dirala. Eta urte baten edo bitan konpondu barik, urtetik urtera euren aukera estuago eta jazartuago ikusten daben lez, urten egin dabela al dan tokira... eta batzutan erbeste- ko aginduen zaintzallien erea bigunagoak minduarren lepoan artu al izan ba dituez be, oraingotan edozein lapur eta gaizkille lez artu, eta indarkeriz, izkilluz eta gerra- ko legez erabili dituela, gizon berberak il-zorian ipiniz.

Eta orrek errien begirapena eskatzen dau.

Ondo dagoz neurriak, datozenak gerorako baiTÍ eta lotsa euki dagien. Baiña lendik dagozanak eta dabilzanak, beste erabide bat eskatzen dabe.

Eta ori lortzea ez dan artean, berriro be gertatuko dira itxasoan era bateko edo besteko erasoaldiak.

Deia, 15-111-84

EKIN BARRIKO

Azkenengo lana idatzi orduko barriro "Hezkuntza" Saileko agiria zeaztutera nua.

Aurkezpena alboan laga-ta, iru zatitan dator banatuta gure "pastoral" bedein-katu au: Erizpide Nagusiak, Orientabideak eta Baliabidea.

Erizpide nagusietan zazpi datoz.

Nik irizpideak baiño beranduko autortza lez iruntsi dodaz. Lenengotik egin bear ziranak dira, Autonomi araudia artu ordukoxe egin bear ziran autortzak.

Euskera euskalki bidez geienetan erabilten dala esanez, au diño: "Euskalki horietako nagusi bat, biltzen duen hiztun-kopuruaz eta bere baitan ageri dituen nor-tasun-ezaugam berezi lez, bizkaiera da". (1.1)

Irugarrenen: "Euskara batua neurri handi batean erdialdeko euskaldietan oina-rrituta dagoenez, bizkaieratik eredu bateratu horretarainoko tartea handiago da Autonomi Lurraldeko beste bi euskalkietatikoa (gipuzkera, nafarrera), baino. (1.3)

Geroago: "Kaltegarri iruditzen zaio, orobat, bizkaierazko azalpen emankizun desberdinak arlotekeria, ezjakintasun eta gizarte-uren kontrako grina itsuen seme bailiran hartzeari. (1.6)

Baina zek zuritu dau Hezkuntza Saila, len esaten eta sinisten ez ziran esaera orrek egitera?

Ba dira "kompromezu" politikoen bat bitartean dagola uste dabenak.

Begira zer diñon Jakin aldizkariak, 1982'ko urria-abendua zenbakian, 25 garre-nean:

"Bizkaitarrak barriro".

"Bizkaieraren orduak jo du nonbait".

Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia, Bizkaiko bertako zenbait indar eskutik doaz bizkaieraren aldeko operazio berrian.

Aipatu diren arrazoiak ez nituzke zelantzan jarriko. Geuk ere alderdi pedago-gikoak, metodologikoak, Jakin'en bertan aipatuak ditugu. Eta kexatu ere egin gara bizkaierak guztion euskarari eman bear zion adina eman ez diolako.

Hala ere, oraingo operazio honek ez nau, arras betetzen. Kompromezu politikoen usain gehiegi hartzen diot. Oker ote nabil?

Are okerrago.

Zuzen ba nabil behintzat, oraingo hau euskera batua/herri euskera delakoaren sokatira horretan aldi bat besterik ez da, bigarrenaren alde oraingoa. Beste zenbaitentzat, euskara batu "kaltegarri", "madarikatu", "euskeranto", "el batua" delako horren aurkako borroka luzean, herri-euskera jatorraren defendatzaileen garaitzape-na. Hautentzat, pedagogi argumentuek ez dute piperrik balio. Eskubide harazoa dago tartean, hautentzat. Bidea bakarrik ez, helburua bera da onartzen ez dutena. Ez naiz

buruz ari. Froga aparte dugu A. Zubikarai bat". (Eta DEIA'n, 1982-10-28'n agertu neban lanaren zati bat dakar).

Eta jarraitu:

"Zaharrak berri. Lehengora gatoz: Bizkaian bizkaieraz, Gipuzkoan gipuzkeraz et ita porro. Eta Euskal Herrian gaztelaniz, azkenean". Joanes Lekerika da izenpe-tzen dabena.

Nik esan neikena au da: Guk, gure jokabidean, ez dogu "konpromezu" politikorik billatu. Jakin dagiela jakin bear dabenak. Iñok ez dau ikusi nai gu, inoren aurka ibili barik, gure errialdeko euskeraren egoera zaintzearren zintzotasunez jokutzen diardugula, eta jokatzeko asmoa dogula. Eta beste inok egin ez daben alboratze asko egin bear izan doguzala. Ori be geuk bakarrik dakigu.

Deia, 30-XII-82

EREÑO'KO ARRI GORRIAK

Ez dakit bitarteko zer dagon, baiña mingarri da Murelaga'tik Nabarniz'era bide zuzenik ez egotea.

Narea auzora igo naiz Murelaga'n. Artzaiñak eta artaldeak. Polit eta aizetsu egiten da Narea. Bertako tabernaren aurrean garai zar bat dago.

Baserrri ederrak inguru onetan.

Eta Nabarniz'erako bidea?

Nabarniz'tik ia bertora etorri ziran bidea zabaltzen. Ostoporen bat eta orra auzo diran erri biok oraindik alkartzeko. Ainbat km. egin bear beste aldetik. Narea'tik Murelaga'ra, gero Munitibar'era jo, andik Arratzu'ra eta oraindik ere aurrerago beste ia zortzi kilometro Nabarniz'erako. Bidean Gernika'ko samar tokia. Keia ugari eta erre usai garratza.

Alboan lagaten dot gaur Nabarniz. Beste baterako. Zerbait aurreratzen da Ereño aldera, Gabika'tik zear, bertan sartu gabe. Tartetan, urrun, Ereño'ko parrokiaren arrizko ormak gereiza egiten igarten dira.

Len ez gendun aukera bat dago gaur. Len Nabarniz'tik Gabika'rako biderik ez egoan. Gaur bai. Orrela, baserrri ederrak ikusten, piñu eta zelaiak alde banatara, Gabika'n sartzten gara. Legez Ereño'n gagoz, errialde au Ereño'ri dagokiolako.

Gabika. Buztarriga mendiaren oiñetan. Etxe pillotxo. San Juan izenoko elei-

za. Parrokia. Ez da aundia. Kanpotik txiki dirudi. Bertako baserrientzat egokia. Eun eta ogei lagun inguru bizi dira emen.

Eleizpean dagon atso bateri itaun bat, galdera bat:

- Iñoiz entzuna daukat, emen, Gabika'n, bat ilten danean, beragaitik Aita gure bat errezaten dala eta urrengo ilgo danaren arimeagaitik beste bat. Egia al da?

- Ori gizonak egiten eben enterrutako bazkaritan.

- Benetan?

- Gauza txarra al da ori? Mundu guztia ez dabil ba aurreratu egin bear dala-ta?

- Ainbeste premiña al dozue emengoak?

- Ia gero zeuk baten ordeztu bi bearko dozuzan!

Gabika'n ez dago arantzik... mingaiñetan.

Laster ikusten da auzoa. Eskoletxea aurrean. Egur-zerra. Bere ondoan Arroategi. Baserriak ba duaz, emen ere, ustuten.

Aurrera guaz inguru txikiak ikusten. Sei zortzi etxedun auzoak.

Akorda. Baserri eta borda. 60 bizilagun. Etxe zabalak. Emendik laster beste etxadi bat: Bollar. Gernika ingumko abizen askoren jatorria.

Gerotxuago Zeas. Tximiniak keiaz. Gaztelu'ko garaixa, gaur, igarri be ez da egiten Aldatz gora txiki bat eta Ereño aurrean. Arri gorrien erria. Emengo arri gorriak, marmol gorriak, edonun dira entzute aundiko. Or dauke bertakoak ogi bidea. Bertako sasoikuak. Gazteak beste zerbait erotsu eta egokiago nai dabe. Origaitik gaur arriola eta kanteretan dabilzanak, geienak zaarrak dira, edo sasoiko gizonak, gizon egiñak.

Txikia da Ereño'ko eleizaldea. Eun inguru lagunez. Zazpi auzoen artean 450 lagun danetara.

Ia eun urte egin ei zituen bertoko parrokia egiten. Fede zuria, arri gorria landu eziñik! Aldarean erri-giroa igarten da. Erriko marmolari omen egin nai izan eutsan Belaunzaran arkitektoak. Eta korintiar erako tentekoak, baiña bertako arriakin egiñak. Eleiza ta kale, naita ez, arri gorria ikusi bear Ereño'n.

Goietan, Gernika'alde guztira begira, Ereñozar. Kanpotarren esanetan errezago da bertara joatea, urrun egonarren, emengo abizenak esatea baiño: Aldamiz-etxebarría, Gabikagokeaskoa, Agirregomezkorta, Zenikazelaia...

Orra Ereño, gain gaiñean. Zar eta barri, erri eta arri, beti giro bardiñean.

Diario Vasco, 28-111-76

ERMUA'KO ARRAUTZAK

Ermua'n artu eta ikasitako kanta da:

*-Ama, ezkondu
gazte nagon artean.
- Neure alaba, ezkondu teko
ez daukat ezer etxean.*

Esan nai onek atzera begira lotuten nau. Ermua txiki zan denporetara. Guk eza-gutu gendun Ermua polit, jator nasai eskubetekoa. Oraindik Udeta, Urko eta Ongarai'ko arnas garbia artzen zan aldikoa. Ez dira urte asko.

Baiña Ermua'k industriagaz ezkondu nai izan eban. Zeatzago esanda, Eibar'ek eskatu eutsan ezkontza ori. Artara beartu. Ermua'k ez eukan ezer etxean. Eta orra zetan geratu dan. Azkenean ama berak ere, libe-bea egiteko ezik, ez agintzeko eran.

Norbaitek gogoratuko leuke, luzera jota:

*Amak emon ba leutso
etxeko lotsea,
ez ebala galduko
urrezko poltsea.*

Erraz esaten da. Batu zaite etxean urtean pareka eta irunaka illobak ekarriko dautsuzan errain umegiñekin eta eutsi. Emen bai ez dabela balio esakera arek: "Zurekin ogia eta tipula". Ezin eutsi enbido orreri.

Orain eun urte, 632 bizilagun. Oraindik artu zeinkeen entzutea, gero sukaldetako liburuetan famako-lez izentatzen diran "Ermua'ko arrautza prixiduak". Beste 60 urte onuntzago ten eginda ere, danentzako egozan.

"Ermua'ko arrautzak". Ez da gaitz gertatzea. Orio eta berakats txikitua sartan ipini eta bertara azala kendutako tomateak zatituta jaurti, gatz eta azukeraz igortzi eta tomatea zapaltzen erabili, ondo egiteko. Berenxenak zuritu eta biribille-an ebaki. Gatza emon eta amar minutu laga oriotan, brixidu aurretik.

Labako ontzi batean tomatea gertuta euki. Arrautzak orio ugaritan brixidu, zuringoak urrekolorea artu arte eta gero tomate gañean jarri. Inguruetan berenxenak, eta arrautza bakoitzaren gañean urdai-azpiko zatiak. Ondo berotutako laban minutu batzutan euki ta mairako gertu.

Orrela zainduten ziran ermuarrak euskal-koloreko. Eta, eskuz, nai zeztuz naiz palaz, pelotarien artean ermuar eskola zaindu eta goratzen ibilteko garrez egunero esnatu.

Gaur? Lengo lagunak iru millatara geitu ziran 1960 urtean. Amar urte geroago bost bider geitu. Oraindik geitzen. Ogei millako erri, orain ogei urte, milla osta-osta eukazala. Ondorenak agiri agiriko: Buruasteak, etxe, eskola, ur, kale, bide, osasun aldeko... Aziketa eta eziketako problemak. Len ez ekien dokumentuetan irakurten

"villa terrera" edo "villa ferrera" zan. Biak eukazan eta bardintsu zan bietara jokatuta. Gaur, erri txeratsu, "biozkorra deitzen asi yako batzuk. Biotzeko malkoak ezkutateko?

Ermua, Bizkaiko mugan, eratasun askoren muga biurtu da. Eta osatzen gaitz. Alkar jotzen eta alkar jaten jaso diran etheen artetik nekez gogoratu eragingo dabe esakera zarra: "Ermuan seda barriz mutillak dantzari, neskak konbidetako libre maspasea".

Diario Vasco, 21-111-76

ERRENTA URTEA

San Martin eta Santo Tomas dira baserri askorentzat etxe eta inguruen errenta urte.

San Martin jaiak, ospakizunak, toki batzuetan udara aldatuak izan dira. Baiña jai barik be eguna gogoratuko dabe eta jatorduetan ospatu.

Zelako giroa, alako geroa. Eta giro ona ikusita arrantzaleak be ba ekien besigutarako urteera edo asiera amabost egunez aurreratzen nai eta Santa Katalina noiz da, besigutarako goiz da, esaera ezaguna, zabal ibili. San Martin egun au aukeratu eben iñoz sasoi orren asieratzat.

Baserritarrena ba dakigu: San Martinez, buzkantza jan bear da nai ta ez.

San Martin ereintza mugatzat be ba dauke, barazki batzuentzat. Berakatzak, esate baterako.

Ortaz be esaera polita dago.

Danok dakigu basenitar eta laborari askok, eurak erein edo landutako azi eta zugazkiekaz berba egiten dabela.

Iñoiz bakartade sakonean ibili eta berbaroa sentidu izan dogu. Inguruetara begiratu ta an andre edo gizona igaliei (frutuei) edo lorei berbetan. Orrelako gertaeren batetik artua da esakera au: Zegaitik geratu az orren zistrin?, itandu, galdetu eutsen bein berakatzari. Eta berakatzak erantzun: San Martin aurretik ez ninduelako erein.

Gure zarren egutegia, santutegi geiago zan beste ezer baiño. Santusanten inguru eta gogorapenetan egiten zituen euren eginbearrik nausienak, geienetan bakoitzaeren zeregiñik andiena, bizi-laguna billatzea, ermiten ingurutan edo kerizpean egiten eben lez.

Bizitzako eginkizun, premiña, jokabide eta jo-mugen ate-sare ziran santuen egunak. Eta beste jai, gertaera edo egun askoren giltz.

Begira: San Martin zerekin, San Roman arekin, ta Santa Katalina berarekin. Zortzikoa dala esan lei esaera ori. Zortzi egunetik zortzi egunerako bitartean dagozan santuen egunak gogoratzen diralako. Ala, amaikan San Martin; amazortzian San Roman eta ogeitabostean Santa Katalina.

Beraz lenengo astelen ba zan, beste biak astelenak. Lenengoa lanean, besteak bardin. Edo ta lenengoa jai gertatu ezkeru, besteak be jai egun.

San Martin'ek txarriekin dauka bere entzuterik zabalena, bere gozamina. Ala bertsotan be:

*Aitak etxerako diña
zuben oitura jarria,
ospatzeko San Martiña
eltzeko urtero txarria.*

Ezpairik ez egun au toki askotan senitarteko jaiak eta batzarrak egiteko auke-ratzen dana. Konbidantza eguna. Gaur galdu da oitura ori, baiña oraindik ba dagoz onelako egunei "garbantzu egunak" deitzen dautsezanak. Onelako egunak beti euki izaten dabe bere tena Euskalerrian. Konturatu jardun onetan:

- Martin, biar da San Martin.
- Obe genduke gaur ba litz.
- Ik zer diok Joan?
- Besteak joaten ba dira ni ere joan.
- Ik, Mikele?
- Besteak diñoena nik ere.

Orrela dala, gora San Martin kanpai andiekin. Eta errenta orde, norbere etxea obe.

Deia, 10-XI-82

ERRIETAKO ALDIZKARIAK

Aldizkari bat atara dogu Ondarroa'n.

Orrelako gauzak egitearen premiña dago errietan.

Erri guztiak kondaira (istori) bardiña dagulakoan gagoz, baiña ez da orrela.

Tarteka erri bakoitzak bere nortasuna erakusten dau gitxien uste dogun arazoe-tan.

Bermeo'k, Bermeo 1981 liburu ederra atara eban oraintsu. Durango'k "Ibaizabal" zabaltzen dau. Markiña be asi zan ataraten, baiña pot eginda geratu? Apaltxuago Mallabi be asi zan, nai ta azpaldi tonk eginda ete dagon bildurra artu eragin. Markinaldeko Etxebarri'k bere inguruan etenbarik zabaltzen dau ango abadearen ardurapekoa.

Len be, urte gaiztoetan, ezer esan ezin zan denporetan, euki gendun Ondarro'an aldizkari txiki bat: "Boga-boga". Etxe guztietan sartzen zan. Doan, debalde. Geien bat be alkar arteko agerpen txiki bat zan, erbestean egozantzat bizi giñanaren adierazpen bat.

Gogoan daukat, ataraten tarteko nitzalako. Eleizaren kapapean zabalduen zan.

Lenengo zenbakia 1950 urteko Dagonilla'n argitaratu zan. Eta beste iru urtetan ezin atara al izan gendun. Zergaitik?

Zenbaki aretan Ondarroa'n irureun etxe bizitza bear zirala esaten gendun. Eta erriaren onagaitik lan egitera beartuta egozanei deia agertzen zan, beste goraberei baiño etxe utsune orreri ardura geiago eskatzen, bizileku askotan iru famili alkarren gain bizi zirala-ta.

Eta orduan alkate zana asarretu egin zan, betoa ipini aldizkariari eta bera alkatetzatik aldatu arte, ez zan beste zenbakirik kaleratu. Iru urte joan ziren mutu. Orrelakoxe eskubideak artzen zituen agintaririk txikienak be, eureri azaleko ikutu bat egin ordurako.

Gero, barriro asi zanean, zirikadarik ez zan falta izan. Azpitik eta gaiñetik. Zetan egin bearreko ziran autortza eta aldezkuntza asko eragin nairik. Edo ta erria minduko eben gauzak esatera beartu naian, fedeko sinisgai itxura emonaz jokabide askori.

Lan egi eta bizia garrastu. Batzuntzat zuri, besteentzat gorri, baiña berderik iñorentzat ez eukalako edo ta oririk erabilten ez zalako.

Giroak bizi egin bear izaten dira, eta askotan, samur-samur iruntsiten diran janariak biotz-erre geiago irakinduten dabe, artu nai ez diran piper-miñak baiño.

Gaur bideak erraz eta labanago dira.

Aldizkari onegaz erriari bere lengo bizitzaren ezaguera emon nai da, bere edergarren kontua artzen erakutsi, eta geroari begira erri ederrago baten maitasuna biziten lagundu.

Mingarriena au da: Jantzi zoroetan, tio-vivoetan edo ta diru eroantzaille makiñetan millaka peseta emon eta miñik ez dogunok, onelako lan bat "iñoren patrikaratik ordaindua" izan bear danaren asmo eta guraria doguzala.

Baiña gure kultureari, erri-kulturea gogokoen dala, gure ardureagaz artu eta laguntzen ez ba dautsagu, ziur egon gure auzokoak ez dauskuela beteko gure utsunerik, zoritxarrez eurak be euren beteteko egoera bardiñean gertatuko diralako.

Gaur gaurkoz, eta beingoan bakarrik izango ez dalakoan, kaleratu egin gara ondarrutarrak gure erriaren izena eta izatea zabaltzen. Or dago "Ondarroa 1982".

Deia, 21-VIII-82

ESKOLA-UMEAK

Ume gitxi ikusten dira gaur eskoletara joateko negarrez.

Gure denboretan amaika egiten zan.

Eta amaika bidar eskola igesi, kale kantoietan edo zurruloetan ezin eskutatuta.

Erriko zaindarien zereginetako bat izaten zan eskola igesi ebiltzan umeak zela-ala arrapatzia.

Itxas-ertzean, bein egunak epeltzen asi ezkerro, sarri ikusten ziran txinelak (aguazillak) igarian ebiltzan umien jantziak lagatako eskututokietatik artu ta maixuari eroaten. Eta ume koitaduak euren tituloak erakusten, "matxin-plaka"en bateri irrika.

Gero geroak etxean eta eskolan.

Egia esateko, etxeetan ez ainbeste. Sarri umei baiño min geiago emoten eutsen gurasoei maixuen zapladak.

Maixu errukarriak be, batzen ziran ume guztiekaz, naiko zeregin eukiten eben mendetu al zituenei zerbait erakutsi ta besteei abeze edo dotriña gogoratu eragiten.

Gaur umeak ixillago, baiña ez ete dira mozoloago joaten?

Eskola urtetako umei buruzko jakingarri batzuk eskuratu ditudaz.

Biurrikeri, bildur, menpetasun, ezagutu nai-eza, ardurabakotasun, konfiantza, adiskidetasuna...

Gurasoentzako biurrikeria, esate baterako, amabi urtedun umeetan euneko 0,6 dana, amairu urtekoetan 3,4ra igoten da eta amaseikoetan 6,80ra. Beraz ikasi ala biurritu.

Menpetasuna, ostera, berantz joaten da. Amabi urtetakoetan euneko 28,9 gurasoen makur ezagutzen dira, baiña amaseikoetan euneko 16,1ra jeisten da euneko ori.

Aitari lotsarik eza amabikoetan euneko 2,1 tan ezagutzen dana, amaseikoetan euneko 13,2.

Edozetara be, batez beste onela geratzen dira zenbakietan:

Gurasoekin biurri diranak, neska ta mutillak batuta, euneko 4,7 dira. Bildurra gordeten dautsenak %4,2. Menpetasuna agertzen dautsenak %22,4. Lotsarik ez dautsenak %5,4. Konfiantza daukenak %33,8. Adiskedetasuna erakusten dabena %15,6. Mugatu bakoak, %5,1.

Neskak samurrago dira, etxekotiago, ama zulo.

Dana dala eskoletan, ezpai barik, gure denboretan baiño gaitasun ugari eta eukeratuagoak dagoz. Len letrak, askotan, makillagaz sartzen ziran, edo ta idizillagaz. Orain atsegiñez, olgeta-benetan, erdi jolasean.

Alaz eta len be ba egozan erakusten bigun ziranak eta gaur be egongo dira laster zolitu eta zitalduten diranak.

Eskola egunak. Pozik? Ikusi bear. Mutillen bateri itaun au entzun neutsan: la beste errialdetako umeak euskaldunak baiño popa zabalago ete diran. Areik kotxetan bakoitza bere jarrilekoan eta euskaldunak bitan iru sartzeko.

Beste norbaitek esan lei, ori dalata, ia euskaldunok besteak baiño pobreago ete garean.

Eta gu... askotan, etxekoak ezin eroanda, tatarrez joaten giñan.

Deia, 16-IX-82

ETETEN EZ DIRAN KATEAK

Egutegiari begira nabil; Orra kate bi: lana eta gerrak.

Ez dago egunik laneko buruauste, edo burukomiñik agertzen ez danik.

Lanaren aldetik, langille alderditik, nausien begitik.

Asteko berrogetalau ordutan gabiltz geientsu. Gero berrogei izango dira edo ta ogei ta amasei. Gizonak berea bear dau, ez dago ezpairik. Lanak be bere eskabide eta emon-bearrak.

Mugatu ete leike iñoiz eskabidearen neurrik?

Bear ba da Euskalerrian alderdirik garratz eta gordiñena, minduena. Bizkai aldeko meatzetan gertaten zan lengo denporetan.

Begira, nire egutegiko orri bat.

1890 urteko Maiatzaren 12'koa da.

Bilbo'n, "Orconera Iron Company" meatz lanetan bost langille kalera bialdu.

Biamonean beste langille guztiak opor egitea erabagi. Alaxe, Bilbo inguruan, ogei ta bat milla langille geldi. Eta konponketa egin bear.

Amabi ta amairu ordu egiten ziran lanean, eguneko. Langilleak geien be amar egitea eskatu.

Lantoki inguruko barraketan bizi bear eben langilleak, euren janbideko erosketak bertan egiñaz. Langilleen beste eskabidea zan ontarako azkatasuna, au da. bizi, nai eben tokian; eta erosi ere bai.

Konponketa barik egunak aurrera. Loma generala sartu zan bitarteko. Eta uga-zabekin eztabaida asko euki ondoren, au lortu zan:

Edonun bizitea azke zala, baiña lanerako orduak zuzen zainduta. Eta lan orduak onela ebatsi ziran:

Maiatzetik Dagonilla (Abustua) bitartean, eguneko amaika ordu.

Martia, apirilla, irailla eta abenduan, bederatzi.

Era onetan, amar eguneko oporrak eginda gero sartu ziran langilleak lanera.

Urteak geroago zan Donosti'n zortzi orduko neurria jartzea.

Juan Sarasola "Lexo"ren bertsotatik igarten da poza; bere denporetan ipini zan neurri ori. Gure gizaldian ondo sartuta gero. Ara bere bertsoak:

*Aurten mudantza berriya
Donostiyan da jarriya,
ordubetako neurriya:
zortzi orduan irabazten da
jornalaren ogiya;
argitu zaigu begiya,
au ez da txorakeriya,
ba zan zerbaiten premiya.*

Beste katea: gerrak.

Zenbat urte bear doguz gerretan sartuta ez egoteko?

Egutegiak ba naroa barriro bere orrietara. Eta ara egunotako gorabera bat.

1860. Maiatzak 13.

Afrika'ko gerrara joan ziran tertzioak etxera etozan. Irugarrena zan bizkaitarrak osotua, eta au "Tajo" itxasontzian Portugalete'ra eldu, angoo gerra amaitutzat lagata.

Kanpaiak, su-ziriak, kañoi otsak eta abar ba ziran agurtuteko. Bizkai'ko aldun edo diputaduak be bai molla gaiñean.

*Euskalerriko jende
gazte eta zarrak,
eman zaizkagu gogoz
Jaunari eskarrak.
Etxera dira etorri
gure seme ederrak,
amaituta osoro
Afrikako gerrak.*

Biamamonean jai andiak egin ziran Bilbon. Musika ta dantza ugari.

Alderdi zarreko kale ta ingurutan, ogetak arku dotore gertu eta jaso ziran.
"Amaitu osoro Afrikako gerrak..."
Ondorengoei itandu, galdetu, katerik eten ete zan.

Diario Vasco, 20-V-79

EUSKAL GARIZUMA

Garizuman sartuak gara. Zenbatek dakie gaur garizuma zer dan? Garizuma Bizkai'ko negua dala esan, eta askok or konpon. Edo ta garizumako otza edo antzekotatik zela-ala gogoratu ta kittu.

Gure denporetan ba eukan, ba, garizumak bere itzala.

Txarteletako denpora zan. Au da, Kristau lez zeñek pentsatu eta jokatzen eban jakiteko aldia. Norbere sinisteagaz arduratzeko denpora.

Garizumak eukiten zitun bere esaera garratzak, bere bildur eta ikaratzeko jokatibideak, bai eta ataraldi eta gertaera zorrotz eta asmotxak be.

Gogoratu Pernando Amezketarrarena, bere parrokoagaz:

*Pernando, nik txartela
atera bitartian,
esan bear didazu
nola litezkian
izan iru persona
Jaungoiko batian.*

Beti eukan Pernando'k erantzuna gertu miñaren puntan, eta entzun orduko erantzun zeatz eta jakintsua emon eutsan laster:

*Esango diot ba da
ejenplu batekin:
koloria, usaia,
saboriarekin...
orra iru gauza
sagar bakarrakin.*

Garizuma "kontzientzi" denpora zan. Nire erriko andrak esango leuken lez, lotsak kendu eta botateko denpora. Pasku zoriontsu baterako gertaera eta ezaupidea.

Ba dirudi euskaldunok ba gure "garizuman" sartu gareala.

Pasku bidea nai ba dogu, txartela artzera beartuten garean denpora eldu yaku.
Len elizaren deia. Gaur, besteari biderik estutu barik, aberriarena. Len eta orain txartela artu bear. Nortasuna erakutsi. Kontzientzia aizetu eta suspertu. Zer garean agertzen ikasi ta alegindu, eta batez be etorkizunari begira jokatzuz.

Antxiñako bertsoak ikutu ta tajutuz eta Pernando'ri jarraituz, ba dirudi guk be bertsoren bat osotu giñeikela:

*Milla beatzireun kunplitu eta
au da larogei garrena,
sentimentuak ataratzian
deskantsa eizu barrena;
Euskalerriren deia entzunda
txartela artu lenena,
aukera gero kolore ta usai
eta saborez onena.*

Ezin ukatu politika, erri-ardura, erri osoaren zeregiña danik. Guri dagokigu kolore, sabore eta usaiña emotea, eratu eta eztitzea. Or dogu egunotako zeregiña. Gero, gure ardurabakotasunez lagata, sagarra usteldu delako illeta jotea, ori norbere buruari arrika jardutea litzake.

Japondarrak esaten ei dakie, aukerarik, betarik, okasiñorik sekula ez dala laga bear beragaz baliatu barik. Gerokoa geroari lagata. Eta itxastarrena: Txikota esku-tik artu bear dala beti, txalopea komeni-ala lotu al izateko.

Aurtengo garizumak uste dan baiño ondoren sakonagoa euki lei gure erriaren Pasko aldian.

Deia, 1-III-80

EUSKAL LEGE BILTZARREAN

Nik ez dakit legeak biotzik eukiten ete daben.

Euskal Lege Biltzarreko etxea otza da.

Len, Ikastetxea zanean zaratatsu eta erdi zaindu ikusten zan. Orain, lege-etxe-rako aldatu dabenean argi, garbi eta labana.

Ez al dabe bertan kantatu bear, bertso zarren joskeran:

Gure Biltzar Etxean

*lustria labana,
txirrist ein da jausi da
lendakari Pujana.*

Beti dago zer ikusi onelako etxe baten. Nai eta mutu eguna gertatu.

Olako egunetan, idazkaritza alaietan dagozan euskeratzailleak be, nasaiago artzen dabe kafea edozein ordutan. Ezin leike beti iztegiak arakutzen ibili, ez eta "Diccionario de Autoridades" be, inok zerbait aitzakitu ezkeru ixildu eragiteko.

Gaiñera liburuetan sartuta dagozanei bakean laga-ta, aidean dabiltzan beste nortasundun askoren jatortasuna zeaztu bearko litzake.

Ondarrutarrak ezagutu gendun Demetrio txikia gogoratzen dot sarri. Gure odolokide zala-ta, beste errietatik bialdu ta gure ospitalean emon eutsen ostatu. Gero udaletxeko mandataritzat aukeratu eben, zigarrotoako zerbait emotearen orde. Eta Demetrio, lotsakorra ez zan lez, konturatu barik alkateak baiño geiago agintzen asi zan.

Gerra osteko urte luzetan, erri batetik bestera nai ta soiñaren premiñak egitera joateko be "salvoconductoa" bear zanean, Demetrio'k zakelean artzen eban mordo bat, berak firmaten eban alkate lez, eta patrikaran erabilten eban Udaletxeko zilluajo tanpoian busti orde, iru-lau arnasaldiren lurruna ezarri ondoren. Eta ez emotera jarten ba zan, agur ibillera.

Lege Biltzarrean, beko "solairuak" ikusi nai izan dodaz.

Tarterik tarte, surik gertatuko ba litz be, bereala itxiten diran suaren aurkako ate lodiak. Eta bazter baten, txokorik bazterrenean dagoneko milloi asko balio dabon liburutegia, biblioteca. Ez edozelako liburuak. Orain irureun urteko dotriñak, kati-ximak eta eleiz liburutxoak ainbat. Euskeraren urte pitxi dira gaur.

Kajetatik atara-ala, an diardue ortan tekniku diran napar bik liburu zarrok, batzuk dagozanetatik bakarrak, nortasun eta ezaugarri betez zabaldu, aztertu, ezagutu eta bakoitzari dagokioon tokian ipinten, fitxa zeatz, ziur eta egokia egin eta artu ondoren.

Ia bederatzi milla liburu dira, euskerazkoak batzuk, euskal gaietazkoak besteak, beti be gure erriari ikutu egiten dautsenak, J.R. Urkixo batek, bere ikasmin eta zaletasunez, bizitzaren luzean erosi, batu eta garbi gordeak, eta orain berari gure Lege Biltzarrak erosiak.

Gure ordezkariak, euskerarik ez dakienak be, eukiko dabe gure asierako eleiztar literatura nun ikasi, edo nun ikusi beintzat. Zenbatek? Gaur irutik bat dira euskera dakienak. Zenbat ete dira euskal kultura ezagutu eta maite dabenak?

Deia, 8-IX-82

EUSKAL LORE JOKUAK

Zetan dira Ondarroa'ko Lore Jokuak?

Esan daigun Aita Santuaren ostereari begira egon gareala gu be. Eta auteskunde-dei.

Urrilla'ren 17'an egiteko gendun azken jai. Baiña biaramonean Loiola'ra etorteko ba zan, emen geratuko giñan, iñok begiratu barik, aintzat artu barik, ez gatze-tako ta ez saldatako.

Euskal Lore Jokuak, noiz-beinka egiten diran euskal jai oneik, bear leukie aintzakotasun pixkat.

Dana dala laster zeaztuko dira egun bakoitzeko jaiak, baiña urrilla'ren 4'an asiko gara, Ondarroa'ren toki ta berezitasunak margolariak zeñek obeto eta ertitsuago agertu leiaketa bategaz, eta gero itzaldi, erakusketa, bideo, mai-biribil, sari banaketa, eta Bizkai'ko orkestaren entzunaldia be egongo dira.

Ziurra ez ba da be, Azillaren 17'ean egingo dogula uste dot sari banaketa eta abarrekaz jairik andiena. Auteskundeak ekarriko dituen bestelako itzakdi eta zabal-kundeak atzeratu eragingo dauskue jai au. Ikusiko dogu. Bestela 17'an egitea zan gure lenengo ustea.

Literatura eta bideoko lanak agertzeko epea amaitu zan.

Amaika lan agertu ziran olerti saillera. Azken sariketetako otsa da olerkariak gero ta autuago doazala Euskalerrian.

Amazortzi ipuin saillera. Onetan neurri ona da. Esan daigun gaiñera amazortzi oneik, ia irurogei ipuiñetara elduten dirala, idazle batzuk, lan bakarraren gain edo orde, ipuin txortak bialdu dituelako. Ipuin liburu ederrak egiteko aukera.

Jakintzara, au da, Bizkaiko kondaira, etnologi, toponimi edo antzeko saillera, iru. Eta bideotara, asko etorriko ziralakoan, ainbeste itxaropen emonarren, iru bakarrik agertu dira. Eta ez da sariak makalak diralako. Itxuraz pelikula ederrak egiten dakiezan artistak, bildur dira euskerazko oiñak, esaerak edo agerbideak ipinten.

Olerkien artean gipuzkeraz egiñak dira geienak. Bizkaierazkoak bi eta batu-koak bi. Eta batzuntzat au be jakingarri izan leike ta esan daigun h erabilten dabenak sei dirala.

Ipuñetan ba dira zazpi bizkaierazkoak, bederatzi gipuzkeraz, bi batuan. Eta bost h erabilten dabenak.

Ikusi bear gipuzkeraz idatzi dabenak danak ete diran giputzak.

Jakintza lanetan bi dira bizkaieraz eta bat batuan.

Gure guraria da epai-maikoak zintzo eta zeatz aztertu dagiezala lanak, eta merezi dabenentzako diruak eta txaluak eta besteei eskerrak eta gorantziak.

Leiaketak orretarako dira. Gogoia biztuteko.

Ba dira idazleak sariketarik egon ezik idatziko ez leukenak. Origaitik nai ta saririk lortu ez astiñaldi bat artzen dabe onelako egunetan.

Zoritxarrez gaur idazle ta irakurleen artean bitarte andia dago. Idazleen ametsak etenda geratzen dira irakurleen ardurarik ezagaz. Alaz eta euskerak iraungo ba dau, barritzen duan literatuta bear dau. Irrati eta irrati-ikuskiñak euskera entzutera zaletu geinkez, euskera etxekotzera. Baiña erakusteko ta ikasteko premiñazko da literatura idatzia.

Deia, 21-IX-82

GABON ZORIONAK

Gabonak.

Adiskide bat datorkit. Zorionak emon nai, kristau sinismenez, baiña iñor mindu barik.

Ez bildurtu.

Zer da iñor ez mindutea?

Belen eta bertako jaiotzaren inguruan izentatzen diran izenak aitatu barik. Au da, jaiotzaren ospatzea Jesús barik.

Gabonak ospatu naiak zerbait erakusten dau.

Azaletik ba da be sinismen bat. Oitura, leike; "tradisiñoia".

Orrelako oitura asko laga doguz, zotin andi barik. Gogoratu zenbat jai kendu diran. Len, oraindik urte gitxi, itotasuna emongo euskun pentsatze utsak. Eta gaitz joango yakuz Gabonak, jaiaren zegaitia zela-ala pentsatu barik.

Izenari emoten dautse batzuk garrantzia, indarra. Azalari. Azal tximurrez barru zindoko sagarra naiago dot, azal fin eta barru ustel baiño.

Egun oneitan zorionak emote utsa, siniste batzuen menpetasuna da. Eta siniste orrein muiña milla eratan erabili lei iñor aitatu barik.

Gabon zoriont.suak

alkar maitasunean

ta gogo onez sartu

larogeiko urtean.

Zeñek esan kristautasunaren muifiik ez daukala bertso orrek, nai ta iñor aitatu ez?

Alkar maitasuna ta borondate ona zer dira besterik, ospatuten dan jaiko irakatsia ez-ta?

Olentzero kutsuz, aren taupadeagaz gogoratu nai dela?

*Zidar ei dira kokotxak
eta angulak urre,
ardau merkeak beragaz,
ozpin ta biotzerre;
aurtengo gabonetan
illetia turro,
besterik ezean
gogo-biotzak erne
ta obeagoen asmotan
umorerik ez erre.*

Ortik, bertso orretatik Olentzero'ra iparretik errekaizerako aldia dagola?

Ta gaurko giroak zer?

Ez al dau merezi gaurko giro garratz, estu, lanbako eta zordun onek, bere oroitzarik?

Edo ta diruak diru, esaten doguna guzurra dala erakutsi naian ete gabiltz?

Eta gogoetatik kendu ezin leikena, presoak?

Ai ene! Egia da. Esan bearrik be! Ez al dogu ortarako gure "Ator, ator mutil" ezaguna?

Bera gogoratuaz egin giñei bertsoa:

*Gabon gabontzetan
guazen espetxera
baiña ez ain zuzen
zorion emotera,
dei egiten baiño
dan danok batera:
Atoze, neska-mutil
betiko etxera.*

Gabon kankak denporak egiten dabez. Jaiei maitasuna ta itxaropena sartzea da guk egin bear doguna. Gabon giroak izan be bere "zera" bear dau ta sinistu edo ez "zer" orrek bizitza lotuten jarraituko dau.

Deia, 23-XII-79

GABONAK ETA GURE ANTZERKIAK

Euskal antzerkiak, teatroak, ez dauka urrats andirik lengo denporetan gure inguruan. Iparraldean ba dira ainbat "pastural".

Julio Urkijo zanak 84 pastural zenbatu zitun, era onetan banatuta: Santuen bizitzakoak 18; barregarriak (fartsak) 16; Kondaira mitikoa 13; abenturetako erro-mantzeak 11; testamentu barrikoak 9 eta zarrekoak 8; egitada andietako kontuak 5 eta antxiñako kale bizitza 2 eta Iñauteritakoak beste bi.

Dirudenez pasturalak dira gure antzerkirik zarrenak. Ez dot onegaz esan nai pastural guztiak zarrak diranik.

1926 urtean RIEV aldizkarian agertutako lan'baten, 1500 urtean mugatzen eban pastural bat G. Herelle'k. Eta Buchon eskribaduak esan eban Atarratze'n 60/70 lan gordeten zirala, berak ikusi zitula eta an ba egoala 1500 urteko bat.

Beste teatro zarrak ez ete dogu?

Urkijo'k bein idatzi ebanez, XV mendearen azkenetan, Iruña'n, Labrit eta Foix'eko Katalin koroetu ziranean, egon zan euskal antzezkizun bat.

Ziurtzat esaten da Lesaka'n, 1566 urtean euskerazko "pasiño" bat antzeztu zala.

Danok dakigu Gorpuzti eguneko jaietan antzirudiak egiteko oitura egoala gure inguruko erri askotan. Eta motzalleak, ijituak ekarten zituela orrelako jaiak betetera. Euskaldunak ala erdaldunak?

1577 urtean Markiña'tik eroan eban Bilbo'ra Juan Lopez eta bere taldea.

Ba dirudi Lekeitio'ko "Kaxarranka"k eta bere inguruak ba eukala erdi aroko teatro kutsu bat.

Gero, XVIII garren mendean, Agustin Basterretxea ipastertar jesulagunak 61 bertsotan egin eban Nekaldiaren kantaldia, erririk geienetan biziro sartu zan eta ez al zan toki askotan antzerki erako zerbaitearako egokitu?

Arana Martija'k diño beretzat "Gernikako Marijesiak" be antxiñako antzerkien ondorenak dirala: "son un residuo de pieza teatral escrita en romance vasco".

Edozetara be, antzerki lez geratu dan lanik zarrena, gure artean, Pedro I. Barrutia aramaiotarraren lan bat dogu: "Gabon gaberako ikuskizuna" edo "Acto para la Nochebuena" lez ezagutzen dana. Arrasate'ko eskribadu izan zan bera.

Azkue zanak argitaratu eban bere "Euskalzale"n 1897 urtean.

Berari buruz "manifestación tardía del teatro litúrgico medieval" irakurri lei "Añamendi"n.

Gure egunetara etorrita Mitxelena'k au esan eban: ez dagola euskal teatroan lanik onenetako izatetik urrun, eta bere saillean alaxe dala ezpai barik.

Lan orrek arrastada andia sortu eban euskal elertian, literaturan.

"Euskalzale"tik G. Aresti'k aizetu eban eta kalera atara. Iru lau bidar idatzi eban ortaz. Eta bere esanetatik dakigu Akesolo'k ez eutsala garrantzirik emon.

Gero be liburu sakonak agertu dira lan ori bitarte. Bat beintzat J.A. Lakarra, J. Kortazar, J.M. Lekuona, J.M. Mendizabal eta E. Knorr'en iritzi eta lan irakurgarriekaz. "Argitalpen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan" deitureagaz Araba'ko Foru Aldundiak argitaratu eban iaz.

Beste bat, nai eta oraindik saltzera atara ez, irarkolan egiña da. Egillea: "Latxaga". Danok dakigu Paris'eko Sorbona'n doktoretza emon eutsela abade oneri, eta Ipar Amerikatik dabillala. Euskerazintzakoak artu dabe euren kontura liburu ori.

Ba dirudi Barrutia bizi zan garaian, eta ori jakiña da, Lope de Vega eta Calderon de la Barca'ren lanak zabal ebiltzala nun nai.

Esatea zan edozein emakumeren erantzuna izaten zala beste norbaitek gatzdun zerbait esatean: ori Loperena da.

Barrutia'ren lanak aren lanetako kutsua agertzen dau. Aren "El arte nuevo de hacer comedias" irakurria zala dirudi, berak darabillazan barregarri, zirikalari eta "gracioso"ak ikustean.

Lengoa esanda, gaur gaurkoz gabonetako antzerki lez ezagutzen dogun zarrena Barrutia'ren au dala barrero autortu bear.

Esan bearreko da, baita, bere antzekoa dala "Sor Luisa"ren Gabon Saria.

Egille berberarena da "El borracho burlado" euskera eta erdera nastean. Eta lan ori Peñaflorida konde zan Franzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez'ek egiña dala esan ezkerro, esan bearrik ez "Sor Luisa de la Misericordia" lez bere deitura erabilten ebana nor zan.

Ikusten danez, gabonak jan edanetarako eta zerbait geitxuagorako irudimena emon euskuen euskaldunoi.

Deia, 18-XII-84

GASTEIZ'ERA

Gerra aurrean, Eusko Alderdi Jeltzaleak ez eban eukiten alderdi egunik.

1977 urtean asi zan, Aralar'en ospakizun au. Seigarrena aurten.

Len gogozko zaindariak bai, eta euren egunak. Baten ordez im be bai: Iñaki deuna, Mikel deuna eta gaztediarentzat Sortzez Garbia. Ander deuna jai erdika lez lagata.

Eta sakelari, patrikareari ikutu eragiten eutsen egunak be bai: Aberriaren aldeko aloger eguna edo irabazi eguna lez.

Gure gurasoak egiten zituen Lurdes'erako osterak be, orduko Lanzia eta Saurer kamioi zarrei jarrilekuak ipinita, Ipar aldeko erri txikitxoak eta inguruak ikusi eta ezagutzen. Ba euken gure erri zarra begiz, biotzez eta gogoz ikusi, ezagutu eta maitzeko garra.

Lenengo Aberri Eguna ipini zanean (1932-111-27), bermiarrak euren bete-beteko eskintzaren testigantza emoteko, esaera bat aidean eta egunkarietan laga eben: Ito edo Bilbo'ra.

Eta itxasoa gordin eta orruka agertuarren, erantzun biozkorra emoten jakin eben.

Baiña itxas ertzetik ezin joan Gasteiz'era, ainbeste dotoretasun emongo leuken itxasontzien turrun-jote bits eta aparrez, eta urondoak eta erriberak olatuen txipli-txaplaz girotzen.

Komeniko zan ordezeko zerbait.

Sondika'tik Foronda'rako txarter egakadak oker etorriko ete ziran, Araba'ko lur zabaletan eta Bizkai'ko estuetan alkarri begirakuneka bizi diran "aideportuei" borondate ona agertzeko be?

Alderdiak indarra dauka. Alderdiak jendea darabil, esaten da. Autopistak ezin iruntsi ala. Jakiña, euskeraz berba egiten dogunean, alderdia esan da ez dago bat bakarra baiño beste izan bakoa, Alderdia. Ikusiko da. Orain, ibilteko bai, ta illabete geroago ez daitela Patxi Alper agertu auteskunde egunean alperkerizko drogak artu eragiten.

Igarten da Gasteiz'erako zaletasuna ba dagola. Giro ona dagola. Bizkaitarrok, edonundik jota be, aldatzak igo bear. Baiña oituta gagoz aldatz gora larri eta izerditsu asko igaroten. Eta anaiak ezagutu eta besarkatuteko aldatz gorak, nekez igarota be, bide latzak egin bearra eukita be, igo egin bear izaten dira.

Ezin neike ni, onetan, egia esateko, ain zirikalari izan.

Etxean egoteko obeto nago, egun osoa tente ibilteko baiño. Alaz eta biotz eta irudimenez Gasteiz'en egon neikenik ezin ukatu.

Beste aldetik ezin esan "tentasiñuan" jausiko ez gareanik be. Onetan be gero ta makalago igarten gara gurariei ezetza emon edo esateko. Eta gero ta errezago betetan yakuz begiak malkoz, maitasunezko edo zin eragiñez.

Dana dala, lagun artean eta anai artean gure euzki irristadak artzeko gero ta premiña geiago igarten dogunik be ezin ukatu.

Jatortasun zabal baten eske gagoz, alkar arteko ezpai, itsukeri, txikikeri eta bekaizkeri asko kendu bearraren premiñaz. Ortik bearrezko dogu ezaguera zabal bat be. Ortik alkar ikusteko egunak.

Alderdi batek zati asko euki lez. Baiña iru eta bi izan leikez ontasun bat, gogo oneko matematiketan. Gaur Alderdian orixe bear da: ekitego gogo.

Origaitik, soiñez edo gogoz, igandean gure tokia Gasteiz izango da.

Deia, 24-IX-82

GERNIKA'KO OROITZA

Arrese Beitia, otxandiotar olerkari ugari, sakon eta mamintsuak, onelako bertsoak idatzi zitun Gernika'ri eskiñitako soneto erako baten:

*Erabili arren mundua guztia,
leku ain on bat nun leike billatu?
Bene-benetan da nire eritxia
lur eskiñikoan nazala sartu.*

Ementxe gozetan dodan kerizpea Aretx Arbola zar baten ondoan, ez dodala topau nai dot kantetea iñongo erritan Gaztelakoan.

Gernika'k, bere "eman eta zabaltzazu"gaz, ba dauka entzutea gure errialdean.

Gure Aritz bedeinkatua, bertako Arbola gogoratu nai izaten da zabaltasun baten. Bertako Batzar Etxea be bai, irudimen azal eta laiñotsu baten. Eta Foruak, gure lege ta eskubideak, gain-gaiñeko izentatze eta aipamen baten.

Gero ta geiago dira, egia da, Gernika ikustera joaten diranak, batez be ikastetxe eta antzerako tokietatik bialduta. Ikustera. Ez ainbeste, dana esan bear da, bertako sakona aztertzeraz urreratzen diranak.

Bildurra dauke batzuk, eta ori be egia da, Gernika'k gaurko gure erakundearen osotasuna zatitzen ete daben be.

Baiña Gernika or dago: istori eta erakunde, lege eta oitura, foru eta eskubide, euskal izen eta izate. Bertatik deadarka, Arrese Beitia'k esaten eban lez: Beti Foru zale nai dogu izan.

Ori orrela, beste egi bat oartzen da. Gernika'ra doazenak atsegiñez billatu eta eskatzen dabela Aritzaren orbelen bat, geienetan bertako Etxe eta Arbolaren irudia zuloz inguratuta agertzen dauana. Ori izaten da askotan ikustaldiko oroitza. Baiña ortik kanpora, esku-uts urtetzen dira bertatik geienak.

Utsune au bete naian dabil Bikai'ko Batzarretako Kultura Batzordea.

Gernika'k sakondu egin bear dau bere nortasuna euskaldun guztien artean. Begiak ikusten dabena, irudimenak irunsi bear dau. Eta gogoetan sartu eragin euskal nortasuna.

Orretarako gaurko teknikaz eta irudiz, gaurko era eta agerpidez batu eta egingadako gomutagarri bat atara eta argitaratu nai da, ara doazenak bertako izate eta ezaugarriak atsegiñez jaso, ikasi eta gogoratu dagiezan.

Urte asko igaro dira gure Arbolaren frutu barik. Gaur Bizkaiko Batzarrak or diardue lanean, gure errialdeari dagokiozan lege eta arauak egin eta onartzen. Ez ostopo barik. Laterri nausia sarri agertzen da begiak lanbruz beteta, laiñotsu, emengo egualdiari eta giroari ezin igarrita. Baiña zuzentzak eskatu eta agintzen daben lez, lurralde jatorren nortasuna ezagutzen ba da, Gernika istori zar eta uts barik, istori barria be izateko eskubidez dago.

Origaitik Gernika, entzutez barik, bizitez be ezagutu bearra dago. Eta ortarako lengoak argi luzea emon lei.

Ezin ukatu agertu dogun asmoa egi biurtzea komeni danik.

Deia, 17-V-84

GURE EGOERA

Euskaldun gareanok gauza bat ikusten dogu argi: sekula ez dala euskera dala-ta gaur aiña negar egin. Ez gaur aiña diru eralgi be, egia da. Eta nik geituko neuke euskeraren kontura gaur aiña bizi nai dabenik be ez dala euskal bizitzan egon.

Okerrena, ondorenak ikusteko. Edo ta zalantzan.

Eguraldian legez, gure gaiñean, euskeraren gaiñean, or dago otz-irria, "punto frío" dalakoa, ezin kenduta. Zaparrada eta uriolez danok aidean eta tatarrez erabilteko arriskuan.

Sarri gertaten da ura igarota gero egiten dirala ur-arkak, presak.

Gurean be, igelen kantu garratz lez, asi gara kezka batzuk entzuten, euskeraren bizian.

Orain konturatzen dira batzuk bizkaiera dala ta dagon arriskuagaz. Orain datoz esaten euskal urei utsiteko bizkaierak be bere ur-areka dauala.

Urte barrirako aurre kontuak egiteko garaia da.

Miloiak erraz erabilten dira gaur. Nekatu bearrik be ez dago kopuruak egin eta osotzeko. Or dagoz makinak, barri-bani, ugartu barik, zenbakiak aidean erabilteko gertu.

Zain dagoz ainbat erakunde dirua artzeko.

Zetan geratu dira euskeraren alde jokatzearren irratiei emondako laguntzak, egunkariei eskiñi ziranak eta abar? Ez al da egia irrati batzutan, nai eta gure errialdearen izena eroan, euskera garraztutako diskoetan jo eta amaitzen dala, edo ta iñok entzuten ez daben orduetan erabilten dala?

Eta erakundeen ardurak?

Zein kezkatu eta arduratu bear da bizkaieraren alde?

Onetan illunpe andi baten menpe ikusten gara. Ekaitz gogor eta zitala eukiko ete dogun bildurrez gara.

Ez dautsagu gure jaurlaritzari ezer kendu nai; gure fede guztia eskiñi nai dau-

tsagu, baiña bizkaiera etxetik erabili bear dala ta gagoz. Bizkaiera dakigunok arduratu bear gareala ortaz esan bearrik ez. Baiña oraingo eskubide ta gaitasunen naste onetan, oraingo al-izate eta nor-izate goraberan darabilguzan ezin konpondu eta ezin argitutako eztabaidetan, konponketa eta argitze gaitzetan beintzat, uste dogu jaurlaritzak esku zabal jokatu bear dauala, legegilleak konturatu ez diran gai baten utsune bat egon ba da.

Eta guretzat utsune gogorra da, parkamenik ez daukana, lurralde jatorren arautan gure berezitasun ori ez aitatzea, eta aitatzan ez dalako Bizkaia'k bizkaierari buruz zer ikusirik ez eukitea.

Ori, nai ta ez, konpondu bearrekoa da. Bide batetik edo bestetik. Etxe baten ezin kendu lei ama bateri bere-berea dan semea zaindu eta jaten emoteko eskubiderik.

Deia, 15-XI-84

GURE ERREGEAK

Illoba batek esana: Aurten jakin dabela erregeak gurasoak izaten dirala.

Baiña berak erregeak egotea nai dabela.

Erregeak egoteak, beratzat, jostailluen bat artzeko aukera agertzen dau.

Era batera edo bestera agertuta, gurasoen maitasunaren ageripide bat da deitura orretako eguna.

Eta arrokeria be bai.

Bai eta itsukeria.

Gerratan miñik geien artu dabenak, metralleta eta pistolak eskintzen dautsez euren semetxoei.

Ezin bizi gareala deadarka geien egiten dabenak, andrakillarik aberatsenak erosiko dituez euren alabentzat.

Errege eguna, denporakin, sortzeko bere gogo edo espiritua galtzera ekarri dogu. Maitasunaren orde, gerra bidea ta griña sartzen asi gara.

Eta bestetik, kutunkeriak ito egin gaitu, seme alabei egun bi baiño iraungo ez daben jostaillu aberatsetan amets eragiñez. Arrokeriaren bidetan sartzen doguz, ta ez jakin bideak nun daukan amaia, urteera.

Ondamendi andi bat bearko litzake jokera au aldatutea lortzeko. Iraultza gogorren bat.

Esanekin eta idatziekin ez da ezer lortuko.
Giro onen aurka jardutea bai dala desertuan itz egiten galtzea.
Guzuixetan eratu dogun gizarte edo zoziedadearen premiñen eskarietako bat da.

Kristau-fedearen aurka ibilita be, ez da aitutzen aberaskeriaren aurkako ezer, indarkeriaren aurkako ezer.

Ba dirudi ori ikutu eziña dala; ala bearkotzat emoten dala.

Eguna aldatu, errege izen eta izatea aldatu, baiña gaia, mamiña, len lez lagata.

Erregeak datoz. Eta lendakarien denporetan be, errege izan nai dogu, eta ez gaurko errege, antxiñako erako errege arro, andiki, aberats, gerralari eta mundu ustel bateko jaube antzeko baiño.

Ori da gure zoritxarra.

Ba doguz, gure kanta zarren artean, irakatsi ederrak emoten dakiezanak. Naparroa'ko Ituren'en esaten dakie:

*Agur, agur etxeoak,
atsa onean zaudete,
atai ondoan pobreak eta
arren, iratzarri zaitezte.*

Eta euskerarentzat, zer ete dakarre erregeak?

*Gure Salbatzallia
jaio zan orduan,
munduan,
Herodez Erregia
inbiriaz betia
bildurtuten asi zan,*

diño, baita Erregetako kantu zarrak.

Emen bai erregeak gurasoak izan behar dabela. Eta ez egun bateko, ez aidean doazanak.

Dakienak dakielako, eta ez dakienak odolaren indarrez, oraindik salbatu geinken pitxi eder baten jaube egin leiz seme alabak.

Zein izango ete litzaken emen "inbidiaz bildurtuten asiko litzakena?"

Ez jakin. Eskuak garbitzen ikasitako Pilatos askoren mendean bizi gara beintzat, eta Salbatzallea nor dan ez ba dakigu be, Pilatos eta Herodes nor litzakezan... gure arteko azterketa, examiña egin daigun.

Euskerarentzat, magoak, bi dira: gurasoak.

Besteak, maixu, irakasle, andereño eta abar, erremallu eroantzalleak.

Euskera erregien zain dagonik, ez aztu.

Deia, 4-1-80

GURE LEGE BIDEAN

Non dira bada zure semiak foru ta euzkera zaliak?

Non dira bada Tubal gure aita zure ondorengo garbiak?

Non dira bada zure ume zintzo eta leyalen legiak?

Arrese Beitia, otxandiotarra, olerkari foru-zale aspergabia zan.

Gure zarrik geienak izan ziran lez.

Esku oneko santugin zan bestean, biotz andiko olerkari.

Santuetan sinistu eta foruetan egarritzen zan gizona; ase ezin eban etenbako egarriaz.

Foruak euskal legeak ziran. Ez euskal bereiztasunak, euskal "pribilejioak".

Beste errialde batetik begiratuta ala izan eikezan. Euskaldunontzat ez.

Euskaldunontzat bertokoen eskubide ukatu eziñak ziran.

Emen egindako legeak. Erri-jaubeak egiñak. Sortzeko eskubidez. Jatorrizko.

Al ziran ontsu egin eta eratu, zabaldu, zaindu eta bete eragiten ziranak.

Euskalerriko gurutze eta kate, biziak emoten daben gurutzetik sortu eta giza-bidea lotzen daben kateak.

Erri legeak.

Guk, jaio giñanetik, ez dogu orrelakorik ezagutu.

Gu jaio ordurako gure arbola be igartuta egoan.

Barrero Arrese-Beitia gogoratu bear dogu:

Ai mingarria! Gaztelako arrak

jan deusuz sustrai guztiak.

Bai-ta biotza, bai-ta barruak,

azala itxi-ta bestiak.

Ori da egia.

Azala itxita.

Azala itxita.

Azalaz euskaldun sortu giñan.

Baiña euskal arnasarik artzeko betarik euki ete dogu?

Gerrateko denpora...

Bai. Gure ezaupide bat izan zan. Alaz eta ezaupide bortitza. Nai ta ezko ta gogo txarreko ezaupidea. Urratua.

Ume zazpikien antzeko. Larriz sortua.

Arbolatik ebagiten dan eldu bako frutuaren antzeko. Itxura bai ta eztirik ez.

Ba dirudi ba goazela bidea zabaltzen. Ekiña txarra dala ta zerbait lortzen.

Auteskundeak, aukeratzeak laster. Botaziñoiak.

Aspertu egin ete gara gure eritziak emoten?

Ala diño batzuk.

Baiña ta zuk, irurogetaka urte euki zeinkezan orrek, zenbat bidar euki dozu zure bizitza guztian, zure erriaren alde zeure eritzia agertzeko eskubidea?

Ez gaitezen zartu eta gortu umetu baiño len.

Lege nagusi batzuk egiteko aldunak aukeratzeko beta len euki ba gendun be, gure legeak, guri bakarrik dagokiguzanak, guretzako berarizko eta garrantzitsuenak egiteko gizonen aukeratzea, ezin ukatu, lenengoz oraintxe dogula gure bizitzan.

Beraz, aita zelako semea alako esaera, beti ez da be, askotan egi ba da, gure legeen aitak, "gure" asmo eta gogoetan egiteko aldunak izentatzeko ordua be ointxe dogu.

Nortasunez jokatzen jakin daigun, alper eta arduragabien abagitasun, gogordura edo "agujetak" aitzakitizat ipini barik.

Deia, 24-11-80

GURE MARGOLARIAK

Ba doguz euskal margoiari ospatsuak. Lan ederrak egin eta erti orretan ospe eta entzute andia lortu ebenak.

Euskaldunari bere inguru berberak nortasun andia emoten dautsala esaten da. Toki askotan gertaten ez diran koloreak billatu eta alkartu leikezala gure artean. Eta arrazaren bereiztasuna, endaren nortasun berbera, eredu bizi eta jator dirala.

Bestalde ba dira diñoenak euskaldunaren irudia, berez, zatarra dala, nekeak eraginda edo ta giroak zabartuta ikusten gareala.

Beste batzuk, margolari batzuk, golodun (bociodun) izaki lez agertu gaitue euren irudietan.

Edozetara ere lan bereziago baterako laga bearko litzake ikuspegi au.

Gaur, egutegiak gogoratu eraginda, Aurelio Arteta'ren oroimena dakart. Ain zuzen Azaro onetako illaren amarrean il zan, dirala berrogeta lau urte.

Arteta, gure azken gudatean, Madrid'en gertatu zan, lan batzuk an egiten iñarduala. Origaitik gure gerrako gertaera batzuk ez zitun gure artean bizi. askok esaten dabe, Gernika'n gertatu ba litz, a izango zala gure Arbola Bedeinkatuaren erriko ondamendia zeatz itxuratu eta lauki andietara egokien eroan eikeana, euskal biziagaz gogo eta biotz bat egiña ezagutzen zalako.

Dana dala, gerra ondoren, euskaldun askoren erbesteko ibilleretan, bera Ameriketara ibili zan.

Flores Kaperotxipi zarauztar margolari eta idazle alaiaren esanetan, aberats andi, millonario egiteko aukera euki ebala Arteta'k, bere doaiak margoetan erabiliz, batez be an artu eta lortu eban entzutea kontuan eukita. Baiña gizon apala zan, umilla, lagun artean be bere bururik jaso nai izaten ez ebana, eta diru egarri bakoa. Origaitik bere margo-lanak, pinturak, eder eta anditzat eukiarren, ez eben aberastu.

Alengintsu zan laukiak egiten eta arreta andiko. Maitatu egiten zitun, eta laz-tandu. Esaera da eta jakiña, lauki bat egiten asten zanean, bere lan-gailluekin igortzi eta samurtzen ibiltzen zala, margoei edertasunik biziena billatu eta atara nairik. Eta gero, saltzeko gar eta gogo andi barik, oraindik be amaitzeko lagaten zitula.

Bilbotarra zan eta Mexiko'n il zan, tranbia batek beste bategaz topo egin, eta bere burua auzita eta bularra zapalduta geratu zala. "Cuatro Caminos desde mi estudio madrileño" laukian iru tranbia margotuten ibili zanean, pentsatu ete eban erabilbide ori izan eikeana azkena?

Beste bilbotar bat, Bastida arkitektoa izan zan Madrid'en Banco de Bilbao'ko sarrerako ormak margotu eragin eutsazana eta ortik Madri'eko kritikarialiak sekulako gora eta ospeak eraon eutsezan. Kritikariali batek esan eban, Banku baten iñoiz ez zala sartu ondasun obeagorik.

Bilbo'ko Museoan ba dagoz bere batzuk, baiña ez ain zuzen be onenak, eta bere biziko kezka, urduritasun, ezin-ase eta erasoaldien lekuko diranak. Baiña obeagoak, erbestean batzuk eta beste batzuk eire egin ziran.

Deia, 10-XI-84

GURE ZUBIAK

Esaerak dira:

*Deba eskutari,
Mutriku dantzari,
Ondarru, martzal,
Lekeitio zazpi-zar*

Beste batzuk aldatu egiten dabe errezkada. Ondarroa'ri zapizar leporatu, bertako balkioak, sikatzera ataratako zapiz beteta ikusten diralako, eta Deba'ri ezarri baita be dantzari deitura.

Eta orrelako esaerekin jarraitu itxasertz guztian, kosterrez.

Ondarru, esate baterako, dantzari izan lei. Jatorrizko dau dantza zaletasuna. Ba dagoz dantza taldeak eta euren artean ba dago dantza barrien kezka.

Eurak diñoena:

*Ori da gure bizitza,
jaio ezkerozko ekintza:
lanari kanta astean,
bizitari dantza artean.*

Eta zegaitik ez Ondarru martzal?

Ain zuzen Azkue'k, bere Iztegian, martzal berba Ondarroa'n batutakotzat dauka. Esan nai au emoten dauka berak: Martzal, (B-Ond) = noble.

Zeiñek esan Ondarroa martzal, noblea ez danik? Ekintza guztietan atakotzat agertzen da.

Alegintsu eta martzal. Karlisten gerratean be ezaugarri berezi bat emon eutsen: "la muy esforzada". Len era batera, gaur bestera, beti be zintzo jokutzen dakilako.

Zapi zar izan leikela?

Baita. Zapi zarrak, era batera, erri baten nortasuna agertzen dabe. Balkoe eta leioak zapiz beteta agertzen dira Ondarroa'n. Ez al da ori etxeko-andre garbi zalien ezaugarri?

Ain zuzen be gure zapiak dirala-ta oartu izan dabe askok gure etxetako luzera eta jatortasuna.

Eta ori ikusita ez al dira asmatu New York'eko etxeak, zeruari azkuraka goraiño urreratu nairik egin diran etxeak?

Irakurtea baiño ez dago. Ba dagoz ori esaten dabenak.

Ondarrutarrak luze gara.

Oraintsu agertu zan egunerokoetan: Amerikako gudarostetan, ejerzitoetan, ango musika talde guztien buru, ondarrutar jatorriko bat dala: Lara koronela.

Amerikar askok egiten daben eran, abizena (apellidua) laburtu ta erraztutearren, bere aitak, Aramburu zanak, amaren abizena artu ei eban: Larramendi. Ortik Larra soil-soilik erabilteko.

Ondarroa'n, lengo gizaldian, bost Aramburu jaio ziran. Euretakoan bat, euro-par gerratean, Ipar Ameriketara joan eta orain, bere semea, or. Erramuketa luzea, "Boga-boga" sakona ta txanpa bulartsua berea. Zubi asko daukaguz ondarrutarrak munduan.

Eta erriko zubiak, zer?

Zein zarrena?

Zubi barria deitzen dana ez da barriena, ez eta zarra ba zarrena. Osoan beintzat.

Gaur, bere osotasunean, gure zubietatik zarrena... len Alfonso XIII, gero Artibai, gero Calvo Sotelo eta orrelako izenez aipatua da, nai ta erriak, len eta orain, Arrigorriako zubia edo Plaiko zubia deitu. Besteak ujolak, gerrak eta abar, jausi eta barrizatuak dira.

Or be ba dago zer esan eta zer ikasirik. Diktaduren gauza. Euskal eskubideen nortasun kentzea.

Zubi ori 120.775 peseta kostatuko zan. Erdia erriak eta beste erdia baiño geitxuago, 70.000 peseta Aldundiak emotekotan.

Egiten asi eta urte berean Aldundiak (Diputazinoiak) errietarako dirurik ez eukala eta agindu guztiak bertan bera laga zitun. Ondarru "martzalak", erdiz erdi olako gauzarik ezin laga eikeala-ta, bere kontura artu eban Aldundiak ipini bear eban dirutza ori. Ondarrua "pobreak" bere kontura artu Diputaziño "aberatsak" aginduta eukana ordaintzea. Urteko zazpi milla peseta emoteko geratu zan Aldundia, urteko zazpi milla peseta, korridu barik. Korriduen orde, Ondarroa'ko erriari laga eutsan zubian igarotearren zerbait eskatzea.

Orra, 50 metroko zubi bat, eun eta ogei milla pesetatan.

1927 urtean zan ori. Diktadura urtea. "Centralismo" garaia.

Ordutik ona, denporak ez dira geldi egon. Estatuto bi be egin dira Euskalerrian.

Eta Estatutoak ez dira lortzen goizetik gabera.

Deia, 18-111-80

GURUTZEA ETA IZENAK

Sarri billatzen gara euskaldunok len egiten ez genduzan zeazketak egitera bear-tuta.

Giroak, atsegin jausi naiak, edo ta euskaldundu bearrak eroaten gaitu lengo utsak autortu eta bizi barri batera aldatzera.

Beste askoren artean izenak, deiturak datoz.

Lengo erdal deitura asko euskeraz ipini bearra agertzen da.

Onetan, ba dirudi izen barri bat ipinteko aiña bildur, eritzi ez bardin, kezka eta eskutuko kateak be egoten dirala.

Zelan esan bear da euskeraz, esate baterako, erderazko Hijas de la Cruz?

Abenduaren 14'an ospatuten da San Juan de la Cruz eguna. Eta egutegiak, bai Euskerazaleak'enak eta bai Arantzazukoak, Gurutzeko Jon edo ta Joan Gurutzekoa ipinten dabe.

Mesedetako Ama, esaten da beste baten. Eta Mesedetako Alabak.

Aita Santi Onaindia'k "Egoitza" liburuan, nai Terese deunaren bititza eta idaz-tietan, ezpai barik erabilten dau beti Gurutzeko Jon edo Jon Gurutzekoa.

Gure tokiko eraskiña dan **ko** orrek zabaltasun andia adierazoten dau. Ba dago-la Gurutzean beste izen bat? Orrela bai, Gurutzeko Jesusen alabak izango litzakez, baiña Gurutzea personalizatu ezik, lekukotzat artu bear da.

Izena eskutuan gordeten ba da, lekura jo bear da eta ba dirudi esaera jatorra, zeatza, egokia, Gurutzeko Alabak izan bear dala ta ez Gurutzearen alabak.

Alaz eta Laguntalde bateri izena zeaztuteak, alako arrada bat emoten dau bakarrik egiteko. Bildurra sartzen da.

Adiskideak mesedetarako izaten diran lez, amar Jagun artu dodaz nire kezka au adierazoteko, Euskaltzaindi. Euskerazaintza eta abarretan sartuta dabilzan euskal-tzale jator eta jakintsuen artean.

Idazki au egitean amarretik zortzirenak daukadaz gogoan.

Nire itauna, galdera, iñor ez naastutearren eta iñori norberak nai dabena ez atar-tearren, labur eta zeatza izan zan. Au: Zure ustez "Hijas de la Cruz" zelan esan bear da euskeraz: Gurutzeko Alabak ala Gurutzearen alabak?

Batzuk telefonoz, besteak kartaz erantzun dauste.

Gurutzeko deitzearen aldeko dira, oso-osorik, lau. Beste batek, bata nai beste bardin, esan naia geiago zeaztuta.

Gurutzearen erabiltearen aldeko bat, eta beste bat zalantzan.

Ez **ko** ta ez **aren** ordez, soil-soilik **gurutze-alabak** ipiniko leuke beste bik, nai ta bietako batek, zeaztutekotan, bata nai beste artu bearrean aurkitzekotan, **ko** auke-ratuko leukela esan.

Eta ortako batek "monka guruztiarrak" atsegiñez ikusiko leuke. Bere esanetan monja itzak bi alde txar ditu: erderakada izatea eta "j" eukitea, letra ori iruzpalau

moduz ebakitzen dan letra dalako. Eta "monka" latinezko "monaca"tik urbillago dagolako.

Begi-begiko dodazan Andres Humberto Fournier'en aiTebaei, eurak umetan erakutsitakoaren orde, nire mesedetxoa egin nai izan dautset, euren zalantzak kendu nairik. Baiña euskaldunok ez gara txikot bateri lotuta ibiltekoak.

Deia, 5-X-82

KAKU, KATE TA KUKU KANTAK

Urte berri!

- Ze berri?

- Esan bearra! Zarra berri.

Nirea, ta askorena, jakiña da. Orma zarrak ere errepikatan dabiltz:

urte berri ta urte zar, Martzeliño galtza zar.

Zarra joana da. Ta? Gatza emon zarrari, baiña barriak esne gitxi. Lengo oiturak aidean: Illak lurpera ta biziak maira.

Barriak ze ekarriko?

Erri maitasunak ba dakarkidaz gogoetak. Urra urra kantari ta lepoan atxurra. Pozaren garrez biziago kantatu ezker, gaiñean egurra. Errukarri zu, euskaldun azurra!

Beste bat, lan bidetik au.

Eguberri zerekin, Urteberri arekin. Ori egia. Askorentzat bata ta beste beti astelen.

Gizonaren eskabideak asko uxatuta ere, kenduko ete litzake astelenik. Gaur jai biren astelena lan babes eta asegurantzen ondamendi ba'da, zer litzake astelena ere jai, ta ondorengo eguna? Zeiñek eutsi biaramon orreri?

Ez amets asko egin urte barriaren kontura. Maitatu ta laztantzeko garrez gagan urte barri onek ba dauka ezizen jatorra: Lege zarreko gizon gaztea. Soiñeko zarrak kendu ta kolorez betetako jantzia gaiñetik ipiniarren... Ai ene! prakan prakan ez dago gizona.

Aizeak txistu ta soiñu atara bearco dau eta itxasoak orru bildurgarriak egin, zakarrak kendu ta ondarrak erabiltzeko. Baiña zakar barriak pillatuko dira ta dra-gaontziak kendu-ala ondar barriztu. Lengoak eta lengoan ugartuta bizi gara.

Nire auzoko batena. Bein eldu zan Miranda'ra ta, kontxo! an ere mezatan apai-

zak "doministikum". "Susunkordan" bera. Edozetara ere meza ulertzeko erarik ba'litz! Sekulakotan, ene Jainko!

Euskeraz esaten asi ziranean... lengo arra barruan: latíñez nai, latíñez, nai ta bat ere jakin ez.

Urteak ao luzea duala ta ze ikusi asko? Bai, baiña urteko euriak be urtean jausi bear dabe gero!

Urte batetik besterako igarotzea, oituraz orri bat aldatzea baiño ez da. Nai ta zoroki esaten ibilli: Urte barri, zoroak ere igarri.

Berakatz, baratxuri zalea naiz. Ortan igarriko dabe zure be-jatorria, esango eban iñoiz erdaldunen don Kixote'k. Maixu andi ez daukat zetan ukatu, erantzun nei Santxo'kin.

Urte barriari begira berakatzat datorkit gogora. Zegaitik geratu aiz ain zistrin, itandu eutsen bei. Berak erantzun: San Martin aurretik ez ninduelako erein.

Urte barriarekin gertatu oi dana.

Irurogetak urtetan euki dot naiko zer ikasi nire bizitzan. Ta? Oraindik ere lana biaramonerako lagaten; zorrak biarko atzeratzen; argaltzea etzirako baztertzen... Alako baten eriotzak dana estaldu arte.

Auxe bai egia: urte barri eriotzaren ate barri, dala.

Etsikor naizela?

Esanak esan eta urteko 365 orrialdeak zela-ala igaroteko ere, gizonok pozik giñatekez, beste urte baten geiago, au eskatuteko ba giña:

*Urte barri, barri,
zer dakartzu barri?
- Uraren gainean
osasuna ta bakia.*

Ala bedi.

Ondarrutar naizela aaztuta nebillen. Pekatu leikean ori urte asieran. Gure erriko filosofi ta asmakizunetan ba dogu guk ere oiturazko deia:

*Urte barri barri,
txarri belarri,
daukanak ez daukanari
emon bear sarri.*

Zelan aaztu ori, gaurko mundu eten eta nabarmenarentzat kontzientziko deia izan-da?

Diario Vasco 2-1-77

KALERIK KALE

Auteskundeak ez dira noiz nai egin eta gertaten. Origaitik beti izaten da oargarri eta ikusgarri orrelako egunetako jokabidea.

Orduak ordu, Gabon Zar egunean txanpaña artzeko lez, aurrez egon dira aurren kartelak eta orriak, kolak eta tangartak eta txispoiak gertuta. Eta erratzak (eskobillak) karteiei gaiñeko zabalera bardintzeko.

Atsegiñez ipinten zituen batzuk doazela pikotara, erderazkoetan usain-txar edo ats eta guzti; besteak autagaien argazki txairuak; besteak aurrera joan beaTeko kezkadunak.

Ba dirudi ormarik ez dala geratu utsik.

Onna sakraturik be ez; ez eta kultur eta erti erakusgarri ta etxerik be.

Nai litzake lotsa apur bat; besterik ezean ardura pixkat, edo zerbait itxuraz zaintzeko kezka bat.

Gaiñera alderdien ormak dagozala esan leike.

Oiturazko izaten zan Ondarroa'n, nailonezko sareak agertu aurrean, Gabon Zar egunez amabietako kanpaia jotzen astean, txalopa jaubeak aukeratuta edo begiz jota eukezan tokietan, esi-olak (estakak) sartzea, urte guztirako sareak legortzen eskegitako aga luzeak ipinteko tokiaren eskubidea artzen. Molla egalak izaten ziran geienetan, edo ibai eta erreka onduak, zubi-egalak eta aizea ebillan tokian orretarako aukeratzen ziranak.

Orain ez dago orrelakorik.

Aurrean dagon tokirik zabalenean eta kitto. Zenbat eta txukun eta bardiñago, obe.

Eta "Bizkaia garbia" alboan.

Zer esango dabe gure umeak, eskoletan "Bizkaia garbia" dala-ta irakasle ta andereñuak, liburutxoak eskiñiagaz batera, slogan ori sartzeko emon bear dautsezan aolku (kontsejuak) entzutean?

Beste bat: "Bizkaia garbia" ala bizkai garbia esan bear ete da?

Beti diardugula zirikatzen? Zegaitik zirikatze biderik ez emoteko alegiñik ez da egiten?

Nik beste gauza bat geituko neuke. Baiña aítzakiak autarki (boto) galtzaille izaten ei dira. Ala iñostan lengoak batek. Ori ez ei da "aurrera joateko" bidea. Nik, jakiña, aurrerako bidean ibili nai dot, gure erria aurrera atarateko alegiñetan jardun. Baiña gizon bateri, esate baterako, kafea artzean katilluaren egalak kafe tantaren bat sudur gaiñean lagaten ba dautsa, eta bera konturatu barik, sudur gaiñean atzamaiTagaz ikutu bat egiteko esatea, gizonaren kaltean ala mesedean izaten da? Ez al da izaten gizonaren aurrean egokiago, edo txairuago, edo itxusikeri barik ezagutze gogoa? Ez al da bear daben lez agertuta ikusteko naia?

Eta gizarteko itxuretan eta jokabidean gertaten dana, zegaitik era berean artu

eta ikusi ez gure bizitzako beste ainbat ekintzetan, gure egitadetan, eta gure agerpi-
detan batez be?

Ez gaitezen itto oin biko potsuan... ta aurrera jo daigun.

Deia, 14-11-84

KANDELERIO EGUNA

Orain ia irurogetak urtetako gogorapenak, oroitzak datorkidaz.

Ordurako, gure amak, oraindik be bizi eta lengo oiturak zaindu nai izaten ditun amak, kandelari egunean kandela bi erosi eta komoda bateko kajoian gordeten zitun, arizko paperean batuta.

"Okasiñoen" baterako an egoten ziran urte guztian, eta premiñetan aurreko urtekoak ataraten joaten zan, san Antonio'ri, edo san Ramon Nonnato'ri egiten eutsazan eskarietan, edo ta trumoi otsak entzun, edo ta konjuroak errezateko kanpaiak jo ta eleizpean abadeak konjuro otoitzak esaten zitun aldietan.

Kandela bedeinkatuak, jakiña.

Oraindik be saltzen dira kandelak, batez be kandelari egunean, eta bedeinkatzaera eroan. Lengo eunetik amar orain.

Kandelari eguna, egun izentaua, "señalatua", izaten zan Euskalerrian.

Esaeratik esaerara ba goaz gure egutegia egiten.

"Kandelera otz, joan da neguaren biotz. Kandelera bero, negua gero". Ala Naparroa'ko Sakanan.

Era bardintsuan Arano'n: "Kandelera otz, negua motz; kandelera bero, negua gero".

Ia bardintsu esaten dakie Basaburu'n, eta Zubieta'n.

Laburrago Luzaide'n: "Kandelera yin bero? Negia gero".

Araiz'en: "Kandelario, elura dario; san Jose'k lagunduko dio".

Betelu'n: "Kandelera egunean eguzkia ikusi baiño, otsoa ardi tartean ikusi naiago". Zegaitik ete zan ori?

Kandeleraz bero egonda, ondoren negua ikusiko zalakoan?

Eraso'n: "Kandelera izotzetan, yoan da negua egan".

Etxaleku'n: "Kandelario, elurra dario".

Oskoz'en: "Otsoa artaldean ikustea obe, ardiak kandelera abaro baiño".

Intza'tar Damaso, praille zar jakintsuari esker aitatu dodaz oraindiñoko esae-
rak.

Luzaide aitatu dot tartean. Luzaide, au da, erderazko Valcarlos.

Satrustegi abadea an egon zanean batu eban beste au: "Otsail txiki asarria, ez
aiz i bestiak baiño obia. Gandelera eguneko jostaiek, berrogei eguneko ekaitza".

Eta gure Azkue'k?

"Andrak andra andi, Kandelariotan dira agiri".

Ez da esaera makala. Abade baten sermoia datorkit gogora: la andrak, zer
dabiltsue zeuok, zeuon gizonak lagata kalekoei ederkatura egiten?

Emen zeuon eguna, gizonen ondo esan, aiezko torradak egin, eta familiak ba-
tzeko eguna!

Arek denporak, arek, aiezko torradakin gizonak poztu eta menderatzen ziran
egunak!

Ermukoa ei da au:

*Kandelario lario,
atxari ura dario,
olibeari orio,
sagarrari mustio,
sagar gaiñean makatz,
makatz gaiñean madari,
nun da Peru kantari?*

Ikusten dana au da: Beste egun batzuen antzera, Kandelari eguna, euskaldunen
artean, urteko egun ezagunetako bat zala.

Arrantzalien artean be "sasoi" baten asiera eta amaiera emon edo adierazten
zitun. Iñoiz entzunak dira oneik:

"Kandelerio lerio, antxo txikiari azurra kendu leikio".

"Kandelerio lerio, besiguari agur egin leikio".

"Kandelerio lerio, itxasoan antxobiak buztanari dantza dario".

Ainbat onelako gogoratu giñeiz.

Esanak esan, au da txarrena: Kandelario Otsailla'ren asiera dala, eta danok
dakigun lez "Otsailla firili-farala".

Deia, 31-1-80

KANTA ALA ERREZA

Ba guaz gure oitura bereziak gogoratzen.

Batzuk galdu, beste batzuk barriztu edo erakarri.

Egubarrietan gagoz. Egun barrietan.

Gabon oiturak etxe-oitura samurrak izan dira gure artean.

Komeni da zerbait ekitea: Eragiok mutil aurreko tanbolin orri...

Kantu, jai eta dantza, etxe bizitzaren oroitza dira egunotan.

Ba dirudi etxearen osotasunari begirako jairik indartsu eta ospatuenak gabonak dirala.

Egunotako oiturak gauzarik bakanenetara eroaten gaitue.

Zegaitik gabon gabea maian asten dan ogiaren kuskurra gorde urte gutzirako ta beste jaietan bedeinkatzen danik ez?

Ez al da orixe bera maikidientzako zorionik luzena eskintzea?

Astera duan egubarritik urrengo asiko dan egubam bitartean, eten eta tarterik barik, eta agiriko lez janaren ezaugarri dan ogia gordetea, ogia bizi-bideko premiña iez ezagutzea ez ete da, eta premiña ori zaindu bete bear dala familiari erakutsi eta familiak autortutea?

Lanik eza sartua dogu gure errietan. Eta gure Erri au al izango ete da urtearen buruan lanik ez dauanari, besterik ezean, bere duintasunak eskatzen dautsan bizi al izateko ogia emoteko?

Millaka euskal etxek kartzeletan pentsatuko dabe aurten be. Eta noiz ez?

Zetatik sortu ete zan kantu a:

Txeru kartzelan dago,

damia kanpuan,

Txeru 'k gura leukela

ba leuko alboan ?

Eta beste a, zarra izanarren urtero barriztatzen dana:

Ator, ator mutil etxera,

gaztaña zimelak jatera,

Gabon gaba ospatuteko

aitaren ta amaren onduan.

Edozeiñek ikusi lei kantu ori ez dala gure egunetakua, gure girokoa. Karlisten gerraetakoa ete? Edo ta euskaldunak, era batera edo bestera emen bizi ezinda, erbes-teratu bear izaten ebenekua?

Edozetara be familiko lotuera agertzen dau kantu orrek. Familiko osotasuna ikusi naia.

Umeak etxerik etxe, atetan jo, eta "kanta ala erreza"ka egiten daben agur edo oiesa, baimen eskatzea, ez ete da familiari lotsa eta gurtza, maitasuna eta menpeta-suna agertzea?

Azken urtetan, gabon jaiak, era batera edo bestera, gizarte-miña, lagun urkoaren egoeraren ezaupidea gogoratuten dauskue. Eta len ez?

Ortik erri eta parrokietako alkar-laguntza eskeak, ortik anaitasun jaiak, katepetuen edo illunpekoen oroitzak, zoritxarrean jausirikoen gogoetak.

Onetan be euskaldunak ez gara oraingo.

Naparroa'ko Ituren'go lez agertzen dan bertsoa, kontzientziari deia da:

*Agur, agur etxeoak,
ats onean zaudete,
atalondoan pobreak,
uratarñ zaitzte.*

Deia, 23-XII-82

KANTU, OTOI, ORRU...

Liburu bat atarateko, Job santuaren eroapena bear da. Antxiñako mendien erditbitzea lakoxea izaten da. Ibili batera ta bestera, amets egin, gauzak billatu, gertu, konponketak egin, egokitu, amaren sabelean (kasu onetan irarkolan) ume batek baiño denpora geiago egin, eta alako baten, ia ametsak galtzen asi eta igartean, agertu.

Eta ondo agertzen danean, esku, buru, oin, atzamar da guzti argiratzen danean, pozik. Txarrago izaten da sortu ta lenengotik ikutu bearrak sortzea, plastikatu bearra agertzea.

Dana dala, liburuak agertzea gaur meritu da, ezin ukatu, nai eta ondasunetan aldakuntzarik ez billatu.

Baiña ondasuna ez da dana dirua. Ba dagoz diruak baiño poz geiago emoten dabenak. Bat, erriaren mesederako zerbait egitea.

Jakiña da gure artean, erri guztietan, erriko gauzak agirian ez egotearen utsunea igarten dogula. Gure oitura, bizi-modu, erabide, etxe-bizitza eta abar, gu-geuk uste baiño lenago aldatzen eta barriztuten guaz. Lengoa, igarri barik, bastertzen, edo ta askotan lurperatzen.

Alako dei larri batzuk entzuten dira tartean. Etxean pitxiak egon dirala jakin eta etxe zarretik gordeleku barri batera atara eziñez aurkitu izan diranen antzera. Ba zirala, baiña nun, eta zelakoak? Eta bein zementu auts artan eskutatu ondoren, zein baliatu eurekaz eta zeinek atara?

Gure bizitza jatorreko agerbidetan, daroagun aldakuntzak beartuta, gurasoe-kandik artu genduzan pitxi askoren ezaugarririk txikienak be galtzeko arriskuan gagoz. Eta onetan ez giñake zintzo izango, bakoitzaren neurrian euren ezaugarriak kalera atara eta zabaltzen aleginduko ez ba giña, betiko galdu ez daitezen, eta gero-koak, gure ondorengoak, euren onurekin baliatzeko aukerarik onartuko ez ba gendu.

Onetan erri guztiak egin leikie zerbait, bakoitzaren al eta egokitasunaren neurrian.

Ondarroa'ko Kultur Etxean ba dago orrelako kezka apur bat.

Ba dira iru urte erriaren izena daroan aldizkaria ataraten asi zala.

Urtetik urtera jendearen arrera gero ta obeagoz. Len milla ataraten ziran, aurtent bosteun geiago.

Orrez gaiñera, amaituta dago eta egunotan kaleratuko da "Ondarru, kantu, otoi, orru..." izena daroan beste argitarapen bat. Doiñu eta berba, musika eta itz, gure zarren abesti jatorrak agertzen dira bertan.

Estropadetakuak bost, gabon-erregetakuak lau, erriko gertaerretakuak bost, jaie-takuak lau, kresal usainduank lau, maite-mintsuak beste lau, sinismenak eragiñak bost.

Orrela dator argitarapen au, datorren urtean be jarraitzeko asmotan. Orrez gaiñera udabarri alderako beste erriko gaietazko zerbait atarateko asmoa dago.

Arrokeri barik esan nai dogu, zerbait egiteko gogoa ba dagola onetan, eta gaur-koak daukezan aukerak zabalak dirala ikusita, lengoak gerorako argi geratu daitez-
zan alegiñetan ekiteko guraria dagola.

Deia, 17-XII-84

KARDABERAZTARRAK

Nortzuk diran?

Adiskide batek bein esana: Gerra galdu eban euskera zar baten oroitzetan, euren trabukoa laga nai ez-da amaitzen duazan abade zarrak dirala. Itxaropen baga-ko iraupena (erresistentzia).

Kardaberaz Bazkuna Gasteiz'ko Abadetegi Nausian ia irurogei urte inguru sortu ba zan ere, eta bere asieretan sotanadunen ikas-erakunde bat izan ba zan be, gaur bazkun zabala da eta eleiz-gizonak aiña batuko dira bertan beste giza-semeak.

Ez dakit amaitzen duan.

Urteko batzar nausi bi egiten ditu. Urtearen azken astean bigarrena. Ala, aurt-
ten, abendua'ren 30'n.

Batzarrerako deia ez da, ain zuzen, kartutxo barik bere izkilluak bertan bera
laga nai ditun erakunde baten agiri illuna.

"Ez zaituztegu oitura bat betetzeagaitik deitzen... Bizitza oitura baiño geiago da
eta Kardaberaz Bazkunak bizi egin nai du ta bizitza zabaldu".

"Emen dijoakizuen Egitarau-azal oni, erantsi gure Bazkuna'ri bizi-argari
leiozkean ainbat gauza... Denok gaude berritze baten bearrean... Osasun-zantzu ri
izan dezala, beraz, aurtengo gure II Batzar-Nagusi onek".

On Manuel Lekuona, Lekuona "zarraren" ongi etorritik asi eta beste amasei gai
dagoz batzar gaien artean.

Eta J.J. eta Martin Garmendia, Latiegi, Gaztañaga, Olazar eta Akesolo'ren
sotana eta abituen distira zarrak lagata, an agertuko dira Mirentxu Moraiz, Iñaki
Zubiri, Joxe Karrera, Andoni Urrestarazu, Manu Oñatibia eta abar kaleko zeregin,
ardura, kezka, egitada, asmo, jokabide eta ondu naiak agertzen eta aztertzen.

Berba guztiak kendu eta ondu-naia bakarrik erabili ba'neu, ortxe igarriko
neban benetan batzarreko asmorik berezi eta gaiñena.

Kardaberaz Bazkuna ez dago bere zeregiña laga eta etsipenak gainduta gera-
tzeko asmotan.

Sortu zanean Aita Kardaberaz ernaniarraren asmoak artu zitun gogai eta elbu-
ru nausi lez: Euskerak burua jasotea Jainkoaren naia esaten eban jesulagun arek.

Ez ori bakarrik: "Gure baserrietan gende prestuak dirauren artean, Euskerak
iraungo du".

Talde berberonen irautea, erdi mirari da.

Lendakariagandik asi eta beste lagunik geienak, erbestean edo etxetaik uiTun
ibili bear izan eben. Tolosa'n etxea. paperezko edo paperetarako etxea, esan daigun.
Nunbaiten erabagi bear gauzak. Iparragirre'rena: "Tolosa'n bear duela gauzak era-
baki".

Aurten be Tolosa eta Iparragirre Kardaberaz'en etxe izango dira. Baiña bere
asmoak euskera luze eta erosoan erabiliko diran lurraldetara zabalduko dira.
Oraindik kardaberaztarren trabukoak ots asko atara leikie euskeraren guda-zelaie-
tan.

Deia, 29-XII-82

KIROLDEGIAK

Azken urte oneitako errien garra: Kiroaldegiak (deportetako tokiak).

Zor eta lor, or diardue erri askok eurei begira. Batzuk egiñak eta kittu. Besteak ametsez egin eta nekez ordaintzen; beste batzuk itsu-itsuan egiten asi eta ordaindu al izateko alegin larrietan. Eta besteak... egin nai eta freno ipinita, egitamuak, diru kontuak eta abar zerbait argitu eta eratu arte.

Jokera, oraingo moda lez dagoz Kiroaldegiak.

Zabaldur diranetan arrera ona eta jende ugari.

Batzuk kezkatuta dagoz, errientzat lepo ganerako zama izango ez ete diran, asierako berotasuna epeldu ondoren. Besteak ziur dagoz mesedegarri diralako.

Guk len txandarik artu ezinda ibiltzen giñan pelotatokiak ikusten doguz utsik. Lengo pelotatoki eder eta zabalak, pelotarako iñor ez eta beste edozertarako zabaldua.

Egia da oraingo kiroaldegiak zabal eta ugariak dirala. Jokabide askotarako egokitzen dirala. Eta jokoak ez dirala bakarrik soñarenak. Ba dagozala gogoari be atsegin jakozanak eta kiroaldegi oneitan ba dagozala orrelako erakusgarri ta jaialdien-tzako aukerako tokiak be.

Ba dakit Menotti, Barsa'ko ostikoketako manaxerra, Argentina'n osotuko dan jaurlaritzan (gobernu) barriak kiroletako arduradun lez izentateko asmoa daukala. Eta Menotti Euskalerrira etorteko da, emen egin diran kiroaldegiak ikusi, ezagutu eta erakundearen barri artzen.

Ba dirudi ez dagola erririk kiroaldegi barik geratu nai dabenik. Esan lei askozentzat edozertarako "plaza" barriak izango dirala.

Ia iru milla milloie peseten eskabideak dagoz ortarako. Ez da aidean esandako zenbaki biribilla. Bi milla ta bederatzireun milloetik gora...

Jakiña, ez da errez dirutza ori urte baten ataraten, lengo batzuk aidean dabiltzan artean.

Kiroaldegiak egitean, itxasoagaz konturatu ete dira gure agintariak?

Ukatu eziña da Bizkai eta Gipuzkoa'n ba dagola zaletasun andia dagon kirol bat: estropadak. Kiroaldegia or dago aurrean ordaindu bear barik: itxasoa.

Baiña "probalekua" bear da, treiñeruak eta batelak, eta txalupentzako aterpea eta gizonentzako gertaleku edo txokoa.

Or ibiltzen dira errietako arraun elkarteak santa Agedako eskaleak baiño sarriago ortarako laguntza eskale. Ez al dauke ortan diarduenak "probalekuak" eskini eta opalduteko eskubiderik?

Ba dakigu Eusko Jaurlaritzak erriren bat edo bestegaz euki dabela ortarako esku zabaltasuna.

Baiña aurre-kontuak (presupuestuak) egitean, Aldundiak be utsune ori beteteko egokitasun bat ipini bear leukie, kontuan eukita gaur erri batzutan, bateletatik asi eta treiñeruetara, gazte askoren kirola or dagola eta erriaren gogo, ardura eta zaletasun biziko jokoa dala.

Deia, 15-1-84

IÑAKI BEGIRISTAIN

Erri antzerlariak egon izan dira. Urnieta bat. Gaur erri andi. Alaz eta ezagutu gendun erri koxkor, baiña antzezlari talde polit bategaz, eta ondo gertuagaz.

Bardin Gipuzkoa'ko Alegi. 1935 urtean Donosti'n egin ziran taldeen leiaketa-
ra agertu zan, Lezo, Legorreta eta beste erriekin batean.

Gerra aurretik dauke, gure artean, entzute berezi bat. Oiartzun'ek lez. Baiña gure azken gudaren ondorena, illunpe eta mututasun, segalari izan zan edozelako euskal agerpenentzat.

Biotza, adorea eta umorea bear ziran denporaldi orretan euskal lanari ekiteko. Berba bat naiku zan estualdiak emoteko.

Bat gogoratzeko: Oiartzuarrak "Orreaga" antzerkia emoten ibilli ziran. Ondarroa'ra be eldu ziran. Erriko plazan antzeztu eben. Lan orretan, frantzetarren aurkako oi u eta deadarrak egiten dira. Bera frankoak! deitzen dabe talde baten an iruditzen diran gudariak, frantzetarrakaitik.

Eta? Ba oiartzuarrak kuartelera eroan zituen Ondarroa'n eta goizalderarte, ia albakoa joarte an euki, deadar orregaitik, mugatik onuzko norbaiten aurkako dea-
darra zalakoan.

Orrelako giroan, berba erdikak be esan-nai okerreaz artzen ziran giroan, euskal antzerkia mutu egotea ez zan arrigarri.

Alaz eta ezagutu izan doguz euren doaiei jarraituz lanean ekiten asi ziranak.

Iñaki Begiristain bat.

Gizon zintzo eta jatorra. Esateko, olgetan ibiltzen ez ekiana, beti lotsakor eta ben-benez baiño. Eskola klasikoaren barruan beti, bai lan gaietan, bai eta idazkeran be.

Amabost antzerki andiren egille, bat lau ekintzaduna, besteak irukoak. Eta orrez gaiñera beste iru txiki ta ainbat euskeratze, "Lurrun-argia", "Itzaltzuko Koblakari", "Iparragirre", "Troiarak" eta abar.

Gaixo ebillan azpaldi. Iaz, Azpeiti'ko Antzerti Topaketak gertatu ziranean, Alegi'ko "Intxurre" taldekoak ziran. Bera, taldearen zuzendari izanarren ta orduan antzeztu zan "Bata zu eta bestia ni" lanaren egillea, etxean geratu zan. Emon ziran aitzaki eta agerpenetatik, danak igarri gendun gaixo gaiztoen batek menpetu ebala, orain ainbeste entzuten dan gaixo latz eta bizikentzaille orreitako batek.

Oraindik geroago, gabonetan, adorez eta itxaropentsu idatzi eustan. Baiña san Antonio'k bere eguna ospatutera deitu eustan.

Ezin ukatu euskaldunak idazle erraz, jator, euskera ugari ta oneko idazle bat galdu dogunik. Artu zitun garrazkeriak artuta be, lanean zintzo jarraitu eban euskal langille zintzo eta kontzientzidun bat galdu dogunik.

Ba guaz utsunak lagaten. Ez edozelakuak. Gorago aitatu dogu bere lanen kopu-
rua. Aldi baten ezagun izan zan Gipuzkoa guztian zear "Kimuberri" taldea. Bera

zan sortzaile, lanen egille eta antzezleri be. Geroago, gure egunetan or dago Alegi'ko "Intxurre". Bera izan da bertako zuzendari azken lau urtetan. Talde orregaz larogetak antzerki jaialdi emon zitun. Erreza da esatea.

62 urte, lan eta naigabe, min eta ekin, igaro dauz Begiristain'ek. Alzo'n jaio zan 1922-IX-14'n. Alegi'n il 1984-VI-13'en.

Egun andirarte, Iñaki.

Deia, 1984

IRABAZI ONDOREN

Kaixio etxekoandre!

Zure senarragaz batzen naz tartetan.

Bere esaera: Gaur be nire andrea an egon da zu irakurten.

Beste baten: Ordu ta erdi igaroten dau, illunkeri batzuk ezin argituta.

Gaur, zorionak emoteko, zu aukeratzen zaitut.

Argi ta labur egiten aleginduko naz.

Zure senarrak nai dauan lez, berba gitxigaz.

Irabazi nai gendun.

Irabazi dogu.

Ez da erraz izan.

Bitarteko garratzak egon dira.

Dana gure gain jausten da

Etxekoak andrearen gain lez.

Izan be Euskalerrria gure etxea da.

Etxean be, alegiñak egiñarren, ez dira egal guztiak txukun eukiten.

Eta etxekoak be ez dira danak nai lakoak izaten.

Senarrak eukiten ditu bere gogorkeri eta garrazkeriak.

Zure egunak be ez dira bardiñak izaten.

Batzutan zeu ibilten zara senarrari zigarroak eskintzen. Eta bestetan, toki guztiak zigarro autsez beteta dagozala-ta gora-goraka, errietan, ezpanetatik kendu ezinda.

Ezin lei beti bitsetan eta adurretan bizi.

Semeak, seme alabak, ba dakie ernega eragiten.

Ez dira danak etxeari lotuak eta makurrak izaten.

Batzuk biziagoak, besteak arduragabekoak.

Sekula ez jatzu gertatu, etxea garbien dagonean kaletik norbait basaz beteta etorterik?

Eguneko izerdi guztiak, ordu laurdenean alperriko egiten?

Alaz eta, etenda be, zure alegiña ipinten dozu.

Etxe andi bat da aberria be. Beti barriztu bear dan etxe zarra.

Asko bizi garean lez eguneroko ardurak eskatzen. Eguneroko zeregin geiagoz.

Beti dira etxean gaixoak, makalak.

Gertaten dira konpondu ezin diran praka zarrak be. Areikaz be alegiñak.

Batzuk abestu nai dabenetan besteak mutu egon nai izaten dira.

Batzuk oean etzanda, ta besteak kale eder. Batzuk zirin eta ziztrin, besteak baldar. Batzuk argi eta besteak illun. Batzuk bake zale ta besteak burrukarako gertu.

Eta abeiTía, etxea, euren jaube egin bear. Etxeko lez danak artu, zaindu eta erabilteko beartasunez. Danak daukelako ortarako eskubidea. Eta gurasoak, amak batez be, ezin leikelako iñor bereiztu.

Irabazi egin dogu.

Zer da irabaztea?

Etxeko ardura eroateko konfiantza emotea besterik al da?

Irabazi ba dogu, etxeagaz len baiño lotuago geratzen gara.

Zetarako nai izan dogu irabaztea, etxea konpondu, zaindu, barriztu eta indartuten alegintzeko ezik? Zetarako gure nasteak eta barruko goraberak zuzentzeko ezik?

Esan senarrari irabaziaren pozaz gaur errezago irakurri dozula. Eta irabaziaren adorez, euskeraren poza be sartu jatzula. Irabazteak orretara be beartuten gaitulako.

Deia, 28-11-84

IRUÑA ZARREAN

7 DE JULIO, SAN FERMIN

Bai ala da. Baina gaur, egunak, astea ekarten dau. Jaietarako beintzat.

Azken urteotako lanaren utsa gertatu ez ba litz, gaur iruña ia berreun milla lagunetara elduta egongo zan.

Gaur lan kontua naastua da eta erbestekoen etorria be geldituta igarten da. Baiña lengo Iruña zarra. Kristo jaio aurretiko erromatarren ibillerak ezagutu zituna, emen dago. Lengo ta oraingo. Len, Kristo baiño 75 urte lenago, Pompeio bat emen ibili zan Castra pampelonensis deitzen eutsoen erromatarrak beroni.

Toki egokia zan erromatarrentzat. Garai artako bide nausiak emendik igaroten ziran. Ala Tarragona'tik Oiarso aldera edo ta Bordeletik Astorga'ra.

Batzuen esanetan, erromatarrek eta euskaldunak batean bizi ziran. Batzuk goi mallatan, agintaritzta eta antzerakoetan. Bestean lurrari onurak ataratzen.

Gero, aurrera jota, Iruñatarrak gogoei sarrera ukatzen ezagutzen dira. Azkenean, 468 urtean, lortu eben sartzea. Origaitik bisigodotar errege askoren kontularik arro esaten eben "euskaldunak menperatu egin zituela" ala Txilderiko, Leobigildo, Banda Klotari eta besteak.

Geroago, Gizaldi bat geroago, Santxo Audia bat aurkituko dogu Iruña barriztatu nairik eta napartarren eskubide osoko erri bat zabaldu nairik. ortatik dator napar erria deitura emotea Iruña'ri.

Erromatarren egoeraz, Nikasio Landa sendagilleak diñonez, euren kapitolioa euki eben Iruña'n gaurko katedralaren inguruan, eta Diana'ren eleiza gaur San Zernin eliza dagon inguruan.

Eta euskera?

Ontaz lan polit bat egiña dauka Latxaga adiskideak. Bere esanei jarraituz agiri batzuk artuko doguz.

XV garren gizaldian Iruña'n euskera egiten zan. Beamontarrak kopia onek kantatzen ei zituen:

*Labril eta Errege
aita seme dirade,
kondestable jauna
arbitzate anaie.*

XVI garren gizaldian, garizumako sermoiak, iru-lau eleizetan euskeraz egiten ziran.

Langilleen artean geienak euskaldunak ziralako, Erri-etxeko agindak euskera-ra aldatuta emoten eutsezan.

Garai aretan, emengo gotzaiñak euskal-olerki sariketak ipinten zituezan, jai andien bat goratzeko.

Axular, euskal literatura zaarreko goren agertzen dan idazle jatorra, emen abegintzan sartu, emen diakono ordenatu eta ementxe ausartu zan bere lenengo liburu agertzen.

XVIII garren gizaldian apaizentzako dotriña bat argitaratu zan euskeraz. Aita Mendiburu emen bizi zala, sermoi asko euskeraz egiten zitun San Zernin'go eleizan.

1810 urtean, frantzetar gobernadore bat bertako buru zala, euskal jenteakin ondo ulertzeko premiñazko zuala, euskaldun bat pasaporteen idazkaritzan ezagutu eta ala jarri ere.

Ikusten danez, iruñarrak, iruñar jatorrak, oraindik odolean darabille gure izkuntzaren urratsa. Eta odol beroa baiño obeagorik ez ei dago lo-konkorrak uxatzeko.

Diario Vasco, II-VII-76

IZTEGI BARRIA

Bizkai errietan alkateen pregoiak onela asten ziran:

Alkate jaunaren aginduz adierazoten da...

Ba dirudi ori be aldatu egin bearco dala. Ez alkateen aginduz, egiteko diran iztegi barriaren arauetan baiño.

Dakigunez Euskaltzaindiak batetik eta iru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Izkuntz Politikako Idazkaritzak bestetik, itun (konbenio) bat izenpetzeko dabe Iztegi ori egiteko.

Eun eta amazortzi milloes peseta da bere kostutzak oraingoz zeaztu dan dirutza. Ortik erdia iru Aldundien artean ordaintzeko eta beste erdia Jaurlaritzako esandako erakundeak.

Aurten Bizkaia'k 5.665.800 peseta ordaindu bearco dauz. Gipuzkoa'k 3.525.150 eta Araba'k 1.459.050.

Eta datorren urtetik 1988 bitartean, Bizkaia'k 6.384.000 peseta urteko; Gipuzkoa'k 3.972.000 eta Araba'k 1.644.000.

Itun au Batzar Nagusiak baimenduteko dago, baiña ba dirudi orretan ez dala eragozpenik agertuko.

Iztegi au Koldo Mitxelena zuzendari eta Ibon Sarasola arduradun eragille lez egingo da. Ete eurekin batera "programatzailea", "bi lankide hiztegi prestatzaile", "mekanizatzailea" eta "bulegaria".

Ezpairik ez dago Sarasola'k argitaratu daben "Hauta lanerako euskal Hiztegia", beste onen oiñarri edo asiera danik.

Ori orrela, agertu dan orretan, gizon bat ilten danean aurretik ipinten jakon kurutzatxoa lakoa ipini dautsa berba batsuei, jakin eragin nairik, berba ori iltzat emon bear dala, edo bertan diñonez "ornatzen ez diren hitz-aldareak eta adierak markatzen dituen ikurra" dala.

Orrela **adierazo** kurutzetuta geratzen da, ta **adierazi** bizi.

Abots berba be eriotzara dua, eta **ahots** biztu. Onela diño: Ahots-Laringeak, bertako hariak dardaratzen direnean sortzen duten soinua". Guk len eztarri edo zintzur erabilten gendun, baiña gure lobak laringe esan bearco dabe.

Abiltasun il eta **abildade** ondo ikusi. Nai eta Azkue'k **ade** atzizkia begiko izan ez.

Kontuz baita Santa Ageda kantariak. **Aintzald**u daigun Agate deuna'ren ordez, **aintzatu** esan bearco dabe.

ALKAR berbak ba dauka kakua. Erregularik ez dagon lez salbuespen edo eskubide bakar barik, **alkar** kurutzetuta geratzen da, "Eusko Langileen Alkartasuna-n ezik". Beraz ELA ez da ELE biurtuko. Sindikatuen lotsa eta esker ona agertzea da ori. **Alkondara** be galdu egingo da **alkandoraren** mesedean. Eta abar asko.

Ez dogu ukatuko izen askotan bateratze bat komeni danik, baiña ikusmen zabal bat egongo dala uste dogu, beti batzuk ertzean itxi barik.

Bein iztegia agertzen danean, idatzi-ala bertara begira ibili bearko gara, dara-bilgun berba bizia edo arima galdua ete dan.

Deia, 12-VII-84

KONTU GARRATZAK

Diruak menperatuko gaitu, edo oker andiren bat gaindu naiak; ez fedez eta siniskeraz makurtu.

Mingarri da esatea, alaz eta egia da.

Norbaitek, biologiaren indarrez onartzen ebala euskerako era barri bat, esan eban.

Ori esatea, era batera edo bestera, bizi naia erakustea da. Drogatuta izan da be, bizi itxuran ikusi naia, esango neuke.

Esana daukat. Iñoiz nire euskeraren joeratik urteten ba dot, goseak eta bizi-premiñak eraginda izan leike, ta ez bestelako bultzadaz.

Sariketa batzuk egon dira oraintsu euskal elertian.

Bana-banaka ez nua eta ezin nei iñor salatu.

Askotan norbere usteak, eratuak izaten dira. Maitekeriak edo arrokeriak eragiñak. Ezin leike esan sariketa bat edo beste batek ez dabela irabazi au edo bestegaitik. Edo ta origaitik irabazi dabela. Umekeria litzake ori. Norbere makaltasunean sinistuten dot, sinistu bear dan lez; bai eta epaikarien zintzotasunean be.

Ba dakit sariketak gertuten dituenak euskerari zela-ala indarra emotearren eraturten dituela. Estutasun barik. Zabalak izan nairik gaiñera.

Batzuk, bai, mugak ipinten ditue idazkeran. Orrelakoetan idazleak ba dakie zelan jokatu. Edo ta giroko ez ba dira zegaitik ez sartu.

Bestetan, edozein idazkera ontzat artzen da. Dirua ipinten dabenaren naia. Baiña mai burukoak aukeratzean, euren gogo eta joeretan alderdi bakarra ikusten ba da, gaitz da borondate ori zaindutea. Gaitz siniste orretan irautea. Gaurko jokabidean gaitzago.

Karidadeko fraile edo monjaen antzeko gara euskal idazleak. Nekez billatuko da bizitzako denporarik geienean gure antzera txori txiki baten asmo barik millaka ordu lanean sartu dituenik. Egia esan bear da. Dan lez.

Giroa aldatu da. Gaur euskerak bizi bidean lagundu lei. Baiña laguntza ori norbere eritzi, siniste eta joeren aurka ba dator, eta belauniko jarrita lortzeko ba da..., lenakoena: "Cesar, morituri te salutant". Kaisar, iltera doazenak agurtuten zaitue.

Oraintsuko leiaketa baten, olertian (poesian) aitatu barik geratu zan batek, konfiantzaz esan eustan: Adiskide, gure giroa igaro zan. Nire erabagia artu dot. Ez noa geiago leiaketa batera.

Andik laster, goraberek aztertzean "barruko" batek esaten eban: Ondo egin eta ondo neurtu eta landutako olerki eder bat be egon da Bizkaieraz zan... zoragania...

Eta?

Eskutuan geratu zan.

Aipamena euki daben eleberri (nobela) egille bateri itandu neutsan: Zelan idatzi zendun?

- Egia esango dautsut: Gipuzkeraz egiña neukan. Baiña epai maikoak nortzuk ziran jakitean, batura aldatu neban.

Konturatzen? Ez dot epaigaririk salatuten. Giroa bai. Giroa. Sari bat lortu edo ez, gurea egiña dago. Jainkoak ondo artu gaitzala gure txirotasunean. Eta ez daigula lanerako gogorik kendu.

Baiña oraingo gure giroan, eguraldi usteletan lako giroa igarten da. Erabide edo jatorriz datorren jokabide baten aurkako burruka, oraingotan, gero ta geiago, dirua bitarteko dala. Eta diruak dantzan obeto daki artajorran baiño.

Azkatasuna maite izan dogun euskaldunok, indarkeri ustel baten menpean makurtuta edo makurtzeko zorian gagozan giroa igarten da.

Indarkeria ez da bakarrik izkilluekaz erakusten. Diruarena be indarkeria da. Eta buru gogorkeria be bai. Eta ez gara gu bakarrik buru gogorak. Amaikatxu ba gagoz zein gogorrago jokatzeko gertu!

Izkillupean jausi eta mututu eragiten dabenak ez dakit ze izen dauken euskeraz. Diruz makurtu eragiten dabenak, zitalago dira, otzago eta gaiztoago.

Irakurleak, gure euskera atsegin dozuen irakurleak, zuen arnasarik ez eiguazue ukatu. Bestela idazle askok pot egingo dogu eta gure zeregiñari laga.

Deia, 20-XII-81

KORTA, GUDARIEN KAPELLAUA

Ez da errez ulertzen gure gerratean Euskalerritik kanpora joatea zer zan.

Santander eta Asturias'ek ez eben iruntsiten, edo ezin eben iruntsi, gure jokabiderik.

Eurentzat giroz kontrato gizon giñan. Gure siniste zarrei lotuegi. Beraz erriaren asmo eta giro, jokabide eta plangintzen aurkako. Ain zuzen be euren iraultzako pentsabideen aurkako.

Gure erri-miñak, gure erriaren onak, euren esnagaiTÍ bear ziran eta ez estugarri.

Ezin leikie esan Euskalerrriak, gerran sartu zan gure erriak, eurekin artu emonik euki ez ebanik.

Eun milla erriz-aldatu eta igesle, errefuxiatu, genduzan Bilbo'n. Geienak gipuzkoarrak. Alaz eta Santander eta Asturias'era janariak bialtzen alegindu zan gure jaurlaritza, bertako nasaitasunari kenduta.

Ez gendun etxerako armarik. Eta jakiña da Asturias'en Oviedo inguruko guda-joaldiak asi ziranean, Bilbo'tik izkillu tresnaz beteta urten ebalá itxasontzi batek.

Edozeiñek igarri lei geroago, Bilbo galduta gero, zelako giro eta gogoz ibili geinkean gu, ez adore ta ez onore.

Ni-neuk bizia da. Mieres'ko erri-etxean, Iñaki Deunaren eguna ospatuteko gure artean meza baten eukaristia gogoratzen gengoza, "guaje"ren batzuk oartu ginduezan. Asarreka asi ziran. Eta ordu bete baiño len an gendun zigorra: Asturias'etik ainbat ariñen urteteko agindua. Batalloi oso bateri zemaia.

Eta ez jakin kañoiengada izatera joan ez ete giñan be ara. Gure gogoaren aurka beintzat. Baiña itsukeri bat ebillan gure aurka. Azpikeria eta zapukeria.

Gurea lagata, ni-neuk bizitakoa lagata, il onetan gertatu zan eskintza bateri nagokio gaur.

Udabarria baiño len, gudaldiak ziran Asturias'en. Ofentsiba. Oviedo zan an gerrako arantza. Eta españar laterri Iparraldeko gudarostearen zela-alako batasun bat erakusteko, euskal mutillak be joan ziran. Euskadi'n batzen zan artilleririk geiena ara bialdu zan. Ametralladoretako guda-talde edo konpañi bat be bai. Beste sei batalloe. Gogoratu Saseta gudalburu entzutetsua. An jausi zan. An zan baita Jose Mari Korta be. Bilbotar abade gaztea, oraindik Kristo'ren urtetara eldu bakoa. Guda-mutillen kapellau urten eben eleizgizonen buru aukeratu eben. Ta lenengotik joan nai izan eban arriskua egoan tokira. Antxe jausi zan 1937 urteko epailla'ren 17'an.

Bere illeta ikusten eta laguntzen egon giñan Bilbo'ko Gran Via zear egin zan ibillaldi ixiltzuan. Esker eta omen, eta gerraren zotiña igarten ziran arratsalde aretan. Euskalerrriaren siniste batzuen eta jokabide baten agerpiderik zintzoena.

Bost illabete geroago, bera ibili zan tokietan ibili bear izan gendun, gudamuti-

llen makurrez, eta ez gendun gure sinisteentzat gure auiTetikoak an ixuri eben odolaren lotsa eta begirapenik be artu.

Itsukeria eta ezaupidea, odola bitarteko ba da, ez ei dira alkartzen.

Egi garratza.

Deia, 18-11-81

JEMEIN-ERRAZTITARRAK

Abertzale zarren artean gizon entzutetsua zan Zeferino Jemein.

Batzarretan, erakundetan, ekintzetan eta idazlanetan sarri agertzen zan bere izena.

Bilbo-n jaio zan 1887 urtean. Laudio-n il 1965'ko bagilla'ren 29'an.

Abertzale jokabidetan aurrengotan agertzen zan gu gazte giñala.

"Jadarka" deitura erabilten eban. Bai eta "Amandarro", "Bachiller Belandia".

Euskera garbi, kutsu bakoaren zalea. Berba gaitzak, aozketa oker eta zaillekoak be ez eutsen atzerarik emoten. Garbi esatea, euskaldun jator agertzea zan bere naia.

Bere denporetan, batez be bilbotarrak sortzen zituen euskal sariketa eta leiaketetan, epai-maiko izaten zan. Bera, Joseba Errazti, Joseba Altuna eta abar. Asko ugaritu barik.

Meritu andikoak bera ta bere emazte Errazti'tar Karmele, euskeraren arloan. Ez batak eta ez besteak ez ekien euskerarik umetan. Alegiñez ikasi ta idazle izatera eldu ziran.

Nikolas Ormaetxea, "Orixe" lez ezagutuak, "Euzko Gogoa" idatzita laga eban Jemein'eri buruz: "Zu ederki ari zera euskeraz, amaika alperri ikasbide ona eman ez".

Egia da euskeraz baiño erderaz geiago idazten ebela. Ba dirudi euskeraz argitaratu eban lan bakarra be, "Oleskari bijak" sariketa bat bitarteko zala idatzi ebala, eta saria lortu, 1915 urtean. Baiña idaztea edo idatzia irakurle bategazko alkar-itun edo tratu dala, zeñiek euki lei giroko ke eta auts artean lez, euskera kontuan be arnas artu eziñik dabillan Bilbo onetan, idazten jarduteko gogoa?

Gizona eta giroa, esaten da. Eta egia da.

Orrelako ziran biak. Bai eta bere emaztearen neba, Joseba Mirena. "Euskeltzale

Bazkuna"n ekiten eutsen lanean. Alderdi Jeltzalearen barruan, garai artean, euki eban Bazkun onek bere indarra. Nik esango neukenez, indar salataria. Kontzientzirako indarra. Kontu egin, len esan dodan lez, Errazti eta Jemeindarrak ez ebela euskera amaren bularretik artu. Ikasi bearrean aurkitu zirala.

Garai aretan entzutetsu izan zan Aita Arriandiaga'ren adiskide zintzo lez, aren iturritik ikasitako euskara ekien. Gero erakusketa orren maitasuna agertzen jakin eutsen. Erraztitarrak ordaindu zituen beintzat Arriandiaga'ren liburu batzuen agerpenak.

Askotan, ondo pentsatu ezker, buru gogor, setatsu ta arlote izan bear. Gotor. Emazte ta bera, gazte ziran artean, mendizale be izan ziran. Bilbotarren mendizale-tasuna ez ete da Bilbo'ko giroaren saleketa bat?

Euren ibillera guztiak Arana Goiri'ren maitasunez egiten zituen. Emazteak ez eban gerra ondorengo erbesteratetik aberriratzeko zorionik euki. Pau'n il zan 1954 urtean. Senarra, arrezkero, itzal eta miñez ezagutu zan, Laudio'n, amar urte geroago il arte. Joseba anaia il eta urte batera.

Ezpairik ez dago abertzaletasunak kontzientziko ardurea be sortuten dauala.

Onetan Erraztitarrak eredu izan ziran. Euskera ikasi ta zabaltzen eta zabaldu eragiten. Origaitik lortu eben "Enbor" argitaldaria eta antxe asi ziran Julene Azpeitia'ren irakaskintzarako lan batzuk argitaratzen.

Gaur, illunpea igaro ondoren, euren jokabidea "gogorregizat" etsiten dabe batzuk, baiña ukatu eziña da euren denporetan euskera indartzen asi zala eta E.A.J.'k be euskera gaia ardura bereziz erabilten ebala. Ortarako eukan zirikalari, Bilbo'n lez beste erri askotan, "Euskelzale Bazkuna". Ukatu eziña da Jemein-Erraztitarrak, aldi aretan, izkuntzaren ardura erriagan sartzen alegindu zirala. Eta euren denporetan, ez zan gaur aiña argi ikusten orrelako jokabidearen bearra.

Deia

LEKUONA JAUNA

On Manuel, don Manuel, Lekuona tar Imanol...

Bardin.

Iñori ez dausat entzun "aita Manuel" deitzen. Eta aita bat da.

Zorroztasuna eta maitasuna.

Apaltasuna eta jakintsu andien ixiltasun zurra.

Lotsa eta itzal andiko gizona.

Laroegei eta sei urte, lepoan.

Ume-umetatik ikasi eta erakusten.

Bizi bear ikusteko.

On Jose Migel Barantdiaran'en bizitzan irakurten da, 1925 garren urtean, Seminariotik atara egin bear izan zitula bere etnografi eta prehistoriko tresna eta batuta eukazan gaikiak. Bere eguneroko, zatia da:

"Seminarioan dauzkadan Arabako prehistoria-gauzak Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren leku berrira daramazkit. Bazkunari gordetzeko ematen dizkiot, Seminarioan ez bait dago lekurik gauza orientzat, ez eta borondarterik ere, lekua izango balitz".

Eta gero, gerra sortu zanean, iges egin bear. Zitalkeriz eta bekaikeriz oker ikusia zalako. Nai eta sekula politikan sartu ez, euskal gaiei ikutu egitea naiko, politika kutsua sartu eta ezarteko.

Orain, urteak urte, "doctor honoris causa" ospe eta aintzaz beteta izentatzeko.

Bizia lakorik ez egia ezagutzeko.

Aintza eta ospe berbera emoteko, baita, don Manuel'eri.

Berezko ez dabenari Salamanca'k ez ei dautso ezer irarten, esaten ekien gure zarrak. Eta gure Gasteiz'ek be, geitu bear guk.

Zenbat begirakune, uste oker, bekaizkeri, azpikeri, ikusi ezin, Lekuona berberarentzako! Gasteiz'ko abade-ikastetxean gitxien ez, batez be an jaio ta osotu zan "Kardaberaz" taldea zalata.

"Barandiaran dar Jose Migel, Euskal kulturaren Aitalen" liburu berbetan irakurten da:

"Ain zuzen, Gasteizko Seminarioa "separatista" omen zalako salaketa, don Manuel Lekuonak, -gero Euskaltzaindiako buruak-, zuzentzen zuen Kardaberaz Akademiarentzat zan bereziki: euskera-gaiak sakontzea ta euskera bera zabaltzea ziran, Akademia orren elburuak. Ori "separatismoa baldin bazan, euskera-ikaskuntzan ari diran, nazioartean izen aundiko izkuntzalari ta Europako naiz Ameriketako Unibersidadeak, separatistak izango dira".

Eta on Manuel, gerra agertu zanean, ez zan erbesteratu. Bai gerraren lenengo egunetan anai baten izkilluzko eriotza negar eginbearrean gertatu eta gero, denporak zerbait argitu arte, konbentu baten bere burua eskutatu.

Lekuona'k maiteago dau serotetxea deitzea, konbentua baiño, nai ta serorak Frantze aldeko sororen izenaren babesa artu. Eta antxe bizi, poema argitsu ta zorgarriak ama brigidei eta euren babesean egiten.

Lekuona'k ondo daki bizia zer dan. Baiña berak "bizia maite irria" goratuko dau berezko daben poeta giarrez.

Ezin bere lanik aitatzen asi onelako lantxu baten. Ba dira egin bear leukenak.

Baiña bere jaiotz egunean, eta omenaldi aurrean, guk gure lenengo urtetan ikasi gendun latin apurraren oroitzaz "ad multos annos" bat biotzez luzatu bai berari.

1930 urtean, Gasteiz'ko Seminario barria zabaltzean, an nitzan, eta urte aretan,

illabete baten bera izan neban irakasletako bat. Oraindik sotanarik eskegi barik, gaixo etorri nitzan etxera.

Ez dogu zetan lotsatu Seminarioagaz. An ikasiak kalterik ez dausku egin. Ain zuzen egun onetan bertan dira baita ango Seminario txikia zabaldu zaneko urteak. Ala diñoe Arrese Beitia'ren bertsoak:

*O, egun dontsu, gomutagarri benetakoa!
On Sebastian Herrera jauna zara etorri;
milla zortzireun irurogeita amazpiko
zezeillaren bederatzian zan jazo ori.*

Deia, 9-II-80

LEN ETA ORAIN

Euki genduzan gure azken gerratean egun garratzak.

Eta bitarte ameslariak bere bai.

Biurtzea ondo gertuta ez daukan guda burua (general) ez dala ain ona esaten dabe.

Dirudianez, gu gerrikoa, gure zimenduzko eta burdiñazko gerriko entzutetsua egiten ibiliarren, ez gengoan atzera begiratzeko. Erriari bizibari bat emon naiko ametsak be egiten genduzan. Euki, egin eta egiztu.

Erri ameslariak etorri andiko izaten dirala, irakurten da. Gero ikusi bear egun bateko ametsak pozik ekarriko ete dauskuen.

Berrogei ta sei urte dira egunotan. Euskal Ikastetxe Nagusia (unibersidadea) sortuteko oro-agindua (dekretua) agertu zan.

Danok genkien gerra denpora ez zala orretarako denporaldi egokia. Baiña zela ala sortzea edo asiera emon bearreko zan.

Irakasle ta ikasleak, gerra aurretik, gure errialdeko Ikastola Nagusi baten eska-bidez ebiltzan. Ikasleak erriz erri itzaldiak egiten ezagutu genduzan gerra aurretxo-an, euren guraria errian berotzen eta indartzen.

Guda bitartean, gure Jaurlaritzta sortu ta bertako agintariak aukeratu orduko, urrilla'ren 9'an Zuzentza eta Gogo Lantze Zaingoaren oro agindu bat agertu eban. Ikus "Euskadi'ko Agintaritzaren egunerokoa", 4 garren zenbakian). Onela asten zan: "Ez da gaurkoxea Euzko Jaurlaritzari eskerrak, bereala sortu erazi liteke gaur-

koan". Eta bereala jakintsu diranen onuak bearrezkoak dirala autortuz, orreitakoen talde bat izentatzen zan irakastola Nagusi orren oiñaniak ikasi ta jarteko.

Orra gure jaurlaritzza, aginpide apur bat artu orduko, asmorik andienak artzen.

Baiña zegaitik gorde nai zan "dirurik ez gendun denporetan" gaur bizkaitarrok eskatzen dogun erri izkuntzentzako lotsa bardiña, eta gaur, euskerarentzat dirua egongo dala esaten dan garaian, euskeraren era batzuntzat ain mirrin eta bildurti agertu, bizkaieragaz gertatzen dan lez, euskerarentzat, bera besteen parean erabiltea zamaketa (karga) andi bat litz lez?

Begira zer diñon garai aretan Agirre eta Leizaola jaunak izenpetutako aginduak: "Euzkadiko izkuntza arazoa aintzakotzat arturik, euskera irakatzia izango da Osakintza Ikastolan, osagilleak izan oi duten eguneroko jardunari egoki izango zaion era, Belgica eta Suiza'n erri-izkuntzak jakin erazten dituztela gogoan izanda".

Euskeran komenentziko ulergaitz asko gareanez, erderaz zati ori zelán esaten zan azaldu daigun: "Siguiendo los precedentes de bilinguismo al efecto establecidos para la exigencia del conocimiento de las varias lenguas populares en Bélgica y Suiza".

Illabete geroago jakintsuen batzorde orrek bere eritziak agertu zitunean, azilla'ren 17'an izenpetutako Oro Aginduan, lenengo atalean au esaten zan: "Agintaritzza izakeraz jantzitako Euzko Irakastola Nagusia sortua izan bedi. Beronen burutza ordezkariak eta eginkizunak Zuzentza ta Gogo-lantze Burukideak izendatuko ditu".

Bigarren atalean irakastola Nagusi orretako Osakintza Ikastola Bilbo'n eratua izan dedilla agintzen da. (E. A. ren Egunerokoa. 41 zenbakia).

Orra, gure lenengo Jaurlaritzak, gerrako kezka eta arduren artean, Irakastola Nagusi baten oiñarriak ipini.

Egunak gogoratuz, guretzat garrantzi asko dauken zeaztasun batzuk be agertu nai izan doguz. Latiñez esaten dana: Intelligenti pauca.

Deia, 19-XI-81

LIBURU BARRIAK

Ez dakit fraileak esku zabalago ziran denporetako amairuko dozenara elduko naizen, baiña legezko amabikotea liburutan osotzera eldu naiz.

Durangoko liburu azokak dei egiten dau. Lanen sariketak dei egiten daben lez.

Askotan ez da saria bera pozgarriena. Esku artzea, parte artzea be atsegin izaten da, bestela egingo ez zan lanen bat gertuteko adorea artzen dalako.

Ba dirudi aurtengo Durangoko azokak, liburuak baiño disku eta soinu zabal-kundea geiago eukiko dabela. Liburuen kaltean? Ez dot uste. Bear ba da liburuei dagokiena, lengo denporetan baiño ezagunago dalako. Edo ta gaur jendeak erreza-go erosten ditulako kaseta eta diskoak.

Liburu bat egitea ez da gaitza, idazle izan ezkeru. Ataraten dago koska.

Danok dakigu euskal liburuak karu urteten dabela. Ezin leiz ataraldi andiak egin batetik; irakurleak be ez dira asko. Eta euskaldunok ez gara giro baten bizi, banatuta baiño.

Goikoen laguntza egongo dala esaten da. Artuko al dogu! Bestela jai.

Gaur ezin lei liburu bat salneurri egoki baten saldu, goiko laguntzarik lortzen ez ba da. Baiña laguntza au aurrez jakin bear litzake, araututa dagon lez, eta ez egillerik eta argitaldaririk aidean laga, urrengo baten ze etorriko.

Ortik datoz askoren atzerapenak. Ortik liburu gitxi agertzeak. Bestalde, agertzen diran liburu batzuk txukunago eta begiragarriago kaleratuko litzakez. Bai apainduraz, bai paperez eta bai agerbidez.

Ba dago lege bat edo erabagien bat ortaz. Beteten ete da?

Nire argitaldaria eskabidea egin eban iragarritako denporetan. Erantzunik ez da etorri. Gauzak orrela, itsuan asi bear saltzen, Jainkoaren grazian eta euskaldunen mesedeen pentsatuta.

Oraingotan beste liburuak baiño lodiago nator. Asperbako errietako ibiltari lez. 575 orrialde, 22 x 16 neurrietan.

Eundik gora gure errietako jakingarri, ikusgarri, oitura eta abar agertzen, nire ezaupide, ikusbide ta irakurrien ondorenez idatziak. Izena: "Gure inguruak".

Euki gendun Bizkaian "Agur" izeneko astekaria. An agertu ziran batzuk. Beste egunkari, irrati eta abar, besteak; barriak, lenengoz agertzen diranak besteak. Erri bakoitzaren ikurdi (eskudo) edo ta ezaugarri berezien irudi ta guzti.

Gaubekatarrek euskal liburuentzako endazko garra dauke. Larogetak urtegaz il zan aita, eta bere sasoiko euskal argitaldari ezagunen artean ikusi zan. Maitasun orrek zirikatatu ditu semeak nire oraingo liburu au moldatzera.

Eurak gar orregaz eta ni borondaterik onenagaz, plazara gatoz. Gure sinisteen maitasunak eraginda; gure euskal kontzientziak zirikatuta.

Uste dogu euskaldunak gure borondatea eskartuko dabela.

"Gure inguruak" liburua ikusten dozuenean, Pedro Mari Otañoren bertsuak gogoan egizuez:

*...ta bera nor zan jakina naian
inguratu nintzanian...
limosnatxu bat eskatu ziran
Jainkuaren izenian.*

Izan be, Otañoren antzeko itsu eskaleak gara gaur euskal liburuagaz plazara urteten ausartzen gareanok.

Deia, I-XII-82

LOIOLATARRA ETA GU

Gizon batzuk euren grazia eukiten dabe. Gatza. Urteetarako tengarria. Eta egun berezia be lortu.

Loiola'ko Iñigo, esate baterako, bere giroan ondo jausi zan, sakon.

Bear ba da gure erriak izateen begirapenerako gaur lako ikuspegi zorrotza euki ba leu len, naastuko zan edo ta illundu bere nortasuna gure artean. Ba eukazan erriak orretarako arrazoiak. Ez ebillan jauntxokerietatik urrun be.

Baiña Loiola'ko Iñaki'ren sarrera eta arrada eleizaren aize-egunetan gertatu zan. Alde batetik Eleiza ustelduta ebillan garaian, eta bestetik ustelkeri orreri eta nastukeri orreri urteera bat billatu naian ekiten iñarduan denporetan.

Eta or geratu zan Loiolatarra, eleiz gidari ta erriko patroï. Gogoen zuzendari ta erri gizonen irakasle.

Konturatu ete zan gure erria, Loiolatar berbera gure erabide ta agintari jatorren aurka ibilia zala? Edo ta parkatu orde, aztu nai izan ete eban gertaera ori? Edo ta erlegiñoaren lotuerak, batez be bere denporetako ia itsuerak, ez ete eutsan argi unerik be itxi orretan pentsateko?

Ezpairik ez dago gaurko erri-bideko ikuspegia eta ordukoa ez zirala bardiñak.

Gero, urteetan sartuz, gure erriaren patroïa-ganako lotsa eta lotuera, makurpe-na edo ta menpetasuna, ukatu eziñekoak izan ziran.

Bizkai eta Gipuzkoak patroïtzat aukeratu eben. Bata ta bestea ibili ziran, odolaren eskubideak ortarako erakusten. Eta egunak bere entzutea artu eban, bere iku-rra.

Aldi baten Bizkaiko Batzar Nagusietarako autuak, gaurko egunez jaubetuten ziran euren zeregiñen arduregaz.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, gaurko eguna aukeratu eban bere erakundearen ager-penerako. Eta ego alderako maitekeriak eta zalekeriak aztu egin zitun Arantzazuko erromes lez gure Loiolatarra gogoratzeko. Euskotarren aurkako kapitantza baten gerra-jokabideak be, aztu ez baiña ixildu bai, edo parkatu ta inguruko giroan aitzakitu.

1894 urtean, orain larogei ta amar urte, Euzko Alderdi jeltzalea sortu zan.

Urte bete geroago, gaurko egunez, lenengo Bizkai Buru Batzarra izendatu. Jakiñak dira orduko gidariak: Sabin eta Luis Arana, Juan Aranburuzabala, Salvador Etxeita, Fabian Izpizua, Elias Lekua eta Zirilo Llodio.

Geiago: E.T.A. berberaren sortzea be gaurko egunez gertatu zan 1959 urtean.

Ba dirudi euskal izatea ezin igestuta dabillala Loiolatarraren kerizpetik, bere ospakizunaren egunetatik. Egia esateko, ezin ukatuko dogu, jesulagunak euren zotiña itxi ebela Aranatarren eziketean. Eta ba dirudi Aita Serapio Mendia bat izan zala bereziki Sabiñengan benetako indarra euki ebana. Aita Mendia, bere aldikoak esan eben lez, "euskalduna biotzez eta orrela bertzale sutsua" izan zan.

Eta guk be, erriaren kantu zarra basterrera laga-ta, geure imnoa sartu nai izan gendun lengoaren gaiñetik, Iñaki'ren eskuetan ikurriña zabalik ipini nairik. Istoria da, nai eta orain beste aize batzuk jo.

Deia, 31-VII-84

LOS ANGELES

Amaitu da Los Angeles'etako Olimpiada.

Egun luzetan, amabost egunetako argi eta gau ordutan, uri orren izena zabal eta aizetsu ibili eta erabili da egunkari, idazti, irrati eta abarretan.

Zenbat gogoratu ete dira Los Angeles uri andi ori euskaldun batek ametsetan ikusi eta konturatutako leku baten sortu zanagaz?

Ortaz idatzi izan zan bere denporetan.

Gillermo Etxebarria batek, ingelesetik euskeratu eban orrelako lan bat. An esaten danez Kaliforniako uri andi ori euskaldun baten ametsari zor jako. "Euskalerriaren alde" aldizkariak bere XXgarren liburuan argitaratu eban itzulpen ori 1930 inguruan.

Bestera be danok dakigu Kalifornia eta inguruko errietan euskaldunak zelako arrastada euki eben batez be lengo gizaldiaren erdi aldean.

Norbaitek idatzia da Mexiko'k USArri Kalifornia eskiñi eutsanean, toki oiTek dolar batik ez ebala balio eta euskaldunak sartu zirala bertan, eta an asi zirala euren ondasunak egiten. Eta ingurutakoen artean Los Angeles aitatuten zanetan, erantzun lako esaera izaten zala: Los Angeles, an dana da euskalduna!

Eta ez Los Angeles erria bakarrik atakotzat artuta, inguru zabal guztia artuta baiño.

Parrokiak be bi euskaldunak sortu eta jasoak dira angoak.

Edozetara be beti da euskaldunontzat pozgarri bat, nai ta orrelako aurkezpen baterako aukera ezin eukiarren, gure odoleko kirolari banakak bakarrik bertara bialdu eta agertu.

Kemena eta indarra, gaitasuna ta trebetasuna igarri dira ango joko askotan. Gastetasun oso baten eskintza, sarri.

Eta ezpairik ez dago ango agerraldiak aberri-miña sortuten dabela, abertzaletasuna zabaldu.

Ikusgarri izaten da, domiñak emoteko jaiian, irabazlearen errialdeko ikurriña gora doala, kirolzale batzuk ikurriñari begira agertzen daben begirakada, malko edo ta arpegiko egikada soil bategaz iruditu eragiten daben aberriaganako maitasuna.

Olinpiadetako zertzelada askok iges egiñarren, orrek beintzat, abertzaletasunaren sentimenetan irristada andia eragin izan dau.

Bestelako dira, aizetsu ta bat-batekoago, ikusleen errikeriaren txalo, zapi-aize-tze eta abar. Bestelako ikusle eta entzuleen oi, deadar, aupada, irrintzi ta zaratak. Abertzaletasuna ukatu barik, arrokeria be ba dago or nastean. Baiña jokolariena, illetako estutasun, ukatze eta alegiñen ondorenez, norbere erriari, bere ikurriñari eskiñi leikena biozkada da, bakoitzaren doai eta duintasunaren osotasunean bakoi-tzak eskiñi leikean serbitsu bat lez da, bete bear bat eta bere ondorena.

Niretzat olinpiadak, beste alderdi on eta zindoen artean, ortxe dauke alderdi eredutsu eta baikorra: gizatasuna indartu eta zindotzeko dauken bete-beteko ekarri eta almena, errien arteko leiaketa jator eta onuratsuen bidez.

Deia, 17-VIII-84

LOSADA ETA MUSEOA

Eun urte dira Bilbo'n "Museo de Bellas Artes" zabaldu zala, len gaixotegi zarra egon zan etxean.

Manuel Losada izan zan lenengo zuzendari.

Geldi egon eziñiko ertilaria zan Losada.

Bilbotarra, bertako plaza barrian jaioa.

Ertilari (artista) askoren antzera, bere ikasietarako gure inguruko laino eta estutasunak baiño argi zabalagoa billatu nairik Paris, Belgika eta Holanda'tik zear ibili zan.

Alaz eta bera Bilbo'ri lotua ikusten zan. Bilbo'ko erti-lan guztietan sartuta ebillan.

Margolari (pintore), erakuslari, antzertilari, eta beste ainbat gaitasun eukazan.

Gitxik dakie Azkue zanak antzoki (teatro) txiki bat euki ebala Iturribide kalean. Azkue eta Losada urte bereko izan ziran. Eta garai aretako antzeskizunak eratu-ten, batez be operak eratu-ten, biak euki eben indar eta esku berezi bat, bakoitza bere gaitetan.

Bilbo'ko Koral Abesbatzak euki eban bere aita: Bilbo'ko Orfeoia. Eta emen be, sortzen, biak euki eben auspoari eragin bearra.

Danerako artzen eban tartea.

Lekuona'ren ikasle izan zan margolaritzan. "Pastel" teknikaz era orretako mai-utzat dagon Degas berberak lotsa artuko eutsala, idatzi izan dabe kritikoak.

Euskal txistulariak margotuten, iruditzen, atsegin bizia euki eban. Oneitako lauki bat Luxenburgo'ko Museoa dagoana, Frantziko Jaurlaritzak eresia da. Lauki au Paris'en egon zan erakusketa baten eta an euki eban arreragaitik eresia izan zan. Beste antzerako bat Bilbo'ko Aurrezki Kutxak dauka.

Esku erraz eta irudimen argiko zan lez, lan asko egin eban. Oleotan bakarrik irureun inguru egingo zitula esaten da eta milla inguru "pastelak".

Origaitik bere aldiko Bilbo txikiko oitura, jantzi eta ikuspegi ugari ezagutu eta billatzen dira bere laukien bidez.

Losada'k gaixotegian sortutako lenengo Museoa, Parkera aldatu zan, 1945 urtean.

Gaur Museo onek bere zeregiña jator zaindu al izateko, larogetak milloi urtean bear dauzala esaten da. Baiña ez dago bakarrik. Or dago Biregiketa edo erreprodu-siñotakoa be. Gaur antzerako Museorik onenak aiña lan egiten da bertan. Eta or dago baita Arkeologi, Etnografi eta Kondaira gaitazkoa be, alderdi zarrean, gero eta zabalago ta beteago, gero ta zainduago et ikusgarriago, nai ta azken ujoldeen kalteak, bertako zati baten, andiak gertatu.

Onelako ekintzak eta etxeak ondo zaindu bearra eukiten dabe, sarri barriztu bearra.

Bizkaia'k diru asko emonarren, oraindik gitxi emoten dau Kulturako erakun-

detarako. Gitxienez iru milla milloiko aurre-kontua eskiñi bearko eban aurten Bizkaiko Aldundiak kulturarako, bertako ardurak zaindu, eragin eta berbiztuteko. Baiña erdian gabiltz. Milla ta bosteun milloi, biribillean esanda.

Gipuzkoarrak zabalago dira kultura saillean. Areik bizi-lagun bakoitzeko Bizkaiak baiño lau bidar geiago eskintzen dautse. Dana esan bear izaten da.

Deia, 8-II-84

MAIATZ-LORAK

Otzarekin maiatza zertxobait motela, beroarekin berriz eskatu bezela.

Ala da esaera eta ala, baita, naia, guraria.

Aurten, esaeretara jo ezkerro, lenengo zatia otz.

Orren ondorena ba dakigu: Maiatz otz, ez gari ta ez agotz.

Agotza, toki batzuetan erabilten dan berba da. Agotza sal ta astoa eros, esaten dakie. Au da, gari lakarra saldu ta astoa erosi.

Ikusten danez gureztat lastoa da napartarren agotza.

Beste esakera be ba dogu, otzak sortu eraginda. Maiatz otz, ez autz eta ez biotz. Ulertzeko kontuan euki auts eta autz ez dirala bardin.

Auts erderazko polvo da, ordes autz rastrojo, paja. Ba guaz ikasten.

Edozetara be ezin kendu Maiatzari bere lorarik ederrena: Maiatza, urte guztia-
ren ardatza.

Itxasoan eta legorrean. Jaietan eta kiroletan. Nai eta ostikadak... pelota barik edo galduta dala erabili.

Bilbotarrentzat aurtengo Maiatza neurritik kanporakoa gertatu da. Zuri gorria. Edo ta gorri zuria. Maiatz bero. Gero ikusi bear ondorenak.

Len ostikoketa amets askoren logarri zala esaten gendun. Orain txaloak etorri dira ta gar geiago.

Jokoaren berotasuna. Edo ta biotzez jokatzeta, garrez.

Euskaldunon zabalkunde izan dala iñostan batek. Ostikoketak, edo garaitzak, alkartu egiten gaitula. Erri-zale biurtu.

Izan lei ori jokotik atara leiken alderdi ona. Bestea, lastoa, aize zakarrei edo ta Maiatzean iñoiz egon diran galerren zitalei lagata.

Eta lana? Edo obeto esanda, lanik eza?

Jo! Etorriko da orretaz arduratu bearra. Eta ez al da lana sortzea millaka metro

eun zuri-gorri erosi eta ataratea, ainbesteen ibillaldi ta ostera, etajaiak dakarren igadura?

Etorriko da san Txilibristo, beti lez urte azkeneko illeta joteko.

Emen ez dago besterik, bakoitzak bere tanboliñari eragin eta etxea konpontzen alegintzea besterik.

Gure errian gaur nagusi dan alderdiak egin daben antzera. Zarata ta orru asko kalean, irratieta, egunkarieta, zer gertatuko... ta bere batzar "nausiena" bare-bare, kalma zuritan, txaloka eta sekula ez moduan bertso kantari amaitu, kapitan-pilotuen aldaketan.

Maiatzeko lorea da ori be, Maitzeko intza, geroko bizia, miña.

Ala izan daitela da gure Maiatz lore eta biotzeko eskintza.

Gure lorea baita, idazten nagola jakin dodan adiskide illotz bateri, Astiz'ko Mikel Aingeru'ri, bere deituretan Astiz'ko zarrari. Jaunak zorion bekio, Euskalerruari, egun zitaletan, berak al besteak emoten jakin eban poz eta itxaropenen orde.

Deia, 23-V-84

MAITASUN GIROAN

"Zakarra" deitzen eutsen ez-izen edo izengoitiz.

Baiña azkarra zan bertsoetan.

Asteasutarra. Giputxa. Esnarrirtza baserrian jaioa.

Noizko?

Kontu egin karlisten lenengo gerratean kartzelan egon zala. Karlisten gerrak eta gure azkenengoa eskoletan ikasi eta aztertu bear gendukez euskaldunok. Euskalerrriaren erri-asarre baten gerrak ziralako. Eta erriarentzat ezin eteneko kate baten, besterik eziñean, sartu eragindako gerrak.

"Zakarra"ren bertsoak kartzelako bizi-modua agertzen dabe:

*"Orduantxe ez nitzan
entero arrua,
oraindik kendu-be daukat
orduko orrua,
zorriak jan zidaten
lepoko larrua,*

*lau lagun pisatu giñan
amaika arrua".*

Gabonak eta Aste Santuak zoritxarrean jausitakoekin pentsatera eroaten gaitue. Gabonetan etxeko miñez. Aste santuan maitasun aginduz. Fedea, bitarteko.

Estadu batzuen oituretan dago, oraindik, eguen santuz, kartzeletako bat kalera ataratea.

Mirrizkeria.

Parkamenaren endekatzea dala esango neuke.

Geienetan, bere denporak noiz beteko dagon bateri, denporaldi labur bat aurre-
ratzea izaten dalako, eta ordurako... bere uts-egiteren damuz eta erruz ondo zuritu-
takoen bat kalera ataratea izaten dalako.

Sarri pentsatu izan dot kartzeletan ez litzakela bear epaikari batzun legeareki-
ko ainbat urtetako zigor edo neke baten denporetarako epe sentzubako bat betete-
rik.

Gizonaren ezaupidea, psikologia bear litzake kartzeletako neurri. Eta gizon iza-
tearen barrizatzearen itxaropenari adi egon.

Gizonik okerrenak be bere kezka eukiten dau, gizonik baiezkor eta itxaropen-
tsuenak bere ezaldi, berapen eta bildurraldiak eukiten ditun antzera.

Einstein'entzako neke bat zan, kartzela bat, bere kidekotasun edo ekuaziño
aspergarrietan jardun bearra. Eta bere lanari tartea billatzeko, etenaren atsedena ar-
tzeko, binboliña jotzen asten zan.

Zer egingo ete leuke kartzeletako askok euren illunpe luzea eteteko azkatasu-
nez nai dabena egiten lagako ba leutse?

Ez dogu ukatuko, zoro giñake, gizon batzuk euren gizontasuna galdu dabela eta
nai ta ezko dala, gizatasunaren mesederako gaiñera, nunbaiten aldenduta eukitea.

Baiña beste asko...

Bergson'en esaera sarri erabilten dot gogoan. Gure goraberetako naigabe edo
zoritxarren bat gertaten danean, bere pentsaera bategaz gogoratzen dakit. Au da:
Gizona, berez, gizon lez, erritar baiño lenago, gorago, gizona dala.

Eguen santua.

Maitasun eguna.

Berez eta kristau legez doakit nire pentsabidea estuntzetara eta miñetan dago-
zanetara.

Errikide eta aberkide dodaz batzuk. Euren jokera eta pentsabideen mendeko
besteak.

Eta danak be ez ete gaitue euren gizontasun baten izatearen ezaguerari lotsa eta
begirapen berezi bat eukitera makurtuten?

Zer balio dau maitasunaren ezaupideak, gizonaren ezaupidea bastertu eta azpi-
ratzen ba da?

Deia, 16-IV-81

1839'KO LEGEA

Euskal abizenak ugariak dira.

Ez danak Euskalerrriaren alde jokatuakoenak.

Arrazola bat gogoan dogu.

Egunetan gomutatzen dogun lege bateri lotua da.

Gaurkoa Lorentzo da. Euskalerritik urrun jaioa zan, Guadalajara'ko erritxu baten. Odolez, ezin ukatu, euskalduna.

Izlari jator, *eto*Í andiko, berbaz aberats.

Euskal eskubideen nortasuna galdu eraziten, euzko izatea makaltzen, 1839 urtean egin zan legea berak izenpetu eban. H'garren Isabel'egaz batean.

Ori ete zan asieran bere naia?

Ezetz dirudi.

Ba dirudi berak beste era bat billatu nai ebala. Batasunean sartu eragin, baiña beste baldintza batzuk bitartean zirala.

Berak, oraindik gizon mardul eta beiTogetak urtedun, uste ez eban indarra eta nortasuna eukan Madrid'eko gobernuan. Politiku argi eta kementsua zan. Garai aretan "moderado" deitzen zan alderdikidea.

Euskalerrriaren egoera legeztatzeko asmo bat artu eban.

Itxura baten, ez euskaldunen aurkakoa. Lenengo atalean garbi esaten zan Euskal erri eta Napparroa'ren foruak ziurtatzen zirala.

Askotan gauza bat gogoratu eragitea txarrago izaten da. Erabagi bat artzeko kezka agertzen danetan, kezka orrek zenbat buru ainbat aburu agertu eraziten ditu.

Eta Lorenzo Arrazola'k, 1839'ko Irailla'ren 11 'an agertu eban lege asmua, lege biurtu zan 1839'ko Urrilla'ren 25'an. Baiña bitartekoak nausi. Progresista ziranak gogor egin eutsen lege orren azterketa, biurtze eta esan naiari alderdi meia billatzen. Eta eurena lortu.

Berbak berbatan geratu ziran, baiña baiTuko arra bizi. Eta barruko arra euskal eskubideak zulatu, jan eta iruntsi naikoa zan.

Alaxe gertatu.

Ia gizaldi ta erdi daroaguz lege orren ondorenak ezin gainduta. Gu orrela ta besteak lege ori nundik indartuko.

Ain zuzen il au izan zan 1937 urtean, eta 24'ko egunez, beste ostikada eder bat emon euskuena. Oraingoa ikasbide ta jakintza autuetan. Oñate, Gintza inkiñeruak, Meatzetan gaituak, Irakasle ikastetxea, Musika Erakustokia, Bizkai'ko auzo ikastolak eta Gipuzkoa'ko baserri eskolak lege baten bitartez kendu euskuezan.

Euskal izatea eta euskal nortasuna irakatsi eikien toki guztien jaubetasuna kendu.

Ikusten danez, ez zan naiko, lege zabal bitartez gure eskubiderik nausienak kentzea.

Patxi Erauskin zaldibitar bertsolariaren "Gora gure Euskalerrria"n ba dago 1839'ko egun negargarri areri buruzko bertso eder bat:

*Milla zortzireun eta ogei ta
emeretziko urtean,
Urriak berriz ogei eta bosl
zitian egun batian,
atzerritarrak lau onuzkoak
lotu giñuzten katean;
orain argatik agintzen dute
arrotzak gure artean;
euskotar danok anaitu gaitzan
ortik askatu gaitean.*

Bertsolari bakana "Patxi Errota" au, Abertzale jatorra. 1945, urteko Gabonillean il ba zan be, mutu geratu zan 1936'ko guda sortu ondoren.

Aldi aretan berbaz adierazi ezin eikean asarre eta miña, mutututa jakin erazi eban.

Deia, 27-X-81

MOGEL'ERI BIOTZEZ

Mogel gaixoa!

Kalera atara nai izan zaitue.

Zure "Peru Abarca" lenengoz Durango'n argitaratu zan eun urte dirala-ta.

Eta?

Durango'n egon nitzan Euskal Liburu Azokako itzaldien artean egin diran mai biribilletako baten. Domekaz.

Bost bizkaitar, edo erdi bizkaitar maian. Iñor ez bizkaierarik erabilten.

Bat, Mogel, zure etsai barregarri. Zital eta irrilari, ziri eta tirri. Beste bat, len iñoiz zuretzat agertu eban begirakada samurra lizunduta, zure alde eukan alderdi loratsua zimeltzen igarten jakola. Eta bi zu zela-ala aldeztu nairik, erdi lotsatuta lez, alemanen lerkarien dunbaden eran jaurtiten eutsuezan brastaden artean argirik ezin eginda.

Zu zeu be gogorra izan ziñan Mogel!

Zegaitik egin ziñan abade? Ez zenkien zure Euskalerrri bedeinkatu a, inkisisiño,

sorginkeri eta "mirakuluz" beteriko a, egun baten azkatasun argi-izpiak mundu guztira zabaltzen asiko zala eta ez edozelan, magister dixit'en nortasunez baiño?

Zure denporetan ez egoan Bizkaia'n Zaldibar'ik ez Bermeo'rik, jakiña, bertakoen mesede eta laguntzaz alako tokien baten buruko garunak aizeetan eukiteko. Zu zeu be buru gogor, oker eta setatsua izan ziñan gero!

Zelan bururatu eta otu jatzun mundutik atzeratuentzat daukagun baserritar bat maisu bateri irakatsiak emoten ipintea? Nai eta artajorran zelan egin erakusteko be izan ez-ta! Eta porru, aza eta arbiak lagata, euskeraren mamiñak eta biotza erakusteko aukeratu? Arrokerizko pekatua ez al da ori?

Eta zegaitik euki zendun zure liburu ori ainbeste denporetan konbentuetan eskutatuta? Ez ete zan izango zure itsukeri orregaz lotsatuta?

Ez al zendun euki zure denporetan prailekiren bat, maitasunez eta karidadez belarrira esango eutsuna: "ikuskitun hestu eta tridentinu kutsuzko liburu moeta hori sekula euskaraz izkiriatu ezbazen hobe genuen"?

Eta zu kabernikola eta sasi maixu ori, zeñnek goratu zindun, zure izena Humbolt lako jakintsuen belarrietara eltzeko aiña?

Zure denporetan mundu guztia illunpean bizi izan ba zan be, zure liburu orreri, besterik ezean, illunpe orretako arnasa lez artzeko..., baiña nun gara euskaldunok zure denporetan Itali, Alemani edo Frantze baten maixu andiak ba egozala jakin, eta gitxienez euren mailla bat zuri ez eskatzeko?

Eta zu, kirten ori, arein sandalietara be ez ziñan eltzen! Ez dakizu?

Noiz bardindu bear dogu euskaldunok, gure kulturaren mailla europar literatur maixuen tankeran, eta olakorik ez dan artean liburu, sari eta lanak, aintzat artu barik, erruki barik, iñor memeldu eta tenteldu barik, pikotara jaurti?

Mogel! Egia diñotzut eta ba dakit ez zareala asarratuko.

Nik ez zaitut sekula, euskal elertian, goi maillako maixu lez etsi. Baiña zugandik gauza asko ikasi dodazanik ez dausut ukatuko. Erri maixu izan zaitut eta atsegiñez.

Ez al ziñan zu borondate andiko gizon izan, biotzez eta gogoz errikoi, eta ez al zendun erriari solasaldi batzuk emoteko zure liburu ori idatzi, nobelatzat edo alkarizketa jakingarri ta erakusgarritzat artu ardura barik, euskaldunei eta erdaldunei euskeraren ezaupide batzuk emoteko ustetan?

Ez al gara konturatu gu, zugaz batean edo ta asko jota be, Txomin Agirregaz bizkaiera amaitu zala?

Baiña, Mogel, gaur buru gogor asko gareala diño. Ondakiñak. Burugogorren arteko uzkar umeak, azkenak. Eta ondo pentsatu ezker... zu zeuk be, zelan idatzi zendun, egin zendun lez, "el idioma bascongado no necesita en el alfabeto romano de estas dos letras, F y H"?

Aí Mogel! Vae victis! Zu zeu be zegaitik izan ziñan, Durango'n zugaitik esan eben lez, "txatarrezko arkadia baten ordezkari"?

Deia, 9-XII-81

MOTRIKO ALDEAN

Nik ezin esan Pello Errota'k esaten zuana:

*Erañegun Mutriku 'n
eta atzo Deba 'n
ai zer bizi modua.
nik ibilli dedan,
naikua janda
ta naikua edan,
dirurik ez izan arren
ba zan zeñek eman.*

Maite dot Mutriku eta bizimoduak bertan lotuta nauka. Iru-lau urte barru dator-
kidan zartzaroaren atetan.

Maiteko ete gaitu Mutriku'k zaarrok?

Ba nabil kantuekin:

*Triku triku Mutriku.
Atsoak larrua zail ta bear ere bai,
Mutrikun atsorik ez ta bearrik ere ez...*

Ben-ogetabost urtetik gora asten ei da gazte naia. Zimelduen gaztekeria.
Kantuei jarraitu ta ekin guk ere:

*Mutrikun dan ederrena Maria Prantziska,
begiak beltzak eta arpegia polita,
zer esperantza dezu onela ibilita?
sosegatuko dezu mariñelan pleita.*

Bai. Gure pleita joan zan. Etsi daigun. Zaartzen gatoz. Gero ta ariñago ta dan-
tzariago doazan egun laburretan bizi gara.

*Beraz, loxintzak laga ta istoria maitatzen ikasi daigun.
Jator izan zan Mutriku zaarrekin.*

Karlistetan emen egon zan "Batallón Sagrado de Jefes y Oficiales" deitzen zan
bat. Aita Apalategi'k batzen zitun "euskal mutillak armetan" kontu saillean olako
gauzak.

"Berrogetamar edo ei ziran. Zarrak danak. Beniz karlistekin ibilli nai edo beren
errietatik gobernuak bota zituztela ta etorriak".

Egunero langai bikoia ematen zieten ta orrekin bizi ziran. Baiña "aste egunetan
lebita xan-ekin ta alprajetak oñetan".

Okerrako izango "abarketak urratu ta zapatarik ez".

Dana dala, Mutriku'k ez eutsen sekula zaarrei ukatu laguntzik Emengo "San
Lazaro eta Magdalena" izeneko ospitalak luzaro bete zuan bere zeregiña. Nai ta...

Oraintxe berreun urte gertatu zan ain zuzen. Erriko liburuetan dago. 1776 urte-
ko Marti'ko akorduetan.

Maria Bta. Doiztua neskazarraren eskari bat irakurri zan batzarrean. Zaartua egoala eta gorputzak eskatzen zion bezela janaritu al izateko, kemenik ez dirurik ez eukala ta Ospital orren kontura egunero liberdi aragi emoteko eskatzen zuan, erdia beiarena eta beste erdia aariarena.

Eskatu, jakiña. Ezetza beti dago-ta.

Erriko arduradun jator eta zurrak ez ziran ausartu ezetzik emoten. Salda garbirik be ez. Ez ete eben gogoan euki, guk, ondarrutar eta mutrikuar umeak, alkarri esaten genkiena: "Mutriku (edo Ondarru) txabillu erre beru, katillu bete salda beru"?

Salda garbirik ez, baiña bai sopa guria egiteko aiña ogi. Eskatutako liberdi aragiren orde, astero iru libra ogi eskiñi eutsezan, egun berbertatik asita.

Eta zartzaroa, ogirik falta gabe, ez dago edonun.

Diario Vasco, 7-III-76

MUSIKA GAIAK

Erri txikiak ez dabe eukiten ikastaroetarako aukera eta erraztasun andirik gai askotan.

Uri buruetan, kapitaletan batzen dira egokitasunak.

Danok dakiguna da Bilbo'ko Eres-Ikastola (Conserbatorioa) naas-Maas andi bat dala.

Konserbatorio ori, orrelako ikastetxeak babestuta dagozan legedian, bizi-bideko ikastetxea da, "profesional" deitzen diran ikastetxetako.

Eskola nausia, Unibersidade maillako izan bearako litzake. Origaitik Bilbo bertan ez dago irakasle berezirik goi maillako gaitasun batzuetarako.

Bilbo'ko Eres-ikastola onen akatsetako bat au da: ia zazpi bidar ikasle geiago batzen yakozala azterketa denporetan, al dan tokietan ikasitako ikasleak, bere barruko edo urteko ikasleak baiño.

OiTek berez erakusten dau, edo txikiegi dala, edo ta beste erri askotan musika zaletasun bero bat dagola.

Ba dirudi Bizkai'ko Aldundia konserbatorio orren erakundeagaz kezkatuta dabillala. Laster amaika mailla ez-bardiñetako irakasleentzako leiaketak egiteko dira irakasle ziur eta barruko izango diranak lortzeko.

Eusko Jaurlaritza be zaletasuna au egokitzeko gogoetan dabil.

Ba dirudi bere urteko aurre-kontuetan diru pixkat ipini dabela zeregin onetarako. Dirutza laburra, baiña udaletxetan eta erri-gauzetan "partidak" astea izaten da garrantziduna. Askotan peseta batekoak, ezaugarri lez, baiña zerbaiten ardura eta gogoia ba dagola ezagutzeko.

Bilbo'ko pillokako etxe nabarmen ori, bizkai errietara zabaltzeko aukera egon lei, Gipuzkoa'n be Donosti'koa arintzeko bardintsu jokatu nai dan lez.

Ori bai, errietan sortuko diranak, oiñarrizko irakatsietarako izango dira. Astapenekoak, elementalak. Solfa, errialdetako ereskin bereziak, eta abar.

Eta pianoa? Erakutsi bear. Baiña Bizkaia'n dagozan millaka andrazko piano-jotzailleak, baliatzen ete dira ezetarako euren duintasunagaz eta bear ba da gurasoak etxeko oitura lez gogortadan ipini eutsen bear-izanori amaitu ondoren?

Orrelako ikastetxeak errietan sortuteak aukerak ekarriko ditu bertako ta ingurutako ikasleentzat.

Baiña, betikoa: Tokiak, ereskiñak eta irakasleak zeñek ordaindu?

Tokiak, besterik ezean, Euskal Jaurlaritzak, bere menpean gaur dagozan Ikastetxetan, euretako ikaste orduetatik kanpora, zerbait lortuko leuke. Esate batarako, illuntzetan edo zapatu goizetan azke laga eraginda.

Ereskiñak (instrumentoak), erri eta Aldundia erdizka konponduta edo erosi bearko litzatekez.

Eta irakasleen ordaintza, gain gaiñez, erriak %25.

Beraz Bizkaia'n, eta Gipuzkoa'n, gaur, ainbat Ikastetxe dagozala kontuan eukita, asiera baten, batzuntzako, tokia ortik billatu bearko litzake.

Oraingoz ba dirudi amar-amabi erri Bizkai barruan orretan arduratuta ikusten dirala.

Deia, I-VIII-81

NAIAK ETA AMETSAK

Bizitzako gertaerak.

Ezaupiderik euki neikenik pentsatu barik, Bilbo'ko Bidai etxean, Korreo etxean nengoan oraintsu.

Iru karta neukazan. Bilbo'rako bat eta Bizkai'rako bi. Eta azken oneik ez nekian nun sartu.

Bilbo'ko etxe aretan ez da agertzen, edo ez da zeaztuten, Bizkairakoak nun laga. Bilbao baten eta España bestean ipinten edo erakusten dabe ango kutxaen buruetan, beste erako bidalien ezaugarrien ondoan.

Nire Bizkairakuak nun sartu ez nekiala, gizon bat agertu zan. Erderaz itandu neutsan:

- Ba dakizu emen Bizkairako kartak nun jaurti bear diran?

Irribarre egin ondoren erantzun eustan:

- Ortxe, España diñon kutxan.

Eta beriala, begiratu ta bat-batez:

- Zu Zubikarai zara.

- Bai.

- Eta ni "Erletxue" zanaren semea.

Zure lanak pozik irakurten dodaz. Zegaitik ez dozu geiago idazten?

- Gertu nago. Alegiñak be egiten dodaz. Baiña eskari ori DEIAri luzatu. Gu erdaldunen ordekoak gara. Areik tartea lagaten dabenean...

- Ez daukat Bilbo'n zeñegaz egunero euskeraz jardun. Lotsagarria da, baiña ori gertaten yat. Eta zure lanak irakurten dodaz. Ia egunero zure liburuetako atal bat edo bi. Egiz diñotzut. Zure alkarrizketak atsegin yataz.

- Ez datoz danak zugaz batean.

- Ezetz?

- Lengo baten karta bat artu neban. Nire nobelak lapurreta antzeko dirala. Orririk geienak uts, alkar izketa laburren aitzaki. Gaurko olerkari askoren bidetik nabillala. Lau berbaz orriak bete...

- Gaur arte ez dot zugaz barbarik egin. Ez jaramonik egin orrelakoei. Ni zure alkar-izketak irakurten zale naz. Irakurri ta ikasi egiten dot, batetik euskeraz irakurtera zaletzen nabelako eta bestetik euretatik euskera ikasten dodalako. Ezin dot askoren esakera luzei jarraitu. Benetan diñotzut: Nire agerpide au euskeratu naian gabiltzan bilbotar askok egingo dautzue...

Bat-bateko gertaera au niretzat bizigarri izan zan.

Gizon onen aita begiko neban. Abando eta Urrejola'tar Jon. Ni baiño ogei urte zarrago. Gure gerratean ezagutu neban. Eta beste askoren antzera sabindar leial eta zintzo zala konturatu nitzan beragaz jardutean.

Gitxi, baiña ba gozan Bilbo'n jaioarren, Sabin'eri esker, euskera ikasi ta era-

kutsi be ebenak; jardun eta iñardu eragiten ebenak; idatzi ta irakurri eragiten ebenak. Abando'tar Jon bat: "Erletxue".

Atsekabe ugari eukiten doguz idazleak. Atsegin banakak be bai. Gaur guretzat benetako atsegiña izaten da, ortik zear norbaitek lepoan jo ta jarrai, jarrai idazten, zureak irakurten dodaz, esatea. Lengoan, Igorre'ko batek esan eustan lez, klaretiar fraile batek. Eta bilbotarrak izan ezkeru, zer esanik ez.

Sarri, gure Bilbo onetan, batera ta bestera ibili ta erdera baiño ez entzutean, nirekiko garrazkeriak eroan eta artu izan dodaz, dana guzurra dala-ta pentsatu eragiñez.

Origaitik, orrelako gertaerak, biotza zabaldu eragiten dabe. Aitzaki ta guzti be arnas barria sartu eragin.

Izan be Bilbo zela-ala euskalduntzen ba da...

Ez daigun ametsetan. Ezaupidea artuarren, zenbatek lortu dabe Bilbo'n euskeraz jarduteko erraztasuna eta aukera bera be?

Deia, 26-1-81

NAIGABE TA NAIKERI

Urte azkenetik barrira egualdia baltzitzen ikusi dogu.

Gu be goizetik laiñotu giñan.

Urte barrirako Bizkai Aldundiaren diru kontuak onartu eta erabagi baiño len, jokabiderako asmoa, politika-egitama, Aldun nausiagandik entzun, jakin eta aztertuten Batzar nausia batu zan urte-zar bezperan, Gernika'n.

Orrelakoetan alderdi guztiak eukiten dituez euren eritziak. Gaitz da danak batera gertatutea, baiña Aldundiaren (Diputasiñoaren) egin-naia, eta egin bearra batez be, danak zirikatu nai izaten dabe.

Goiz eta arratsalde ziran batzarrak.

Aldundiaren egitama, plangintza, zabala da. Eta ori lurralde jatorren edo istorikoen legea dalata, Aldundiak oraindik bere zeregiñetako zeaztasun batzuk zeaztu barik daukazala osotasun baten. Eskubideak ikusteko eta esku-aldaketak egiteko oraindik.

Nire gaurko naia ez da alderdien gurarietan sartzea, ez eta Aldundiaren ardurak eztabaidatzea, ez eta aitzakitu edo goratzea be.

Gernika'ko Batzanetan, Aurre lendakariari esker, euskerazko agur eta batzarreko adierazpenak irakurten dira.

Azkenengo batzarrean, euki gendun poztasun bat. EAJko ordezkari batek, ordu laurden edo geitxuago euskera utsean egin eban Aldun nausiaren asmoei buruzko erantzuna emoten. Ez zan izan berea alderdi berekoak egin eben erderazkoaren itzulpena. Euskeraz asmatu, egosi eta irakindua baiño.

Eta?

Lenengo orduan bi-iru egunkari irakurten dodaz. Aitatu be ez iñok bere jardunik. Ez eta iñoiz gertaten dan lez, erderazko laburpen baten, era batera edo bestera, esan edo erakusten emon euskeraz zerbait egin zanik be. Lotsagarria.

Zelan elduko gara eskatzen gabiltzan euskal egunkarira, gure egunkarietan orrelako gertaera batzuntzako abegirik ez ba dago? Ez ete dauke egunkariak iñor, euskeraz egin leiken batzan-etan, egiten diran lez esanak eta eztabaidak jasoteko? Ez ete dogu euskaldunok ainbesteko lotsarik merezi?

Iñok esan ez dauana, jaso nai dogu.

Balendin Lasuen jaunak, beste gaien artean, bere jardunean, kultura eta ezkuntza sailari ikututean, onelako batzuk esan zitun: "Erri pekatua egingo genduke, odolagaz batera artu dogun berbeta galtzen lagako ba gendu".

"Bizkaiko urreak eta ondasunak, beti be izateari emoten dautsen duintasuna galduko leukie, mundu guztiak ondasun bakan eta ordaindu eziñeko pitxi lez daukan euskera ori galduko ba gendu".

"Beartuta gagoz, ez zaintzera, ez eustera, indartu eta bizi egitera baiño, eta one-tan uste dogu Bizkaiak alegin bizi eta neurri bakoa egin bear dauala".

Gernikako batzarretako agirietan or geratuko dira gaur alderdi nausi dan ordezkari baten esanak.

Uste dogu, eta ori nai genduke, "etxe andiko" jaunak, egunkarietan irakurri ez dabena, batzarretako agirietatik irakurri ta gogoratzeko denpora eukiko dabela.

Deia, 6-1-84

NOIZKO LAGA?

Lengo baten, Bilbo'ko Udalaren Liburutegian, "El Sitio'n", Villasante Aita gendun izlari.

Poztasun bat eroan neban. Itzaldietara, eta sari banaketako jaira, jende asko batu zan. Eta asko, geienak, gazteak.

Bear ba da ango erakarpena Jon Kortazar'ek eukiko eban. Bera zan lenengo izlaria ta, jakiña, gaur Unibersidadean dabilzan ikasle askok euren irakasleari "emen nago" esan naiko eutsen.

Kortazar'ek "Mikel Zarateren prosa" bere azter-lan baten agerpena egiñaz, gai berbera erabili eban, euskera erraz, eiTÍkoian, euskaldun jatorrei berez urteten dau-tsen euskeran.

Villasante gernikarrak, berak ziurtatu nai izan eban gernikar izatea iru-lau aldi-tan, bere bizkaitartasuna agertzeko, jai onetan urtero joaten gareanok batandik edo bestegandik ia urtero entzuten dogun itzaldia gogoratu eragin euskun.

Ba eukan bere itzaldiak buru gogor batzuentzako zirikada eta fede gitxiko biz-kaitarrentzako eztenkada.

Dana dala gu oituak gara entzuten, oituak gara komeni danean ixilik egoten be, eta esaten ebana iruntsi gendun, egia esateko, batzutan fede gitxiz eta bestetan indi-ziñoia emon barik urepela sartzen dauksen gaixoen antzera.

Batua eta bizkaiera edo ta izkelgiak alboan lagata, azken baten danok alegin-tzen gara bataren eta bestearen mesedeak eta kalteak bakoitzaren erara agertzen-eta, kezka eta konturatze baten azalpen ariñak ikutu eragin euskun.

Danok dakigu gaur, erraztasun eta egokitasunaren aitzakiz, edo ta gurerik ez ikastearren esango neuke nik, zelako "iztegia" darabilgun gure esaera, agerpide, ekintza eta abarretan.

Gauza bat da bat-batera agertzen diran adierazpen itzak, berbak eta esaerei dagokiena. Askotan teknika itzak. Eta beste bat egunero darabilguzan berba jatorrak bastertu edo atara ez, eta aozkojarduera nai idatzietan darabilgun iztegi aiTotz, oker erabili eta askotan baldar osotua.

Danok dakigu barrizalekeria eta neologismo askoren aurkako agiriak eta era-kutsiak egin izan dirala, eta Euskaltzaindia ez dala mutu egon izan orretan.

Baiña zillegi ete da gaurko jokera nastu eta baldarrean ixilik egotea? Ez ete dau merezi jokabide onek argibide bat, erakuspen bat, gaurko jokabide barregarri eta laidogarri askotan, lotsa pixkat sartzeko?

Eta onetan Villasante'k adierazpen zur bat emon eban, eta etorri leiken oar edo agirien baten aizea lakoa sartu. Garbi esanda, eldu ez ete dan len jokabide baten aur-kako irizpideak emon ziran lez, orain beste onen aurkakoa emotea.

Guk, gure aldetik, esango genduke: Bein konturatu ezkerro, zetan gaixoari geia-go indartzen laga? Zeregiñik egon ez leiken denpora eldu arte?

Euskaltzaindian giro ori sortu ba da, kezka ori igarten ba da... zetan ixilik egon iztegi eta liburuak bete arte? Ze balioko dau egun bateko agerpen batek, urtetarako geratuko diran liburu, paper eta erabilgarriak eguneroko ikasketa eta irakurrietan gaiztetsia izan dan bidetik joaten lagundu eta "argituko" ba gaitue?

Deia, 10-X-82

OITURA BATZUK

Zenbat eta gure zarren siniste, oitura, jokabide, erakunde eta abar geiago irakurri ta aztertu, arrigarriago iruditzen jakuz euren egitada asko.

Ezpairik ez dago izadiari guk baiño geiago begiratzen eutsela. Eta berezko gauza eta gizonen egitaden artean, alako alkartasun berezia billatu nai izaten ebela.

Urteetako gertaera edo ta ezaupidez, oarpenez edo ta ziurtatzez.

Ezin ukatu guk baiño denpora geiago eukela eguneroko ekintzarik eta gertararik txikienaz baliatzeko.

Egunotako oiturak?

Ara batzuk.

Bizkaiko erri askotako oiturea zan Natibitate goizez iruniko ariagaz aton-ak egitea. Gure zarren sinistea zan, orrelako atorrak lamiñakandik burua obeto zaindu edo ta gordeten ebela.

Eta guk askok, ez dakigu lamiñak zer ziran be.

Danok dakigu gabon eguneko ogiaren lenengo koskorragaz rito bat erabilten zala gure etxetan, gabon gabeko aparian. Maian jazarri, etxeko jaunak ogia artu, ebagiten asi baiño len aizoagaz (kutxilloagaz) gurutzaren irudia bere gain egin, koskortxu azaltsua ebagi, apari bitartean maiko oialaren azpian gorde eta ogia ez zala urdinduten, edo ez zala lizunduten esan, eta etxeko arasa on baten gordeten zan. Eta toki batzutan arda tanta batzuk be jaurtiten eutsezan. Urte guztirako asmo-tan gordeten zan, baiña etxeko abererik amorrugaz eritu edo gaixotuten ba zan, ogi ori emoten eutsen eta bera janda gaixoa osatu egiten zala sinistuten eben.

Nik neuk ezagutu neban gure etxean ogi koxkor gordetze ori eta ba dagoz ni baiño gazteagoak be ezagutu ebenak.

Ez neban nik etxean beko surik ezagutu, baiña bai toki askotan. Eta ba dakit gabon egunez sutarako enbor itxurotsu bat batu bear izaten zala, eta enbor ori era-

bilten zala bein eguerdiko bazkaria amaitu ezkeru sua egiten, eta bera osorik erreten ez ba zan, ganbarara eroaten zala eta an gorde urrengo urtearte. Eta osorik erreten ba zan, bere ikatza gordeten zala urte betean. Zegaitik?

Ibarmri'n, esate baterako, gabon gabeko sutako autsa San Estebantxe egunean eroaten eben solora. An kurutze ikmra egiñaz zabaldu egiten eben eta sinistu pizti guztiak ilten zirala bera zabaltzean. Beste toki batzuetan lez, gabon gabeen erre barik geratzen zan enbor ondoa, atadi aurrera eroan, etxeko abereei bere gaiñetik edo ingurutik igaro eragin eta amon-uaren aurka sendotuta geratzen zirala sinistuten eben.

Edozetara be gabonak zer ikusi ta zer ikasi asko emoten dauskue gure zarren oituretan. Eta ura, sua (ikatza) eta ogia, bizibiderako premiñazkoenak oartuten doguz, egun oneitako gure zarren erabilgarri eta sinisgarrietan.

Eta kontuan euki gure zarren denporetan, gabon egunez bigili edo aragi uzte izaten zala.

Origaitik, ezpai barik, orio-aza, besigu erre, makallau eta abar egunotako janari berezi eta ugarien lez.

Deia, 22-XII-84

OPORRETAN

Urte guztian lanik euki ez daben batek, il onetan oporrak artzeko asmoa eukala esan eustan.

Batek ez daki bizimodua zelan artu.

Gaitz da igarri eta jakiten batzuk zelan artzen daben be.

Oporrak era askotan lagunduten dautse gizonaren soiñari eta irudimenari atsedan artu, edo ta kezka eta naigabeak arindu, buruasteak uxatu eta gogoia nasaituten.

Ba dirudi opor egiteko eskabidetako bat giroa aldatzea dala. Eta ori alaigarri, bizigarri eta atsedengarri da edozeiñentzat be.

Gaitz da akats bagako egiturak billatzea. Ba dauka onek be berea. Oraindik seme alaba askoren itzal eta babesgarri lez geratzen garean zarrok, gure udaldia lotuago, estuago eta kezkatiago igaro bear izaten dogula. Batez be basemetan edo itxas aldean bizi garen zarrok.

Baiña, egotez, or dagoz oporrak, era batera edo bestera, al dabenentzat.

Frailerik zarrenak be ondartzetara duaz. Eta konbentuetan bastertu zituen sandaliak udaldirako modakotzat artzen dituez, bear ba da onetan be aurrelari izan zirala adierazi nairik.

Ixilleko konbentu sarratuetan egoniko monjatxoak be, beste "zeru" batera urteten dira.

Onelako monjak, len, biñaka ezik, bakoitzaren jaiotetxera be ez eben urteerarik egiten, eta amaren etxean be beste monja lagun bat bear izaten eben, mundu gaiztoagazko artu emonak eta oiturak euren gogo eta soiñetan ugar zikin eta laidotsurik ezarri eta irarri ez egien.

Gure mundu au gaur baiño lotsakorrago eta alkarren arduratsuago zan denpo-retan "inpernu bizia" ba zan, zer izango ete gaurko nabarmen eta aragikor onetan?

Nobizien maistra gaizto eta ertsi entzutea eukan bat billatu neban oraintsu itxasertzeko erritxu baten, gatzela errialdeko konbentu zar batetik etorrita.

Nigaz ebillan batek, berari begiratuta, antxiñako gauzen museo zala esan eustan. Denda zarren batetik orain berrogetak urte modatik igaro eta baliatu eragingo eutselakoan bialdutako zapatak oiñetan. Orindik esateko barri-bam. Bear ba da orrelako gertaldiren baterako gordeta eukiak. Eta ondo plantxatutako tolesgarri zabaldun abitu luzea, litsik be barik, garbi ta txukun. Baiña astun.

Dana dala, jantziak azalekoak dira.

Izakietan, pertsonetan, gogo eta biotza dira balio dabenak.

Orreri begiratuta, pozik ebillan. Gitxi begiratuan-en, edo ala egiten dabela uste izanarren, asko ikusten oitua dagon izaki baten antzera. Pozik, narrugorritzko eta brontzezko azalen mundu onetan, lotseari irudi bizi bat emoten eutsalakuan. Eta sekula irabazi ei eban baiño zerurako meritu geiago irabazten ebillala-ta, iñoren ardura barik, eta zer esanei begiratu barik, erriko kalerik ibillienetan ibillita.

Era berean, bere albotik, erdi billoizik ebiltzanak igaroten ziran. Eta aldakuntza, kontrastea, sakondu egiten zan.

Ortan nire buruak zer pentsaten ete eban gogartu nairik asi nitzanean, nire burua, ezer esan nai-ezka, oporretan igarri neban.

Deia, II-VIII-82

PELOTARIAK

Amasei urte dira Apirilla'ren 4'n, Juan eta Azkarate "Mondragones" deituraz ezangun zan pelotaria il zala.

Azkenetan, gixajoa, bakartadearen itzalak menderatu eban eta alaxe il.

Pelotarien errege izan zana, beste zeregiñik ezak galdu eban, pelotari izatea urtien indarrez laga eta Arrasate'ko pelota toki aurreko jarrilekoetan, bakarrik, ordu lezeak jarrita igarotera makurtu zanean.

Berrogetamar urte igarota be pelotan, eta ume aroko denpora kenduta, beste amar ezin igaro atsedean eta atsegiñean.

Adin mardul, zar bidean sartzen diranen gaitz eta buruaustea.

Gure bertsolariak gizon bat antziruditzen, erretratatzan asten diranean, argazki-lariak baiño nortasun geiago ataraten dautse gizon baten izateari. Egokiago agertu.

Ikus "Basarri"ren bertso oneik:

*"Plazan agertu ziñan
lerden eta eder,
bapo zaintzen zenitun
zabal eta baster,
zu pelotan ikusten
ezin zeinken asper,
berdin berdiñak ziran
eskubi ta ezker".*

Ogei ta amabost urte eukazan "Mondragones" ak Atano'ri txapela laga eutsanean, Donosti'ko "Moderno" pelotatokian.

Aurrez, berak, "Cantabria"ri irabazi eutsan, Bernardo Garate, ermuarrari.

Egia esan, txapelketak, deitura orregaz, bere denporan asi ziran. Gaur esaten dan lez, ofizialki. Aurrerago erri-abotsa izaten zan nausi. Pelota zaleak ba euken einbesterako nortasuna txapeldun nor zan edo ez iragarteko.

Ala, erri abotsez, erri autortzaz, txapeldun lez izan ziran, eskuzko jokabidean, Azkoiti'ko txikia, Lekeitio'ko "Zapaterito", eta "Mondragones" berbera, len esandako "Cantabria" barruan sartuta.

Aurrerago Labakoa markiñar abadearen jokoak, "Laba" izenez ezagutu zena-renak, errialde oso bat erabilten eben bere alde. "Laba" k ba eukan beste lagun txalotu bat: Baskaren eskribadua.

Lagun ete eben eurok Fray Bartolome sermolari gogor eta ospetsu baizen itzala?

Joko, olgeta, dantza eta abarren inpernurako akulari zorrotz zan fraileak, osta-osta emon eutsazan indulgentzi edo parkamenak Markiña lako pelotearen unibersidade deituko zan erri baten gure joko oneri. "Erri batzubetan egoten dira pelota

lecubac... Au gauza charra ez da", diño berak "Jaungoicua openditu bagarik, zelan divertidu leitequian olgeetiaren parteti" atalean.

Beraz gorantza andi barik, bedeinkatze barik, "au gauza charra ez da". Pekatua parkatzera makurtzen dan fraile esku zabal baten erabagi lez.

Ez da pentsaera bardiñeko "Gure Herria"n, 1937 urtean Sallaberry'k idatzi eban lan mamintsu bat, peloteak ez bakarrik gorputzaren osasunari, arimearen ontasunari be giroa emoten eutsala agertzeko. Eta geroago be "ferment d'unite" lez etsiko eban.

Baiña Fray Bartolome'k erraz billatuko zitun bere lagunak, urteetan atzera joan ezkeru.

1.600 urteko Kalagorri'ko gotzaiñen aginduetan etorran, beraz bizkaitarrentzat eleiz lege, "que los clérigos no jueguen a la pelota públicamente, so pena de veinte días de reclusión en su iglesia y mil maravedias para pobres".

Kalagorri'ko gotzaiñak ez eban kontuan euki Agustin santuak be pelotan jokatzen ebanik. Irakurri, bestela, bere Autortzetako bederatzigarren atala.

Deia, 31-111-81

PRIETO TA BASTIDA

Gure gerra aurrean Euskalerrian bizi giñanontzat eta Arana Goiri'ren gogaiak zabaltzen edo maitatzen gebiltzanontzat, arerio zitaletako bat Prieto zan.

Gure sinismenak topo egiten eban bere fede ezagaz, edo bere liberalkeriagaz. Gure abertzaletasunak bere laterri zaletasunagaz.

Berbera gure etsai izan zan.

1918 urten Bilbo'n egin eban itzalidi baten garbi erakutsi eban abertzaleen aurkako bere jokabidea. "Bizkaitar karlisten" aurka, atzerakoi guztien aurka, alkartu zaiteze, deadar egin eutsen beretarrei, eta ala bear ezkeru zin egin esanez: "Ez dira igaroko".

Prieto politikari azkarra zan, argi ta zolia.

Bere "no pasarán" ori ezaguna izan zan, baiña ormetan geratu zan.

Alaz eta ez dautsagu ukatuko Prieto'ri bere bilbotar zaletasunik.

Ezin ukatu, ikuspegi andiko politikari lez, Euzkadi'ren egoera bere erara eza-gutzera eldu zanik.

Prieto'k, gerra galdu ondoren Donibane'n bizi zala, lagun andi zitun eta eurekaz une luzeak igaro, emengo batzuk: Kamiña, Lezo, Onaindia anaiak eta abar. Danak beste giroko.

Politikan gizontasunez jokatzeko danetan, askotan alboan lagaten dira pentsakera eta jokabideen garraskeriak eta anaitasun baten jardun. Askorentzat arrigarri eta siniskatiz izaten da ori, baiña sarri alkar arteko lagunarte ori izaten da sail gaitz eta biurri askotan itun edo kontsentsoa billatzeko bidea.

Prieto'ren bizitzan, eta ezagun gendulako, Bastida arkitekto ospatsuaren etenbako ekiña eta alegiña oartuten gendun... Prieto zuritu nairik, kristautasunera makurtu nairik.

Bakoitza bere zeregiñean ezagutu ziran. Bastida'k ingurutatik etozan eta ebiltzan belbil, kotxe ta erabilgai guztien geltoki bateratu bat egin nai eban Bilbo'n. Prieto'k begi onez ikusi eban egitamu ori. Eta adiskide egin ziran eta benetako lagun. Bastida, esandako kezka asi zan Prieto'ri begira. Sinismenei begira.

Gerrak aldebanatu zitun. Bata Bilbo'n ta bestea erbestean. Fedearen eragiña andia dala-ta, Bastida'k lortu eban gobernuko baimena Ipar Euzkadi'ra Prieto ikustera joateko. Nortasuna bear zan garai aretan orretarako ta Bastida'k, esaten dan lez, Roma ta Santiago zirikatu zitun. Ballester Gasteiz'ko gotzaiña, Martin Artajo, gobernuko konseilaria ta abar. Eta Donibane'n besarkatu ziran Prieto ta bera.

Aurrez Bastida'ri ikutu eragin eutsan gertaera bat: Prieto'ren semea il zanean, il-kutxa etxeratzean, kurutze bat eroian. Norbaitek illeta "zibilla" zala ta kurutzea kendu bear zala esatean, Prieto'k ez kentzeko agindu. Bastida'gaz gogoratuta?

Bastida'k jakin eban. Gero berbera joan zan Mexiko'ra, Prieto ikustera. Ikutugarri lez, berak be semea gerratean galdu eban lez, maitegarrien gordeten eban aren kurutza eroan eutsan, oparizat. Baiña ara eldu ta laster gaixo jausi zan ta andik etxeratu bearrean arkitu. Alaz eta an laga eutsan bere oparia. Andik etorri ta laster il zan Bastida, 1953 urtean. Prieto, Mexiko'n, 1962'en. Eta ain zuzen bere gorpua egon zan gelan, bere buruko orman, Aurelio Arteta'ren lauki bat egoan. Bizitzako gertaera: Prieto ministrari zala, Arteta'ri eskatu etsan bere kuadro bat egiteko. Arteta'k erantzun, ez zala bere itxura beretzat atsegin eta alako potoloak egokiago egozala Vazquez Diaz batentzat eta alaxe egin be.

Gero, erbestean, erbesteko naigabeeta, lagunak, kezka eta egoera bateko estutasunak, Jainkoak jakin gizonen biotzak zelako arduretan eta maitasunetan erabili eikezan.

Deia, 22-V-84

ROBUSTIANA MUJICA, "TENE"

Adiskide batek, "Tene" il zala jakin erazten, itaun au egin eustan:

Zer zan zuretzat "Tene"?

Bat bateko erantzuna: Ontasuna, kezka ta egia.

Bere idazkietako baten esaten eban: "Egiya ikasten, egiya ezagutzen alegindu bear gera, ondorenez gure bearkunak betetzen jakin al izateko".

Robustiana Mujika eta Egaña.

Izen ori ipini eutsen bataiatzean, 1888'ko maiatzaren 24'an.

Parroko zarren batek ezarritako izena? Leike. Egutegian egunari egokiona zan.

Ba egoan beste idazle jator bat egun berekoa: Robustiano Ortuzar, bermeota-
rren bizitza irudi alaietara aldatu ebana.

Robustiana'k bere izena laburtu eban. Sabindar ixendegiko izenetara biurtu, eta bere azken zatiagaz gelditu. Errobustene, ortik "Tene".

Deban il zan, il onen 16'an, arratsaldean.

"Idazkiak eta Olerkiak" liburua argitaratu eban 1923 urtean.

Gaszte nintzala, abertsaletasun sentimena biztuteko euki neban liburutik atsegin eta egokienetakua.

Erreza eta bizkorra, mamintsu eta giartsua.

Emeretzi idazki emakumiei, berak oitura eban lez Miren Itziar'eri zuzenduak.

Beste 23 olerki, bata bestea baifio samurragoak.

Eta bera lurreratzean, bere "Iltegian" izeneko olerki samur au erabili dot gogoan:

*Mendiyaen barrenean,
antxen landa artean,
iltegi bakartxo bat
dago nire errian.
Bertan toki txiki bat,
zeña obi bat dan...
malkoa begiyan.*

Benetan diñot: "Tene"ren idazkiak biotz asko ikutuko zituela eta abertzale asko egin.

Bere zan, izan be, garai aretan, abertzalien artean onelako gaiak erabilten zitun lenengotako andrazkoa.

Azken urteotan erdi itsu egoan.

Min bat. Ezin eldu bere bizitzari buruz eukazan idazki eta lanak liburu baten osotutera. Bildur zan, elduko ezelakoan, ta begiak, ikusmenak lagundu ez azkenean. Bere biotz-min eta kezka anditzeko?

"Tene" Emakume Abertzaletakoa izan zan, sortueratik. Gero erbesteko naigabetan, atzerrian alemanen mende eta abar... ba eukazan bere bizitzako gertaera eta kontakizun ugari.

Olerki eta Antzerki saillan jardun eban euskera aberastu naian. 1935'ko II garren Antzerti Egunean, "Gogo oñazeak" lanagaz lenen saria irabazi eban. Sariketa berbertan umien antzerkietarako "Gabon" egaz be lenena lortu.

Gero gerokoak, sekula be geldi ez zalako egin. Eta beti benetako ontasun, kezka eta egi maitale.

Deia, 18-IX-81

SAN MARTINAK

Ez dabiltz arrantzaleak santu-santu.

Urte barri bitarte au utsean joango ete da lebatzetarako baimen geigarri edo zabaltze barik?

Lengo ta gaurko arrantza erak ez bardiñak dirala ba dakigu.

San Martin eguna da astean.

Danok dakiguz baserritarren oiturak.

Koipe ta urdaiki ugari egunotan.

"Aitak, etxerako diña zuben oitura jarria,

ospatzeko san Martiña

iltzeko urtero txarria".

Arrantzaleak, baleak galdu ziranetik, ez dabe negurako ezer gazitu eta aurre-ratzeko aukerarik.

Lengo urtetan oiturazko zan arrantzalienen artean, besigu denpora san Martin egun onetan asi eta udabarrirarte zeregin orretan jardutea.

Alaz eta zerbaitegaitik lagako eben asierako eguna zeaztuteko oitura ori. Or gelditu zan beste esaera dator ziñaldari: Santa Katalina noiz, besigutarako goiz.

Ondarrutar arrantzaleak ba dauke San Martin egun onetako gogoragarri bat. Urte luzetan nastuta ebiltzan. Geien be politika bitarteko. Gizaldi luzetan santa Clara izenez euken kofradia, ia erdibituta egoan. San Pedro izenekoa beste bat sortu eban talde batek eta erriko talde bat an banatu zan.

1926 urtean Donosti'ko estropadetan lortutako garaitzak, gauza asko aztu eragin eta asarre asko baretu zituen errian. Jai eta poz bitsetan ibili giñan danok eta griña asko galdu.

Eta ain zuzen urte onetako san Martin egunean egindako batzarrean erabagi

eben kofradi biak alkarm eta baten jarraitzea. Noiztik sorm zan ez dakigun santa Klara kofradia, diño batasuna egin ondorengo araudiaren lenengo atalak, gertaera negargarri batzukaitik bitan ataldu zana.

Arrantzako arazo guztia Kofradi onetan sartzen zan gizaldi luzetan. Beste erri geienetan egiten zan lez. Beti esaten dana: Antxiñetatik, noiztik datoza zeaztu ezin leikezan denporetatik datoza kofradiak.

Baiña arrasteko arrantza-bidea agertu zanean, Ondarroa'n galdu egin eban barriro Kofradiak arrantza kontu guztia bide bakarretik eroatea. Arrantzalien babesak eta lagunarterako lagaten zan dirutza bitarteko. Geroztik "bajura"koak gitxitu ta "altura"koak indarra artu dabe.

Ondarroa izan zan, ain zuzen, arrasteko erabidearen aurka lenengotan geien arduratu eta alegindu zana, lengo erabideak zaindu nairik. Galizi'tik Ondarrabi bitarteko kofradi guztiak emen egin eben erabide barri orren aurkako batzar nausia, eta arrasteraren aurkako neurri estuak eskatuten ziran.

Eta gaur... bera da Bizkaia'n erabide onetako ontzien kaia.

Ezin esan, bizitzako urtetan, ur batetik ez dala edango.

Gaur, itxasoetako tokiak mugatu eta merkatu batuko laterrien estuntzak, Pasai eta Ondarru lagaten ditue san Martiñetako txarri iltea gogoratu bearrean. Ez onerako, besoak lotuta eta txalopak katean lotuta euren portuak ikusteko baiño.

Baiña elduko da oraindik lebatz urdaillak jateko eguna. Baserritarren tripakiak, arrantzalien urdaillak.

Deia, II-XI-81

SANDROKE ONDOREN

Sandroke jaiak igaro dira. Aurten, ez dakit zegaitik, gernikarrak txutxu gitxia-go erabili dabe jaietan.

Zegaitik ipinten ete eban Enbeita'tar Kepa'k, Euzkadi'ko Urretxindorrak, santu au gure zaindarien artean?

*"Ene Sandroke zoriontsua,
zuaz Aralar mendira,
Deun Mikel'egaz jarri zain andik
lau aldetara begira..."*

Euskal izurriak beretzako santu osasungarri bat bear dabelako?

Enbeita berberak ez al dauka norbaiten bearrik bere izenari egindako eskintzak, ezprietan barriztu barik, alako baten be bete eragiteko?

Urte batzuk dira Muxika'ko Aretza'n bere omenezko jaiak egin zirala. Aste beteko goramen, itzaldi eta guzti. Gogoan daukat gu giñan egunean Aita S. Onaindia, Martin Ugalde, "Basarri" eta ni egon giñala mai-inguru bat osotuten.

Gernikarren utsunea billatzen eben muxikarrak aste orretan. Alboan bizi ziran gernikarrak, euren erria ainbat bidar abestu eta goratu ebanari esker txarra agertzen eutselakoan. Baiña iñok ez dau esango gu ara joan giñanok txikikeri barik Kepa'ren maitasun eta lotsaz joan ez giñanik. Eta muxikatarrekin anaitasunean ibili giñanik.

Geroago Gemika'n egin zan jai nagusi bat. Beti ez dabe jaiak euren eratzailleak gura izaten daben aiñako ondorenik lortuten. Bitartekoak eta jendearen nagikeriak atzerapen eta oztasun askoren errudun izaten dira.

Dana dala, iñok euskaldun jatorren biozkadarik merezi ba dau, bere aldetik ainbaten biotzak euskal maitasunez gartu eta berotu zitun Kepa da.

Errietan kaleen izenak aldatzen asi ziranean, zorionez, euskal idazle eta poeta askoren izenak maietan erabili ziran, eta euren artean Enbeita'tar Kepa'rena erabiltea jator zan.

Alaxe Bilbo'ko Udala izan zan, izan bear eban lez, orretan eredutza emon eta irakatsi nai izan ebana.

Erri txikiak, askok, antxiñako izan eta deituretara biurtu zituen euren kaleak. Orrelako erriak, izan be, ez dauke kale askorik eta egin diran kale barriak be euren toki, ibar, mendi eta inguruko lengo izen jatoiTak daukezan lez, tokien izenak euren erabiltzera beartuten zitun.

Baiña Bilbo lako erriak, munduko añarkirik gogorrean kale eta kanto barriak sortzen ikusi dituenak?

Origaitik izen barri ugari ipinteko aukera egoan Bilbo'n, edo ta EuskaleiTÍlagaz edo bertako bizimoduagaz zer ikusirik ez euken izen batzuk aldatzeko premiña.

Orrela, izenak aldatu bearreko batzar baten, Prim kaleari Enbeita'tar Kepa'ren izena emotea erabagi zan. Eta ba dakit Enbeitatarren izenean Bilbo'ko Udaletxera karta bat bialdu ebela be, esanaz izenaren gain "Urretxindorra" be ipintea gura ebela.

Bilbo'ko Udalak zerbait egin bear eban onezkero orretzaz edo zerbait esan.

Eta bitartean ezer ba dago, Kepa'gaz batera otoi egiteko gertu nago:

*"Ene Sandroke otoi dagitzut
ken ixurri eta nanarri... "*

Deia, 19-VIII-82

SANTO TOMAS

Urtearen buruan ba dagoz egun batzuk, ez asko, euskal egunak deitu leikezanak. Onelakoa dogu, il onetan, Santo Tomas eguna. Ba dauka egun onek egin bear baten lotuera: errentak.

"Santo Tomas eguna, errenten eguna" esaten da.

En-enten goraberen, ez al zan egun au urduritasunez betea, artu-emon barri batzutan beteteko goraberen agertu bearrak asko estutu eta larritzen zitun eguna?

Ba dirudi lendik onetan asko aldatu gareana.

Irakurri "Basani"ren bertsuak:

*Garai baten kapoi parea
nagusiaren etxera,
bakallau zar bat zintzilik artu
ta buelta mendi aldera,
alda bearra zegoan eta
pixka bat aldatu gera,
ainbeste tarte ez dago orain
gizpnetik gizonera.*

Alaz eta egun onek jende asko batu izan dau erri askotan. Baserritarrak alde batetik, kaletarrak bestetik. Izan be gabon ate lez etsiten da, erosketa asko egin eta gabon jaietarako sukaldeak beteteko aukerako izaten dalako.

Donosti, Azpeiti, Arrasate, Bilbo eta ainbat lekutan urteko feririk ederrenak egiten dira. Donosti'n, beste euskal agerbide askoren gain, euskal antzerki agerpenak egoten dira.

1914 urtean erabagi eban Donosti'ko Udalak euskal Iztunde edo Academia de Declamación vasca dalakoa sortutea. Eta orduan agertutako askoren artean, Barriola jaunak esaten eban, komeni zala euskal antzerkietarako alegiñen bat egitea, ortarako idazleen sariketak eratuz, antzezlariak zer egin eta zer agertu euki egien batetik, eta bestetik Iztunde ori sortutea. Eta orduan agertutako askoren artean, Barriola jaunak esaten eban, komeni zala euskal antzerkietarako alegiñen bat egitea, ortarako idazleen sariketak eratuz, antzezlariak zer egin eta zer agertu euki egien batetik, eta bestetik Iztunbe ori sortutea premiñazko zala, antzezlariak euren ekiñaldi eta saiaketak egiteko aukera euki, ordurarte lez santo Tomas eguneko jaiagaz bakarrik geratu barik.

Uste da Santo Tomas eguneko eta Donostiko zaindariaren eguneko euskal jaiak, eta eurretan antzerki jaiak, eun urte ingurutik datozala.

"Txirrita" zanak, gure jaien "erretratuzaille" jator eta zoli zan bertsolariak, kontuan euki zitun "Santo-tomasak" eta teatro jai au be gogoratu eragin:

*Santomasetan guazengan
teatrua ikustera*

*ez.in pasarik ibiltzen gera
kale batetik bestera,
arratsaldean festa bukatu
gabian berriz osteru,
an jakiten da nolakua dan
lege zarreko euskera.*

Bilbo inguruan ba dirudi azken urtetan egun au indarra artzen asi ba da be, merkatura bakarrik begira indartzen dala. Baiña komeni litzake, berau edo beste egunen bat aukeratzea, alako baten be Bilbo onek bere euskal izatea euskal usainez eta loraz eta ekintzaz beteta agertu dagian.

Deia, 21-XII-84

SASOIKO GAUZAK

Abenduaren 16'an udabarriko zizak batutakoak ba dira.
Udabarrikoak, neguan sartu baiño len.
Uztapide'k Arrue'ri emondako bertsoak dira oneik:

*Ziz.a zuriya udabarriyan
lenbizi etortzen dana;
usaia oso ederra dauka
Zeruko intzak emana,
bat ikusitzen degun garayan
pozikan berarengana,
ez da merkea izaten baiña
beti ba da zeñek jana.*

Au kontua! Ziza abiak un dagozan jakinda, ixilik euki ezin. Eiztaria ta perrotxiko batzaillea baiño arroskoagorik ba ete?

Denpora bako gauzak onak ete dira?

Adiskide batek esaten daki txakolin ederra atara leikela Errioxan. Bere esanetan, garratz dagon artean, eldu baiño illabeteren bat aurretik matsa batuta.

Errioxan ori esan nebanean, gauzak bere denpora bear dabela ta orretarako federik ez neban igarri.

Baiña dabillenak ba daki ta lenen ausartzen danak saria lortzen be bai.

Euskera kontuan gabiltz orretan.

Ba dirudi batzuk estatutoagaz euskera esan eta esanak ondorena ekarri bear dabela diñoenak. Berez, zeruko mana lez. Euskeraren zelaian oraindik txingor eta ekaitz ugari dabillala konturatu barik.

Euskaldun jaio ta gero, nagikeriz, euskera galdutako batek iñostan oraintsu: Ziur egon. Nire lobak euskera egingo dabe urte bi baiño len.

- Eta zuk?

- Nik, onezkero, damua ba daukat baiña geratzen yatazan urteakaitik...

Orra etxean bertan lenengo pekatua. Lobak euskera ikasten asita be, indarra artu edo emon bearrean, etxeko itsutasunak etenda geratu bear.

Bere pozik andiena lobak euskeraz ekitea izango ei da. Baiña, esan dogun lez, berak galdu eban, eta zegaitik billatzen asi ezkeru, ezin leikio bigungarri asko emon. Ni, epaikari, zigortu bearrean aurkituko nitzake.

Zarrak gareala ta ezin giñei katedratiku batzuen antzera, on ikusi edo aprobadu orokor eta bardintsua emon.

Asko gara emen errudun agertzeko eran. Eta errua kitututa ordaintzen da.

Euskera indartuko dala? Eta orrela? Leike, baiña Kirikiño'ren Atxuriko milla-grua baiño andiagoa bearko litzake. Asko balio dau Euzkadin euskaraz esloganegaz ormak beteten ibiltzea, esaera ori ipinten daben lagunak eurak, orduntxe be erderaz ekiten ba diardue.

Udabarriko zizak ba dakie agertzen neguan, baiña batzutan eta banakak.

Euskeraren onura banakak agertzea leike, baiña ez jakin gure neguak, gure giroak, zizaen mintzari erneten lagako dautsan.

Itxuretan ez dago gauza, egitetan baifio. Ta egiteak alegiñak eskatzen dabez.

Ondarribiko arrantzale bategaz gertatua: Gaixo egoala, osagilleak arrain zuria jateko agindu, ta arek arrain zuria zirala-ta angulak egunero eskatu.

Ba dirudi guri ere gure izkuntzaren kezkatia ba diñoskuela gaixo gagozala ta bizi nai ba dogu euskera ikasteko.

Euskera indartzeko, osatzeko, "jan" egin bear da. Saltsan, erreta edo obeto pil-pil urdurian gertuta, baiña euskera!

Orretarako euskerari duintasun bat emon bear yako eta duintasun ori lortu ezkeru, itz egiten ez dabena be errezago gertuko da ikastera.

Ba dirudi gure denporak ba datozala. Giroa zaindu bear, sasoi egokian onurak batzeko.

Deia, 28-XII-79

SERORA ZARRAK

Arantza Amezaga'ren "La Mujer Vasca" irakurri dut. Igarten da erderaz izango dana. Ez nua esaten pekatu danik ori. Bai euskaldunon gorriña, gornia, ugan'a.

Baiña Arantza Argentina'n jaioa da, gero Venezuela aldean koskonduteko.

Liburu zale da eta ogibidez liburu artean ibilteko ikastariak sakonduta daukaz. Ameriketatik bere asabaen errira etorria da. Emakume egiña.

Liburu zarretako Esakunetan irakurten da, emakumea arrundik janariz beteta datorren merkatari baten txaloparen irudi dala. Kerexeta tar Jaime adiskideak "Etxekandra onari buruzko poema" deitzen dautsa atal oneri. Bere euskeratze zeatza, zeaztasuna atsegin yakota, au da: Urrundik garaua dakarren merkatarien itsasontzia dirudi. Emon daiogun tantoa.

Ala etorria izan bedi Arantza.

Euskal emakumeen goramena da bere liburua. Euskal odolekoena.

Ez dira danak erri maitasunez biziak. Cordoba'ko sultana izan zan Aurora batek, Katalin Erauso (Monja alferezea deituak), zer euken euskaldunik odola ezik?

Eta besteak.

Eta aitutzen ez diran beste batzuk, Pilar Aretxabaleta bilbotarra lez, Angeles Sorazu zumaiarra, edo ta Margarita Lopez Maturana bilbotarra, edo ta Maria Lopez Bikuña naparra...

Oneik, bear ba da, euren izateagaz aztuta, orokortasun baten bideetan saiatu ziran fede baten zabalkunde ta erabideen ametsetan. Euskal kutsua odolean asmoe-tan. Euskal indarra bai, euskal gogoa ez.

Gure "serora" zarren jarraitzalle izan ziran, arein bakartadea galduta.

"Serora", "freira", "benita", "santera", orrela deitzen ziran antxiña eleizeari eskiñitako emakumeak.

Erriak be ba eukan zer ikusi eurekaz, erria ta eliza bat sentiduten ziralako.

Ondarroa'ko erri-liburuetan gaitz da 1.490'tik atzeragoko liburuak eskuratzea. Pozarren artu neban bat oraintsu. Amabigarrena ipinten dau azalak. "Libro de cuentos año 1.290. Baiña berreun urtetako utsa daroa, lenengo orrialdean igarten dalako 1.490 koa dala.

Bere urrengo 1.541 urtean asia da. Eta liburu berbera zabaltzeko parroko "korretan" (Inguruan) egin zan batzarrean, erritarren ondasun eta jaubetasunak garbi ipinteko batzar orretan bertan, "serora" izan nai eban neska baten eskabidea aztertu zan, "freira" batena. Berba bi orreik darabiz liburuak. Ibiri'ko Domenja deitzen zan eskalea eta bere ondasunak laga ta santa Clara'ko ermitako serora izateko baimena eskatzen eutsan erriari, ermita orretan bizi al izateko. Eta erriak, batzarrean, ontzat artu eban bere eskabidea.

Onelako serorak 1.300 urte ingurutik Euskalerrian ba ziralda esaten da. Geroagokoak, gure ezagunak, beste serorak dira, Karmele Saint Martin'ek "Las

seroras vascas" en agertzen ditun antzekoak. Errezu nai ekiñez beste jardunak darabillezanak. Kaletarragoak. Askotan, gaur, eleizgizon berberen kritikalariai.

Ezaguna da seroren erretolikazko kantua:

*Ya no va el cura a maitines,
diz la serora: ipor qué?
Porque no tiene sotana.
Sotana yo le daré,
ené!
Sotana de buena lana,
atorra de paño grana,
los calzones de badana...*

Baiña ez gara XX garren gizaldian bizi?

Gure giroko emakumetara urreratu gaitez.

Alegin onetan agertuko da urrengoa.

Deia, 7-11-81

SINONIMOAK

Errege egunari begira asi naz.

Ez erregalu eske. Gureak, onezkero, ikatza eta kitto.

Baiña kristau sinismenekoak, guk Belen inguruan iruditzen doguzanak, erregeak ala magoak ete ziran?

Eta zelan esan euskeraz magoak?

Oraintsu "Sinonimoen hiztegia" agertu da. Utsune bat beteten dator. Gure liburuaren artean ba dagoz oraindik orrelako utsuneak. Gotzon Aurrekoetxea, Juan L. Goikoetxea, Txomin Solabarrieta eta Patxi Urizarren'en artean gertu eta osotu dabe. Lau lagun giartsu ta langilleak. Euskal lanetan gogotsu ta adorez sartuta dabilzanak.

Lau jaube, nai ta nortasun eskubidea agertzean, "bostak bat" ipini. Kolkoan gordeta laga ete dabe sinonimoren bat?

Betikoetatik urtetearren, bertan asi naz gizon andien beste deitura, euren kidekoa, sinonimoa billatzen.

Mago izenik ipintzen ez daben lez, ez eta errege deiturarik be, jentil, erraldoi

edo onelako zerbaiten billa asi naz eta, Didaka! ara ez nekien berba bat bertan billatu: digante.

Nai ez da be sarri sartzen dauskuez akatsak mekanoak eta irarkolak eta alakoren bat izango dalakoan, jentil, erraldoi, gizontzar eta abarren sinonimoak billatzen asi eta barriro be "digante" beti. Iztegi zarrak, klasikoak, gure ezkuntzakoak ez dakarre izen ori. Laba barriko batzuk bai. Edo olatu barrikoak.

"Digante" ori ez ete dator gigante ren lenengo izkia, askotan oguzten dogun lez, g edo j bustia erabiltetik, yiyante lez esatetik bear ba da?

Edozetara be gure ikusteko era or dago. (Sinonimoen hiztegian ikuspuntu-ikusmira agertzen dira).

Ez dogu nai joko estuetan sartu. Atsegiñez artzen doguz agertzen diran liburuak. Beti ikasten da, askotan uste baiño geiago. Batetik zabal izaten, bestetik borondate oneko agertzen, iñoiz estutasunen batetik urteten be bai. Gero norberegan dago zer irunsi ta zegaz ok eginda geratu.

Plazaratzen dan gizonak txaloak lez artu bear ditu eupadak. Eta era batera edo bestera, euskera kontuan sartu garean asko be, gaurko eztabaida eta ikusteko ezberdintasunetan.

Liburu onek be batzuen txaloak artuko ditu ta besteen betozkoak, edo ta ostikadak. Nik, batzuk uste baiño "liberalago" nazan onek, abegi onez ikusten dot, gaurko motel eta estu askorentzat ugaritasun aukera emongo dautselako. Nai ta gibelandi nazala-ta geratu.

Gibelandi izena atsegiñez edo makurtasunez artu eta entzun nei; alaz eta liburu onetara begiratu eta bertako sinonimoak, emen agertzen diran beste irurak, iño!, ostikada lez artuko neukez. Ez ete da igarten bertan, batzutan, ondarrutarren esateko brastada eta gordintasunik, ondarrutarren eskama eta espirik?

Deia, 2-1-84

SOIÑU ETA ERESI

Donosti'ko jaiak, eta bertako tanborradak, Sarriegi musikalaria gogoratu dabe. Lesaka'n jaioarren, donostiar biotzez.

Eun eta piku urtetan bere tanborradako doiñua, geroago Serafin Baroja'k berbak ipini eutsazan tanborrada zaratatsu orrek, bizi irauten dau eta gaitz gertatuko da Donosti'k ori kendu eta lagatea, eta gaitzago berak galtzea.

Sarriegi'k, eta Donosti berberak, beste musikolari ospatsu baten gogoeta ekarri dauste. Aste onetan, ain zuzen, berrogei urte il zala...

Sei anai musikazaleetako gaztena: Bernardo Gabiola, berriztarra.

Bizkai'ko Aldundiaren laguntza, beka, bear izan eban erbestera joateko. Eta Bruselas'en, Tinel eta Mailly'lako erakusle ospatsuekfn ikasi eban. Gero Donosti bertako udaleko musika taldearen (bandaren) zuzendaritza irabazi eban.

Urte batzuk an egin eta Madrid'era. Ao batez emon eutsen ango eresi-ikastetxean (kontserbatorioan) egoan organu jotzaille zeregiña.

Maixu zan arek, kemen eta borondatez, ainbat organu jotzaille ospetsuei erakutsi eutsezan bere doaiak. Bere ikasle ziran Errandonea, Etxebeste, Iturriaga, Zubizarreta eta abar.

Gabiola'ren asierako Aldundiaren laguntzak, bekak, eta gero Madrid'eko Eres-ikastetxeko irakaskintza eta lanak, Bizkaikoari begira lagaten gaitue. Gure "konserbatorio"ra begira.

Ukatu eziña da gaurko eran etxe orrek ezin leikela luzaro jarraitu. Millaka ikasle, lagun, alkarren gaiñean. Matrikula geiegi batzen da bertan. Nabarmen biurtzen dira an urteko azterketako egunak. Zabaldu edo banatu bearra dagola ots egiten dabe askok.

Bear ba da beste ikastaroei ospe andiago billatu goi-mailletan, eta erreztasun eratsuago bat lenengo mailletan.

Etxea bera aldatu bear ez ete dan esaten dabe askok, orrelako ikastetxe baten-tzat aukerarik ez daukala-ta. Onetan erri batzuk lortu dabe lenengo maillako ikastaroentzako bere menpeko etxea sortzea. Ala Durango, Galdakao, Getxo eta Leioa.

Beste gorabera bat: Aldundiarena ala Jaurlaritzarena izan bear ete leuke konserbatorio au? Kontuan euki bear da, 1937 urtean, Madrideoko gobernuak, Bizkaia'ri kendu eutsazan eskubide eta jaubetasunen artean, konserbatorio au be sartzen zala. Orrek esan nai dau Latemaren (estaduaren) konturako zala len, eta urteekin barrero jaubetxean Laterriko lez lortu ba zan, gaur Laterriak Eusko Jaurlaritzari aldatutako ikastetxe lez egon eikeala, eta Laterriak gure Jaurlaritzari ordaindu bearreko lez, edo ta emoten dautsagun kupotik bere dirua etxean geratzeko era egongo zala.

Urteak igaro dira, baiña dirutza ederra emon dau or Bizkaia'k, bear ba da Lateniak (estaduak) zaindu eta ordaindu bear ebanaren orde.

Edozetara be, Bizkaia'ren jokabideak, bere musikarako zaletasuna eta ardura agertzen dauz.

Deia, 25-1-84

SU-ZIRIAK

Lenago ere ba nekian Ondarroa'ko gauzak ez zirala "ora pro-nobis" esanda amaitzen.

Frantzetar txirla zuri ta txikiak barik, urandiko txirla baltzak gara. Zerbaitegaitik istorietan agertzen da Bizkaia'n ostrarik onenak Kanala'n batzen dirala, ta gero "síguela Plencia y luego Ondárroa, en Churri-erreca y Saldape (sic)". Ikusi "Historia General de Bizcaya", Labayru, 1-537.

Eta Ondarroa'ko erruak luzeak dirala be, laster ikusten da.

Alukeri barik. Alukeriak eta beste gauzak, moñoetako ule ta guzti, tabu dira euskeran.

Eta ez orain, Bilbo'ko alkatea modan jarri danean.

Azkue zanak onelako berbei usaiñik artzen be ez eban lagaten. Eskribaduak eta eleizgizonak ulertzeko eran laga, latiñera jota: "verenda mulieris" eta abarka. Aztertu bere Iztegia. Zeintsuk berba? Ai ene! "Compulsado eta conculcado" baiño gaitzago ez da ba ori. Borondatea bear gauzak esne txar barik erabili eta amaituta lagateko. Adiskidetasuneko legerik ausi barik.

Gure zarrak ba euken orretan be eroapena. Eta erri jakintza. Erri jakintza baiño obarik ez dagolako gauzak iñor mindu barik erabilteko. Eta egunkarietara agertze-ko lez platerera atarateko be.

Ba al dago orretarako gure esakera jator bat baiño dotore, txukun eta beteagorik? Zereko zerak! Kitu. Bakoitzak jakingo dau zer pentsatu. Orrelaxe euskera jatorrean, inkisiziñoiak be ikuturik eziñean.

Zikin eta basatsu leikezan Uretara joan barik. Gitxiago Ubeda'ra.

Asko da gure asarre-miñetan ere Ubeda'ra joan bearra. Ain zuzen euskal kazerarritza eta itzulpenetan maixutakoak.

Beti be gure umetako gaztelanizko eskolaren urratsetan jarraitzea da ori.

Eibar'tik Bergara'ra joateko, edo inguru on-etan ibilteko, ez ete da errezago, jatorrago, errikoiago eta ezagunago Ubera'tik joatea?

Zetarako Ubeda'ko muño eta bizkarretatik zear izerdi likiñetan ibili, gaztela giroetan, Elgeta'ra igo eta etxeko doguzan eta auzoko diran LTbera-Bolu edo Ubera-Errementarikuetatik zear maldan beera ibili barik?

Gu ondarrutarrok Arno-atetik urrunago ez joatea... errepatxikoliño!, ori sinistutekoa da, baiña Eibar eta Bergararrak Ubera'ko bideetan ez ibiltea... Iño!

Bigarren eta azkena idatzi nebanean, bat esaten euki neban ia zegaitik ain arin etsi.

Jauna, erantzun neutsan, gu leorretik narraz ibilten gara. Ori da egia. Borondatez eta adiskidetasunez gaiñera.

Gure bitsak eta aparrak itxasoan galtzen dira. Orretan "El Correo Español"en "Aitona" zanak laga genduzan Ubeda'ko tontorretatik gora: "Los ondarreses mun-

dialmente famosos por los bélicos acentos del Boga Boga Mariñelak" idatzi eban gugaitik.

Eta ain zuzen ere adiskidetasunako txanpanik geien edan eragiten daben abes-titzat daukagu guk.

Ez al da egia?

Beiñik bein, sekula ez gara asarretu ori abestuten. Gangortu ere ez. Eta, kon-txo!, ez-eta txapelik galdu be.

Origaitik, orain, estropada zale izan gareanok, estropada bakan bat leorretik ikustean, au da, molla burutik ikustean, su-ziriak jaurtiteko eran gagoz, zerbait ager-tuko dalakoan euskeraren mesedean.

Baiña zereko zerei baketan lagata.

Deia, II-VI-81

UDABARRIKO AIZETAN

Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuk kalez kale aizetu aurretik.

Ba dago orcelako esakera bat arrantzialien artean.

Bear ba da esan nairik udabarrian sartu egin bear gareala orretarako, itxas urak epeltzen asita.

Aste Santu ondoren izan be barri-barri ibiltzen dira itxasontziak. Eriñotz adar eta guzti eta batek baiño geiagok, sareei lotuta, santuren batek egun oneitan bere leku-tik kanpora atara ta apain jantzi dabenean, bere jantziari eusteko lotuta erabili daben orratzen bat.

Nekez bastertuko doguz gure siniste zarrak eta gaitz, oraindik be lengo andren sinisteak irauten daben artean.

Ukatu eziña da andrak, eskubiderik ez eukela esanarren, nai ebena egiten ekie-la gizonekaz, oitura kontuetan beiñik-bein. Bestetan... bakoitzak bere ariari ten.

Gu, gure girotik, antxoari begira gagoz.

Baserritarrak be ba dauke euren egun oneitan.

Batzuk antxoak, besteak artoak.

Egunetako esakera zarra da: San Jurki, artoak ereiteko goizeti. San Markos, artoak erinda ba legoz!

Jai bata ta beste, aste onetako 23 eta 25'n ospatuten dira.

Zer darakusku esaera orrek? Artoak egun andi bi onein artean erein bear dirala? Beraz aste onetan?

Era batera nai bestera, baserrietan eta itxasertzen etxeari begira gagoz. Bakoitzaren emaitzei begira. Tokian tokiko. Eta garaian garaiko, edo sasoiari sasoi-ko.

Premiña dogulako eta goseti garealako.

Izan be mundu au gosetien mundua da. Garia ez ba da artoa; antxoa ez ba da lebatza. Or be ba dogu esaera ezaguna: Etorriko da Maiatza jango doguna lebatza. Baiña bitartean antxoa txikiak baiño arerio geiagoz iraun bear. Al dan bestean ibili edo bizi, askotan txikikerietan mirrinduta.

Santi-Mamiñeko futbol zelaian orruka ibiltea, ez ete da zerbaiten gose garean ezaugarri? Eta Valencia'ko paellak kendu ete dausku gose ori, nai ta sakelei astiñaldi ona emon?

Ondo da bizitza umorez artzea, baiña berea emonda, au da, bakoitzak bere jardunetan ekinda. Jakiña, ereduako izango litzake, esate baterako, gure bizitza urre eta galtzairu biurtzea. Amado Nervo, mexikotar olerkariak esaten ekian: Oro sobre acero (Eibar y Toledo) tu voluntad. Oro sobre acero tus actos.

Era berean zure maitasunak.

Emen dogu bizitzaren oiñama.

Idazten nagon une au Aberri egun arratsaldea da. Eta ezin ukatu euskaldunon "gosekaz" gogoratu ez naizenik be. Eta nire itauna, galdera: Ez al gara euskaldun danok gose eta ez ete geinke danok karidadea egiten jokatu?

Udabarriko aizetan sartu garean lez, bizi gaitezaz.

Ba dogu euskaldunok gure Udabarriaren laztan ezagutzeko alegin egin bearra!

Deia, 2-V-84

UDALEN AZKATASUNA

Urte batzutan erriak, esate baterako, goitik zuzendutako lanak egin dituez, edo ta goitik agindutako eran.

Orrela uren ugaritze eta ornitzeak; kanposantuen barriztuteak; kale konponketak; kiroldegi barriak jasoteak eta urigintzako ainbeste lan.

Ba dirudi jokabide ori aldatu egiten dala aurtendik.

Erriak, udalak, azkatasun geiago eukiko dabela eurak nai dabena egiteko, esana da.

Len, Fom egitamua edo plangintza deitzen zana, eta serbitzu izentautzako iragarten zana, orain bigunago joango da Udaletara, udal eta erri orreik errezagot eta nasaiago jokatu dagien euren ordainketa eta kontuetan.

Foru plangintzan, beti lez emongo jakoe erriei diru mordo bat.

Jakiña da Bizkai'ko Aldundiak iru-lau eratarata banatuten dautsela dirua erriei, edo Udalei, batzuk txarto esanda, udaletxiei.

Zegaitik dagon oker esanda?

Kontuan euki erri baten izatea, nortasuna, duintasuna, udala dala, au da, uri-ala edo erri baten osotasuna. Udaletxea, izate guzti orren batzarrak egin, kontuak erabili eta orrelako zeregiñak egiteko etxea da. Au da, lekua, tokia. Beraz garbi bereiztu eta zeaztu edo mugatu bear dira biak: udala eta udaletxea.

Udalak eurenak dituen sarreran jaube dira, nai ta orrelako batzuk Aldundiak (Diputasiñoiak) kobratu. Onetan sartzen dira lurraldeen mozkiñak eta abar.

Orrela udaletara biurtzen dira, errietako zerga ordez, 2.900.000 peseta. Urtero bi milla ta bederatzireun milloi peseta.

Bai eta beste 8.500.000 peseta be, au da, zortzi milla ta bosteun milloi peseta, oneik be errien konturako zerga lez eta beste lau milla ta seireun milloi zabaltzen ditu Aldundiak udalak euren aurre-kontuetan (presupuestotetan) eukiten dituen zorrak ordaintzeko. Au da, azken zati bi oneitarako amairu milla milloi baiño zerbait geiago.

Dirutza orreitatik kanpoan dago Foru egitamua edo plangintzako lana. Urte onetarako, 5.800.000 izentatu dira orretarako, au da, bost milla ta zortzirefin milloi.

Dirutza au artzeko Udal bakoitzak bere neurriaren araberako kopurua dauka. Bizilagunetatik ataraten dan neurkiña.

Udalik txikienak, gitxienezko ziur bat dauke.

Ba dago begirapen berezi bat be udatan euren bizilagunak udazaleekin ugartzen dituen errientzat be. Orrelako erriak, laguntza onetarako, dauken jendetza baiño geiagot zenbatuten dira. Au da, udako ille bi edo irutako ugartzea, urteko amabi illabetetan banatuten da, eta erdiz-erdizko kopuru bat atara.

Beraz jendetza orrek erri batzuei emon leikioen irabazpideagaz batera, jakiña da serbitzu eta premiñetan be eskabide, beartasun eta diru-eralgite ugari eragiten dautsezala, eta orretan Aldundiak (diputasiñoiak) bere ardurak artuta daukaz.

Deia, 17-1-84

UDAKO IBILLERAK

Santo Domingo de la Calzada.

Oraingotan oillarrak be ez dau kukurrukurik egiten ango katedral andi ta autsez betean.

Udako giroa ez yatorko ondo.

Neguan, atea itxita, atea zabaldu bear izaten danetan, ango ozkiria igartean, kukurruku egiten dau. Eta bere zeregiña bete.

Udan, beroagaitik atea zabalik, mantsotuta lez igarten da. Drogatu egiten ete dabe, itxura zainduarren, bere zeregiñik ez beteteko?

Itxuran ete dago izatea?

Ba dagoz Santo Domingo'n bestelako katedralak.

Danetakoak. Pub, club, diskoteka eta modak galdu dituen antxiñako bar eta tabernak.

Euskera parra-parra dabil baten. Ao, begi, ukondo ta mai azpitik anka joteak be bai.

Iru ogetabosteko, urtetan beintzat, ezagututako andrak dira.

Mai zabalean. Inguruan "laguntzailleak" eta ikus-miñak.

Gizonak euren kontura diardue beste maietan. Txorierritarrak danak. Guk artu, areik koiu. Or dauke nortasuna.

Patxadaz gizonak. Andrak, orde, brixak urtenda, ololak berotuta, begiak galdu bearrean, bat zaindu, bestea gaiztetsi edo ta lagunari errietan gaizki esaten, bastotatik urten edo iruko kopea jaurti ez dabelako.

Eurei begira ta nire artean: Ze arranotan etorri leike Txori-erritik oillar errira, edo ta beste edozein Errioxa'ko lekuetara, udea igarotea, aizea artzera, girorik atsegiñenean taberna zuloan sartu ta arratsalde osoa bertan emotekotan?

Bakoitza bere giroan zaindu eta osatzen dala obetoen?

Beste erri baten sartu naz. Basterrei begira. Eleiza txikuna. Kanporik ez igarteko aiña eder, garbi eta argi.

Denda baten itandu dot zeñiek zaintzen daben eleiza.

- Batek ba daki!

- Zenbat abade dagoz?

- Len lau egoten ziran eta orain bat eta bat orretatik be iru laurden alperrik dagoz. Zarra ezkondu zan ta gaztea geratzen da. Ia sobre.

Eta au gure Naparroan zan!

Jarrai aurrera.

Erri bakoitzak nun-nai agertzen daki bere taixua. Baiñak garbitu, lepotako zaiñak kendu, egalak ebagi eta zatitzen andra pilloa kale estu baten.

- Urterako etxerako baiñak gertuten?

- Bai zera! Lantegiei eskua luzatzen, gure ortuariak, oraingotan baiñak geixuago ordaindu dagiezan, guk eskua emonda konserbak merkeago urten dagien.

Atzean, itsua izan bear ez igarteko, gizarte babesak (asegurantzak) eta beste indarkeri eta eskubideak.

Oporretatik oituretara eta lanera ba dago, sakonera begiratuta, aztertu bearreko giroa.

Giroa giro, beti be Patxi kontra ibilteko jokia.

Deia, 15-VIII-81

UDAKO IKASKETAK

Ez da bardin uda aldian bakoitzak nai daben aldetatik ibiltea edo ta dei batzuen menpe geratzea. Ez eta oporretan ibili edo ta oporretan dabiltzanen serbitzari geratzea be.

Ez da ondo baliatzen batzuk uda aldian egiten daben lana.

Erri askotan, ikastolak edo laguntalderen bat dala-ta, batzoki edo jokabide batzun alde egiten diran borondatezko lanak ordaintzea ba litz, orduak, giroa, gaulana, eta domeka ta jaietako lana, langilleen morroitza ta abar kontuan sartuta, Matusalen'en urteak baiño luzeago izango kontuak. Egin bearrekoen aurre-kontu edo presupuestu asko labur geratuko litzakez.

Gauza ziurra da, ukatu eziña, azken urteetan gure errian ezer egin ba da, asko beintzat, geiena ez da be, udako eskintza eta lanei esker egin dala.

Erreza da uda aldian jolastu, aizetu, igari egin, baltzitu ta orduak eta gaulenak eta goizaldeak kalean, jolas tokietan edo bingoetan igarotea.

Astun gertaten da, baiña zela-ala egiten da, bitartean eskabide gogorak dagozalako, orrelako udazaliei ederkatura azaldu eta emonaren orde, diru batzuk ataratea.

Ba daukaz joko onek bere akatsak.

Bat: ardaukeriaren aurka ibili ta diru pixka baten orde, ardauxosnak norberak zabaltzea.

Bakoitzaren kontzientziaren salketa da ori, ikuspegi arin baten. Bigungarri edo leungarri batzuk bitarteko dirala be, sentimen eta joera baten salketa edo ta makurpena.

Bardin da eleiz alkarteak edo abertzale taldeak burutu. Asmotxak eta idealistak edo ta erri mandatariak egin.

Batzar baten egotea gertatu jatan. Eta batek borondate onez eskatu eban: Or batzen diran millaka peseta, batez beste bakoitzari, bazkide garean bakoitzari, pare bana milla peseta ordaindu bearra izango litzake. Merezi al dau danok orretan gaxotzeraiño lanean ekitea, etxeko bakea eta oiturak apurtu, erbestetik datorkiguzanen adiskidetasunei lagundu eziñez geratu, eta etxekoekin kateatuta geratzea, bear ba da beste era oiTetara, ustez beintzat, errezago edo gogotsuago egingo litzaken diru batzearen aukera egon-da?

Baiña, betikoa. Bosteun bazkide ba doguz alkartasun baten, bosteunak izaten al dira langille, edo gogo oneko, edo diruz al dabenak, edo ta ori nai dabenak? Ez al da onetan be, laguntasunean be, betikoen, edo gertuen, edo lotsatien, edo bereiztuen sailllen bat?

Bosteunak emongo al leuke eurentxo?

Eta... beste aitzaki asko.

Ez dot uste jokabide onek asko iraungo dabenik.

Alako baten elduko gara gure premiñak beste era batez ordainduta ikustera.

Eta bestea, argalkeriak, griñak, eta beste joerak asetzeko bear dana, orretarako beti egongo da argi kaskarra. Baiña bai lagundu leikenena be.

Era guztitako alegiñak oartu dodaz: Ikasketak osotu nai dituezan ikaslienak, euren etxeak premiñadunen oportetarrako eskiñi ta lanpetzen diran taldeenak, jaietan serbitsari biurtzen diranenak, jaiiei kultur itxura sartu nairik alegindu ta lotzen diranak...

Komeniko litzake onetzaz be itz egitea.

Arduari bere tokiko eta neurriko marka ipinteko eskatzen asi garean lez, ez ete litzake pentsatu bear kultur aste askori be kultur ziurtasun edo garanti bat eskatzea?

Deia, I-IX-81

UGAO

Ugao edo Ubao esaten zan len.

Euskaltzaindiak, bere erri izenen liburuan, Ugao-Miraballes ipini dau eta ugaoar-miraballestar deitzeko aukera emon.

Zeberiotarren gurariz edo Olabarritar gizon on batzuen eskabidez sortu zan, erri legerako.

Izen andi ta guzti be, aldiko edo garaiko izen aizetsu ta guzti be, ez zan Bilbo'ren gogoko.

Bilbotarrak, merkatariak beti, ez eben nai ingurutan erririk, batez be merkataritzan eurei kalte egin eikeanik. Sal-erosketarako (komertziorako) eskubide guztiak nai zituen bilbotarrak inguru zabalean. Barakaldo, Zamudio eta, Areta bitartean ez eben nai beste erririk, batez be euren arazoetan ukondoa sartu ta kalte egingo eutsenik. Ugao sortzeko asmoa agertu zanean bilbotarrak argi agertu eben euren ukapena: Ez dogu nai ogi, burdin eta beste edozetan be sal-erosketa euki leiken erririk. Ori zan bilbotarren kakua.

Baiña Juan Bizkaiko jaunak, bilbotarrei jaramonik egin barik, em nortasuna emon eutsan 1.375 urtean.

Euskal izen jator eta ugari dagoz bere erreka, tontor, muno, mendi, muga, leku eta ingurutan.

Azardoiaga, Aldanondo, Gindesarin, Olaluzeta, Urriberastegi, Arzanondo, Upo, Elgebaso, Amezola, Amargiarro, Unzueta, Gamarreta, Ganekogorta... Ainbat.

Alaz eta nundik atara Miravalles? Gizaldietako oitura: koipekeria eta arrokeria. Izen uts eta putsak, egokiagoak basterrean lagata.

Ubao torreak emon eikion, eta, alaxe egin be, beste izena. Zoritxarreko torrea. Iru bidar erre zan beintzat. Eta orma zarretan geratu.

Ba egoan beste torre bat be inguruan: Arandia. Geroago galdu ta gaur bere azte-
íTenik barik. Lantegi andi bat egitean beratu ei eben.

Egun sentian baiño illuntzetan erri atsegiñago ete da Ugao? Luis Andres Uruñuela, olerkari gogo eta kronikalari naia eukazanak ikusbide ori agertzen dau: "la villa vizcaina de los atardeceres" idatzi eban berak.

Beste batzuk lapiko erria deitzen ei eutsen. Buruagaz pentsatu edo urdaillagaz jokatu, or dago kakua.

Lapikoak ba dauka bere errazoaia.

Irailla'ren lenengo domekan egiten da jaia. Udiarraga'ko Amaren eguna. Berreun urte ba dira, 1.778'n, bere omenezko ermita barria egin zala. Eta anaitasuneko bazkaria egiten zen, ermita aurreko zelaian, kofradiko guztiak lapiko ikaragarri baten gertuten zan txala danen artean banandu eta zelaian ipinitako maietan janaz.

Bilbo'ko Erri-irriatiak, larunbat goizetan, amarretatik amaiketarako ordua, txandaka, Bizkai'ko ikastoletatik eroaten dituzan ume taldekin osotuten dau.

Umeak poztu, adoretu eta esnatu naian egiten dau ori.

Ugao'ko umeak ezagutu nai ninduela ta eroan ninduen ni be. Ez dakit eurak zetan geratu ziran nigaz. Nik, zirikalari ta sator, euren gauzatxoak atara nai izan neutsezan labur.

Euskaraz errez agertzen dira. Etxetan be egiten dakien ezaugarri.

Kale gizonak izateko itxuran datoz. Ez dakit parroko zaindari dan san Bartolome'k ikara andirik eragingo dautsenik. Ori bai, ugaotar zintzo lez bere

eguna ospatu bearco dabe udaco galdetan. Txepetxik ez yakoe igaroten konturatu barik.

Eta orduariagaz zur ibili trenerako. Zelan itandu leikioe amaikak lauren gitxia-gotako trenak noiz urteten daben? Ori ez ei da euskera, matematika baiño.

Atzamarrrik ez sartu eurei aoan. Laster egingo dautsue kosk. Ez dira atzean geratuko. Ugao'n ez ei dago ugazixorik, aurrera begiratu nai daben umeak baiño. Eta euskeraz begiratu be.

Deia, 27-1-80

UMEAK ETA ZARRAK

Gaur, erririk geienetan, zaarrei omenaldiak egiteko oitura sartu da.

Ba dauka orrelako jaiak atze luzea: Lotsa, begiramena, maitasuna, esker ona eta abar.

*Ai gure zarrak!
Azurrak gogor, neke ta miñez,
baiña gogoia amesti,
uste baiño ta urte geiagor
emen gabiltza kezkatu;
joanak joan, damurik ez ta
bizitzarenik sekula,
jaiotzetikan ziur genkien
lorrez bearco gendula,
ala ta ere jarraitukogu
bizi oneri lotuta.*

Edozetara be igarten da zarrak gero ta atsegiñago bizi dirala. Batetik lan egiten da ortarako. Bestetik gaurko giroak beartu egiten gaitu orretara. Eta ezin ukatu, gaur zarrak ba daukezala etxeari laguntzeko onurak.

Urteak ez dabe gaur len aiña zaar bastertzen.

Ori be egia da.

Naparroako Madoz'eko esaera imtsu bat, gogora datorkit:

*Gure etxean atso bi,
biak alkar irudi;*

*batak ditu eun urte,
besteak eun ta bi,
batak nai du monja sartu,
besteak josten ikasi.*

Eta ezin ukatu, len baiño aukera obeagoak doguzala orrelako gertaerak ikusteko.

ZaiTa ta labea aotik berotu bear dira. Esaera da. Eta ori gaur, len baiño erreza-go leikena da.

Ba dakit, beste alde, gu geu be gero ta atsegin maiteago goazala. Gaurko bizi-moduan, etxeko zaiTak ba dakarrezala gazteentzat urteko atsegiñak etete eta abar. Ba dira egunotan, zarrekin zer egin jakiñezaz, zela-ala, erdi guzurretan, gaixo-etxe eta antzerakoetan sartu nai izaten dituenak, eurak tatarrezko barik toki eguzkitsuetara joateko asmotan. Baiña gertaera bakanak, kontateko mintsuenak izanarren, zotin eragiñan'en, ez dira lege. Orrelako lauren orde, larogetak egongo dira beste-lako jokabidetan, eta ixilik eukiko dira.

Santiago egunaren oroitzak ekarri nau ontaz, idaztera. Eta ez ain zuzen zarren errukiz, eurei txaloak joteko baiño.

Itxas errietan ba ekielako Santiagotan, ez zarrekaz gogoratzen, eurak umeekaz baiño.

Umeak, gure errietan, Jaunarekiko erruki eskale lez erabilten ziran denpora garratzetan. Toki batzutan, ekaitz zitalen bat sortu, eta biguntzen ez ba zan, umeak kalez kale urteten ziran, batzutan maixuak lagunduta, bestetan bakarrik, erri-otoitzak egiten, otoitz eta abestiz, Jauna bigundu eta errukitu naian.

Batzutan kaleetan, bestetan ermitaren baten aurrera joanda.

Eta Lekeition, esate baterako, Santiago egunean, eskoletako umiei librako ogi bana eta gazta opil laurena emoten eutsen, era orretan, urtearen buruan, eurak egiten eben mesedea eskartuteko.

Ori da bizitzan bakoitzaren lana eta zeregiña ezagutu eta biotzez jokatzeara!

Deia, 29-VII-85

UMEEN JAUNARTZEAK

Nire adiskide batek ba eukan bere errazoia itzaldi baten ondorengo jardunaldi-ko eskarian: Drogen aurka ibili barik, zegaitik ez da gaurko arrankura, kezka eta larrialdia sortzen daben giroaren aurka ekiten, eta ittotasunak urrundu, ta biziari biziteko egarria sartu, gaurko bizitzako miñaren ordeztu?

Politika ez ba da, langintza datorkigu estutzen.

Indarkeria ez danean, lanik eza, gosea.

Edo ta gaixoa.

Zelan deituko ete eutsen euskaldun zarrak oraingo pulmoi atipiku sorgin eta lapur oneri? Txomin Agin'e'k alboringoa erabilten eban biriketako gaixoa aitzatzeko eta ezagutu erazteko. Gure zarrak ala deitzen ei eutsen Lekeitio, Ondarroa eta ingurutan. Oraingo atipiku au, zeaztu bako, itxura bako ez ete?

Ori be kezka da.

Gure giroa geiago laiñotuten datorren lanbroa.

Umeen jaunartze baten nitzan igandean eta ezin kendu orrelako gaiak nire buru argaletik.

Maitasunaren kantuak, irribarreak, sinismen agerkai zintzoak, errugabetasunaren pozak...

Baiña danen gaiñetik, laiñoak.

Nire girora atzeratu nai izan dot. Irurogei urte, ain zuzen, ni be orrelako jai baten gertatu nitzala.

Min emoten eusten oiñetako barriak. Zegaitik euken gure amak ezin sartutako oiñetakoak erosteko oitura, gero nasaituko zirala-ta, nai ta luzaro gure beatzak eta oiñak tximurtu eta minduta erabiltearen truke izan?

Kaltzetintxo zuriak be kaletako basaz erdi erdian mokoloituta, gure denporetan umien jaunartze egunean ia beti eguraldi zikiña gertaten zalako. Baiña gu antxe, zutik, arro, adi, zur, amesez beterik, abestu daiozun Maitasunari kanta-ala ekiñalean.

Eta ume giñan, zazpi urtetako ume guri; esnearen geunak amak igarri barik jatea izaten zan gure autortu bearreko pekatu; eta kalea, jaunartu ondoren, aita-besutakoagandik asi eta kokote gozoa eroanez agurtzen genduzan senide ta auzoko guztiei, eskua luzatu eragi eta "parkatujauna" egin bear izaten geuntsan esku gaiñean, kurutze ezaugarria gure eskutxuekin iruditu eragin eta musu bat, laztan bat apaltasunez emonaz.

Maitasun eskale giñan orduan.

Maitasuna besterik ez gendun gure nai, gurari, asmo eta ikasietan.

Sekula pentsatu ez gure zarrak, guraso, adiskide ta erritarrak, bestelako kezkarik edo estutasunik euki eikeenik.

Igandean, Bilbo'ko Karmengo eleizan, illoben jaunartzean, egunotako larrikeri eta kezkaen izerditan, lengo oroitzak be euki dodaz.

Eta nire artean esan be bai: Gure umetako antzera Maitasunari abestuten diarduen umetxuok, konturatu ete dira dagonerako kaleko giroaren gaixoaz?

Ez ete dauke eurak gaurko sinistetan zaindu eraziteko eskubiderik, geroko itsukeri eta gordinkerietan sartu eragin barik?

Deia, 12-VI-81

URTE BURUAN

Aurrera dua urtea.

Bere jai eta nekeak emonda.

Aurten, udako eurite ta ujolak aztu naian, azken denporetan, gure giroetan, guzurti lez. Ia errubako agertu nai ba leuken lez.

Len Eguberri izaten zan urtebarri.

Dakigunez antxiñakoak Natibitatez asten eben euren urte barria.

Ba dauka bere azalpena, kristiñauon artean: Kristo argi, bizi ta gidari.

Alemania'n XI garren gizaldian asi ziran orrela. Katalunian, Tarragona'n egin-dako batzar edo kontzilio batek agindu eban ori eta 1180 urtean asi ziran orrela.

Italia'ko erri andietan, XII-XV garren gizaldien artean orrela egiten zan.

Espasa Calpe erabili ezkeru, laster konturatuko gara Aragoiti'n 1350 urtean orrelako egutegia eukela; Valencia'n 1388'n; Castilla'n 1383'etik; Portugal'en geroago.

Dana dala, gure artean esaerak dira naiko testigantza, eurak dira lekukorik onenak. Ta or gatoz Natibitate'ri Eguberri deitzen.

Lengoa laga ta ba goaz aurrera.

Eguberri igaro zan.

San Estebantxe beti len letxe jarraitzekotan geratu giñan.

Ba dago laugarren Eguberri be.

Toki batzutan ala deitzen dautse errugabien egunari, iñuzente egunari: laugarren eguberri.

Gero gabon zar.

Zeñek esango ete dau txapela kenduta, eskartsu, agur urte zar?

Elgoibar eta Larrauri'n, neska-mutillak gabonzar arratsaldean plazan batzen dira. Aurreku ta dantzak egin eta egun onetan alkar begiz jotako ezkontza onak egiten ei dira.

Danetarikoaz gogoratuko gara an eta emen. Bakoitzak berea gogoratzen daki. Tokian tokiko.

Arrantzaleak lebatza ta baserritarrak oilloak. Batzuk euritea ta besteak legortea. Eta azken baten, urte buruan, kontuak egitea.

Zeiñen gogoko?

"TxiiiTáta" bertsolariaren bertso bat gogoratuz amaituko dogu gaurko lantxoa. 1935 urtean, Tolosa'ko bertsolarien txapelketan esana. Bera geratu zan irabazle; bigarren eta irugarren, bardintsu, Lujambio eta Etxebarria, andoaindarra.

Ara "Txirrita"ren bertso bat:

*Gabonetako oitura zer dan
emango det aditzera,
ni ez nijua sentitzen dedan
gauzarik ixiltzera;
al baldin bada jarri diraten
gaiari zuzen eltzera,
baserrietan zer egin oi dan
gogoratuten al zera?
Kapoi paria nausiteira ta
bakallau egua etxera.*

Deia, 7-1-84

URTEROKO DEIA

Mundua famili bat.

Asmo luze ta zabala. Sakona.

Gure denporetan Misiño zabalkunde domeka, umekorrango zan. Baltz eta oriekaz pentsatu eragiten euskuen. Txinartxuen errukiz. Ia, umeen jaia zan.

Orduko sentimenak geroragoko ardura ekarri dabe.

Jaia gizendu zan. Eta andiei begira jarri.

Len kristiñau berezi lez uste giñan. Susperrak. Gurea egia, gure maixutza, eta gurea eleiz duintasuna.

Gu geu konturatu gara geroago, besteak gure aiña dakiela kristautasunean, eta sarri guk baiño zintzoago ta gogotsuago jarduten dabela kristau bizitzan. Esaten dana, besteak ere ama bedeinkatu baten semeak dirala.

Azpalditik gatoz eta gabiltz atzerakadan.

Geiegiaren ondorenak? Gogorik barriztu ezaren ondorenak?

Atzerakada edo nagitasun ori gugan indartsu ezagutu ez ba litz, ez gendun one-lako esaerarik eukiko: "Aita gurea bein eleizara eta orduan nekez".

Eta beste onek be ba dauka bere esan nai zorrotza:

"Bein Mari gurea eleizara eta bertan eperdiz aldarara".

Txomin Agirre'ren "Kresala"n be irakurten da: Gizonak atoian legez joaten zirala eleizara. Argi esanda, joan nai ezik lez, andrazkoen bultzadaz.

Eleberri (nobela) berbetan irakurten da beste baten: "Gure arrantzaleak 'gorri-ra' baizen azkar eztira joaten txarteletara, eleizako ezkilatxoak dilin-dilin luzao-koan dei egiñarren".

Ori, danori, azala da. Oitura. Askotan sagarragaz gertaten dana: itxura ona ta barrua ustela.

Oraiñarte azalari emon izan dautsagu balioa. Eleizara joateari. Baiña ain zuzen or ez dago giarrik.

Domund'en guraria ez da ain zuzen azala dotoretzea.

Euki izan ditu, urtero zabaltzen ditun asmoetan, slogan ederrak. Aurtengoa maitekorra da, bizi eragilea eta batu eragilea: Famili baten osotasun naia.

Danok dakigu familia ez dala, ain zuzen, aitatasun eta amatasunaren abia baka-rrik.

Familia zabalago da. Gurasoak aiña dira famili seme-alabak. Nai eta bardin pentsatu ez, nai eta danak gurari bardiñeko izan ez.

Familia mai bat da, tellatu bat, aterpe bat, maitasun bat. Ekaitzak iñoiz laiño-tuarren, osorik eteten ez dan maitasuna.

Ori da aurtengo slogana. Aurtengo eskari, agindu eta eskintza: Mundua famili bat.

Danok dakigu ainbeste milloer bizilagun, mundu zear bizi garean lez, ezin ga-reala giro bardiñeko izan.

Baiña bai maitasun andi baten uztartu. Bai Aita baten kerizaren itzalpean alkar-tuta bizi edo biziteko garrez agertu.

Orren billa dabil aurtengo Misiño Domeka. Familiko kontzientzia sartu nairik, Jainko baten seme legez.

Deia, 17-X-81

TERESARENAK

Teresa deunaren eun urtegarren bat geiago. Laugarrena aurten.

Emakume iraultzaillea bere denporetan.

Zeatza, zirt-zertekoa, autsak astintzen zorrotza, ibiltaria.

Gatza emon bear zanari gatza emon eta bizia merezi ebanari indar barria eta bizi barria zaztatzen.

Teresa, zuzen, bere ordenetakoak ezagutuko eben. Gure denporetan egalka geiago ezagutu eragin euskuen. Kurutze'ko Jon'en bitartez batez bere. Aren olerki samur ta maiatemiñez zoratutakoetatik zear.

Eta lutzarreriz bere izena iruntziz, ibiltari izan gareanok. Santa Teresa'ren gorringoak batean eta bestean erosi etan jan-da.

Avila'n onak egiten dituela, Almaza'en obeagoak. Aranda'n urun lodiegi sartzten dautsela. Onelakoak entzun izan dodaz kajatxo orceik erostean.

Ortan ere danetatik dagoz. Fededunak eta Fede bakuak.

Ez esan fede andirik agertzen dabenik, tornu bitartez agur egin ondoren, lenengo dirua aurcez tornuan sartzeko eskatzen dabenak, eta glin-glan tornuak bere ostera egin ondoren, alako baten kajatxoak bialtzen dautsuezanak. Ba dagoz orcelakoak be eta konbentu entzutetsuetan, nai ta Teresa'ren denporetakoak lez egiten dituela ta eroatera ten egin. Eta, fedea alboan lagata, nik errazoia emoten dauset, monja koitaden kontura denporen baten lutzarero asko biziko zalako.

Federa joan-da, ez dago ezpairik euskaldunak Terese'ren jamritzalle zintzo izan ziranik. Bai gizonak eta bai andrazkoak.

Teresa'ren denporan lekaimetza artutako ainbat emakume agertzen dira Rivadeneyra'ren 1581 urteari buruzko Españar Idazleen Bibliotekan.

Zegaitik ainbeste jarraitzalle?

Nik ez dakit "Florete da Anécdotas" idatzi ebanak uste dabenaren zegaitia egitsu izan leikenik. Euskaldunok foru ikaragarri bat dogula, diño ori idatzi eban domingotarrak. Seme askoren jaube dan aita berak nai dabenari lagaten dautsazala ondasunak, bestiei bakoitzari lurretik ataratako zugatz bat emonaz, eta origaitik askok urteten dabela mundu zear al dabenak al daben tokira.

Dana dala ziurra da eta ori aita Crisogono'k agertzen dau, Teresa deunak bizkaitar (euskaldun) askogaz topatu zala bere monastegietan eta Kurutze'ko Jon'en inguruan bizkaitar jakintsuak gertatu zirala.

Naparrak izan ziran, euskaldunen artean, atea zabalen zabaldu eutsezanak karmeldarrei.

1583 urtean sortu zan Iruña'ko karmeldar lekaimen etxea. Eta orduko izlari entzutetsu bat da dakigu Aita Gracian izan zala. Eta berberak arcokeriz esaten daki, monjak eldu ziranean, tutik be erderarik ez ekien monjak, euskera uts-utsean berba egiten ebanak, beragana uneratzen jakozala esanez ondo ulertzen eutsela bere sermoietan.

Ba dagoz akulariak, beti egon izan dira-ta, Gracian ori gizon eder eta ikusgarria zalako, bere ikustearren sermoitara joaten ziranak esango eutsela.

Euskal karmeldarren monjaen artean, esan dogun Iruña'ko etxe ori izan zan lenena. Gero Zumaia'n zabaldu zan 1614 urtean eta Donosti'n 1663'n au da, Iruña'n baiño larogei urte geroago.

Karmeldar fraileak be Iruña'n agertu ziran lenengoz, 1587 urtean. Gipuzkoa'n Lazkao'n, 1644'n. Eta Bizkaia'n Markiña'n, 1691 urtean.

Sakon eta toki askotan sartuta egon izan dira karmeldarrak Euskalerrian. Ez bakarrik barruko bizitzan. Gaixotegi, irakaskintza eta abarretan eurak egin dabena agertu ezin, ez litzakela karmeldarren bizitzarik zintzo agertuko, idatzi izan dau iñoiz aita Lino Akesolo'k.

Ain zuzen be Lino eta Santi Onaindia, biak bizkaitarrak, izan dira Teresa deurenaren ezaupidea euskeraz sakonen emoteko ardura euki izan dabena, eta aren "Camino de Perfección" On-bidea izenez euskeratu eben.

Deia, 16-X-81

"ZARRA TA BIARRA"

Zenbat eta buru andiago ta burukomin geiago. Ala esaten da.

Ez dakit zer dan buru andia. 56 txapelaren bearra izan leiteke? Ortan ni ere barruan nago. Ezin ukatu, gañera, burukomiñak eukiten oitua naizenik. Nire soiñaren aldetik, nire lanen orde eta nire jokabidearen ondorioz. Biozkadak eta atsegiñak baiño ugari ta minkorrango.

Zenbat bidar gogoratzen dodan umetako lelo a:

*O mutil tonto,
jateko pronto...
burua zetarako ?*

Bizitzako txosten bat.

Gerra-denporan, alemanak Frantze'ko Tarbes'en sartu ziranean, ango arsenalen nebillen lanean, torno baten begirale.

Sartu orduko alemanak banan-banan galdetuten euskuen nungo eta giñan: euskaldun erantzun ezker, bertan jarraitzeko, Españar erantzun orde, konzentrazioko tokietara. Zegaitik eukena alemanak tratu berezi ori? Oi, Gernika!

Egun batzuk igaro genduzan, makiñak geldi ta gu ere bai. Lotsatu egin nitzan egoera orretan ta etxera etorteko baimena eskatu. Beti be fede onean ni.

Doixtarrak muga ipinita euken Ipar Euskalerrien eta Katalunia aldera jo bear izan neban. Nun euki ete neban orduan nire burua, nun?

Muga igaro ta etzaidan okurridu ba, an ebillan zaindari bateri galdetzea ia Euskalerrirako trenan nun artzen zan?

Beriala agiriak erakusteko ta... orra nire burua, ordu batzuk barru, Figeras'ko penalean, nor ete nintzan agertu arte. Geroago, andik Reus'era; gosetea; emendik Madrid'era; eta ondoren, Algeciras aurreko mendietara, pikatxoia lepoan nebala. Bigarren kalbarioa.

Len, Bilbo galdueran, "Eguna" ko luma "San Andres"eko kakuekin aldatu, Asturias aldera eroan eta andik Laredo'ko menpetasuna ezagutzera oitu giñan. Gero, urte ta erdi barru ta kanpo, ta kanjeatu egin ninduen Zaragoza'ko periodista baten truke. Ta orra ni, barrero be, "pekatu originalaren" menpe.

Gogoeta au zetatik datorren?

62 urte bete dodaz il onetan. Apaiz adiskide baten karta artu dot, Jorgen Manrique'ren bizi laburrarekiko poematxoak izentatzen. Ori apaizkeria, abadakeria da. Naparroa'ko Ergoiena'n ze esaten daben jakin? "Ardi zar baiño axuri gazte geio iltzen duk". Eutsi orreri.

Ciceron'en "De senectute"ko esanak eta aipamenak biztuten be ba dator bera. Zaartu gareala adierazi nai! Ba dakidaz emendik aurrerako nire lepoetako astuntasunak: "Zarra ta biarra". Gaitz bi batera.

Alaz ta ere zartzarua bigarren umetasuna ez al da?

Ortaz, lengo ametsetarako ere eukiko dogu aize pixkat. Gure ogei urtetan eten yakuzan ametsak, loratzeko ez ete ziran gelditu?

Ba ditu bizitzak bere aizekaldeak.

Figueras'en bertan, tarte arin bat igarri neban. Zetatik? Gaztetasuneko jokeren itxuretatik. Erbestean nebillala, korbatak erosteko oiturea artu neban. Ba nekarrezan irurogetak. Ango arduradunak ikusi, atsegiñean jausi ta, borondate oneko iru-lauren truke, atea erdi zabalik laga, nire nortasuna jakin artean. Orra zerbait.

Ba dirudi, nire lorra arindu naian nabillala. Ez. Ez ditudaz ukatuko "zaarra ta biarra". Baiña, eurak lepoan, gure Yaunari eskabide au: Lagun daigula! Eta noiz-beinka aizekaldetik ibilteko tartea. Bigarren umetasunera ba'goaz, len zerbait ikasiak bultza gaitzala.

Diario Vasco, 21-XI-76

ZAPLADAK

Zapladak emon daustez.

Makillakadak.

"Liburu hau gaurko euskal literaturarik hobenetarikoa baldin bada, bapo".

Ala diño nire "Anton Guzurretxe" dala ta Irailla'ren 13'ko Argia'n Karlos Santisteban'ek.

Liburu aipamen baten irakurterreza dala irakurri ebala, baiña morala bear dala amaitzeko.

Onen aurka ez nago. Ezin egon nei, neu nazalako garbi esan neikena, gaurko lora eta aipamen batzuk, onenetariko eta orrelakoak, errezegi esaten dirala, egiari eta atzeari begiratu barik.

Gero, "moralari" buruz, bakoitzak dakiz bere atsegiñak eta joerak, bere makurpenak eta makurkeriak. Bakoitzak daki nungo eta zelako berotasunak joten daben.

"Biziki kostatu zitzaidan nobela hau irakurtzea, hain da astuna, geldoa eta aspergania". "Idazkera berak begiak nekarazten ditu...".

Nire errian antzerkiak egiten asi giñanean, edozer zan txalogarri. Siniste eta agerbide faltsu asko be bai. Baiña orduan egitea zan komeni zana. Plazara urtetea. Gero, errietatik eskabiderik geien gendunean, bertan bera laga gendun zeregin ori. Giroa aldatzen asia zan. Lengoa gainduta egoan. Gero bestelako zerbait nai zan. Jolas orde z iraultzarako bidea zela ala billatu.

Santesteban berbera dator bere giroa agertzen. "Euskal literatura gaurko munduan, gaurko Euskal herrian-gaurko problematikan-sustraituak dauden liburuak behar ditugu.

Nok ukatzen dau ori, eta zegaitik ez dira egiten? Gaur bideak zabalduta dagoz. Danon poztuko giñake. Eskolak ikusiko litzakez. Zarrenak eta gazteenak, erri bizitza baketsu baten maitale eta burrukalarienak. Ori nai genduke.

Nik, esate baterako, gure gazte denporetan oiñarrituta dagon nobela baten, orduko giroa eta orduko esakera, siniste eta jokabidetan jardun bear dot. Giroari jarraitu bear. Ez al da orrela? Nun dago orretan zer aitzakitu?

Baiña or dago Santisteban'en miña.

Ezin gara ulertu aita eta semeak. Ariñegi bizi gara. Alkar ezagutu eziñez. Len aldaketa bat ez zan igarriko, nekez baiño, ia gizaldi baten. Gaur, amar urtetan, zearo aldatzen gara, loturak eten, ta jantzi zarrak apurtu zirt-zart apurtu beintzat, nai ta arririk ipini ez.

Eta ori be lengo zarrak ordaintzea nai dabe. Leikena baiña gaitz.

Bere giroak eroaten dau Santisteban gure Txomin Agirre'ri bere... Igarri barik ez.

"Agirrereren Euskal Herrian geratu naizela nobela honetan", diño nigaitik. Eta "aren kasua barkagarri zitekeena, ezin barka daiteke gaur egun".

Ikusten danez Santisteban"ek "barkagarri" ikusten dau aren lana. Orañarteko kritikoen liburu ta eritziak giroz aldatu bearko dira ta zirindu, "purgatu".

Gatza emon bearko eta jakoe lengo daneri?

Deia, I-X-81

ZAZPIKI TA ZATIKA

Zazpiki ba nitz be!

Iñun berba oneri esan nai zatarrik emoten ba da, parkatu.

Bermiarrak pentsaten eta dabe sekula bateri zantarra deituta, koloreak urtetako erako berba esaten dautsela?

Arrasate inguruan berba ori itxusia zala esan eusten bein. Niretzat zazpiki esatea, urduri, keixu, egon-ezin esatea lez da. Ondarrutarrak, biribilduta, popakoixu deituten dautse orrelakoari.

Liburu batzuk gertuta daukadaz.

Kalera atarateko garretan.

Sortuak eta egiñak, baiña kalerako jantzi ta apainduren premiñan.

Baiña nor da gaur argitaratzen ausartzen dana, euskaldunak liburuei agertzen dautsen betoskoz zimurra ikusita?

Zazpi milloi ta erdi ei egozan jaurlaritzan, itxuraz Madrid'etik emoten ditue-nak, euskal liburuei laguntzeko. Diru asko? Zer dira milloi orrek, euskal kultura bateri oiñarriak ipinten asi gareanean? Kontu egin, nai ta beste alderdi batera eska-riak zuzendu, "Argia" eta "Goiz Argi" astekariak eta "Saski Naski" illerokoak, eurak bear dabela dirutza ori baiño geiago, galduko ez ba dira, bizitzen jarraitzeko.

Uztailerako egin bear zan liburu laguntza aretarako eskabidea.

Maikada eskabide egoala esan euskun bein ortako arduradunak. Eta an egoza-la geldu.

An egonda, bat ez beste, ez?

Zirika ta kurika, azkenean baten ordez iru agertuko zitula agindu eustan argi-taldari batek, laguntzik egongo dan edo ez fede onez urrengoan ikustekotan.

Akularia, Durango'ko liburu azoka izan da.

Asko dira diñoenak aurtan aberatz agertuko dala Durango liburu barriz.

Dana dala, nireak zazpiki lakoak izango dira. Ander deunaren bezpera, igan-

dea, probak zuzentzen igaro neban eguna. Liburu birenak: eta irugarrena oraindik irarkolan asteko euken azilla'ren 30'n, astelenean. Eta geroago zuzendu bear. Eta Durango zapatuz zabaltzen danez, or kontuak.

Ni zazpikia ez ba naz bere, ez al dira liburu zazpikiak izango?

Or ikusten da gaurko bizitzaren neurria: estura ta larrikeria. Akats eta guzti. Ikasle askorena: biarko edo etzirako lagaten joan, eta azkenean, kuiak, kalabazak.

Onetan eta onegaitik eskerrak emon leikioz Durango'ko azokari.

Bera ezik ez zan egongo ainbesteko ardurarik.

Gaiñera, argitaldarien erakusketa dala, alegindu egiten dira, bata bestearen ondoan, zeñek aukera geiago emonka.

Borondatezko estuntza, lokarria da. Burukoikeria, beregitasuna. "Amor propi-xua" baiño berba txukunagoak ez al dira bata nai beste?

Asi gaitezen gauzak zatika ikasten.

Mallabia'n lez. An be kultur ardura artu dabe. Ez dira bardiñak, ipuiñen esanetan, Mardaña'ko praile legoak San Pedro'ren sermoia egin eutsen denporako malla-biarrak eta gaurkoak.

Aldizkari errikoi bat ataraten asi dira, erdera ta euskeraz. Auzorik auzo, etxerik etxe, danen eskuartean ibili nai daben aldizkaria. Eta «Zatike" ipini dautse izentzat. Zatika-zatika gauzak egin bear diralako osotasun on bat emoteko.

Durango aldean dabiz oraingoz kultur aizeak. Gerediaga'ko lurraldetan eta angoan eskuetatik.

Deia, 5-XII-81

ZINEKO GAUZAK

Txiki giñala asi zan zinea sartzen gure errietan.

Gogoratzen naz, sei-zazpi urte neukazala, antxoa gazituak egiteko lantegi bat gertu ebela Ondarroa'n ortarako.

Eta gogoan daukat, zinea asi bear zan egunean bertan, ezin amaituta ibili zira-la arotzak, eta gu, ume koskorak, merkatu plazatik egurrezko jarrileko luzeak eroaten ibili giñala bertara. Eta komikak zirala lenengo egunetan emon ziran pelikulak.

Andik laster, gure erriak gaitasun berezia dauka gauza barriei zela-ala ikutu egiteko-ta, erriaren berbetan esaera barriak sortuten asi ziran. Eta zineko izenak

ipinten asi zan erria bertako gizonei: Txarlot, Totu ta Meie (lodia ta argala), Popeie eta abar erriko gizon biziei ezarri eutsezan. Eta tximiñoia baiño itsusiago zan nes-kari, or berori Greta Garbo! ta orrelakoak esaten jakozan.

Baiña beste esaera bat be geratu zan errian: Gauza bakan, eziñeko irudimenean be sartzen ez zana gertaten ba zan, erriak deitura bat erabilten ikasi eban: zineko gauzak!

Ori, gure ume aroan zan, gure txiki denporan.

Zineko gauzak gero be gertatu izan dira, era guztietan. Laga daiguzan lengoak. Gatza emon eurei. Lotsagarriena, zapalgarri eta laidogarriena dana, ostikada asko baiño mintsuago dana, orantxe egin dauskue bizkaiera darabilgunoi. Zineko gauzak, zineko gauzakin.

Egunkarietan agertu da larogetak pelikula txiki gertu eta agertu dirala eskole-tan eta beste tokietan zabaltzeko, umeen euskal bizitza sortu, biztu eta mardultzeko. Eta arritzekoa au da, sinistu ezin leikena au da: bat bakarra ez bizkaieraz.

Baiña gu bizkaitarrok ez al gara euskaldunak? Bizkaiera egiten dogun berreun-dak milla euskaldunok ez al dogu bear euskal arduradunen begirapenik? Sinistu ete leike ori egin dabenak ez dirala konturatu bizkaiera ba dagonik, bizkaieraz euske-raz berba egiten danik, eta bizkaitarrak gure diruagaz gure erakundeei eta euren biziari iñok baiño geiago laguntzen dautsagunik?

Bizkaiera erabilten dogunok agotak izan bear ba gara euskal eskubide ta lege-tan, esan dagizkuela lenengotatik eta garbi.

Bizkaieraren harakiri egitea nai ba da, agertu dagiela bein ba betiko argi, jator, lotsa barik ortako arduradunak. Baiña ez tokietara joaten gareanean, parkatu jauna lakoa esan eta esperantza onez etxera bialdu ta gero lengo bidean jarraitzeko.

Adiskide on doguzanekin asarretu nai gaitue; gure artean alkar maiteago bizi bearrean garraztu, baiña ez gara asarretzen gure eta bakoitzaren onari begira gabil-tzalako. Bear ba da euskera, kontuan gure esne beiaren errapatik gitxi ten egin dabenak bizkaitarrak izan dira. Ez gabiz orretan, beste edozeiñek aiña eskubide daukazan gure sortzeko izkuntzaren alde baiño.

Noiz konturatuko dira batzuk Bizkaia'n bizkaiera galtzen ba da, emen ez dala egingo euskerrik?

Eta batez be, noiz konturatuko gara, bizkaitarrak be euskaldunak gareala, beste euskaldun guztien aiñako eskubidea merezi dogunak gure izkuntzari eutsi eta arna-sa emoteko gauzetan?

Deia, 4-III-83

ZIRIKADAK

Zirikadak eta eztenkadak alderdi guztietatik datoz.

Zelan atara leike liburu barri bat lengo moldetan?

Olakoxeak jaurtiten dauskuez.

Eta guk, buru soilok, entzun eta artu bear.

Gu gazte giñala, orduan be egon zan diktadura bat.

Euki al dogu euskaldunok azken irurogei urtetan gure arnasa zabal artzeko egokitasunik?

Eta orain, ia irurogei urte sortu zan diktadurak baserritarrak be astindu zitun, idi proba eta abarretarako ainbat neurri artuz.

Ala akuluari punta zorrozdun ultzea erabiltea galerazo eben, nai ta zezenetako puia lodia geldi laga. Betikoa.

Baiña guk, itxuraz, danetik artu bear.

Gureak eta bestenak.

Lodi gagoz eta ziri batzuk gorabera ez gara asko argalduko.

Danen gain barruko bake bat dogu: daroagun jokabidea, erri-jokabidea dala.

Adiskide batek esaten eustan, eta ni-neuk be ikusi al izan dot, kotxean ebillala lagun bat edo bi ikusten zitun tokian kotxea geratu eta itanduten ebala:

- Euskaldunak zarie?
- Ez gara izango ba?
- Ta zelako euskera nai dozue?
- Gurea guk, emengoa. Ez or periodikoetan datorrena.
- Egutegi bat nai, gure euskeran, Bizkai'ko euskeran?
- Ori baiño besterik ulertzen ete dogu ba?

Eta olaxe Gernika aldean, Markiña aldean, eta Donosti bertan, eta Naparroa'n. Danak eta danetan erri euskera nai dabe.

Erria onela dogun artean, ez al dau merezi euskera dakienei eutsi eragin, lagun-du eta arnasa luzatzea?

Ala obe al da dakienei iguindu eragitea, ez dakienak mirarien bat egingo dabelakuan?

Zirikada ta eztenkada ugari dabiltzala esan dot.

Osasunaren eztenkadak euki nitun oraintsu. Aurrera goaz eta oia da orrelako zerbait eukitea. Ez gagoz gatzetarako.

Plakak atarateko zanetik sartu bear izan eustezan tubo biko urak ta ezin zanik orratzaz billatu. Sartu baten ta bestean atara, gorritu egiten zan neskatilla, ainbeste bidar sartu bearras eta azkenean esan eustan: Nai ta nai ez min emoten dautsut ba!

- Ez enukitu nigaz. Aragiko eztenak ez dira beste asko baino txarrago-ta!

Eta alaxe, esku ganeko zanean sartzen asi ta bigarren tuboa orduko apurtu. Eta lotsatu egin zan eta bera mindu.

Gure artean bestela doa joko. Botika ta botikario asko dabiltz ortik. Bakoitzak daki zelako bidez eta zegaitik.

Lengoan irakurri neban: "Ez al da burugabekeria aundia gu zarrok amorerik eman nai ez izatea?"

Orreri beste era batera erantzun giñei: Erriarentzat bizi guztian ondo joan zan erabide bat zegaitik aldatu? Ez al dogu pentsatu bear gaurko euskerakiko erremedio askok, zianuroa sartuta daukela politikkeriz?

Deia, 17-XII-82

ZORO EGUNAK

Gure inguruetan ba dago erri kanta bat egun oneitako giroa argi agertzen dauana:

*Ana ta Joakin, Peru ta Martin
guazen zortziko dantzara,
gabon gabeen zoro eztana
zororik andiena da.*

Etxean batzen gaitue egun oneik. Batu eta alkartu.

Bear ba da gurasoen katea obetuen zaintzen diran egunak doguz. Zaarren omen eta lotsarako egunik egokienak.

Ortik kristau itxura emoten dautsegu jaiei.

Bestetik, sabelaren gurtzagaz, ba dirudi aragikerira makurtzen gareala. Eta gogoari ukatuten dautsaguna, soñari zoro-zoro eskiñi.

Siniste batzuk dana biurtu euskuen ontasun. Mirari lez.

Zegaitik sinistuten dogu, lamiñen zirikalidak uxatuteko, gabon egunean irututako ariagaz egin bear dirala atorrak, alkondarak?

Ez ete dau onek billatu nai paganoen sinistetatik beste siniste batzuetarako aldia?

Eta zegaitik ain zuzen, Garai'n esaten daben lez, gabon gabeen lurrean sartzen dan klabeiña, eder etorten dala?

Eta zegaitik gabon eguneko apariko ogi kozkorra ez da lizunduten urte guztian, eta ez da beste egunetan oitura ori sartu?

Ez al dau orrek argitasun barri baten itxaropena agertzen eta sinismen barri batzuen oitura adierazten?

Sakon sartuta, ez al da igarten orrelako sinistetan fedearen kezka bat, eta fede itsu baten premiña bat?

Zegaitik, esate baterako, Oleta'n esaten dan lez, txakur batek dantzan ikasi ezin ba dau, gabon gabeko aza jan eraztea lortzen ba da, ikasi egingo dau? Ain zuzen be gabon gabekoa ta ez beste edozein egunetakoa?

Ez al dau orrek gabon gabari, Kristo'ren sortuerako ospakizunari, beste egunak ez dauken bereiztasuna ezarri nai? Eta egunari emoten dana, ez al da siniste barrien itxaropen eta makurpen bat?

Luze joango giñateke gure oiturekaz gure fedearen ostoa alkartzen. Ba dirudi egun oneitan gogoetak eta pentsakerak sabelean gorde nai doguzala.

Alaz eta, negar egingo da eta illeta jo. Aidean dabizan salneurri (prezio) askok patrikarei zulo ugari eta buruari ats asko eragingo dautse, baiña gabonak, aurtan be, kantari igaroko doguz:

Gabon gabea oituten dogu
guztiok apari ona,
besigu, lebatz, makallau saltsa
ta bakoitzak berak al dauna.

Guzurra esango ete genduke, askok, bertso ori argal lagako dabela esango bagendu, eta al dan baiño geiagoz ospatu be, sabelaren zirikaldi eta griñaz?

Deia, 23-XII-83

**KARMEL'EN
AGERTUAK**

SITS ETA BITS AKATSAK AIZETZEN

Itzez motz, egitez luze, entzunak gara iñoiz euskeldunagaitik.

Beste ainbeste gaur?

Ori dalako biar bada, eztakit nik zein itz egoki litzaken erderazko "sensaciona-
lismo" adierazoteko. Gu ezgara ba orretan jayo.

Batzuk, gure artean, burukomin gitxi artuko leukie itz ori billatzen. Erderaz dan
lez esan ta kitu. Baiña ez gaitez anbesteko. Egoki ta txukun agertzia beti da atse-
gin. Usai gozo pixkat, neurritz, pozik arnastuten da, larregiak atzera eragiñarren be.

Gure urtetan, geroago geiago zoritxarrez, "sensacionalismo" orreri lotuta bizi
gara. Bere eske gabiz.

Biar bada gaitz au ez da gaurko izango. Antxiñako ipuñetan be irakurri lei:
Mendiak zarataka urrumatzen asi ziran: yenteak ikaraz, zer ikusi edo zer gertatuko...
ta sagutxu bat jayo zan.

Edozeri billatu nai yako gaur kakua. Ta okerreña: egirik mardulenak baztertu ta
uskeriak aizetzen, loditzen, anditzen bizi gara.

Aita Santu bat il ta bestia autu bitartean, zenbat zurikeri ta zenbat txikikeri
agertu dira izparringi ta irrati edo radio bidez mundu zear?

Egoki litzake gaur maxiaketa bat.

San Malakias'en iragarkizunak burukomiñik emon dabe, fedeko egiak ba'li-
tzan lez. Zein ete "Pastor et nauta" ori? Sinismendun eta sinisgabe or ibilli dira ize-
nak eta gizonak aztertu ta arakutzen.

Agagianian, Siri, Montini... Baten adiskidetasun, bestiaren gogo, arako aren
ames ta izate....

Ta ori bakarrik ba'litz!

Katolikorik amorratuena or ibilli dira il zan Aita Santua norbere norbere lez
agertu naiean. Eleizea orokorra, danenkorra, "universal" ez balitz lez.

Katoliko izate berberari uko egin dautsagu gai orretan, erri ta gizonen artian,
batez be buruz argi ez diranen artian, gauzak diran lez ikusi ta ezagutzen ez dakie-
nen artian, bekaizkeri ta garrazkeriak sortu eragiñaz.

Aita Santu barriak, izparkari edo periodistak batzean, gizonki erakutsi dautse
bere ustea: borondate onez egiñak izango ziralta nunbait egin diran idazti, izpar, jar-
dun eta agerpenak. Baiña ixillago egon ba'lira, jardun gitxiago egin ba'litz, egokia-
go izango zala.

Juan XXIII onek irakaspide ederra luzatu dautse lenengotatik, gaur daben zere-
giñagaitik, egia erakusten iñok baiño ziatzago ekin biar leuken izparkariei.

"Sensacionalismo" orrentzako ukabilkada ederra.

Nobel saria errusitar idazle txukun bateri emon dautse.

Gora-berak egon dira sari ori dala-ta. Atsegin ez errusitar agintariei. Doktor Zhivago, nobela ori oraindik ez daezagutiu erderaz. Laster bai, nunbait. Origaitik idatzi izan dana beste errietatik artu ta aizetua da.

Errusitar estaduaren politika ta egitien buruz menpeko agertu ez arren, egoki etorriko ete Doktor Zhivago ori?

Errusitar idazlerik geienak gordiñegiak dira guretzako.

Dana dala, arro aizetu ta puztu dira idazle ta idazlana. Origaitik garrez bizi dira asko eleberri, nobela ori irakurteko.

Eritxi zuzenagoak gerorako laga-ta, gogoan auxe euki daigun: Pasternak ori komunismoari osoro lotuta uste izan ez dan lez, iñoiz be ezabela beintzat eleiztar edo eleiz-zale lez etsi.

Bildurrez gara, gai onetan be, "sensacionalismo", au da, barri-zalekeri edo soin-zirrara-zale aren menpe sartu ta jausiko ez ete garan.

(Karmel, 1959-1,17-18)

SITS ETA BITS AKATSAK AIZETZEN

Lotsatu egiten gara egutegi asko ikusten.

Jan-toki ta etxe, lan-gela ta maiburu ugaritan, egutegi lotsagarriak ikusten doguz.

Lizunkeriari atea zabaltzen gabiz.

Batzuei atsegin izan arren, askoren gogoko ta begiko ezin leiz argazki zantarrak. Ori beintzat gogoan euki bear leukie zabaltzen dituen etxeak eta ormaetan dindilizka ipinten dituen tokietako jaubeak.

Ba-dira argazki politak, irudi ederrak, iñor mindu barik guztien gogoko ta begiko izango lirakenak. Ba-dira lan-ezaugarri ta agiri jaseko ugari: alderdi zoragarri naiko; margo edo pintura begi-begiko egutegietako ezin aukeragoko ta politago diranak.

Zergaitik, ain zuzen be, griñak biztuko dituen irudietara jo makiñak iragarteko, osasungarri edo botikak adierazteko, ardaa ezagutu eraziteko, lixiba-ura zabaldu eragiteko?

Lagunarteko lotsa, gaztientzako begirapen eta umien ardura geiago artu daigun. Egutegiak agintzen dituenak ardura zoliago, kezka biziago eta zentzun geiagogoz jokatu begie euren aginduak emotean.

Gure bazterrak ez daiguzan baltzitu ta loitu olako zatarkeri ta zantarkeriekin.

Kinielak dirala, loteria dala, ta abar, burukomin ugari sortuko zan etxe askotan.

Gure errietan jokutzen diran dirutzak zurbildu egiten gaitue. Norbere irabazien gaiñezko dirutzak jokatu ete leiz zoro-zoro, gaur estadistiketatik ikusi leikenez, jokutzen diran antzera?

Zabal-zabal dabiz astero kinielata jokutzen diran diruak: zabal dira baita loterian jokutzen diran milloiak.

Biar-izan asko sortu gaur etxietan; zulo asko nunbait estaldu edo tapau biarran. Irabaziak motz eta ezin danera eldu.

Baiña kinielei begira edo loteriari itxaroten bizi danaren errukarria!

Zuloak, konpondu barik zabaltzen diardugu, jo ta su. Ta asko esatia da, baiña askotan lapurretak edo goseak bardindu edo tapau biarko ditu, astero-astero zabaltzen diarduguzan zuloak eta geituten guazan biar-izanak.

(Karmel, 1959-2, 20)

ANTIGUA'KO AMARI

i

Zure oiñetan, Ama, emen Ondarru.

Zuri begira pozez, gogoz ta arru.

*Arraiña uretan lez
ala gu Antigua 'n,
bizi al izateko
bertan ase biar.
Aman berorik gabe
itzalik urria,
Antiu 'ko laztan gabe
gaixo gure erria.*

Zure ondoan, Ama, zaindu gaizuz gu
gure biotzak Zure garrez berotu

II

Fede biziz ara gure eskari:

danon biotzak artu gure opari.

*Umetxo giñanetik
Antigua 'ra begira,
eriotz deia entzunik
bertan dogu lurra;
egal guztietatik
beti Zuri deika,
izarrik ziurrena
guretzat Antigua.*

Negu baltzean, Ama, zaindu Ondarru
uda gozotan fedez zaitzan goratu.

(Karmel, 1959-5, 12-13)

SITS ETA BITS IKUSI, ENTZUN TA ESAN

Agurrak izen bat dauka: agur.

Benetako agurrak ondoren bat: biotza urratu, eztarria estutu, begiak lausotu ta negarrari bidea zabaldu.

Alaxe ikusi dot eni osua, sispuruz eta negarrez mixiolari gazte bateri agur egi-ten.

Aspaldiko da euskaldunen mixiñoetarako garra. Etxe ta erriari, guraso ta kutu-nei agur egin Goiko deiari erantzunaz, Jaungoikuaren egi ta argia erakutsi ta zabal-tzen munduz mundu juateko.

Izenak eztauka ardurarik. Agur mixiolari gazte! Agur ta erdi! Ta ez aztu iñoiz be gaur zure erriak negarrez abestu dautsuna:

Iritxi da ordua juan bear dezuna, ba-dakizu ait-amak emen daukazuna; ez deza-zula aztu gaur guri entzuna. Itz baterako au da eskatzen zaizuna: Izan zaitez nun ta nai beti euskalduna.

Itxas ertzean nago laster urteteko dan ontzi bateri begira.

Gau erdi ingurua.

Arrantzaliak-otzara, jantzi ta jaki-ba datoz. Batzuek emazte edo alabak ditue lagun.

Ba daki iñok azken laguntza izango ete danik?

Ikuskizun batek miñez bete nau.

Albo-alboka, oñak nun bota ezeziala, gazte lerdan bat agertu da. Bakarrik. Etxekoak be lotsatu nunbait berari laguntzen.

Ontzira salto egin barik, bere gorputzari bertan bera jausten laga dautso. Karel ertzian txirristada bat, bilin-bolonka nora jausiko... ta zorionez ontzi barmra jausi da.

Arrantzale lagun batek beste edozer ba'litzan lez oratu ta lo tokira sartu dau.

Itxasoaren asarre, estutasun, min, bizikera latza gogora etorri yataz. Baita ardauren zitalkeri, indarra ta edena be gizona aberetuteko.

Ta gizonaren argaltasuna errukiz gogoratu dot, bere izatea sentzu geiagoz arakatuteko indarge ikusten dan gizonaren argaltasuna!

1=&=t=tt=t

Udako igandea.

Yente larregi ondartzetan. Ume, gazte, zar....

Nun nai emakume ugari etzanda lepoak urratuta eguzkiaren berroz azalak eten-da.

Zer ez ete leukie egingo emakumeak giro edo modiari jarraitzearren?

Nabarmenkeri ta ardurarik ez ugari igarten dira ondartzetan. Lotsa aztarrenik bez

Gauza askotan zer esanari begira bizi gara. Uskeri bat eskandalurik andien lez etsi ta biribiltzen dogu.

Gaur ondartzetan baiño eskandalu andiagorik billatzen ez da errez.

Ta esanak esan, araxe guaz ume, gazte ta agurok.

Bost mínutu mezia luzatu dalako barriketan jardungo gara askotan.

Norbere gorputza eguzkiari zabal zabal eskeiñiaz erre ta kixkaltzen egoteko ordu luzeak motz.

Eta au zoritxarra: Sarritan zenbat eta nasaiago.... ta kurutzen domiña ta eskapulario andi ta dotoreaguak erabiliko doguz bularrean.

(Karmel, 1959-5, 26-29)

LAZTANDU DAIGUN

Laztandu daigun, bigun-bigunki,

Jesus Umetxo txit ona,

Lasto gaifiean, samur-samurki,

Irribarreka dagona.

Erri guztiak kantari dira

Zuri goraka, Jesustxo,

Estalpe baten, Jaungoiko andi,

Agertu zara Umetxo.

Pozaren pozez, zuri begira,

Ona emen gu, Laztantxo;

Guztion kantu ta eskariak

Entzun samurrez, kutuntxo.

Zure ezpanak barrezka dira

Zure begiak dizditsu,

Baketa poza ekarri nairik

Maitez begira, alaitsu.

Kanta-kantari, gogo ta soiñez,

Ona gu danok umiltsu,

Goiko bakeaz bete gaitzazun

Zuri otoika, eztitsu.

(Karmel, 1959-6, 9)

SITS ETA BITS

IKUSI, ENTZUN TA ESAN

Aspalditik nebillan Martin'en billa.

Ba-nekien egur tratuetan ebillala, gurasoakandiko bizi-bidean. Ta gaur baten, usterik barik...

- Kaixo aspaldiko!

- Bizi zara, bizi?

Orrelaxe ta besarkada baten lotuta agurtu gara biok.

Gerratean ezagutu giñan. Goseak, nekeak eta urrugaitzak adiskide kutun egin ginduzan. Ogei urte geunkazan orduan. Ogei urte loran eta biotzak garbi-min. Gaur...

Gure kontuak esaten ekin orduko itzalak eta naigabeak jo dau Martin.

- Orduntxe egalen baten jausi ba'nitz, etzan nire arimarentzat kalterik.

- Ixo, betiko negarti ori!

- Zuk ezagutzen nozu ta siñistuko daustazu, zuri egi utz-utza baiño esango eztautsudalako:

Piñadiak erosi ta saldu, egurra ebagi ta saldu... orrelaxe nabil txikitatik. Nire aldetik zintzo jokutzen alegindu naz. Neurria neurri ta al danik zuzenean lan eragin eta egiñaz. Orixe da aitagandik artu neban azkenengo kontsejua.

Oraintsu asi nitzan gaur etorri nazan etxeari saltzen.

Lenengo kamioikadak ondo sartu ziran. Aitzaki barik.

Baiña lengo astean milla koplak egin eustezan. Neurriak, lakia, ertzak, ezea. Dana atxakia. Eta txarrena, kamioi bi atzera bialdu.

Odolak irakiten jarri yatazan. Nire neurriak zuzenak ziran, betiko antzera. Ondo nekian ori, ta barrero neurtuta be ikusi neban or ez egoala okerrik. Egurra be aukeratua.

Sututa etorri nitzan. Eta neure begiak ikusi ebezan bost kamioi oso, nirea baiño neurritz desbardin eta okerragoak sartzen., Berotu nitzan.

Agertu neutsan neuri jazorikua kamioi bateko jabeari. Onek erantzun eustan: Zein ofiziñatan tratua egiten dozu?

- Zeiñetan? Ofiziña bat baiño geiago ba

Barre egin eustan nire ezagun onek eta belarrira esan be bai: Emengo ofiziña ez dago or goian, aurreko kale ertzeko kafe-etxian baiño.

- Adarra jotzen zabiz?

- Benetan, gizon.

Berak zabaldu eustazan atiak.

Sekula ez dot lotsa geiagorik artu, gizon bategaz itz egiteko. Ezta damu andia-gorik be.

Kamioiko onenbesteko bat eskatu eustan. Nik, salduko ba'neban, eta amar urteko osasuna galdu arren eskiñi egin biar.

Atzo bialdu nebazan kamioi bi. Ondo sartu ziran. Zuri egia esan daiketzut: len atzera bialduriko egur berberak izan ziran.

Gaur beste bi ekarri dodaz. Eztabe aitzakirik izan. Emen be egia esango dautzut. Len nik baztertuta neukazanak izan dira, nire eritxiz neurrikoak etzirelako.

Dirua bitarteko...dana ondo.

Dana ondo...baiña nun asten da pekatua?

Nik eztot aukerako erantzunik bat-batean emoten jakin. Baiña bai biotzez eta penaz esan: Martin, kezka ori beintzat, ez iñoiz be galdu.

Nire erritik Bilbo'ra ordu bi inguru dira automobillean.

Gaur luze be luze eritxi yataz.

Erritar bi etorri dira nire atzean, uzkeri bateri eragiten. Bilbo ra eldu dira alkar ezin arturik.

Mazarino kardenal ospatsuaren ziaztasun eta zitaltasuna gogoratu eragin daustez.

Kardenal orrek ba eban senide bat, arlote xamarra, bizi-bide arin eta motzekua, bere lotsaz.

Egun baten kardenalaren idazkariari agertu eutsan lau itz bakarrik nai ebazala egin kardenalagaz ta beragazko ikustaldia lortuteko.

Esan ta egin; laguntzailleak agertu eutsan kardenalari bere senidearen gogua. Ta onek ez eukala eragozpenik edonoiz artzeko, kontu kontari barik, lau berba bakarrik esatekotan, berak eskatu lez.

Alan, senide baldar ta arlotea sartu zan kardenalaren aurrera ta agurrik be egin barik, bere gogo ta eskabidea agertu eban motz-motz:

- Jauna, otzez nabil, gosez.

Kardenalak, errukiak ikututa, oraindik motzago erakutsi eban bere erabagia idazkariari aginduaz: Sua ta ogia.

Berba gitxiagotan ezin eikean asmo bat erakutsi ta erabagi bat artu.

Gaur ezin konpondurik barriketaldi luzetan gabiltzanontzat, a zelako irakatsi ederra!

Sei urte inguru dira.

Jaen aldeko erritsu baten nengoan.

Min artu neban bertan ikusi nebanaz.

Pardeltxo batzuk eskuetan zituela trenera sartu ziran gizon bat eta amalau urte inguruko mutiltxo argala. An gelditzen ziran emaztaeari tengadaka beste sei ume. Antxe ama zarra be. Euskalerra aldera etozan lan billa. Agur etxeai, agur sorterriai, agur ta musu beroak kutunei.....

Lengo baten Gipuzku'ko tren-geltoki baten, pardelxoak eta maleta zarrak eskuetan zituela, gizon batzuk, emakume ta umiak.

Errukia emoten eben. Lagun batzuei "laster arte" iñotsen. Malkoak igarten yakoezan begietan.

Jaen aldera zijuazen, emen lanak amaituta.

Gose ta abar, norbere lurretan zerbait egin leikela iñoen. Emen, lana amaitu ezker, kalerik kale asi biar, eskean edo lapurretan.

Len ikusi nebanaz gogoratu nintzan. Eta benetan: barriro itzala sartu yatan.

Ni neuk ba-dakit pixkat erbesteko ogiaren garraztasuna zelakoa dan. Ni neuk be ba-dakit zer dan urrugaitza.

Origaitik eurok ikustean otoi egin neban. Otoi batez be langille errukarrien alde. Otoi bizi bidez edo munduko gaiztoz norbere etxe ta errietatik urrun jokatu bear daben ainbat eta ainbat errukarrien alde.

(Karmel, 1959-6, 17-18)

SITS ETA BITS

Ondarru'n agertzen dan "Boga Boga"n auxe irakurri dot: Erri aretan diran zinetoki bietan, aurtengo urtearen lenengo ogei egunetan, pelikula onetxek emon izan dirala:

18-3 R lez erabagitakoak

14- 3, kuak

4- 2, kuak

2- 1, kua.

Gaitza nundik etorri leiken iñok eztaki, baiña bide onetatik onik etorri ez leikena itsuak be ikusten dabe.

Enaz zinearen aurka. Atsegin yat neuri be. Baiña pelikula askok gure oituretan bizien (kanzer) osatu eziñekoa biztuko dabenik ezin ukatu.

Errurik geiena geuria da, ikusliona.

Gaur nai dabenak ba-dabe nun jakin, zelako pelikulea ikusteko bide ta ustetan diran. 3 R ori, au da gizasme egiñentzat eta eurentzat be kontuzko lez agertzen dan ezaugarri ori, egia esateko gitxik aintzat artzen dabe.

Ustez danok gara zentzundun, danok egiñak, danok arduratsu ta jakintsuak, aragiz ta gogoz zintzo jokatzen dogunak.

Arrokeri au, edo uste arro au, gre ondamendigarri.

Katoliku agertu nai...baiña orioagaz dabillenik urteten ete dau koiperik barik?
Oskolak nun?

Lengo autuari ikutu eginda, iñoiz esan izan daustie: Ez giñake ain bildurti izan biar. Ortik ze kalte etorri leike ba?

Batzuri ez etortia izan lei. Baiña beste askori?

Bizkaiko erritxu baten jazua da. Izenak bazterrian laga daiguzan.

Gizon bik janaldi on bat egitia erabagi eben.

Okela ta gaiñerakoentzat kresal gauzak egoki sartzen zirala ta txirlak eruan ebezan Bilbotik.

Bai ondo eratu be etxeoandriak.

Janaldia amaitu zanian, onek itandu eutsen: Ta? Ondo?

- Ba! Ondo! Txirlak pixkat gogortxu baiña ederrak egon dira. Gozuak. Bapo! Bapo!

Lenengotan ez eban ardura andirik artu etxeoandre onak.

Baiña maia altzaten juan zanian ta txirla oskolik ikusi ez, jan-lagunen kontu esantzaille ebillan bere senarrari itandu eutsan:

- Nora jaurti dozuez, ba, oskolak?
- Oskolak? Oso-osorik iruntsi ditue-ta oskolak?
- Ezta egia izango! Ta zeuk eztautsazue ezer esan?
- Itandu be eztabe egin eta... zer egingo neban ba?

Gure autura jo daigun.

Oskol da guzti janda be, kalterik ez egitea gertu lei; baiña zenbatek jango leu-kiez txirlak oskol ta guzti, mamin utsagaz be bueltaka ibilten ba gara asko?

Orixe berori ikusi daigun zine kontuan.

Diru egarriak eragindako zabalkunde ta propaganda askok itsutu ta bigundu egiten gaitue.

Edozer iruntsiten asiak gara.

Baiña kontuz.

Egunen baten negar egin daikegu, gaur ain errez ta alaxe diralakotan emoten doguzan ibillera, jokabide, ikusgarri ta oitura asko etxean, geure sendietan, geuk igarri barik, geu konturatu be egin barik sartzen yakuzanean.

(Karmel, 1960-78)

SITS ETA BITS

NEURRI GABEKO ZALETASUNAK

Ukondotik be sartu nai dauskue kirol -deporte- maitasuna.

Azpikeria ta garra, indarra ta alperkeria, joko ta komenentzia alkartuta dabiz gaur kirolelan. Ala izanik be orri osuak -eta ez bat eta bi bakarrik- baltzituden dira egunero deporte-gaiz; irratietatik ordu luzetan ekiten da gai orreri buruz eta jokia joko dala jakin arren be, zaletu ta ikusmiñez beteten gaitue.

Bearrezko dira kirolak, deporteak. Gizonok gure buru-austeak bastertu ta jolas-aldi pixat, arintasun apur bat, nasaitasun ta bare unetxo bat bear bearrezko dogu gure bizitzan.

Baiña kirola, deporte, dan lez bear da eta ez bere garrez zoraturteko tankeran.

Nik eztakit gai onetan zeri indar geiago emon: izpamngi-periodikoen-indarrari, jokoaren maltzurkeriari edo gixajotasunari. Iru izatiok agiri-agirian agertzen dira eguneroko janari lez biurtu dogun kirol zaletasunean.

Azkenengo Vuelta a España dalakoari buruz zer esan ugari sortu izan da. Garra igarten zan jentearen artian. Orraitio bide basterretan autsez beteten une batzuk igaro ondoren, ezagutu eragiteko astirik be emon barik igaroten ziran txirindulari edo bizikletakoak ikusi ondoren, zenbatek ez ete dabe esan: Au da orrenbeste zara ta sortu eragin daben ikusgarria?

Niri, neu be garrak ikututa ibilli naz-eta, esakera orretzek urten eustan barru barrutik. Ez bein bakarrik. Eta nire ondoan ikusi nebazan ez-ezagun batzuk be asperaldi eta gogoez bardiñaz igarri nebazan.

Ez ete dogu ikasiko zaletasun oneri bere neurrizko tajua artzen?

MAITASUN ESKALE

Eztakit nire bizitzan zenbateri min emon izango neutsen. Egi gordin gordin bat esaten enaz iñoiz lotsatuten, batzuen ustez argalkeri eta makaltasun ezaugarri agertu arren. Borondate oker eta gaiztoz enaz iñoiz ibilli. Nire usteak maite izanarren, iñorentzako gorrotorik ez dot niregan igarten eta Jaungoikoari eskabide orixe luzatuten dautsat sarri.

Ezin geinke danok neurri bateko, egia da. Batzuntzat dotore datorren jantzia beste askorentzat baldar jausi lei: batzuntzako atsegin dan neskatillea, beste askontzat aspergarri gertatzen da.

Jaungoikuak ez gaitu danok bardin egin

Izakera guztiak ez dabe mamin bardiña; odol guztiak ez dira berotasun bardiñeko; azal guztiak ez dira zuri; buru guztiak ez dira uletsu; egarri guztiak ez dabe ura eskatzen.

Ugaritasun onek Jaungoikoaren al-izatea anditu egiten dau. Zegaitik gizonok kaxkartzen alegindu?

Estadurik andienak eta erririk bastertuenak be ezin ikusi ta ezin konpondurik diarduen une oneitan, iñoiz baiño zoliago begiratu biar geunke gora, beko lokatze-tik urrun, izarrak baiño gorago, ta andik garbi garbi yatorkun maitasun agindua lurreko azpikerien atsaz kutsutu barik, ikusi eziñen ustelkeriaz ondatu barik guregan sartu ta irarri.

Iñoiz maitasun onen garra artu biarrian arkitu izan ba gara, gaur beste premi-ñarik gitxitan ezagutuko zan.

"KANTARI NATOR"

Bertsoetako zaletasuna nun-nai igarten da.

Guretzat pozkarriena: bertsolarien gogo ta ardura gai makur eta lizunetatik urten eta yasan eta zindo agertzen.

Adiskide kutun dot "Basarri" ta badakit bere kezka gai oneri buruz.

Bertsolari sortu eban Jaungoikuak eta berak ba-daki esker oneri biotzez eran-tzuten.

"Kantari nator" oraintsu salgai jarri daben liburuari txaloak jotea kritikoei laga daiogun.

Nik esan neikena auxe da: Bertso zale danak emen daukala bere egarria daben liburua.....nai ta sakelari min pixkat emon biarrak jo.

*Betoz guregana sarri
zure bertsoak, "Basarri",
zure mamiña ikasiz
ots daigun kalez ta sasiz,
kantu barri ta alaitsuz
biotz gogoak nasaituz.*

(Karmel, 1960,115-116)

SITS ETA BITS ERRIRIK-ERRI

VIII-17 ARRANTZALE EGUNA ONDARRU'N

Soñu ta dantza, salto ta brinko, kantu ta irrintzi, txalo ta uju ugari.
Jairik ederrena, batzuen ustez.
Jai landerra, bestien iritxiz.
Ezagutu dodaz erbestetik etorri, ta gorputz eta arima jaiian sartu ta nastatu diranak.

Garrez beterik etorri ta itxaso zabalaren lurruna arnastuten urrundu diranak be izan dira tartian.

Gogo ta izakera guztiak ez gara bardiñak.

Enaz ni jaiaren kutsuan sartzen.

Baña jai au ikustean ezin laga gogoratu barik Donibane'ko tabernatxo baten dindilizka dagozan salbabide bitan irakurri leikena:

Itsasoan lanari inbido

leiorrean ttottari hordago.

Orra arrantzale izakera tajuz ikusia.

Itxasoan lanari enbidoka, arrañari tantoak kendu eziñez, bizitza eteteko zorian askotan. Liorreratu ta...ordago edariari.

IX-5 LEKEITIO. ANTZARRAK

Lekeitio'ko sanantoliñak zarata txarrez asi ziran aurtan. Antzarra aitzaki edo bitarteko.

Antzarren kokota kentzeko jaiak beti izan dau erri onetan alako zer berezi bat.

Beste asko lez pixkat landertzen asia zala?

Ba dira jai asko errietatik kentzen gaitz izango diranak. Orixe gertaten da Lekeitio'ko antzar jaiagaz.

Ta azken orduan, jai gertateko garrez bero bero ebiltzala...ara itxasoak gazte gordin bat iruntsi.

Gau ikaragarria gaztearentzat. Luzea ta mingarria berari itxaroten itxasora begira lotu ziran erritarrentzat.

"Ik dakik ematen, Bizkai itxasoa, batzuei onore, beste azken loa!"

IX-15 MUTRIKU'N

Arno mendiaren oñetan Kristo Maixako.

Egusentiaz batera bide zarretik gora, penitentziz gizon mardulak, kresalaren yodoaz arpegiak gorri-gorri, itxas aizearen etengabeko laztan eta musuz azalak leundurik, bularrak gori, biotzak urduri, fedez lodi.....

Otoitzean ez dakiana juan bedi itxasora,
iñok erakutsi gabe laster da makur otoitzera....
iñuan erderazko bertsoan Trueba kontulariak.

Kantuz ta otoitzez, erreguz eta arrenez Jaunari omen dagian erria ikusiz, otzi-karaz igitu yat gorputza.

Erri jaien zarata ta berotasunean onela irauten dakian erriak, nai ta ez izan bear Goikoaren laguntasun berezia.

*Arrantzale
otoi zale,
Jaun maitale
ur ta kale.
Iraun fedez,
zaindu benez
Goiko legez
ta omenez!*

(Karmel, 1961-20)

GURE ERRIAK ONDARRU

"...Sarri egiñagaitik Itsasuak orru bakean zainduko dau Jesus'ek Ondarru."

Ala amaitzen da Ondanu'n pozik eta gartsu abestuten dan kanta bat.

Itxaso ta fedea agertzen dira bertan doi-doi.

Itxaso ta fedea...Ondarru'n bizi, bere ezaugarri, eguneroko ogi.

Kresala soñean ta Antigua'ko Ama miñean. Orixe da Ondarru.

AURRERAPIDE BILLA

Erri asko saiatu dira ondasunak ugaritu ta loditzen. Bizitzako legea da.

Ondarru'k berebiziko bultzada egin dau gai onetan. Ta beti itxasoari begira. Kresal-usain bako langintzarik ez da bertan sortu.

Gipuzkoa'ko Pasai kendu ondoren, Euskalerriko porturik aberatsena lez agertzen da. "Bajura"ko arrantza eran bakarrik begiratu ezkerro, Bermeo da bera baiño geiago. Baiña Ondarru'k "bajura"ko ontzien ondoan arrasterako ontzi asko dauz bere kaian. Zenbat milloi peseta ontzitan?

Egunero kamioi ugari urtetan dira bertatik Barcelona ta Madrid'erako. Ta Bilbo'ko merkatura arraiñik geien bialtzen daben portua, gure errikoa dala diño.

PREMIÑA BARRIAK

Aurrerapide onek bere premiñak sortu ditu.

Leku estu baten batu-batu bizi zan erria zan oraintsu. Baiña ezin beti orrela jarraitu. Zabaldu egin bear. Ta etxe baniak portutik urrun egin dira, erria zabaldu edo luzatuz.

Laster egiteko diranak be leku berean egin bear.

Ondarrutarrak bakarrik ez gara gaur bizi bertan.

Itxasontziak geituz mariñelak bear. Orrela etorri ta sartu yakuz ainbat galizitar gazte ta sendi edo famili.

Zenbat? Lauren? Bosteun?

LUZARORA BEGIRA

Egunero sortzen dira bear izanak. Geitzen duan erriak eskatu leikezanak.

Gaur portu-aurre lez agertzen dana, urte gitxi barru portutzat eratuko dala diño, gaurkoa estuegi gelditu dalako.

Ontzi barriak egiteko asmoak ez dira moteldu, ugaritu baiño.

Portua geituz yentea be geitu egin bear. Nun sartu? Nun?

Or Ondarru'n zoritxarra. Portutik urrunduten juan bear beti.

Orain Errenderi aldera begira bizi dira erri-zuzendariak. An izango ei da bigarren Ondarru, edo obeto esateko, Ondarru'ren luzaketa.

BITARTEAN....

Ezin lo egin.

Itxasoak etenbako eskabidea dakar. Emoten dabenak eskatzen ei daki.

Zerbait egin da gaurko bizibidearen tankerari jarraitzeko.

Ala itxasontziak gaurko teknikaz moldatzen dira.

Euretarako gizonak gertuteko ba-da Arrantza-eskola bat be, erriko laguntasunagaz, au da errian diran alkartasunen laguntzeagaz Eleizak zuzenduten dabena.

Itxasorako radioa egunero dabil gure portuko ontziei barriak artu ta emoten.

Portuko molla ta ontzientzako tokiak ta bear diran tresnak ba duaz gertuten. Ez nai litzaken bezin arin, baiña ba duaz.

Ala ta be ba dira oraindik premiña ugari.

Ondarru'k ba-dau nun txalotu.

Baiña bai nun astindu be.

Erri onetan, batez beste, 24 litro alkool garbi edaten ei dira buruko, urtean. Eta ori, osagillien ustez, gizatasuna eta arraza makaldu ta gaixotzeko biderik ariñena da.

Gerora begira bizitzea ardurazkoa da. Ondasun billa saiatzea premiñazko. Baiña odola zaindu daigun ondasunekin poztu al izateko, ondasunei muña atarateko.

(Karmel, 1961, 53-54)

SITS ETA BITS BIDEZ BIDE

COVADONGA

Asturias'ko lurraldeak politak dira, ikusgarri.

Unquera'ko zubitik sartu ta Pajares gaiñean urten arte, ba-da belardi ta mendi orlegirik. Lora ugari bidetan, basterretan, kantoietan, etxetan. Erri txukunak.

Ba dau Asturias'ek toki maitagarri bat: Covadonga.

Mayatze'ko lenengo eguna. Uluntzea.

Erromes bakanak bertan. Fede geiago uste neban, zaletasun biziago. . . baiña bakartadeak itzaldu nau.

Atsegin izaten da olako tokietan zerbait erostea. Pitxi, liburu, domiña, oroigarri. . . .

Gaur atzera egin dogu.

Zegaitik saltzen ete dira olako tokietan bertako oroigarri ta kutunak iñun baiño karuago, edonori atzera eragiteko eran?

LEON

Ba dira España'n eleiz nagusi edo katedral zoragarriak.

Leon'guak bere berea dau ospea ta izatea. An lako margozko kristaltegirik gixtitan ikusten da. Zoragarri benetan!

Toki ta zirkulo guztiak arakutzen ibiltzen naz erri andietan. Ara ardautegi edo taberna txiki bat: " Bar Txiki".

Euskaldunen bat?

Zein da emen Txiki? itandu dot sartuaz batera guretarren bat aurkituko neban ustez.

- Eztakit euzkerarik...baiña izenak ikutu zaitu?, izan da bere erantzuna.

Bai, laster jakin be nundik sortua dan izen ori.

Soldautzan egiñiko lagun bateri eskatu eutsan euzkerazko izen polit bat. Bat batean lagun orrek "Bar Txiki" esan ei eutsan ta berak beste barik izen orixe jarri.

Borondateak zerbait balio dabela ta txikito bat pozik artu dot bertan.

DUEÑAS

Ez da lenengoz emen sartzen naizena.

Cister'eko praille langilleak dira bertan.

Itzalgari da bertako praillien bizimodua. Ikusgarri bertako korta ta basterrak. Arrituta gelditzen dira asko bertako korta ori ikustean. Eun ta larogei buru inguru, danak esnetakoak, alkarren leian.

Prailleak egiten ditue lanak, eurak baita esne batzea gaurko teknikarik aurreratuena eskatzen daben eran.

Zirikatzen dakidaz prailleak, baiña arei itza atara eraziteko.... Señakin erantzuten dakie. Orrelaxe urte guztian, bizi guztian, euren artean be.

Praillien kanposantuan Anai Rafael'en illobia dago. Santuen ospe ta entzuteaz il zan. Kezkati, urduri, garretan bizi izan zan munduan. Iru-lau aldiz praille sartu ta osasun barik beste ainbestetan urten bear. Ta azkenean be...praille ilteko zoriona ta baimena lortu ebazan.

Beste kanposantutxu baten, praillien eleiz nagusiko sarrerako atearen egalean erdi ezkutauta dagon obitoki apaltxoan, gure izkuntza biotzez ta gogoz maite izaten jakin eban abade santu baten ondorenak datzaz: Izurtegi jaunarenak.

Araño jua ezker, euskeraren zirrintak bertan zabaldu bear otoi bigunetan.

DEBA

Auzoan dogu Deba.

"Itziartxo" antzerti edo teatroa ikusten eldu naz bertara.

Beteta uste neban antzokia. Ta....biotza urratu egin yat. Otz, otz....

Ba dakit olako gertakizunak emoten daben lana. Barru-barrukoak jakiten dabe bakarrik zenbat kezka, burukomin ta zenbat ordu galdu bear izaten diran.

Ainbeste lanen ordaiñez, erritarren utsunea mingarri izaten da.

Orrela, jaiaren zati bien erdian, zuzendariak itza egin dabenean bere miña

agertzeko ta iru jai aldi emoteko ustetan zirala adieraziz, baiña erriaren erantzun makalagaitik bi bakarrik izango dirala erakutsiz... nire naigabea anditu egin da.

Iñok txaloak merezi ba'ditu, artu begiez luze ta beroak ainbeste oztasun gaindu nairik, lanean diarduen debar gazteak.

(Karmel, 1961,116-117)

ITSASOARI BEGIRA

Itxasoari begira bizi izan da Euskalerria.

Ez oraintsutik. Ez itxasoaren bideak eta sakonak ezagutu ta erraztu diranetik.

Urtez urte jo, gizaldietan atzeratu, zaartu, ta itxasoari begirako mugarik ez da aurkitzen.

Erririk nagusienak, aberatsenak, Baiona, Donosti ta Bilbo, itxasoari musuka bizi dira; itxas ondarra dabe zimendu.

Itxasoaren ondoa ta sakona,

itxasoaren kresala ta gatza,

itxasoaren oroldi ta bitsa,

itxasoaren garra ta negarra...edozein erri ta ertzetan igarri, arnastu, sentidu edo biziten dira.

Gure lur txikia, gure amalurra baiño zabalagoa dan itxasoak, nai ta ez indar egin bear euskaldunen giroan, nai ta ez tximurtu bear euskal gorputzen azala.

Itxasoaren kantari ugari ezagutzen doguz, berari begira, biotz eta gogoa nasaitu nairik. Itxasoak, olatuak ondar egaletan antzera, bultz eta ten egiten dauza gizonari.

.... *"Oi, itsaso zabalaren zabalaren zabalal
Leihorretik maiz nindagon ezin asez hari so,
maiz nindagon, amets zoroz irakiten odola..."*

(Iratzeder)

Itsasoa, euskaldunak, ez dau sekula ikusi ta artu atsegin leku lez. Ezin olakorik. "Kalma zuri" tako itxasoa baiño geiago ezagutu izan dau "aize berde" edo "ipar baltzez". Sarriago orruka, "bare-bare" baiño.

Kantari zaar batek, Joannes Etcheverri'k, 1.627garren urtean, kantu errukitsu ta

mingarrietan agertzen dau euskal itxastarraren jokera, baletako bizitzeari buruzko bertso zaarretan:

"Biziaren gatik dugu hirriskatzen bizia..."

Bizia irriskatzen! Egi gordiña. Ez bakarrik arrantzan, itxasoaren aberastasunak sakonduten. Ala baita itxas komertzioan, euskal lurraren igaliak eta burni zokillak zabaltzen.

Itxasoaren bidea luzea bezin zabala da. Leorrian, tokiak toki ezagun izaten dira. Ara edo besteko artara joaten da. Neurria dago. Muga. Itxasoan, orde, galdu egiten dira lekuak.

Euskal arrantzaleak ba daki itz gitxitan luze be luze botaten:

- Nora zoaze?

- At'ako bandan.

Esatea lez: itxaso zabalaren zabalera. Arrantzialien mundu sakonera. At'ako bandan. Izenik gabeko lekura. Itxaso itxaso dan tokira.

Ez da ori gaurkoa. Ez da aurrerakuntzetatik datorren ausarpen eta ziurtasunaren ondorena.

..."Pensar que en Terranova, Barachoa, Operportu y Aguchar señalaron con ley de nombres vascos, surgideros seguros!...."

(Gabriel Celaya)

Edo:

"Euskaldunak, baleai jaten emon nairik, españar Finisterre igaro eben antxiñetan, eta konpasa ta itxas orratza ezagutu ondoren, Terranobaraiño joan ziran, eta itxuraz, XVgarren gizaldian, Islandia be ikutu ta jo eben".

*... "en el mar de Vizcaya, que ora se desenfrena
con la negrura oleosa de la antigua ballena,
perseguida hasta Islandia por el recio arponero
de la boina calada y el braceral de cuero"*

(Leopoldo Lugones)

"...les cotes de Groenland ayant insensiblement rebuté les Basques, ils allerent vers l'isle de Finlande..." (Dictionnaire raisonné)

Eta itxas zabalean, "at'ako bandan", erbestetarren "nord vall", euskaldunentzat "sardako balea" zan. Askorentzat (Gary, Beneden, Reinhart eta abar) gizaldi luzetan ba egoan "balaena biscayensis", edo besteentzat, italiarrentzat bereziki, "balaena dei baschi".

Bein doanak ez dau izenik lagaten. Euskaldunak, ikusten danez, ba ziran iñor itxasoetan; ba euken nortasun berezi bat.

Bizi-bide oneri esker, nortasun ori gaur be ezaguna da erri askoren ikurdi edo eskudoetan. Ainbat errik itxas-ontziak eta baleak dituez ezaugarri, nortasuna eta duintasuna erakutsi nairik.

Ala Ondarrabi ta Ondarruk.

Ala Getari ta Mutrikuk.

Ala Lekeitio ta Bermeok.

Erri osoak, askotan, itxastar dira. Itxasotik sortu izan da erria.

Ondarrun, txakurrak be arrantzale dira, irakurri izan dogu. "En Ondárroa son pescadores hasta los percos" (Constantino Esla)

J.M. Salaverriak diñona: Itxas egalean jaio dan guztia, itxastar kutsuduna dala. "Todo el que ha nacido al borde del mar, es un poco marinero, o es, por decir mejor, un marino infuso" ("Guía sentimental del País Vasco")

(Karmel, 1970-1, 64-66)

SANTA KLARA'REN EGUNEAN ERRI-OITURAZKO ANTZERKITXUA

Egilleak: PIE.- Ur saltzaillea
LIÑE.- Erroska saltzaillea
MIEL.- Itxas begirale edo talaxerua
NEREUS - Praille gazte bat
ALKATEA
PREGOILARIA
ANDRE BAT
ABADE BAT
ERRITARRAK

TXISTLTLARIAK

Giroa: Lengo gizaldiaren azken aldietan.

Irudia: Itxas ertzeke ermitatxo baten inguruan.

Meza ordua. Atean, ezin sarturik, erritar batzuk.

Zelaian, PIE eta LIÑE, bakoitzaren maien arduradun. PIE'ren maien pendarra bete ur, azukretu luzeak, baso banakak eta abar.

LIÑE'ren maien, erroskak.

Euren inguruan, tarterik tarte itxasora katalejoekin begira, MIEL.

PIE ta LIÑE gona luzeak dituezala ta samak be goi goraño lotuta.

MIEL.- (Emakumeak zirikatu gurarik). Gaur ur epela saldu bearco dozue.

LIÑE.- Ta bigundutako erroskak.

PIE - Izan be, praille bakoitza ekarten dabe gure errira...!

MIEL.- Ondarrun, itxura danez, ondo ordaintzen dautsez sermoiak prailleoi. Ia iru ordu laurdeneko sermoia egin dau gaurkoak. Frai Bartel ba litz be!

PIE.- Esan lei ze, Markiñan esaten ausartzen ez diran gauzak Ondarrun bota nai dituezala. Ta zelako lotsagabekeriak esan epelak alakuak?

MIEL.- Ez dautsat entzun.

PIE.- Obe. Ez dozu gauza andirik galdu. Obeto egingo eban Santa Clara'ren bizitza obeto ikasi ba eban ganoraz botateko.

LIÑE.- Zer esan dau ba?

PIE.- Zer? (Burlaz, praillearen itxuran)

"Or aurrian dabiltzak andrak, daukezanak eta eztaukezanak erakusten, gonak gero ta laburrago, eskotea gero ta luzeago, mamiñak eta koipeak agertzen..."

LIÑE.- Etorri ta begiratu daizkula, ia iñok emon daben ori esateko biderik.

MIEL.- (Katalejoekin andrazkoei begira diardu)

LIÑE.- Zer darabiltzu lotsagalduko orrek?

MIEL.- Nik uste dot praille orrek errazoa daukala.

PIE - Errazoa? Zer ba?

MIEL - Abarketen txistenak ikusten yatzuez beiñik bein, eta okotzeko bizarrak.

LIÑE.- (Asarre) Eta zuri, potxolo orreri, begiko kanikulea. (Ermitatxoan meza amaituaz, "Erderaz zara Clara" abestia asiko dabe)

ERRLTARRAK.- *Erderaz zara Clara,
euskeraz argia,
zeu zara zeruetan
izar bat argia.*

(Lenengo aapaldi edo estrofa au amaitu ta bigarrena asi ondoren, eleizatik kanpora datoz asko, abeslari)

ERRITARRAK.- *Augaitik mariñelak
dauke guraria,
gaur emon dakizula
zor yatzun gloria.*

PIE.- (Deiez). Ura, ur freskua, barruko izerdi likiñen garraztasuna kentzeko ur fresku ta garbia!

LIÑE.- Erroskak! Mendaroko erroskak! Gañeko zuringoa galtzen ez yakoen erroka ederrak!

PIE.- Ura, ur gozua!

GIZON BAT- (Ura edatera dua). Gaurko beroagaz, onezkero, sapuak be urten-go dautse ur oneri.

PIE.- Zer diño beronek? Errosaneko taberna zuloan, kurtzallu argitan, ardaua dalakoan edaten dozuen mazusta urei baiño gitxiago beintzat. (TXISTULARIAK "Alkate Soñua" joten asten dira eleizako atean. Alkatea ta abadeak datoz. Egal baten gelditzen dira, astiro astiro, bertara juan ondoren. Lotsaz begiratuko dautse danak. Txistua amaitzen da.)

LIÑE.- Erroskak!. Arrautza gorringoekaz egindako erroka ederrak. Gure santa andiaren bedeinkasiñoa artutako errokak!

NEREUS.- (Ura edatera dua). Preskua eta garbia daukazue ura?

PIE.- Berorren begia baiño presku eta garbiago.

NEREUS.- Ori esateko zeuk ezdaukazu, itxuraz, ikusmen garbi garbia.

PIE.-Jauna, nik gauzak bear diran lez esateko, ez daukat perlezirik miñean eta gauzatxu bat esan bear dautsat. Asarratzen ba da ni baiño geiago galduko dau berorrek. Guk, okasiñoetan, iñori kendu barik, mezatxu batzuk ataraten be ba daki-gu-ta.

NEREUS.- Esan, esan, gure kapako kapeleran asko kapiduten da-ta.

PIE.- Zabala bearko dau ba!

Noiz ikusi gaitu ondarrutar andrak aingira kumien antzera gona labur eta papar zabal?

NEREUS.- Ba, ba...! Ori esakera bat da.

PIE.- Esakera bat? Eta ain zuzen be..."or aurrean dabizan emakumiak" atzapar lodia luze luze gure begira ipinita? Sekula konpesatu dau berorrek ondarrutar andrarak?

NEREUS.- Orregaitik ez brixak urtenga jarri, andratxo.

PIE - Andratxo ni? Berorri gaur ondarrutarrei burletan etorri da, ala? Neuk esango dautsaz Fray Bartolomeri lau gauzatxu, ondo esanda urrengo datorrenean. Ondo esanda gero!

NEREUS.- (Irribarrezka) Zenbat da?

PIE.- Sekula praille bateri ez dautsat urik kobratu, baña beorreri bai, ondantarrak nortzuk garian jakin daian be. Txakur txiki bat.

NEREUS.- Orra. Tori. Purgatorixuan zeure uleok erre baiño len, zure ondorenak biurtu bearko dauste meza dirutan.

PIE.- Esanalak esan, adarra joteko be bai? Atrebentzia parkatuta, nungua da berori? Plaentxiarra ez da izango, ez? Ze angoa dala ba neki... Orixe gogorra! Berbalekurik ez ipinteagaitik ixiltzera nua, bestela..

(ALKATEA eta PREGOILARIA alkarri zerbait esaten igarten dira. PREGOILARIA erdira urten eta pregoia jotzen asiko da.)

PREGOILARIA.- Alkate jaunaren aginduz adierazoten da: Bera unoria eta erreumak jota dabillalako ta kontzejal asko be itxasoan dagozalako, agintarien aureskurik ez dala egongo. Bere orde, bikotien dantzak egingo dirala eta irabazten dabenak Andra Maritako auneskurako aukeratuta geratuko dirala....

(TXISTULARIAK dantza soñu bateri ekiten dautse).

LIÑE - Iñor baiño lenago geu, Pie. Erdu!

PIE.-Bai bein!

LIÑE- Oneik gaurko gazteok odolik be ez dauke-ta!

(Santzo ta uju egiñez, dantzan ari dira. Tartean tartean PIE'k gona barrenak gora jaso ta NEREUS'en aurrian aizetzen igarriko da, Liñe'ri kiñu egiñaz)

(txaloak jotzen dautsez amaieran)

LIÑE.- (izerdia kentzen, Pie'ri): Gogorra zara. Ia belaunetako tximurrak be erakutsi dautsazuz

Ikasi daijala orrek be zer bait, beti linbuan bizi barik.

(Barriro dantza. neska mutil bik urteten dabe. Dantzan diarduela. MIEL tala-xeruak Alkateari ta Abadeari deituten dautse. Itxasora begiraka igarriko dira zer baiten kezkaz)

MIEL.- Killaz gora dagola dirudi txalopandi arek.

ALKATEA.- Gabeko galerrenak ez dau ondoren onik ekarriko.

MIEL.- Killaz gora dago bai. Ezin igarri lei norena izan leiken.

ALKATIA.- Gizonik eta igarten da?

MIEL.- Potiña be osta ostan.

ABADEA.- Jesus, Jesus....! Miserere nostri, miserere nostri! Ez al da gizonetan ondamentirik agertu ta egongo!

ANDRA BAT- (Larri dator erritik. Arnasarik artu ezinda)

Ixildu egizuez soñuak eta! Ixildu egizuez Jaunaren izenian! Auxe da ondamentia. Gaurkua izango da oraindik negargarriena! Gure gizonak. Gure gizon koitarduak! Ene bada-ta!

(Geiago eziñik jezarten da. Bere ingurura duaz geienak. Zaratea. Larrialdia danetan).

ALKATEA - Zer esan dabe?

ANDRA BAT- Bermeotik esan dabe, ainbat txalopa ondatu dirala. Ez dakie zenbat. Asko. Gizon da guzti geienak. Asko, asko....Ia geienak. Eztakie zenbat.

MIEL.- Bermeotarrak bakarrik ez dira izango.

ANDRA BAT- Ez.- Elantxobetarrak be bai. Lekeitiarrak be bai. Ondarrutarrak be bai....

Ondarrutarrak be bai....! Asko, asko, itxuran.

(NEREUS eta ABADEA ixil ixilik eleizara juaten igarriko dira. Kanpaia asten da illun illun. Jenterik geienak eleiz barrura duaz ixilik.

MIEL.- Gaurko eguna entzutekoa izango da ta gogoangarria. Ikusiko dozue.

ALKATEA - Bear ba da, kezkiak eragiten dabena geiago. Lenengotan apanak izaten dira gauza guztiak, batez be itxasoetakuak. Ez dakigu gizonak, beste ontzietan batuta egongo diran be....

MIEL,- Killaz gora dagon txalupakoak.... Gertatu lei, gertatu.... baiña ondarrutarra ba da kanpaiak egunetan jo bearko dau.

(Erromesik ez da geratzen zelaian. Bakar bakarrik, MIEL, gero ta arduratsua-

go katalejoekin itxasora begira, eta PIE ta LIÑE, makur makur, euren mai inguruetan, zizpuruka, negarti, otoitzean...

Eleizan, erritarrak, errukitsu, AITA GUREA abestuten entzungo dira.

(Karmel, 1970-1, 84-88)

ARRANTZALEAK, LENGU GIZALDIETAN

Erdi praille ta erdi gudari esaten da Erdi Aroko lekaide edo monjeengatik.

Euskalerriko arrantzaleak lau alderdi ba zituen:

IBILTARL- Edonun ezagutzen dira:

Terranoban,

Islandian,

Indietan,

Flandesetan,

Moroen uretan.....

"Ils ont decouvert cent ans avant les navigations de Christophe Colomb, le grand et petit banc des morues, les terres de Terre neuve, de Capbreton eta Baccaleos, le Canada ou Nouvelle France..."

(Cleirac)

Eta ez dago inora joan bearrik. Nire erriko illeta liburuak arrantzale ibiltarien kontuz beteta dituez euren orriak.

Sarri irakurten da: ...eta kanpaiak jo ziran Indietatik il barriak etorri ziralako.

...eta kanpaiak jo ziran Flandes'etatik etozala, gaixoa batu ta il ziran barria eldu ta zabaldu zalako.

Edo Portugal'eko urak igaro eziñik, goseak arrakalatu eta gainduta il ziralako.

1.625 urteko agiri baten irakurten da: "En onze de Septiembre se hizo el sentimiento de Ramos de Asterrica, y murió biniendo de Terranoba en Ia mar, segun dixeron de enfermedad y duró treinta días".

ITXAS-LAPLIR.- Argi bako gizaldietan, illunpetako ames zoroetan, itxaso galduetako zabalaren zirristadetan, itxasoak abentura andien leku ziran.

Itxas lapur eta korsarioak, alkarren leian, ospe ta entzutea artu eben, edo lotsari ta ondamendia. Erreskada luzetan aotik aora ibilten ziran euren izenak.

Ingalandarren Drake bat bizartsua izan zan, ba ekian barrabillak erakusten; baiña euskaldunak Okendo eta Errekaldere ardurapean zoritxarrak jo ba zitun be, euki zituen zori obeagoak. Iturriaga, lekeitiarrak, ba ekian nun eta zelan ibilli zeregin onetan, eta bere izena nasaitzallea zan itxas ertzean.

ELIZTAR.- Arriskuak fedea esnatzen daki eta sendotzen.

Bear ba da origaitik izango ziran arrantzaliak ain fedetsu ta eliztar.

Bermeoko legeak, Getariko aginduak, Ondarruko eskintzak, Lekeitioko erabagiak, eta beste ainbeste erritakoak, eleizarentzat laguntza oiñarri lez ebela egiñak dira.

Soldata bat Arimentzat.

Soldata bat Eleizarentzat.

Balien gantzak Jaunaren argirako....

Irabazi zuzenenak nai lapurretakoena. Sarri emoten ziran lapurretako zidarrak kapilla barriak egiteko. Edo ostutako pitxiak aldarak dotoretzeko.

..."dos barcos procedentes de Ondárroa, que merodeaban las costas de Inglaterra, aprehendieron una nave después de una larga persecución y cañoneo. Se hicieron con todo el cargamento...En el mismo figuraban un candelabro de cobre de grandes proporciones que los marineros de Ondárroa donaron a su iglesia. ("Los vascos en el mar". Carlos Claveria).

Beartsu izanik premiñaz beteta ezagutuarren, ba egoan zerbait estutzen zittuna.

..."de aquí adelante hasta el fin del mundo, los que fueren a pescar a Irlanda o a otras partes, paguen a la Iglesia de Nuestra Señora Santa María de la Atalaya, de todo lo que Dios les diere de cien a uno de lo que pescaren.." (Bermeoko agiritan)

ARRANTZALE,- Itxas ertzeko arraintza txikia, au da, ur meetako arrantzuak, ez ziran segurutik ugariak.

Bestera, baletakoa, ur andietakoa, itxas zabal eta luzetakua, itxuraz, aberatsa goa zan.

J. Arteche'k, "Mi Guipuzcoa"n bale bakar batek diru asko emon eta erri osoarentzat onurakor zala, esaten dau.

XIII eta XIV'garren gizaldietan, bale arrantza ta bere olio ta gantzen eta aragien sal-erosketa, erri askoren bizibide ta mantengarri zan.

Baiña egia, sinistu bear dana -ez zan illeta izango- arrantzale berberak esaten ekiena zan.

Felipe III garrenak, Gipuzkoako Korrejidoreari bertako arraintzari buruzko bizi-bidearen goraberak eskatueran, batzuk gogo onez eta besteak betoskoz erantzun eben. Erri batzutako ordezkariak borondate onez, eta besteak erdi ukoka.

Domingo Ernani'ren erantzuna au izan zan: Arrantzaleak beartsuak dira; ez dira arrotuten, au da, ez dira aberastuten; ortozik eta baldar ibiltzen dira, arraiñik ez dagolako bizi bide nasai, ugari ta ontsu emoteko aiña.

Arrantzako erak ez bardiñak ziran, agiri danez, antxiñako gizaldietan, gaurko antzera.

Ondarruko legedi baten, txalupa andiak, treiñeruak eta potinentzako legeak izentatzen dira. Ala baita Lekeition be.

Bermeoko araudietan, "cofrades, pescadores y sardineros" aititzen da.

(Karmel, 1961-2, 45-47)

ARRANTZALIEN LEGEAK

Euskal arrantzalea ez da euskal baserritarraren kideko legetan.

Baserritarra bakarti agertu izan da. Arrantzalea alkarti.

Bizi modu ez bardiñak dira bata ta bestearnak. Eta bizi-moduko premiñak, antzik gabekoak.

Baserrietan izerdia botako da lan orde, estutasunez baiño ziurrago.

Itxasoetan izerdia botako da ittotasunez, kezka, arriskuz, lan orde baiño geiago-

Baserritarrak urrun ikusten dau arriskua. Amesetan. Anantzaleak, oster, arriskurik ez dau galtzen lotan be.

Baserritarrak, esate baterako, etxean lan egiten dau. Orma lodien aterpean lo. Arrantzalearen etxea ormarik eta geldik egonik ezagutzen ez daben itxasoa da.

Ortik, arriskutik, arrantzaleak alkartasuna billatu izan dabe. Eta alkartasunean, gizontasuna.

Alkartasun lege oneik gizaldien gizaldietan galdu egiten dira. Ez dakigu zuzen noiz asi ziran. Izen bat dabe, gaur be gaurko erako izenen orde kendu ezin izan dautsena: Kofradiak.

Amairugarren gizaldian, amabigarrenean ba zirala irakurten da. Ba zirala. Aurreragotik etorriko ziran segurutik.

1381 urtea aurretik ba egoan Lekeition anantzalien Kofradia.

Bermeon, 1353 urteko agirietan, Kofradiaren arauak zeaztasunez batuta billatzen dira. Baiña arau oneik aspaldikoak zirala erakusten da, aspalditik oitura ta lege zirala jakin eraziz...: "de tanto tiempo atrás qué memoria de hombres no había y además de quinientos años antes"

Ondarrabikoak 1361 urtean batuta irakurten dira.

Garai bardintsuan Ondarrukoak.

Segurutik, garai aretan euskal portuak ingalandarrekin, erabilli zituen algar,

eztabaida ta burruketan, alkarreak indartzeko batuko ziran; kofradien nortasuna egunekotuz, aidean ebiltzan lege ta agindu ixillak batu ta barriztuko ziran. Nortasuna artzeko premiñetan. Indar billa.

Kofradiarik geienak San Pedro izenekoak dira. Onetan arrantzale zaar bat goratzen dabe. Ondarrukoak Santa Klara dauke zaindaritzat. Arrigarri da gizonezkoak emakume bat zaindaritzat artzea. Zegaitik?

*Augaitik mariñelak
dauke guraria,
gaur emon dakizula
zor yatzun gloria,*

kantaten dabe Ondarrun, Santa Klara egunean, kantu eder "gotikoa"etan.

Baiña egia esan, bertako mariñelen egunik andiena Pedro donearen egunean ospatuten da, bear ba da Santa Clararen egunean atuntsuan gertaten diralako. San pedro eguna gizonen eguna izaten da. Ta San Pedro, gizonak arda edateko, da esakera ezaguna.

Ondarrun kofradia bi egon ziran garaian, bat san Pedro izenekoak zan emen be.

Araukak, aginduak eta legeak, itxas bizitzari begira egiñak dira; alkarren eskubide, lotsa ta errespetuari buruz egiñak; itxasoetan alkarren kaltean barik, alkarren mesedean ibilteko erakoak.

Legerik geienak arrantza tajuzkoak dira, baiña liorreko premiña, zeregin eta bear izanak be arakatu ta neurtzen dira.

Orrez gaiñera, alkar laguntza lotu eta beartuten dabe sarri, batez be ondandien ondorenetan eta itxas-ekaitz eta premiñetan. Baita biziari begira, ekaitzak iragarri ta neurriak artzeko be. Eta arrantsuak saltzeko batasun eta aukerak, duda barik, edozeiñek jakiteko eran ipiñi nai izan zituela igarten da.

Ortik kanpora, oraintsu estaduaren gizarte arauzko legedien barruan sartu eragin arte, ba eukezan zartzaroari, gaixo aldiari eta alarguntzeari buruzko neurriak.

Geienetan, zartzaroan, laguntasun txiki bat emoten yakoen arrantzale aguratu. Esate baterako, arda edo sagardau pixkat edateko aiña, edo tabakoetarako aiña.

Gaixo aldian, botikak edo osakaiak, kofradiak ordaintzen zituen. Eta txalupa bakoitzeko irabazia, urte betean, norbere ontzian iñor kendu barik bananduten zan, au da, gaixoari, beste edozeiñeri antzera, bere zatia osorik emonaz.

II ondoren be alargunak urte batean senarraren soldata osoa artzen eben.

Eta zoritxarretan alkar laguntza biozkorak ezagutu izan dira.

Onetan zintzoak ziran. Premiñan dagonak jakiten dau geien bat be laguntasunaren indarra eta arrantzaleak beti premiñetan biziak ikasiko eben orretan.

Legea, Bermeokoetan irakurten dan lez, era onetan egoan; " Que todas las pinazas y embarcaciones paguen un mareaje para los pobres y el mayordomo lo cobre y parta a los viejos e impedidos que no se pueden mantener, ni tienen de qué mantenerse".

Berez, etorkizunari buruz, arrantzale bakoitzak lagaten eban diru ori Kofradiarik geienak bardintsu jokatu izan dabe onetan.

Kristau lege eredu lez agertu izan dira nun nai arrantzialien legeak gai onetan.

Anaitasunean jokatu izan da, ezin ukatu. Sendi edo famili bateko lez, geieneztan, ontzi edo txalupa bakoitzean. Orretarako, ontzi bakoitzean, ia beti, jaubea bera izan da patroia edo lemazaiña, "atzekua", eta bera buru zala beti egiten ziran bere senitartekoak, eta orrela, nagusitasuna, beti be, "etxekoa" edo etxetarra izaten zan.

Irabaziak, batez beste, danentzako ziran gastoak kendu ondoren, erdira banandu izan dira. Txalupa jaubearentzat erdia eta beste erdia barruko gizonentzat. Onein artean, patrioiak, zati bi edo iru artzen zitun batzutan; bere laguntzalleak bat eta erdi ta tostartekuak, arrantzale soillak, bana.

Ba egozan arrantza era batzuk, erdi orde zerbait geitxuago txalopak artzen ebena, edo gitxiago. Baiña batez bestekoa, erdia bota lei.

Txalupetan, amasei, amazortzi edo ogei soldata edo aloger batzen ziran askotan. Orainsu oitura ori, oiturak lege egindako ori, soldatei buruz, bardindu egin da portu bakoitzeko txalupa edo itxas ontzien artean.

Len, esate baterako, txalupa batzuk, gizonen zatia, amasei, amazortzi, ogei nai geiagotan bananduten eben. Ontzi jaube bakoitzak bere "exigentzia" eukiten eban orretan. Baiña orain ontzirik geienak bardintsu jokatzen dabe.

Ala ta be, ontzi jaubeak bere zatia, bere erditzakoa, beti osorik artu izan dau, nai ta ontziak, urtien buruetan bere burua ondo ordainduta euki.

Era au ez da gordeten arrasteen dabilizan ontzien artean. Oneitan, askotan, sari ziur baten orde zibilten dira gizonak, irabaziekin zer ikusirik barik, edo euneko zatitxoek bat geigarritzat artuz.

Bestetan, ontzia arraintsuen neurri bat dabe, ontziaren indar eta anditasunari buruz neurtua ta gero, gaiñerakoa, danen artean zabaltzen da sari orde lez. Baiña asarre asko ezagutu izan dira olakoetan, arraiñaren kontu garbirik agertzen ez zan aitzakiz, edo saltzeko dirutzetan eskutaten ziran zatiak sumatzen ziralako.

(Karmel, 1970-3, 73-76)

AURRERAKUNTZEA ITXASOETAN

Arrantzalearen arnas artzea, portuak bizi-bide barrira esnatzea, erramuteari laga ta ontziak baperezko galdarak sartu zituenian asi zan. Gizonaren indarra arrantzatza tokira eldu aurretik eten barik, bidea erraztu eta indar eta alegiñak arrantzan erabiltzera eratu zanian.

Eta geroago teknika barriak agertzean, arriskuak uxatu eta bizitzea aberastutea lortu da.

Urte bakarreko estadistikak ez dabe ezer erakusten. Batek ez dakilako zenbaterañoko ziurtasuna daben, zenbat falta daben osotuteko, egizko lez sinistuteko.

Agertzen diran pilloak eta zenbakiak, segurutik, urriak dira. Eratuak. Ez jakin zenbaten faltaz.

Ala ta be zerbait ikusi leiken asmoz, tartean tartean batzuk agertutea egoki izango da.

1966 urtean, Gipuzkoan, 50.727.077 kilo arrantzatu ziran, ofizialki agertu dan lez, eta eurak 922.494.418 peseta balio zituen.

Arrantza oneitan ez ziran sartzen makallautan dabiltzan ontzien arrantzu ta irabaziak.

Kenduak kendu, zerbait igarten da.

Danentzako kaltegarri da zertzeladak argi agertu eziña. Baiña presiño geiegi dago fiskoaren aldetik, eta bakoitzak al daben eran jokatuko dabela uste izatea, ez da pekatu izango.

Arrantzaleak,

Erosleak,

Saltzalleak,

Fabrikanteak,

Txalupajaubeak....

danak dauke kakuren bat.

Banan banan, ontzi bakoitzak zernbat irabazi daben jakiteko, andren autuak izaten dira egokien. Arrantzale errietan, bakoitzari buruz edo ontzi bakoitzari dago-kionez, ez da egoten eskutuko askorik. Guk onenbestena egin dogu, esaten dabe arro batzuk, sasoi amaitueran. Beste arek beste ainbestena.

Portu bakoitzean, komeni diran lez eroaten dira kontuak. Batzutan zeatz ba dira be, bestetako akatsak ziurtasun osoa kenduko leuskioe nire zenbakiei.

Urte luzetan izparkari edo albistari batek portu bateko zenbakiak agertu nai izaten zitun, andik edo emendik jakinda. Baiña kofradiako buruak gora goraka deitzen eutsen eta eguneroko zuzendariari be ainbat aldiz asarrea agertu eutsen, ta azkenean be zeregin orretan mututu egin bear izan eban izparkariak.

Beraz, portu bakoitzean sartzen diran kilo eta dirutzetatik barik, beste nunbaitetik billatu daigun arrantzuen garrantzia.

Agirian dagona auxe da: Arraiñak etorkizun ona dabela eta urtetik urtera balio geiago lortuko dabela. Batetik arrantzuak ugaritzeko teknikak lortuko dira, eta bestaldetik, oraindik arraiñaren kontsumoa gure artean beste leku askotan baiño txikiago izanik, orretan ta besteekana urreratuaz, eskabidea ugarituko da.

Azken urte oneitan salneurrien lerroan arraiñak artu daben gorakadea ikusteko, Bizkai eta Gipuzkoako mugetan dagozan erri bi aukeratzen dodaz: Ondarru ta Mutriku, ain zuzen be Euskal itxas ertzeko erdi-erdiko portuak dira.

Arrain bi erabiliko doguz: bokartea ta ega-luzea, atuna.

Urtea	Bokartea kiloko	Egaluzea kiloko
1959	2,42	14,98
1960	3,10	17,78
1961	2,82	18,80
1962	4,26	19,70
1963	11,13	20,40
1964	7,43	25,72
1965	8,20	32,49
1966	13,99	35,70
1967	21,12	35,60
1968	25,55	39,90
1969	38,80	48,80

Beste arrain bateri begiratuta, lebatzari begiratuta, Pasaian, erdi prezioa auxe izan zan:

1933 urtean 2,74

1951 urtean 14,45

Eta gaur?

(Karmel 1970-4, 48-49)

URETATIK MAIRAKO BIDEA

Arrantzari buruz, arrantzale bizitza eta bere ondorenak, era onetan agertu leikez:

"BAJURA"KO ARRANTZALEAK

Oneik dira, esate baterako, oiturazko arrantzaleak. Gizaldien gizaldietatik datozan arrantzale jatorrak. Arrantzale bizitzeari izena ta indarra emon dautsenak; errukia sortu dautsenak; itxasoetara begira barrutikoak ipiñi dituenak.

Oneik, Kofradietan dagoz alkartuta. Erri guztietan bardintsu. Euskaldunak dira geienak.

Gaurko denporetan, "Bajura" eta "Altura"ko izenak erabiltzea ez da egoki. Gaur bardintsu ibiltzen dira batzuk nai besteak ur andietan. Baiña sartuta dagozan izen orreik erabilten doguz, errietako deitureari jarraituaz.

"ALTURA"KO ARRANTZALEAK

Oneik, Euskalerrian, Pasai, Ondarru eta Erandion dagoz geientsuenak. Eta Donibanen, Donibane Loitzun'en.

Arrasteen lan egiten dabena dira. Txalopa biren artean tatarrez duan sareari tengadaka. Edo bakarrik, atedunak izenagaz ezagutzen diranak, atzean burdiñazko atea eroaten dituezalako euretatik sareei tengadaka. Lengo gizaldiaren azken azkenean asi ziran itxasoetan.

Lenengotan itxas ertzean ibiltzen ziran ta asarre biziak sortu zituen arrantzale zaarren artean.

Pasaitarrak izan ziran lenenak kanporago jotzen, Frantzetarrak ibiltzen ziran uretara, 30, 60, 100 eta 120 milla NW aldera.

1.927 inguruan Grand Sole'ra joaten asi ziran.

Europar bigarren gerratean, beste laterrietako arrantzalerik geienak itxasoan ibilli eziñean aurkitzen ziralako, irabazi onak euki zituen. Ortxe artu eben biztuera alaia.

Lenengotan indar gitxiko ontzi ta erak ziran. Kapitalista tankerakoa da euren ibiltze ta jokabidea.

Ain zuzen be, Españan anai arteko gerra asi aurreratxoan, Ondarrun batu ziran Asturias, Santander, Bizkai eta Gipuzkoako arrantzalien ordezkariak, arrantzako era eta modu onen aurka legeak eskatzeko.

Baiña gaur, ain zuzen be, eta batez be 1945 urtetik aurrera, ontzi asko dagoz Ondarrun onetara jarri diranak, eta gaur erri ori erdiz erdizka bizi da era bateko ta besteko arrantzaliek.

1951 garren urtean, Ondarrun, 5.583.893 kilo arrantzatu ziran era onetan eta 30.289.788 pesetatan saldu. Portu berbertan, 1960 garren urtean, 14.299.803 kilo ziran eta dirutan 253.951.886 peseta.

Urrengo urtean, 1961 garrenean, "evaluación global" dalakoa asi zan negozioetan, irabaziei buruz. Ta jakingaitzagoak dira zenbakiak sarrerei buruz.

1967 garren urtean, zerga edo impustoetarako eztabaidetan erabili ziran zenbakiak onetxek ziran: Kiloak, 8.172.363. Pesetak, 108.850.841.

Gaur ia irurogei ontzi ibilliko dira era onetan lanean Ondarrutik. Gizonak, geienak, erbestetik ekarriak.

Giza legetan, langintza legetan ez dauke beste arrantzaliekin zer ikusirik. Edozein industri kapitalista lez jokatzan dabe geienetan. Ontzien jaubetasuna, geienetan, ez da arrantzaliarena, ez eta arrantzale jatorrizkoena be.

"ALTURA" ANDIKO ARRANTZA

Bakallautan dabilzan ontzien erak dira batez be izen onetakoak.

Lan garratza da, batez be ango giro otzen erruz. Lege bereziak dituez. Kapitalismo gordiñagoa, otzagoa, otzagoa da euren jabea.

Gaur "altura" eta "altura andiko" erak, ekonomi aldetik, indar geiego dabe, "bajura"ko arrantzaliarenak giza bidez, erruki bidez eta kresal usaiñez zabalago eta ezagunago ba dira be.

SAL-EROSKETAN

"Bajura"ko arraiña kofradietan saltzen da, goitik berako sal-erosketan, subastan, goi-salneurri edo prezio baten asi eta bera ta bera, egoki datorkion prezio baten norbaitek erosi arte.

"Altura"ko arraiña. Pasai eta Ondarrun, kofradietatik kanpora saltzen da, euren alkartasunetako etxetan, eta arrain taldeak kajetan ipiñi ondoren, "papeleten" bidez saldu edo erosten da.

Bakallautakoena, etxeak eurak saltzen dabe.

Arrain erosleak, "bajura"koan, errietatik joaten diran arrain saltzalle txiak izaten dira geienetan, bokarte ta beste arrain txikiak saltzen diranetan. Edo uri andietarako erosten ba da, batzutan ango saltzallien aginduz, eta bestetan emengo erosleak euren arriskuz jokatzan dabe. Azkenengo era onetan erosten dabenak euren kontura bialtzen dabe uri andietako merkatuetan barriro saltzera. Beste askotan, geienetan, konserba eta gazitegietako tratulariak erosten dabe, euren lanetarako.

"Altura"koa kanporako bialtzalleak edo "exportadoreak" artzen dabe eta uri andietako merkatuetara botaten da, bereziki Barcelona eta Madrid'eko plazetara, areitan barriro saltzera atarateko. Batzutan, ontzi jaubeak euren kontura bialtzen dabe merkatu orreitar, norbere kontura bialduta irabazi obeagoa atarateko asmotan.

KONTSERBA LANTEGI EDO FABRIKAK

Gipuzkoan 30 dagoz eta Bizkaian 63. Emakumien lana, esku lana, egoten da geienbat eurretan. Gizonezkoak seitatik bat inguru.

1.966 urteko Estadistikak, Euskalerriko lantegiei buruz emoten dituen agiriak oneik dira, egindako lanari buruz eta lan orre in balioari buruz.

Konserbak:	Gipuzkoan	905 tm.	73.422.000	peseta
	Bizkaian	3.235 tm.	220.526.000	„
Gazituak:	Gipuzkoan	7.566 tm.	212.277.000	„
	(Salazoiak) Bizkaian	5.607 tm.	158.104.000	„
Arrain-iriñetan:	Bizkaian	708 tm	6.825.000	„
	Gipuzkoan	734 tm	8.508.000	„
1967 urteko Estadistikak, gai bardiñetan, gora-bera oneik agertzen ditue:				
Konserbak:	Gipuzkoan	1.034 tm.	90.855.000	peseta
	Bizkaian	2.692 tm.	197.471.000	„
Gazituak:	Gipuzkoan	9.197 tm.	262.014.000	„
	Bizkaian	5.151 tm.	152.855.000	„
Arrain-iriñetan:	Gipuzkoan	896 tm	10.512.000	„
	Bizkaian	1.264 tm.	13.037.000	„

Langintza onetan sasoiko langille asko egoten da. Baiña iraunkor lez, "fijo" lez edo urtearen geienean ortik irabazten eban langilleak, 1967 garren urtean, oneik ziran:

Gipuzkoan:Guztira 1.381; 352 gizonezko eta 1.028 emakume
Bizkaian: Guztira 2.042; 272 gizonezko eta 1.770 emakume

Lantegi bi bakarrik agertzen dira eun langilletik gorako. Biak Gipuzkoan. Berrogetamar langilletik eunerakoak, 12 lantegi Bizkaian eta 5 Gipuzkoan. Ogetasei ta berrogetamar langille bitartekoak, 19 lantegi Bizkaian eta 9 Gipuzkoan. Besteak txikiagoak dira.

(Karmel, 1971-1, 71-74)

ARRANTZALEAK ETA KOOPERATIBAK

Kooperatiben oiñarria gizontasunean dago.

Gizona sortu egiten da. Gizontasuna artu, irabazi.

Aldi bakoitzak bere kutsua, bere izatea eukiten dau; bere nortasuna eskatu.

Bizitzako erak aldatu egiten dira. Gaur elitzakez oiñarrituko ta elitzakez biziko Erdi-Aroko sistemak. Gero ta zabalago dator gizonak bere nortasuna ta bere izatea erakutsi bearra. Baiña bakarrik, gero ta aulago da gizona. Gero ta makalago. Laguntasuna bear dau, kidetasuna. Batasunean indarra.

Orra kooperatibaen sustraia. Lagun-aroa.

Arrantzale zaarren legedia, izan ete zan kooperatiben kutsuko legedia? Ori itanduten dabe askok, arrantzialien artean kooperatibak sortu naia igarri ta ikustean.

Esku zabaleko legedia izanarren, bear ba da bere garaian espiritu on oneko legedia, ta kapitalista erako legedia izan ezarren, ez eukan legedi arek kooperatiba kutsurik, lagun-aro bizirik.

Erderaz esaten dan "paternalista" era bat izango zan, ezin ukatu. Batzutan senditarra izango zan. Baiña ortik kooperatiba erara bide luzea dago.

Nire begirako, gaur, arrantzialien artean, Lagun-Aro edo Kooperatiba erak etsai gogor bat dauka: igarri barik bere aurka lanean diarduna; itsu-ituian jarduten dabe-na, eta arin gainduten ez ba da, min biziaren mikrobio antzera, lan ilkorra egin leikena: arrantzalearen giza-gertapenaren utsunea.

Teknikaz eta gizarte gaiz, arrantzalea ta arrantzatik dabillena, gertuteko dagoz.

Gaur ausardiak eta indarrak eta kemenak lortuten dituan asko, teknika berezi batekin errezago ta ugariago lortuko litzatekez. Eta alegiñak onurakorrango biurtu.

Itxas biologian arrantzaleak ez daki ezer.

Arrantzan, esate baterako, berezko jakiñez dabil.

Arrantza ondorengo arrain zaintzean eta arrain erabiltzean, egin leikenaren laurdenik ez daki.

Egi minkorrek, baiña garratzak eta gordiñak bezin biziak.

Gizarte gaiz, umetako ikastaroekin gizondu da, gizartearen problemak bizi arren, nai ta ezkoak ba liraken lez artuz.

Euskal arrantzalea katolikoa izan da. Oituraz. Erentziz. Baiña katolikoan Eleiza bildurtia ez ba da be, gizarte arazoetan azaleko programak, gain-gaiñeko elburuak aitatuten, koldarti da gizarte arazoetan sakonduten, programa orreik bizi eragiten. Kapitalismoak ittoten ez ba dau be, sarri mututu eragiten dautsa; ixillean ixillean sasoiak eta aroak igaro eragin.

Gizaldi luzetako ugarrak dago gizon bizitzan eta asko jo bear da ugar ori eten eta bota eragiteko.

Ur azalean kilin kolonka noiz ondatuko ikusten dan intxaur eskola lez gabiltz

gaur. Bidean ba gabiltzan artean, ba gabiltzala, baiña artritis osatu ezin batek gogortuta lez. Bizi, al bestean, il artean, zedenak jaten ikusten dogun bastoixto baten indartuta.

Arrantzalien pekatua, bear ba da, ez da euren izango, baiña gaurko gizaldien gertaeraren utsunea, gaurko jakin-eza, pekatu da eta norbaitek ba dauka pekatu orren errua.

Lagun aroa, kooperatiba izatea ta bizitza, gaur premiñazko ikusten da, batez be txikituta eta bananduta dabilzan industri txikietan, alkar laguntza iñun baiño premiñazkoago ikusten danetan, gizonak bere gain ekin eta bere nortasuna zaintzeko, bere izate osoa bereganatzeko, bere antzeko beste gizonen premiña bear daben lanbidetan eta langintza eretan.

Arrantzale bizitza egoki egokia da lagun-aroan eroateko.

Baiña onetarako kontzientzia bear da. Eta biotza. Kontzientzia norbere indarrak eskintzeko, eta biotza gizon artean alkartasunean jokatzeko, alkartasun zintzoan jarduteko.

Arrantzale erri batzutan kooperatiba izenezko esperientzi batzuk egiten asiak dira. Baiña argi igarten da euren artean onetarako gertu barik asi dirala.

Batzuk, izen ori, kapitalista txiki egitekno artu dabe. Batena izaten zan ontzia, amaseirena edo amalaurena egitea lortu dabe, orretarako kreditoak lortu ta artu ondoren. Baiña bakarrik jokatzen asi dira bestien laguntzaren ardura barik eta laguntza ori baztertu edo ukatuz. Ori mingarriena.

Orra ez jakiñaren bide bat, gertaera faltaren akats bat. Eta lagun-aro edo kooperatibentzat, igarri barik, kaltegarri ta ilkor izan leikena. Biar edo etzirako ugazaba txikiak sortu, gizartearen ardura barik, norberagaz bakarrik pentsatuta, kooperatiba kapapean kapitalismo sator arduragabea eta norberakorra sortu.

Arrantzaleak, lagun-aro bidetatik jokatzeko, problema asko ez ditu eukiko.

Gaurko legedian, amalau-amasei gizonen ontzi baten jaube egiteko, arrantz kreditoetatik lortu leike dirutza zati bat eta gañerakoaren beste zatiak mutualidetatik eta bestelako kutxa edo kajaen aurrerapenez.

Ontziagaz jaubetu ezkeru, gaur arrantzaleak ba dauka bidea, zoritxarren bat gertatu ezik, jaubetasun ori ordaintzen joateko.

Arrantzaleak, egia da, ez dautsa diruari beste langille askok lez, balio bardiñik emoten. Bere bizibidea eta irabaziak ez bardiñak dira sarri. Negu baltzak eta udabari alaiak igaroten oitua da. Arraiña emoten dabenetan, aberatsa da ta origaitik aste batzutako utsunea, mare-aldi batzutan, zorion pixkategaz, suerte apur bategaz, arin zuritzen da.

Ain zuzen be aldi onetako irabazi oneik, esku zabal biurtu dabe arrantzalea ta nai ta negu baltz luzea aurrean barrero ikusi, dagonean bon bon esakera beteten jakin izan dau, eta dirua beti biribilla izan bear litzakela esaten ikasia da.

Origaitik arrantzalea ugaria da diru aldietan eta umorea gastaten dakiana, bear ba da itxasotako ittotasunak nasaitu nairik. Arrantzaleak alai gastaten daki.

Urtietan ikusi da arrantzarako txalupa ta tresnak, beste industri batzutan baiño leenago ordaindu, bardindu, amortizatu leikezala.

Beraz arrantzaleak, alkartasunean, bide penaza baiña luzea ez dana dauka zorpetik urten eta jaubetasun baten bidean sartzeko.

Arrantzale soillak ez eukan len olakorik. Erdiaren zatia edo iru zatiren toka-mena jaso ta or amaitzen eban lengo eta oraingo eratan bere zeregiña, bere izatea. Ontziak, ontzi jaubeak, ontziaren bere zatia artzen eban, ugazaba txiki baten ondatsunerako.

Orain, Lagun-aroan, zati ori norbere mesederako geratuko da. Gizon eta langintza alkartuen mesederako.

Baiña kooperatiba era txalupetan bakarrik jartea ez da naiku. Asiera baiño ez da, eta bear ba da, loditu ezin leiken asiera. Onek ez dau esan nai itsurik jokatu bear dala, bitartekoa dagon toki guztietan, nai ta ez kooperatiba kutsua ta muturra sartuz.

Kooperatibak, ekonomiaren etsai barik, ekonomiaren adiskide dira. Eta mailla bat eta bestean, bitartekotasuna ezagutu lei ekonomiaren onez eta kooperatiben mesedez.

Itsukeri litzake dana tatarrez eroan bear dala pentsatu ta ortan indartuta jokatzea.

Era berean, itsukeria da baita txikikeriz jokatzea eta ontzi bat edo beste kooperatiba eraz sortu ta biziten ipiñi ta bertan amaitzea.

Kooperatiben ekintza, gaur, luzera begiratzea da. Ekonomian indar artzea, ekonomiaren tajuz sustraitu eta bizitea.

Eta ekonomiak erru luzeak bear ditu. Bizitzako era bat, esate baterako, zearo alkartu bear da, zatika sakabanatu ta galtzen laga barik.

Ortaz, arrantza sailla, bere kate ta kurutze, alkartu bear da.

Ezin egin leikela?

Gaur, nai ta ez, kateak estutu bear dira.

Ortaz, eta au da askoren kezka, arrantzan dagozan kateei begira, nai ta ezkoa da berez datozen eta aidean dabilzan kezka oneik agertzea:

Nun amaitu bear dau arrantzaleak bere zeregiña?

Itxasoetan egunak igaro, portura arraiña ekarri, ta arrain ori molla buruan saldu ta kittu egin, ala arrain ori azken maillarako bere gain eroatea komeni ete yako?

Beste problema bat: Zegaitik portura sartzean arraiña saldu bearrean aurkitu, barriri itxasora urten al izateko, egun orretako edo aldi orretako salneurria edo prezioa onuragarri ez ba da be?

Portu bakoitzean izotzetako gordelekuak gertu ta komeni danetan arraiña euretan sartu ondoren, ez ete litzake askotan ordain obeagoa lortuko?

Beste bat - Ez bardintasunik andiena portuko prezioetatik merkatuetako prezioetara igarten da. Ez ete litzake egoki izango, askotan, portuetan barik, plazaetan egiten dan bigarren sal-erosketara norbere kontura, arrantzalearen kontura bialtzea?

Beste bat. Gazituta saltzeko gai dan arraiña, edo konserban biurtutekoa, arran-

tzale berberaren gain onurakor ete litzake? Edo ez ete leike fabrikante bera arrantzaleagaz alkatu lagun aroan?

Experientziak egin bearreko dira onetan. Baiña ori, lagunaro baten buruan egin lei, ez kooperatiba era ugazaba txiki biurto ta bakoitzaren aldetik jokatzekotan.

Etapetan egin bear dan lana da, gaiñera. Sentzunez, ondo ikasita, langintzak aurrera eroateko gaitasunez.

Oraintsu kooperatiba bi sortu ziran arraiña konserba ipinteko. Konserba fabrika bi era orretan asi ziran. Gipuzkoan bat eta Bizkaian bestea. Kofradiak ziran arduradunak. Eta biak bizi barik gelditu dira. Zer da gertatu dana? Ardura gabeko experientziak izan ete dira, langintza orretan oiñarri bakoak, ikasi bakoak?

Beste problema bat: Itxasoak ikasi ta sakondu bearra, itxasoak zaindu bearra, gaurko ogia biariko gosetan ez biurtzeko. Arraiñaren bizia ezagutu ta neurtu bearra, Ikaskintzako problema gordin gordiña.

Itxasoa zabala da ta sakona. Ta gizaldiak gizaldi itxasoak oraindik ez dau bereirik emon. Itxasoak, oraindik, aberastasun ugari daukaz gizonarentzat, gizonengan sinistuten daben gizonentzat.

Lagun aron, itxasoaren zabala esperantzazko bizi izan lei gizonarentzat, gaurko estutasun, kezka ta illunpetako giroan.

(Karmel, 1971-2, 72-76)

GANTZERUAK IZAN DIRA!

Ipuin au eguneroko ipuiña da.

Bizitzako gertaera irritsu bat.

"Gantzeru" txikien jokabide ziztrin bat.

Egunerokua dalako ez dauka bitartean ez ume galdurik, ez otsoaren urrtz negar-garririk, ez gaztelu andietako zoragarrikeririk, ez arrain gaiztoen ase eziñiko gose zabalik, ez printzipe maitagarrien zaldi zuririk, ez edurtzetako neskatil gaixoaren arnas esturik.

Kurtzalluak amaitu ziran eta sorgiñak eskutatu; larrondoak garbitu ziran eta zelaiak loratu; izarretarako bide barriak zabalduz duaz eta illargirakoa urreratu.

Gu txikiak giñala.....

Zorioneko umetasuna! Betiko amaitu zan ume-aro ameslaria!

Orduan bai, orduan gure aitari edo amari; gure amona kiskurrari edo begiak gorrien gorri puztuta eukazan aitona igarrari ipuin eskale egoten giñan ta areik euren denboretarako kontuak esaten ekiezan.

Bitsa dariola, adurretan, itz bakoitzari indar eta gozotasun berezia emonaz, jarduten ekien.

- Bein bizi ziran...bein bizi ziran...

- Nortzuk?

- Bai....bein bizi zira....

Baiña gure aiton-amonak be lurperatu ziran eta arrak jan.

Eta argi barria agertu da munduan eta era barriak aizetu; eta gerrateak laga dauskun ondorenak itsutu egin dau lengoa ta gure umetasuna aspaldikotu ta aztu.

Eta gerra barria etorriko da ta illargiratuko gaitue, eta izarretatik izanetara sal-toka ibilliko gara, bitsetan, soiña ta gogoa beko ke ta lurrun baltz eta astunetatik arindu nairik, eta gaur itxasoetan mustigeriten dogun antzera, aize artean, eta odei artean sakonduko gara, eta jolastu ta arnas barritu....

Baiña bitartean egunari begira gagoz. Gaurkoari begira, gaurko bizitzaren mingostasun eta zitalkeriei eutsi bearrez, gaurko arinkeriak eta zapukeriak bizi bearrez.

Origaitik nik gaur esango dodan ipuiña gaur bertakoa da, oraintxe ordu bete ikusi ta ikasi dodana eta nik be barrezka ta atsegiñez bizi dodana.

- Gaur jazo da, gaur bertan...

-Zer?

- Ba...gaur bertan jazo da...

- Polita da?

- Entzun ta gero erantzun.

- Arin bota, e?

- Asi baiño len aspertu?

- Teleikusketako ordua laster da ta!

- Orretarko asi be....

- Bai, bai.

- Ba gaur jazo da... sinistuteko be....

- Len be esan dozu.

- Asi baiño enaz egin.

- Irratietatik be Perikotxu ta txomintxun ipuiñetako ordua dator eta....

- Onetarako ez astia obe.

- Ez, ori ez, asi, asi, polita ba da naago dot entzun.

Ez Madriden eta ez Bilbon ta ez Donostin.

Gure erritxuan. Gure kaletan, Gaur bertan.

Txomin ta Peru ezagutzen? Ba, biak, betiko antzera, eguerdi ondoreneko lo apurra egin ondoren, aize pixkat artuz, ibai ertzetik ebiltzan, txalupa barriei begira, bataren trebetasuna eta bestearen irabaziak kontu-kontari.

Bide barrian gora, astirotsu, kotxe dotore bat, klaxona joten. Geratuko ete? Barrutik, eskuei eragiten, agurka, ezaupide agiriak erakusten, iru gizon. Ez gazte ta ez zaar. Sasoi sasoiko.

- Ezagutzen dozuz ala, Txomin?
- Nik? Nundik? Zeuri izango da.
- Niri?
- Guk ez daukagu kanpua inor.
- Guretarrik be ez dago.
- Gerrateko ezagunen bat edo.
- Orreik? Gerratean ume izango ziran oraindik. Bizar askorik ez eben eukiko. Kotxea geratu, jatsi ta amen dator bat, Peru'ri eskua luzatzen, lepoan jo, besarkatu ta kaixo osaba, kaixo osabaka!

- Ez zara gogoratuten?
- Ni osaba? Zeñena?
- Ez zara akordaten erbestean zein senide daukazu?
- Nik?
- Gogoratu ez? Zelan esan lei ori?
- Benetan, ni enaz konturatzen.
- Baña osaba . . . nai ta ez bururatu bear.
- Zeuk esaten ez ba dozu....
- Nik esan? Ia, gogoratu osaba. Poztuko zara. Ba neukan gogua alkar ikusteko.
- Nik ez dakit ba.
- Itsumustuan artu zaitut-eta....
- Ez daustazu sinistuko, baña ni.....
- Ba dakit sasoi baten asko maite ziñela, gerratetik zerbait aztuta bizi arren be. Jakiña, gerrateko gora-berak...ia zenbat senide aldebanatu zituen.

- Onek emoten dautsuzan zertzeladakin ezagutzen zaitu onek Peru, Txomin'ek. Au zuentarra da.

- Besteren bategaz naastuta ez ba dabil....
- Besterik ez, osaba, zeu baiño....nasaitu, egin gogoeta pixkat.
Alako baten, Espiritu Santuaren aizeak ikututa lez, gogoratu zan Peru bere arreba Idurre inoiz erbestean ibilli zala ta bear ba da aren errasturen edo ondorengoren bat izan eikeala, edo.....

- Nik ez dakit ba. Gure Idurre ibilli zan inoiz ortik ziar, baña arek inor eukanik

- Ara ba! Ikusten? Gogoratu zara zeuen Idurregaz? Ori bai, ori!
- A! Ta Idurre'ren norbait zara?
- Itxurarik ez daukat?
- Ondo ondo begiratu ezkerro....
- Ezetz?
- Urte asko dira ikusi gendula be ta!

- Danak esaten dauste ama berbera nazala.
- Bai, esan lei zerbait. Itxura pixkat....
- Bekokia ta muturra beñik bei zuentarrak.
- Ez da errez igarten. Nik beintzat ondo tximurtuta ta baltzituta daukadaz.
- Ba, ba, osaba, esakerak be gure amarenak daukazuz.

Ta barrero besarkatu, ta musuak emon, ta alkarri lepokadaka estutu, eta.....

Txomin'ek, ezagutu zirala ta, senitarteko gauzetan zetan sarturik ez eukala-ta, berak be bostekua estutu ta an laga zitun.

Kotxeko beste biak be urreratu yakoezan.

- Ta? Etxekuak? Ez dogu oraindik itzik egin.

- Ondo, ondo.

- Zenbat senide daukadaz?

- Batek ba daki ori. Gu ugariak gara-ta.

- Ta zuek?

- Neu bakarrik.

- Zertarako geiago?

- Ondo bizitzeko, ori obe.

- Senideak ondo egongo dira, ez?

- Emen danok estu, baña osasunez.

- Estu?

- Negu baltza euki dogu ta.

- Arrain gitxi?

- Ez da errez danak zaintzen. Ogi utsetan be ba dakizu zenbat biar dan? Amabi gara gero!

- Amabi? Danak ezagutzen be.

- Gaur ez beñik bein. Baiña nai dozuz batzuk ezagutu?

- Amona bizi da?

- Erdi bizi! Igar igarra dago koitadea.

- Nai neuke ezagutu. Bein onera eldu ezkeru....

- An dago etxian. Beti itxaroten.

- Zeñeri?

- Bere orduari...Ia, aren kosteria erdi amaitu zan-eta....

- Orrela euki amona? Gure ama bizi ba litz beste amets bat sartuko eutsan.

- Bera ez zan ba il?

- Ez egizu aitatu be aman konturik. Min bizia barriztuten yat gogoratu utzian.

- Orixe ba. A be ez zan emen gatzetako geratu.

- Urruti daukazue etxia?

- Ez. Iru minutu ingurura oiñez. Laster.

- Zeuona da?

- Guria? Esatia be! Erriko beartsuenak, esate baterako, geu izan eta?

Ta orrelaxe kontu kontari, ba duaz etxera.

Etxe utsa. Agureak eta mutillak nausi diranetako etxe giroa barruan.

Arasa txiki bat sukaldean ta tresnak edozelan pillotu ta botata. Txukuntasunik ez. Iru-lau aulki sukalde baltz eta illun baten aurrean, ta mai zatar bat, lejia urez erdi jana. Mai onduan exerita bere bostean errezaten ta bere ixil-mixillean kontu kontari, bere arrenkura ta bizitzako gogoetak ezpan artean erabilten, andratxo argal jausi bat. Oker lotutako buruko zapiagaz ulea ondo batu barik, ezpanak urdin, ia ia ardau koloreko, begiak erre-erre, bekoki tximur, arpegi latz eta baltz... Nok zaindu ez dauken amonatxo zaar askoren antzeko.

Ikaratu egin zan amonatxoa ainbeste gizon ikustean.

- Ba dakizu, ama, zein dakartzudan?

- Ene! Ainbeste gizon gure etxe utzera?

- Ez bildurtu, ama. Ezetz igarri zein dagon zure aurrean?

- Neu ikusteko osagillea ez da izango kontixu.

- Bai zera be!

- Batel zaarra dala ta zeuk neuri nasterik ez ekarri, e? Or geratuko da batelori ta konponduko zarie nai dozuen lez. Orain ez ipiñi niri asarrerik.

- Ez, ama ez. Zein dala? Ez da olako. Begiratu egiozu, begiratu ondo, ia igarten dautsazun?

- Nik? Erdi ezagutu be ezaituet egiten zeuok be ta? Kanpotarrak ezagutu nik? Añatzen be enitzan egon-da. Sekula emendik urten barik?

- Ez daustazu bekokian edo muturrian iñoren itxurarik artzen?

- Ez dakizu ba ikusi be ia ia ez dodala egiten?

- Ezin igarri nor izan leiken?

- Nigaitik...

- Ez zara gogoratuten Idurregaz?

- Gogoratu ez? Gogoratuko ez naz ba?

- Ba, aren semia. Zure illoba.

- E? Gure Idurre ez konduta egoan ala? Sekula paperik ez eban orretarako eskatu...

- Amona, gaur paperak sobre dagoz. Orrek erri txikietako gauzak eta txikike-riak dira.

- Semerik eukanik be ez genkien-ta! Ai, ai, ai! Zelan ibilli ete zan, a! Baiña, txo-txo, ekatzu musu eder bat. Ekatzu... Ta laztan eta musu, besarkada ta lepokada, barrero alkarren leian.

Etxean sartu orduko beste lagunak zirkulo guztiak ikusi zituezan. Kuadro bate-ri ikutu, ate ordez egozan izara ta zapiei eragin, mai ta zeenak jandako komoda zata-rrei bultz edo ten ta kajoiak erdi zabaldu, ontzi ta poturik bakanenari be gañekoa jaso ta susmoa artu.... Dan dana, ezer egingo ez ba lebe lez, iñor konturatuteko aitzakirik eta tarterik emon barik.

Gela illun bateko zapia be zearkatu eben ta norbait arnas zabalean lo egoala igarri ebenean barrero itxi.

Sukalderatu ziran barriro. Ta amonaren aurrean musu ta musu San Antonioren lurrunez eta euli kakaz betetako quadro illunari; laztan eta laztan errosario andi batetik dindilizka egoan egurrezko kurutzeari....

Amonatxoak ikusi zitun.

- Ai oneik fede andiko gizonak! Ikusten da, ikusten da. Gaur ez dago olako asko.

- Guk bai, guk San Antoniogaz sinismen itsua dogu.

- Bai guk be.

- Ta beste quadro au? Norena da?

- Ori, San Ramon Nonnato da... Ia ba, amabi seme eukiteko....

- Parkatu, andria, baiña amabi semek ao asko daukez ta begi geiegi. Oneri ez, oneri ez dautsagu musurik emongo. Au munduaren etsaia da. Oneri buelta emongo dautsagu.

Ta San Ramon gixajua, erdi-barrezka, erdi-irrika, ormara begira ipiñi eben.

Barriro ekin San Antoniori atzaparrekaz ikutu ta atzaparrak ezpanetara eroanez, zarataz beteriko musuak emonaz, ora pro nobiska.

- Zeintzuk dozuz ain fede oneko lagunok?

- Oneik? Oneik eun edo tela egille onak dira.

- Bai, gaur dirua egiteko fabrikante izatea baiño obarik ez dago. Guk gure denporetan lau txori-txikigaitik egin doguzan lanak, ondo aberastu ditue orreik.

- Amonatxo, guk be gure buruausteak eukite doguz. Ta ez txikiak, erantzun eban tartetik batek.

- Diruarenak ez beiñik-bein.

- Ezetz? Egiten dana saltzen ez ba da....

- Gaur be zetan urten dogula uste dozu?

- Domekan? Ibilli segurutik.

- Ibilli ta saltzen.

- Eunak saltzen?

- Salduko ba litz gaitz erdi.Diru erdian emon biar sarri, gauzak kitututeko.

- Bai, osaba, diru apurrik euki ezkerero, seguru egon ganga ederra egingo zenukela gaur. Naiku da gaiñera nire senideak zariela jakitea. Olakorik! Zeiñek uste izango eban ainbesterik?

- Nundik atara guk dirua?

- Ez illetarik geiegi jo.

- Uleta jo ez aurten euki dogun negu ondoren?

- Ba, ba... apur bat ondo dago, baiña ainbeste be....

- Ai txotxo, zuk ez dakizu emengo barri. Gure Idurrek, zure amak arek bai! Arek ondo ekien, bera be beartsu beartsu jaiio ta amaika igaro biar izan ebelako.

- Osaba, pixkat ondo dagola, baiña....

- Pixkat? Agirian dagoz emen ondasunak.

- Egia, nik oneikin urtetan dodanian, ez dot sekula diru premiñarik eukiten eta

ez dakit dirurik be artzen aldian, izara batzuk saldu ondoren gastuetarako laster dogulako. Baña seguru egon, ezer erosten ba dautsezu, auzo guztia enbidiz beteko dozula.

-Ez diñot ezetzik. Baiña dima kakua.

- Ikusten zelako izarak? Nun daukazuz olako izara zuri ederrak bost ogerlekotan?

- Bost ogerlekotan? Zelakuak dira eurok?, amonatxoak. Ta izara zabaldu ta esku artean erabili ta....

- Bost ogerleko benetan?

- Bai, bai. Emen be ba daukazuez, ala?

- Emen? Emen ez. Orixe ez. Emengo dendariak aberastuta dagoz.

- Ondo egiten dabe.

- Bai gure lepotik ez ba litz. Amaika lapurreta egiten dabe orreik.

- Alaxe da. Emen gitxienez ogei ogerleko, ogetamar ez ba dira.

Amonatxoa gero ta arduratsuago ta zaletsuago izarei begira.

- Luzeak dira.

- Bai, bai, metro bi.

- Ta zabalak.

- Guk ez dakigu laburrik egiten.

- Gaixo aldiren baterako be berebizikoak.

- Ba, amona...oraintxe baiño aukera obarik ez.

- Bai iñundik al ba neu. Ez daukazu ogeiko bat Peru?

- Lenguak be artzeko daukadaz, oraindik.

- Antxoa sasoiari zerbait geitxuagogaz be ordainduko neutzuke ba.

- Zetarako izarak?

- Okasiño bat egonda be.... Zeuk beste zerbait erosi. Soiñeko bat be elitzake-tortzu txarto.

Ats eta ats buruari Peruk.

- Odoleko gaixoa daukazu, osaba. Nire ama be olakoxia zan. Beti illeta jotzen.

- Ara, egi egia esango dautzut. Ba daukadaz zortzireun peseta, aurtengo neguan lau bost aldara eragiñak ezin gordeta ta ezin eskutatuta, oneik billatu ez egiezan be....

- Zortzireun? Ez zara damutuko eurok gastatiagaz. Ziur egon. Guk zortzireu-negaz, edozein tokitan lau millagaz baiño geiago emongo dautzugu. Kontu atara. Bost ogerleko balio ba dabe izarak, dendariak, euren aldetik, zortzi edo amar edo amabost irabazi naiko ditue. Ta nik bost ogerleko balio esan dot, zerbait esateagaitik, ori fabrikako kostua be ez da-ta, len esan dogun lez, ateratearren, edo gaur, senitarteko mesede bat lez.

- Zenbat naiko zendukez? Lau zeuretzako ta lau amarentzat?

-Ba...Olako aukera ba dago....

Ta gure Peru gaixoa, oso osorik, zortzireun pesetan billa, ainbeste buruauste ta nekez, premiña esturen baterako, eskutatu ta gordetako diruen billa.

- Soiñekoa egiteko kortea be zeuk aiñakoa aukeratuko dautzugu.
- Zertarako baiña, emendik aurrera traje barria?
- Ez bildurtu. Bizi guztian gogoratuko zara zure illobeagaz.
- Guk be, berau gugaz dabillalako, mesede ori egin nau dautsagu. Kolore argia atsegin?

- Ez. Gure urtetan eta bein egiteko...

- Ara. Auxe egokia. Ez gara ibiliko emen ijitoen antzera emon eta kendu. Ikusi dogu benetan be negu gordiña igaro dozuela ta diruz me zabizela. Urrengo baten egingo dogu beste traturen bat. Gaur, soiñekoak, merkenak be, iru edo lau milla peseta balio dabena ba dakizu. Guk korte au seireun pesetan lagako dautzugu. Dakigulako geiagorik ez daukazula. Saltzea baiño erregalu lez emotea geiago da. Tori. Kotak kenduta ibilliko zara soiñeko au egiten dautzunean. Edonora jua eta ibilteko lotsarik ez dozu eukiko. Edozein ezkontza, edozein jai, edozein joan etorri....

Itzik egiteko tarterik be ez eban artu Peru'k. Emon zituzan bere lizundutako diruak.

- Izarak?

- Ekarri egizuz kotxetik.

- Ez zara gogoratuten azkenak len emon doguzana?

- Benetan. Ez nintzan gogoratzen. Zer egin geinke orain?...Ez kezkatu. Biar, bertan botako dautzuguz. Biar illuntzerako emen eukiko dozuez.

- Bai osaba, nasai egon. Gure itza itza izaten da.

- Berandu da ta ba guaz arin. Oraindik bide asko daukagu. Konturatu barik illuntzen da.

- Etxerako bialtzeko ez daukazu ezer, Peru? amonatxoak.

- Zer euki?. Gurian ez!

- Ez dakit ba. Bein ezagutuko illoba ta bertan esku utsik bialtzia be.

- Eskutukoren bat zeuk ez ba daukazu....

- Nik? Nundik? Baiña min apurra, penatxua eukiko neuke. Etxerako geure zerbait, etxeko zerbait....

- Ez kezkatu, amonatxo.

- Ain zuzen be gaur domekia da ta....ori jakin ba gendu...Urrego zatozanean, aurrez esanda etorri.

- Olako gauzak eta ikustaldiak jakin barik obeto egiten dira, amona.

- Bai, alaxe da. Baiña arrain pixkat edo....Besterik ez da be, emen dagozan lau berdel eruan egizuz.

- Berdelei mu egingo dautse oneik. Lebatza izan ba litz be....

- Ia ba, gaur nun erosi be eztago ta...Fresko freskuak dira, garbituta dagoz, gatz be emonda dauke. Ia ba, beste egun bat gerta ba litz edozeiñeri eskatu edo kentzeko be....

- Ez estutu. Borondatea naiku da.

- Etxekoak zerbait artu dagien be...Eroan, eroan, lau berdelok. Paperik be ez daukagu batzeko ta....Amu batetik kordel txiki baten dindilizkka obeto, ez, Peru?

- Amona, gu hoteletan bizi gara ta oraindik etxerako egun bat edo bi biarko doguz. Itxi, laga berdelei.

- Gaur artutako lakoxiak dagoz. Sakatsa be gorri gorri dauke. Peruk eruango dautzuez kotxera....

Barrero musuak eta agurrak. Eta amonaxoaren malko bigunak....

Iru gizonak, atera urten orduko, kotxean sartu ta...agur...agur.... ta atzaparrak ezpaiñetara eroanez musu ta biozkadak botaten. Motorra arindu ta ru arin....

- Or ba. Ez genkian gure Idurrek semerik eukanik be. Nun Nun billatu dozu bera Peru?

- Bidean.

- Zelan ezagutu zarie?

- Nik? Berak ni.

- Norbaitek esan dautsa?

- Ez jakin. Itxuratik edo....Aurrera joiazan ta txomin eta ni ikusi gaituenean geratu dira.

- Gure Idurre...Nundik nora ibilli ete zan a! Sekula jakin ez. Orain nun bizi dirala esan dautzu?

- Ene! Ez gara orretan jardun. Itz eta itz, emoten al eban unerik ezer itaunduteko?

- Okasiño baten deitzeko be....

- Dana dala, izarak botaten ba dauskuez, bestelako mesedia egingo dabe. Ta zuk, soiñeko eder au egiten dozunian...Zenbat metro ete daukaz? Jostunari be eskatu gero txatalak beste edozer egiteko be....Neuk ikusmen gitxi daukat, baiña ekatzu tela ori, zelakua ete dan konturatzeko be....

- Eee? Peru...soiñekoa, trajea egiteko ez dautzue saldu ba? Emen....emen, gona bat egiteko be...Zelako izena esan dau illobak?

- Ez dautsagu entzun.

- Peru....Ta izarak noiz bialtzeko?

- Biar edo....

- Biar edo etzi....edo bein ere ez....

- E....?

- Gure Idurreren semia zala diñozu?

- Nik beste dakizu.

- Entzun ia....

- Itxura pixkat ba eukan. Ba eukan antza.

- Zeiñena? Zenbat urte gure Idurrek?

- Ni baiflo gazteago zan, dakizunez, ta....

-Zuk irurogeta lau, a sei urte gazteago....arek berrogetamazortzi. Illoba onek, itxuratan, eta aren tximurrak ez dabe ukatuten, berrogeitik gora....

- Olakoren bat.

- Idurre emen bizi zan ogeta amar urte inguruan neskatil. Emen ez eban seme-rik euki...Ene ba!

-Zer?

- Lapurrak ez ete ziran. Ez ete gantzeruak?

- Baita zera be. Ni arek ezagutu naben eran....

- Aita San Antonio...! Itsuak argitzen ez dakizu ba?. Ta neure Aita San Ramon?

Itzalduten asi zan Peru. Irunsi eban zerbait...Itzik be esateko adore barik eten-da gelditu zan, izerdi likiñetan bekokia busti, berekautan aulduta aulki baten exeri, jausi.....

Ta amonatxoa..Ai San Antonioa...! Zegaitik ipiñi ete zaitue ormara begira, atzekoz bera? Zuk emoten dozuzan semien begien bildur?

Ez izararik ta ez soiñekorik. Ez dakizu zer egin eutsen Kataliñeri? Ta Kospari? Ene bada-ta! Ziur egon. Ez izararik ta ez soiñekorik!

- Ta ez dirurik.

- Berdelik bez. Ze apaldu bez!

Gantzeruak izan dira!

(Karmel, 1972-2, 70-79)

BETI ERE IKASTEN

AZKUE'k, bere iztegiko itzen artean, ainbat agertzen ditu iru-lau erritan batuak edo erririk geienetan erabilten diran lez.

150 inguru agertzen ditu (B-ond) au da, Bizkaia'n eta Ondarroa'n ain zuzen batutako lez, beste iñungo aitatasun barik.

Beste ainbat ba dagoz bere iztegian agertzen ez diranak, eta Ondarroa'n erabilten diranak edo ziranak

Orrelakoak datoz zerrenda onetan:

ONDARROA'N ERABILTEN DIRAN ITZAK ETA AZKUE'k BATU EZ EDO BESTE ESAN NAI BATEGAZ AGERTZEN DITUANAK.

Agagain= *mastilero*

Ainguratoki= *fondeadero*

Allos, Allostu= *empatar en un partido en el penúltimo tanto.*

Amure (amure egon) = *recelar*
 Ari-meia = *espíritu apocado*
 Agaka = *a palos (D. Agirre)*
 Akats = *Defecto, falta. Azkue'k beste esan nai onetan erabilten dau: tajo, cala de anchoa, peldaño, tarea, pico de cuenta.*
 Aize-oial = *vela (D. Agirre)*
 Andrakilleta = *muñeca (Azkue'k andrako ta andrakilla)*
 Anka egin = *escapar*
 Arlanka = *ancla*
 Atarra = *ganas de juerga*
 Artobero = *pegajoso, molesto, pesado*
 Atxarrain = *pescado de roca*
 Atzeko = *patrón de una embarcación (Azkue'k = cola de vestido, placenta)*
 Artalakatza = *corcho (D. Agirre)*
 Azartona = *Buena suerte (D. Agirre)*
 Baka = *embarcación de arrastre que trabaja sola*
 Bixika = *juego de niñas*
 Bunbat = *golpe (D. Agirre)*
 Burutik berakoa = *ataque cerebral, meningitis*
 Bere bostean = *a sus anchas*
 Besigute = *campana de besugo*
 Bolintxa = *boliche*
 Brixak urten = *sonrojarse, airarse*
 Bosinga = *jugueteo en el agua*
 Bazkaldari = *comensal*
 Bazkalaldra, bazkalaldra = *(D. Agirre, convidado a comer)*
 Dra = *(acertar) Azkue 'k : variante de dira. Onomat. de la caída.*
 Dramio = *apresar o acertar*
 Dzinga = *remar con un remo a derecha e izquierda*
 Dzapart = *agarrar, apresar. Azkue = bofetada*
 Desperka = *desmallar la pesca*
 Dar-dar = *negación. Dar-dar egin eutsan = le dijo que no*
 Deilari = *señero del mar*
 Deizalea = *señero del mar*
 Ezpeta = *vara larga. Azkue 'k, Ezpeta = varas largas para aparejos*
 Ernani = *golondrina*
 Egata = *aleta de pescado. Azkue 'k, Egata = ruido que precede a la piedra que cae de las nubes.*
 Erramu = *remo*
 Erramulari = *remero*
 Erramutan egin = *remar*

Esku-zurda = *aparejo de mano* (D. Agirre)
 Garagarra = *Revuelco en el suelo. Astoa garagarra egiten dabil*
 Gurma = *niebla. Azkue : gurme (Bl)*
 Goaldi = *verdín, algas. Azkue 'k, gooldi, musgo*
 Gogapen = *pensamiento*
 Inkatu = *emborracharse. Azkue, escozor, achaque de la vejez*
 Itxasote = *fana en el mar. Azkue: conferva, hierba muy verde y menuda que se forma en las peñas y piedras a donde llega el mar.*
 Iparra = *tembleque*
 Itxasate = *barra* (D. Agirre)
 Itxasertz = *costa*
 Itxasbide, itsasbide = *ruta marina*
 Itxas barru = *mar abierto*
 Itxastriku = *erizo del mar*
 Jirauleta = *al revés. Akondaria jirauletara jantzita.*
 Kakotu = *emborracharse*
 Kakota = *borrachera*
 Kalatxori = *gaviota*
 Kalapitxi = *mariposa. (Mugika'k, 160 izen "mariposa"rentzat eta au ez dau aitatuten.*
 Kaixarrak, kaiarrak = *gaviotas machos*
 Kinkiña = *suciedad, melopea. Kinkiñak jota.*
 Kirrixka = *cangrejo negro. Azkue habla de "inpernuko karramarrua"*
 Killoi = *quillón*
 Kinkilloi = *cantidad exorbitante*
 Kukunpraka = *flor silvestre*
 Kuskillatu =
 Legramua = *Legramua baño baltzago zagoz*
 Masia = *raba*
 Maiztatu = *encebar, echar raba a la mar*
 Mongoliño = *magurio*
 Mandazketa = *aguadero para caballerías*
 Mutxarri = *pez sin sangre*
 Morkona = *grosera , ordinaria*
 Manjuba = *manjua*
 Mengeldu = *debilitarse*
 Mengela = *enclenque*
 Morkondu = *embrutecerse*
 Mantsine = *mujer fofa, creida*
 Mantsindu
 Mokoloi = *borrón. Empacho. Tretzen mokoloia: enredo de aparejos* (D. Agirre)

Ondarrazpiko = *traquino*
 Olagarro = *pulpo*
 Otante = *carota*
 Obakua = *juego*
 Otzakil = *friolero*
 Ozkil = *impertinente. Tímido*
 Ondar-mai = *banco de arena*
 Ondarrola = *cantera*
 Ondartu = *arenar. Azkue 'k : gastarse un líquido. Tocar a su fin, hablando de rentas. Encallar.*
 Potozorri = *ladilla*
 Peazu = *cacho, pedazo*
 Sidol = *tentador*
 Susunkorda = *atónito*
 Suezta = *sombrero marino*
 Sota-patroia = *segundo patrón*
 Saz = *vacio, arruinado*
 Soin-ale = *botón (D. Agirre; Urruzuno)*
 Tollanak emon = *pegar, dar paliza*
 Takin-takin = *a cada momento*
 Tukur = *pie de hongos*
 Txipar = *vapor que despiden las calderas*
 Txarta-txartaka = *saltando sobre el agua*
 Tartañua = *trompa con punta rajada (Azkue: tartain)*
 Txibikorain = *aparejo para pescar chipirones*
 Txartonatu = *empeorar. Txartu*
 Txurla = *balanceo de una embarcación*
 Trunpail = *cinchón*
 Txangil = *cántaro*
 Trirrika = *cordelería*
 Txartango = *redel*
 Tostarteko = *marinero de cubierta*
 Umant = *héroe (D. Agirre)*
 Uraga = *remo*
 Zazpiki = *inquieto, nervioso*
 Zibor-ziboteku = *enteramente nuevo*
 Zontzondü = *atontarse*
 Zontzona = *abobada*
 Zotz egalari = *cohete*

(Karmel, 1979-1, 77-79)

UDAZKENERA BEGIRA

Udazken beroa eukiko dogula diño.

Batzuen ustez, gorria.

Udaldiko oporren ondoren, ondartzetako atsedenaldiruz luzeen ondoren, edo ta mendietako aize-arte osasuntsuen atzetik,, aldatz gora egiten da ikastaroei begira astea.

Lenengo, lengo akatsak zuzentzea; uste baiño geiagoentzat neketsua edo eziña. Kukurbita (kalabaza) andiegiak urteten dira gure ikastetxetako soroetatik.

*Ikasleen utsa,
erabideen akatsa,
irakasiaren gaitasun mirriña,
irakaskintzako jatorrasun eta egokitzerik eza,
giroaren ustettasuna,
edo ta nai ta ere, ezinda ere, karrera bat artu edo lortu nai izatea...
askoren kezka eta zoritxar dira.*

Nik ez neuke esango beti estutasun diranik. Gaur, eguneko ogi lez artzen dala-ko, ikastaroak ezin gaindu eta ezin amaituta ibiltea. Aurretiko jokabideak be ba eukan bere zer esana; nai ta ez, ondo ikasi edo gertu ez da ere, urtea, kurtsoa amaitu eragiteak, gero dakar etsipena. Gaitasun ezaren agerpena. Lenakoena egia: Berez ez datorkionari, Salamanca'k ez dauzala asko geituko.

Gero udako opor, atsedena, ibilte, jolas, itxura aldaketa eta abarrek, beroak izerdia aña ataraten dabe gure denporetako ondasun txiki eta gogo neketsuen koipea.

Eta udazkenari begira aldatz larrien aurrean kokatuten gaitue, bakarti lez eta famili lez. Bai eta erri lez be.

Kendu eziñik daukagu lanik ezaren kerizpe itzala. Etxe askotako buruauste larria. Diruz baiño, zer egin ezaren ondorenez larriago dala, esango neuke.

Gosea, zeaztasun baten gosea artzen dan lez, nik esango neuke, gaur ez dala gure inguruan ainbeste igarten. Oraindik famili askotan daukaguna banatzeko egoten gara, eta toki askotan, lurrekoa ez ba da itxasokoa, oraindik era askotako lagun-garri izaten da.

Jainkoak estutu bai, itto ez, esaten da. Zabal artu daigun esaera ori. Bizibideko ezaupidez.

Niretzat benetan laria, orduetako alperkeria eta aspergiroa dira. Zer egin jakin ezak emoten daben barruko naigabe, utsune eta ezezpina eta berak sortuten daben itxaropen galtzea.

Gaitz da bizitzako sasoirik onenean eziñak menderatuta ikusi ta giro orretan eroapenez luzaro irautera bat egin eta makurtzea.

Ortik dator gero gaurko gaztediaren problematika itzala: Drogak, errekin amets-eragilleak, baregarriak, une bateko asegarriak, lizunkerirako joerak ta abar.

Ba dirudi politikako jokabidea be zortu egingo dala. Zornatu edo zolitu. Eta ori mingarri izanarren, danoi ikutuko dauskuna gertatuarren, beste aldizkari eta erabidetako agerbidetako gai egoki eta zeatzagoa da, gure fedez betetako "Karmel" onetarako baiño. Baiña nunbaiten berba egin bear ko da. Lurrealde jatorren eskubidetazko legeak, euskal erabidean beti jatorrizko izan diran eskubideak, berba-bide ugari emongo dabe, batez be aurre-kontu (presupuesto) barriak egiterakoan. Eta bear ba da atzeratu lei aurrekontu orreik sasoirako gertatzea eta burutzea, eztabaiden ondorengo akorduak lortu arte.

Baiña gure gauzetaz berba egitea ez da beti politika.

Gure gauzen artean ordogu jakintza (kultura) be.

Egia da orañarte gure Aldundiak, bateko ta bestekoak, eta Jaurlaritzako kulturako aurrekontuak, beste sail batzuetakoekin ikusita, mirrin, dollor, zeken eta estu geratzen dirala.

Ez dakit zelan, baiña ainbat lasterren egoera au eten bearra dago.

Ba dirudi batzen dan dirua, bideetako batzen dala. Burdibide, tren-bide edo ta egazkako bideetarako.

Len errepedeak, gure denporetan bide barriak edo ta bitxabalak (bide zabalak). Gero baso bideekaz errietako basterrik sakon eta eskutuenak be alkartu dira edo ta erraztu. Orain bide gorrien premiña sortzen da.

Eta or dator Bilbo inguruko metroa.

Dana azpitik al izango ete da? Eta eziñean, zelan jokatu? Zati batzutan azpitik, bestetan goitik?

Eta zelan geratuko dira, esate baterako, Erandio, Romo eta Gurutzetako (Cruces) erabideak metro onen zeregiñean? Or be kaku ugari sortu ta batuko dira. Eta era askotako ardurak.

Gero orrek, ekarri eta sortuko daben dirutzaren premiña. Nundik, zelan, zeñiek eta noiz ordaindu?

Edozetara be, orañarte lez, eztabaidarik larrienak ere, ekarriko dabe ziurretik euren argi-izpia, euren urteera. Gaur gure arteko gauza andi ta erraz diranak, urte luzetako buruauste izan ziran. Eta goizetik gabera bigundu, arindu, eratu eta argitu ziran.

Udazken beroa eukiko dogula sinistuten dogu. Baiña sinistu daigun, baita, oraindik ba dagozala erriaren mesedean jokatzeko deiari jarraitzeko gertu dagozan gizonak.

Borondate ori itsukeriak ez daijala kutsutu. Ori da eskatu eta lortu bear dana.

Eta bakoitzak bereari ten barik, osotasun baten erriari begiratzen ikasi daigula. Errien izatean ez da dana soiñaren ederkatura. Or dago gogoia be, errien espiritua ere, soiñak aiña begirapen bear dabena. Eta ziurretik, neguko laztasun eta estutasunak arinduten geien lagundu leikena.

Lan au, irizpide itxi barik, askoren zirikatze izan bear dau. Eta onetan danok arduratu bear gara, bakoitzaren eta erriaren mesedean.

(Karmel, 1984-1/2,108-111)

GURE GABONAK

Gabon egunak gainean doguz.

Erriz-eni ibiliko gara?

Merezi dau, gure oituretan eta gure bizitzan euskaldunok zelan ibiltzen garean jakitea.

Ez da dana jan-edana.

Gaur, jokabide ori gainduta daukagu.

Ugaritu egin gara jan-edanetan, aberastu. Al izan edo ez izatean dago akatsa.

Origaitik, len egun berezietarako genduzan janari asko, gaur noz-nai ikusten doguz gure maietan.

Baiña ba doguz oraindik euren berezitasuna zaintzen daben egunak. Oitura zarrak gordetera makurtzen gaituenak. Or, ba, laster gabonak.

Noizkoak ete dira gure kanta zarrak, noizkoa jan edanen oitura, eta batez be noizkoa egun orreik kantu eta esanez ospatuteko zaletasuna? Noizkoa egun orreita-ko irudi, kantu eta antzerki lako agerbidez jarduteko ekandua?

Ba dirudi erriak, bata bestearen leian, gabonak zeiniek kezka geiagor edo ta zeiniek alaitasun itxuratsueguz ospatu eta abestu ibiltzen dirala.

Gabonak datoz. Mutriku'n, esate baterako, etorriko danaren kezka ezagutuko doguz:

Aor goian etxea, jo daigun atea.

Gizonak leiora nekez irtetzea!

Gizonak bentanatik digu erantzuten,

gabeko ordu onetan zer darabiltzue emen?

- Dontzella eder bat dakart nirekin aldean,

semea dakarrela bere sabelean.

Semea ta dontzella nola izan liteke?

Enbustero faltsua, ortikan zoazte!

Jo Mutriku'tik Oiz mendiaren gibeletik zear Ibarruri'ra. An be ba dakie Jesus jaioteko dala, eta itxaropentsu dagoz:

Biak Belenera daude kaminadu

eta an eldu daitezanean

ostatuaren itandu.....

Andik jo Naparroa'ra. Gure "mugatzat" erakutsi dauskuen egaletara. Ituren'en au entzungo dogu:

Agur, agur etxeoak,

atsa onean zaudete,

atalondoan pobreak

arren iratzar zaitezte.

Gabon egunera eldu gara.

Nabarra'n bertan, Gartzain'en, Baztan aldean, laster jakingo da zer gertatu dan:

*Artzaiñak, berri onak,
aingeruak dio,
aurtxo bat guziz ona
Belenen da jaio.
Jesus jaio da eta
ama ori bakarrik,
suaren egiteko
etzeukan egurrik.*

Etorri barrero gure aldera urreratzen. Araba'gaz mugan dagon Ubidea'ra jo. Eta an norbaiteri entzun al izango dautsagu:

*Asiko naz albiste au,
pekatariak, esaten:
zergaitik dagoan Jaungoikoa
gizon eginda Belenen.
Eratzun alkarreri
klariñagaz,
organuagaz,
musika kontzertaduagaz.*

Eta erria konturatu dala jakitean oraindik be bertso oneik entzun al izango doguz bertan:

*Pastoreak alkarri,
zer darotsez.u Jaunari?
- Kapote zarran azpian
dagoz arkume zuri bi.*

Elgoibar inguruko Alzola'n ba dakie jaiotza egon dala, baiña "misterioz" bete nai dabe:

*Ai au gabaren preziosoa,
Jesus jaio da Belenen,
etxe onetan sartu ete dan
billa gabiltzaz beraren.*

Ez bakarrik alderdi onetan. Goazen Iparraldera. Guazen Zuberoa'ra. "Agur Zuberoa" kantatu baiño len, entzun eurei gaurko kantua:

*Gaur sortu da Jesus aurra
oro egiten alegera,
goatzin adoratzera.*

Aldudetan be bardin. Kantari dira an be:

*Oi Eguberri gaua,
bozkariozko gaua,
alegeratzen duzu
biotzean kristaua.*

Biurto gaitazan Naparroa'tik zear. Orra Erronkari menditsuan:

*Ots aingerueki,
arkantzelieki,
gaur kantatzera
gure Erregearen
Yinko Semea,
aren adoratzera.*

Edo ta beste au:

*Jesus jaio eta Ama ori bakarrik,
sua ere egiteko etzeukan egurrik.
— Jose, ekarri zazu sortaño bat egur,
aurra otzak eten dun ni naiz agitz. bildur.
- Aur ori eztu otzak iñoiz ere ilten,
aur orrek berez dauka dibinidadea.*

Ba gatoz etxeruntz. Bizkai'n sartu baiño len, Legutiano'n onelako zerbaitek poztuko gaitu:

*Abendu santu onetan
Kristoren jaiotzea
Semea jaiota ere
Ama dontzellea.*

Andik aurrera etorritz, Arrasate'n, Mondragoen, kezka eta duda barik dabiltzala igarrigo dogu:

*Ana ta Joakin,
Peru ta Martin,
goazen zortziko dantzara,
Gabon gabeen zoro eztana
zororik andiena da.*

Bardintsu izango zan, Legutiano'tik Arrasate'ra jo ordez, Arrati aldera joan ba giña. Arratia'n ba dakie tella bako etxean jaio dala be. Onela diño euren kantuak:

*Belengo portalean
teilla bako etxean
semea jaio ezkeru
bera ba da dontzellea....*

Orrela erri guztietan.

Eta Gernika'n?

Arboleak ez dauka oraindik orririk. Negua da. Baiña jaio dan Umetxoari samurki kantaten diardue:

*Billotxik ba zagoz bere
etzara zu, Jauna, pobrea;
zeruan josirik dago
zeuretzako erropea.*

*Ea bada Josepe,
arotza zara zu,
aurtxo txiki onentzat
seaska egizu....*

Gure ibillaldiaren neke barik, etxeratu gaitez. Baiña merezi dau, aurrez, Markiña lko erri baketsu baten zelan ospatuten daben jakitea. Orra:

*Belengo urian,
gabon gabaren erdian,
Birgiña Maria zeuan
konsolasiño andian.
Bart Belenen,
Jesus jaio da Nazaren.
Jesus dibino, gauaren otzal
jausten da liñetazia,
ordu bi oneitan orrela ba da
il da ganadu guztia.
Korraleko ardiak bere
dantzan zebizen orduan,
salbadore jaio da ta
geugaz bizi da munduan.*

Eta itxastarrak? Ondarrura sartuagaz batera itxas usaiña artzen asi naiz. Kresal usaiña. Itxas baster, kañabera, arrantza, tretza eta abar eta arrantzale pobreen illeta joteak. Baiña emen be ospatu egin bear da. Pobreen eskubidea da Jesusen jaiotza ospatutea. Ara bertan zelako kantetan diarduen:

Albako untzurrunian
aitz baten gañian,
gizon bat arrantzuan
itxas basterrian.
Itandu bear diot
ete daben entzun
Belenen gaberdian
zer gertatu zaigun.

Gizon gaztea etzan
gu lez gorputzduna,
bart emen igaro dan
gazte egaduna,
ari zan Espiritu
abisoa doiana,
ipar suestian
erregiak gana.

Kañabera orrekin
zagozan gizona,
Jaungoikuak daitzula
zuri egun ona,
bart sentidu al dezu
izeren zaratarik
edo entzun zeruko
aingem kantarik?

Neu ere juango nitzan
gaur a ikustera,
barrubiña batzuek
banijua esatera,
baña erropa zarrak,
eskuak utziak,
nola sartu naiteke
Jaun baten etxian?

Gizon gazte eder bat
egoz jantzia zan,
bart gaberdian legez
emen igaro zan.
Aren kanta soñuak
pozez aditurik
gau guztia eman det
arrain bat gabarik.

Neuk ere ardi narruak
neukazan soñian,
baña ementxe egondu naiz
bart'ko gau guztian.
Abe Maria eginda
esan egiozu
arrantzale pobre bat
emen naitortzu.

Arrantzale maitea,
neuk biotza nai det,
urria ez zidarra
ezerentzat ez det,
orain aurerrantzian
fedea bizi bategaz
bota tretza guztiak
Jesusen izenian.

Ara, azaletik, arin-arin, gabonak Euskalerrian. batean eta bestean itxaropena eta poza. Alaitasuna eta fedea. Kristau biziaren asiera.

Bertsotan ari garean ezkerreko, amaitu daigun gaurko lantxu au Aramaio'ko bertso batez:

*Jesus, zure arbolea
neguaren erdian,
ekatzaren bildur baga
oraintxe dago loran.*

Oiturazko "kanta ala erreza" baimen eskatzen luzatu barik lanean asi naizanez, beste errezu barik gaurkoz esan daidan Amen.

(Karmel 1983-3/4,115-121)

OITURA ZARRAK

Itxasertzetik nator.

Itxasoari ikututen dautsen oitura eta gertaera batzuk agertzeko asmotan.

Gure erriko bizitza, legorrean lez itxasoan be, santu eta fedeko sinismenei lotuta igaro izan da.

Zarren kontuak irakurten diranetan....

Zeinek ez dau ikusi argazki, margo edo ta laukietan Saturrarango aitzen irudia?

Ba erdi aroko gertaerak irakurtean, nunbaiten billatuko dogu Iruña'ko gotzaiña (Iruñako obispadutza ia Gipuzko guztiagaz batera Mutrikuraino elduten zanean) Saturrarango Ezkilotxarri aitxaren aurreraino elduten zirala, baiña or bira egiten ebela, esandako gotzaiñaren konjueroen indarrez.

Ortik kanpora baserrietan ortuariak eta gariak bedeinkatzen ziran lez, itxas ertzean be ba egozan itxas-gaiñeko ermitak eta euretatik bedeinkatzen zan itxas inguru guztia. Onetarako ez egoan egun berezi bat, erri bakoitzean erromeri eguna baiño.

Liburu eder bat agertu da oraintsu, "Arrantzaria" deituraduna.

Bere idazle dan Arbex'ek diñonez, egun baten Ondarroa'n gertatu zan bertako ontzitegian ontzi barri bateri asierako oiñarri lez killa ipinten ebiltzala. Lau arrantzale ikusi zitun itxas lantegira joaten, garbi jantzita. Eta euren aurrean arotz batek trintxa eta mailluagaz zulo bat egin ebala killa orren egur-lodiera baten, eta arrantzaleak euren patrikeretatik domiñak eta estanpak atara zituela eta zulo orretan sartu, eta arotzak ori egin ondoren zulo ori barrero bear zan lez estalduta laga ebala.

Lengo gizaldietan, eta orain be bai asko, arrantzarako ontziak santuen izenez bataiatzen zituen. Eta au be oargarri da, gure arrantzaleak txalopa orreik "bataiatzean" euren onspeneko santuen izenaren gain, arima "fielen" deitura geituten eutsen: San José y Animas, San Pedro y Animas eta abar.

Gogoragarri dira baita beste oitura batzuk.

Esateko, Aste Santuan kaletako ibilaldian erabiltzen ziran santu irudiei, orratzak ipinten eutsezan jantziei aizearen erasoetan eusteko, baiña orratz orreik gero, txalupetara eroaten zituen andrazkoak, bertako sare, tretza, aparixo, bela eta abarrei lotu eragiñaz, zoriona emote ebela-ta, edo ziurtasuna ibilteko eta ugaritasuna arrantzarako. Batez be onspena.

Ortik ba egoan siniste au: Antxoarik ez dala ganoraz agertzen, santuak kale-ibilaldian aizetu, oreatu barik.

Gero oiturazko zan Erramu domekan eleizan bedeinkatutako eriñotz zatiak txaloparen atze ta aurre ipintea, bai eta tximinietan, ontziak tximinidunak ziranetan, bertako kate edo loturetatik dindilizka.

Arrasterako era agertu arte "bajurako" arrantzaleak iru arrain denpora edo

aldi eukiten zituen berezien: Antxoa sasoia, San Jose inguruan asten zana; atun sasoia, San Pedro egunaren biaramonez asten zana eta besigu denpora. Onetaz ba dakiguz esaera batzuk: Santa Katalina noiz da, besigutarako goiz da. Edo ta San Txilibristo (Silbestre) besigua ezpanetatik dindilizka. Edo ta San Anton, besugos al monton.

Txalopa bat lenengoz uretara jaurti ondoren itxasora probak egitera urten bearean gertuta egoten zanean, bedeinkatu egiten za. Barruko izango ziran arrantzaleak alkartuten ziran txalopan bertan, eta abadeak bedeinkatu egiten eban eta patroiak bedeinkapen ori ziurtatu, txaloparen aurrean, erdian eta atzean, toki egoki eta agirietan aizto bategaz egiten zitun kurutzearen irudi edo marren bitartez.

Ontaz lauki (kuadru) polit eta biozkor bat egin eban Benito Barrueta Asteinza bermeotarrak eta Bermeoko Arrantza Museoan gordeten da, bertarako egille berberak eskiñita.

Portu batzuetan arrantzaleak mareagaz batera egin bear izaten zituen itxasorako urtera eta sarrerak. Origaitik sarri gertaten ziran domeka eta jaietan meza entzuteko egokitasun barik. Eta arrantzaleak, "arimenak" jota gero jai bezperan edo ta goizaldean, albakoa jo baiño len, "eurentzako bakarrik balio eban" meza eukiten eben eta iñok ez eban itxarora urten nai izaten meza ori entzun barik.

Arrantzale Kofradi etxetan turrinak ipiñi baiño len, urtero deilariak aukeratzen ziran urte guztian zeregin ori beteteko, au da arrantzalei itxasoratzeko ordua zala kalerik kale eta aterik ate joateko, eta gau berandu nai goizalde gordiña gertatu, euren zeregiña zintzo beteten eben, deitzat esaera au erabiliz: X (izena) jagi itxasorako Jaungoikuaren izenian!

Eta arrantza era batzutan Eleizari lotuta ikusten dira arrantzaleak. Ala, esate baterako, bale arrantza edo eizan, bale bizarrei buruz, oiturazko eben irutik bat eleizari eskintzea.

Eta arrain sasoiaren asieran, au da, antxoa, atun, besigu ta abarretan, lenengo arrantzaten zan arrainik guriena abadeei eskeintzen ekiezan.

Atun denporan atun "sasoiaren", arrantzaleak gure kaietatik Santander eta Asturias aldera joan bear izaten ziran eta andik ibili illabete parean. Denporaldi orretan arrantzalien senideak, andrazkoak batez be, erriko ermitetan batzen ziran egunero, arratsalde erdian, auzo edo inguruko aldretan, gizonen aldeko otoitz eta erregu sentikorrek egiten.

Itxasotik etortean, sarri ikusten ziran arrantzaleak itxasoko estutasunen baten egindako promesak beteaz Andra Mariaren ermitetara ortozik edo belauniko joaten.

Ekaitz larri eta gordiñetan ba ekiezan Salbeak eskintzen, edo ta "Miserere mei"ak abestuteak agintzen.

Kaietatik itxasora urtetean, oiturazko zituen ainbat errezu. Bardintsu erri guztietan. Ondarrutarrak, esate baterako, arrantzarako urtetean, ibaian bera parroki ondotik igarotean, baijan, barratik urteeran, Santa Clara azpian, Salbea, Aita Gurea, Agur Maria, Sinisten dot eta abar esaten zituen toki bakoitzean bat, eta geroago,

itxas barrurantz eioazala edo ta ebiltzala, oiturazko eben agurtza deuna egunero otoiztutea.

Eta beste ainbat orrelako.

Gose denporetan edo ta arraiñik ezaren aldietan, inguruko ermitarik ezagunetara joaten ekien erregu larrietan.

Onetaz gogoragarri eta erakusgarri da Uetena taldiak "Bermeo" Aldizkarian diñona: Bermiar andrak Markina'ra joan zirala bein, Arretxinaga'ko Mikel Deunaren ermitara, eta ara sartu eta bereala asi zirala:

"Emen gatoz gu, San Migeltxu, ezpresa ta diretamentien sugaz berba eitzen. Emon ein gero guri arrañe! Etxasku guri kosta gitxi onaño etortieta. Bakisu tasista lotsabako onek senbat kobra deuskun? Irureun peseta! Emon ein gero guri arrañe! (Bermeo, I, 294 orrialdean)

Lengo arrantzaleak erramuetan asko egin bear izaten ebenez, gaurko osagarri barik egin be, sarri ibiltzen ziren mozkorrak zaldarrez eta puslaz beteta. Orrelakoetan ba ekien inguruan eukezan ermitetara joaten, Lekeitiarrak Gizaburura, Ondarrutarrak BerriatuTa, Bermiarrak Gaztelugatxera eta abar, eta ango eleizetan argitarako orioa artu, ordezkoa lagata, eta aregaz igortziak egiten.

Eta iñoiz ermitetako santuei zatiak be kendu eutsezan, itxasoan, euren estutasunetan, munda erabili eta itxaropena barriztu al izateko. Paperetan irakurten danez, Ibarrangeluko san Pedroren irudia zearo urratuta dago, berari otoika jardunagaz batera, arrantzaliak zatiak kentzen eutsezalako kutun lez eroateko.

Eta orrelako ainbat oitura, erriz erri batzea komeniko litzakenak, gerokoak gure siniste eta erabideko gauza asko jakin dagiezan.

(Karmel, 1985-1, 84-88)

SAN JUANAK

Ba guaz suen oiturak errietatik aldentuten eta galtzen.

Len ez egozan arrisku eta aitzakiak dagoz gaur bitarteko. Eta len bezin indartsu eta gartsu ezin egin leku askotan.

Alaz eta kosta egiten da San Juan suak euki eben arrakasta galdu eragitea.

Ondarroa'n, estropadetako bandera zaletasunetik nunbait, egun onetan be garaitza lez bandera izena erabilten da kalerik kale umeak erabilten dituen abestietan : "Kale Andik irabazi bandera nausia" edo ta Goiko-kalek irabazi nai Astilleru edo beste su toki biurtzen diran kale izenen bat erabiliz.

Ez dira suak bakarrik.

Bertan erabilten diran kantak dira:

I *San Juan 'ek diño bere egunean
zelebratzeko fiesta,
kastigatua izango dala
lana egiten dauana.*

Orren atzetik, errepika lez, au erabilten zan:

*San Juan, San Juan,
San Juan Bautista,
zelebratu daigun
gaur gure fiesta*

Batzuk, orreri, beste errepika bat be geituten eutsen.

*Gorri gorri
gorri zara zu.....*

Baiña oker esan edo erabilia da deitura ori. Ba dirudi "estribillo" ori zezenak bitarteko dirala asmatua dala. Eta ez dala gorri, korri baiño, erabili bear dana, zezena datorrelako eta zezenak zapaldu ez daian, arin ibilteko esanez.

Edozetara be San Juan eguna, Doniane eguna, egunik ospatsu eta pozkorrena da gure inguruan.

Giro eta gogo, ospatutzera deitzen daben eguna da.

Bizkaia'n, gaur, irureun inguru parroki batuko dira. Ermita eta baselizak kontuan euki barik.

Parrokien artean, mordo bat Jon deunari eskiñiak. Gogoratu Atxondo (Axpe), Bedia, Ea, Gabika, Loiu, Murelaga, Orozko, Karrantza (Pando), Santurtzi, Somorrostro, Sondika, Ubidea, Zornotza (Larra) eta abar.

Baiña ez da parrokirik bear toki askotan, egun oneri berea emoteko. Ia erririk geienetan dagoz izen orretako ermitak. Origaitik uriburuan ez ba da auzoetan, kalean ez ba da baserrietan, nun nai igarriko dira jai eta erromeri itxurak.

Erriz-erri ibili ezkeru, Murelaga'n laster jakin eragingo dauskue onelako zerbaít:

*San Juan Bagillean,
denpora ederrean,
edozein bedarrek usaiña dauko
Donniane goizean
Da San Juan,
beti oi zaukadaz goguan.*

Andik Berriz aldera aldatu eta Garai inguruetan onelako esaerak sartuko dauskuez, kantu zarren doiñuetan:

*San Juan, San Juan,
nik ez daukat besterik goguan:
arrautza bi kolkuan,
beste bi altzuan,
artoak eta gariak gorde,
lapurrak eta sorgiñak erre.*

Ain zuzen be, gure zarren suak, piztiak eta sorgiñak erretoko aitzakiz egiten ziran. Eta benetako sinistez kantuz gogoratu:

*San Juan, San Juan eldu da
sorgin begia galdu da,
galdu ba da galdu bedi,
sekulan agertu ez ba ledil*

Beste toki batzuetan, Bernagoiti'n lez, pizti eta sorgin ordez, lapurrak ditue erregai:

*Gaur dala, biar dala Doniane,
etzi San Juan Biaramone,
gure soloan lapurrik ez
ba dagoz bere erre beitez.*

Gogoan daukat, aldi onetan, Iparraldean, Itxasou'n, ospe eta entzute andiko egun bat ospatuten dala: Keriza eguna. Gaitz billatu beste erri baten Itxasou'n aiña keriz arbola inguruan. Origaitik bertakoak igali orreri urteera emoteko jaia ospatuten dabe igande baten, ain zuzen be keriz-ondoak betien eta ikusgarrien dagozan aldian.

Bizkaia'n be Itxas gaiñean dagon Natxitu'n eta ingurutan frutu orren aipamena egiten da eurretan urte luzetatik kantatzen dakiezan abesti zarretan:

*Gure ortuan ginda lorea
San Juanetako eldua,
San Juanak baiño lenago
gure auzoak batua.*

Askok gogoratzen doguz Euskalerrian keriza arbolak sortu dituen atsekabe eta ondorenak.

Frutuz apain eta zirikalari diran arbola orreik, frutuz aberats eta indarrez argal

dira. Eta euretan ibiltzen diranak, igarri barik, paradisuako sagarrak lez zirikatuta, jausi egiten dira sarri, arbolatik jausi eta itsutasun eta baikortasun larregiaren sarean jausi, eta min, neke eta malako ugari sortu eragin eta inoiz eriotzaren eskuetan galdu.

Erriaren bertsoetan ba dago ortazko zerbait. Gogoratu:

*San Juan, San Juan goizean
atsoa gindare gainean,
agurea azpian negarrez.
il eztaiten bildurrez*

San Juanak, Donianeak, ez dira aberats kanturik eta suetan bakarrik. Bestelako siniskeretan be ugariak dira.

San Juan goizean ebagiten dan bedarra, beste egunetan ebagia baiño gozoago izaten dala esango daukue toki askotan.

Ortik nunbait gizakien ule ebagiteak be. Zeanuri'n amumak ulea ebagiten dautse illobei, gero ondo garbitu eta orraztu be bai. Osasungarri ei da. Egun orretan ulea ebagi ezkerok, gero bardintsuago asten ei da.

San Juan eguneko intzari be ba dakie onoimen berezia emoten. Origaitik egun-sentian, billoizik, belardietako intzaz gorputza bustitzeko oitura daukenak ba dira oraindik.

Ez ori bakarrik. Elorrio inguruan amak ez dautse euren alabei eguna etenda gero ordu asko lotan lagaten. San Juan egunean goiz dabillena, ala ibiltzen ei da urte buruan.

San Juan eguneko bustialdia, Napparroan be ezaguna da. An gabeko amabietan erreka edo ibaietan bustialdia artzeko oiturea dago ta gero txokolatada bat. Eta inor ez ei da otzez gaixotuten egun orretan.

Igantzi'n ba dago San Juan Iturria eta ara joaten dira karetxak daukezanak.

Jakiña da beste esaera a:

*La mañana de San Juan
madrugan todos los calvos*

Ba dauka egun onek, izan be, alako zerbait.

Luzaide'ren azpian, auzo txiki bat dago: Ondarroa. Euskal lurrean, "prantze-sa" erri legez eta "español" elizaz. Ango zarrak eguzkiari Joanes deitzen deutse egun onetan. Eta euzkia sartzean, oiturazko da etxeoandreak euren senideak batu, leiora urten eta berari begira jarri ta otoi egitea, esanez: Biar artio, Joanes. Ager biar muga onez.

Merezi leuke San Juan oiturak zabal batzea. Baiña ba dakigu zer gertatzen dan: San Juan, nekez etorri ta arin jua. Ori beti egia.

(Karmel, 1985-2, 84-88)

MIKEL DEUNAREN INGURUAN

UME-UMETATIK

Ume umetatik erakutsi euskuen San Miguel gogoratzen. Gure denporetan, eskolan, erderaz.

Oraindik ezer egiten ez genkian.

Ez egoan gure umearoan gaur lako boligraforik. Lapitzak edo ta tinta lodia. Eskoletan tinta geiago erabilten zan. Eta orduan genduzan plumillak errez batzen eben euren inguruan tinta lodia. Jakiña, ainbeste eroateak mokoloia sortzen eben paperetan, idazten asi ordukoxe.

Gu ondar errian bizi giñan lez, ondar legorra erabilten gendun mokoloia idorteko, sikatuteko, ta orrelakoetan ba gendun kantu berezi bat ere:

*Sikatu plana, querida santa Ana,
sikatu papel, querido san Miguel
Satana amandria, san Migel aingerua,
eutsi paper bustia eta ekatzu barria.*

Orrela, Euskalerriko umeak, era batera edo bestera, aingeru onen izena ia jaiotzatik ikasi eta erabilten gendun.

ARRETXINAGA'N

Eta egun au dala ta nundik ibili?

Mendian jaiok mendira nai, esaten da.

Guk, Markiña aldekuok, ala deitzen dauskue-ta Xemein'era joatea dogu aukesatsuen.

Au be txikitatik sartua dogu:

*Aita san Migel Arretxiñako,
zer dogu apaitarako ?
-Orio aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.*

An dago ermita bakan bat: Arretxiñaga. Iru aitz-zati, alkarri eusten, eta antxe aldarea. Bakarra baiño geiago ezagutu genduzan bertan.

Itxuraz gaur len baiño agiñeko min gutxiago egoten da. Baiña len san Migel ikusten eben asko santa Poloni'ren bitartez joaten ziran. Euskaldunen oitura zan agiñeko miñak jotean, santa PolonLri mesede eske aurreratzea. Orrelakoetan eleizako aitzari zatitxo bat kendu eta arri ori erabilli bear zan agin artean. Ori egiñaz miña joaten zan sinistea egoan.

Ba dirudi gaur ikusten dan lez, Arretxiñaga'ko eleiza, 1735 urtean jasoa dala. Lenagokoa, zarragoa, Xlgarren gizalditik etorralla esaten da.

Arretxiñaga'ko ermita au dala ta Markiña Xemeingo baserri baten, Erretolaza'n daukezan paper zarren artean, batu neban bein berari dagokion agiri bat.

Irudi barri bat bear eben arako, eta 1824ko Irailla'ren 24'an egin eben kontratua Madrid'en ertilariak dauken San Fernando izeneko Akademian. Ezaguna zan garai aretan eta ospe andia eukan irudigille lez Esteban Agreda'k. Areri agindu eutsen irudi au eta bertako beste ikasle ta irakasleak on eritzia emon eutsen Agreda'ren lan oneri.

Arretxinaga'ko aldarea 1626 urteko Dagonilla'ren 17'an sagaratu (konsagratu) zan. Orduan egin ete zan? "Quod altare veneratur et devote colitur...", gurtu eta fedetsu zaindu zala, diño orduko idazkun batek.

ZARRENA ZEIN?

Ori izaten da askoren jakin naia.

Itxuraz Aralarkoa, erantzun bear.

Orduko zeaztasunak eukitea zail izanarren, sinistea da Aralar'eko lenengo eleiza 707 urterik datorrela. Sinistea dan lez aingeru orren ezaupidea, gure errian, Euskalerrian, Aralar mendiko baselizatik sartu zala, eta ordutik gure zaindari lez bera ezagutu

Aralar'en orain ezagutzen dan eleiza Xllgarren gizaldikotzat dago, eta diñoenez lengoaren zatia zaindu egin zan. Gauza ziuerra au da: Santxo Nausiaren erregetzako agiri baten, 1027 urtean, lenengo eleizaren barri emoten dala.

Ez da ba arrigarri, gure fedeak ain gogoan eukitea Aralar eta gure bertsolariak be, aukera billatzen dabenean, bera goratzen agertzea, gure urretxindor izan zan Kepa Enbeita lez.

*Mikel gongotzon, gure zaindari,
zure almenez betia,
goitar ezpataz ebai zenduna
Luzbel'en gudaroztia,
Aralargaindik ikusi ondo
non nai sortu dan nastia,
Ondamendiko txarren menpetik
azkatu ludi guztia,
batez be, baña, zeure zainpeko
gure erri maitia.*

TOKI GEIAGOTAN

Esaera zarra da, Maria Oñate'ren trumoia eta Markiña'n euria.

San Migel'egaz be lotu geinke esaera ori. Ba dakigu Oñate zaindari onen zale-tasun andiko dala-ta.

Gipuzkoa'ra begira, ainbat toki billatuko doguz urteko jai lez gogoratuko dabena edo ta egun berezi lez artuko dabena. Ara batzuk: Agiñaga (Eibar'koa), Aizarnazabal, Aldabe, Alzaga, Angiozar, Apozaga, Maltzaga, Elgoibar'eko auzoa, Gaintza, garagartza, Irura, Laurgai, Urnieta, Ursuaran eta Zumaya'ko Artadi.

Bizkaia'n bertan beste ainbat toki Ahedo eta Arzentales, Karrantza aldean; Olarkoaga eta Zalla Enkarerrietan; Ispaster, Altamira (Busturi), Ereño, Garai, Arrazola, Bernagoiti, Sestao eta Begoña ańdian. A, eta Iurreta.

*Aita San Migel lurretako,
zeru altuko lorea,
agura zarrak dantzan ikusi
eta ak egiten yok barrea!*

Bizkaikoen artean, Ereñozar'ko ermitan, gaur beste nunbaiten ba lego, ziurretik bertara joateko aukera eta egokitasunez beteta egongo zala uste dot, toki zoragarri eta ikuspegi zabalagoko gitxi billatzen diralako aĩnakorik.

OITURAK ETA ESAERAK

*San Migel, eldu sakidaz emen
— San Migeletan il berri,
erosi zak idi berri.
San Migeletan il-zar,
saldu zak idi zar.
— San Migel il berriko elurra,
neguko ta maiatzerańoko elurra.
— Buruillaren ondarra, Jon doni Mikele,
maitea ikustera eldu naiz ni ere,
baldin plazer ba duzu, otoi, jeiki zaite,
zure or ikustia desiratzen nuke.
— Atzo San Migel, zakidaz emen;
gaur, ilda baińo obe erren.
— San Migeletako aizea, amagińarrebarentzako baińo
erraińaretzat obea.*

Esaera orreitako batzuk, Naparroako Oskoz'en erabilten diranak dira. Besteak Beruete'koak. Beraz, bakoitzak bereari tenga, au da, baserritarrak euren giroari, eta edur eta abererik ez dogunok, gure inguruko siniste, dantza eta oituretan jarraitu bear.

Batez ere udako galda eta beroei agur egin, ondartzetako eguzki artzeak laga eta bakoitzaren etxeari begira, gurea baińo goragotik bear dogun laguntzetan gure aingeru zaindari au gogoetan dogula.

(Karmel, 1985-3,101-104)

JOERA BARRIAK ARRANTZAN

Arrantza kontuan españar estadu barruan jokatu bearrean arkitu gara oraiñarte. Eta españar estaduko arrantzaleak CEE'n, au da, Europar Ekonomi Elkartearen menpean edo ta afrikatarren mende egon izan dira gein bat urte oneitan.

Noiz-naiko gertaeretatik erraz ikusi eta igarri lei ori. Or dira lekuko ainbat era-soaldi, europar edo Afrika'ko ertzetan.

CEE beretzako artuta daukazan uretan, batez beste, bost milloetonek inguru an-antzen dirala esaten da, urteko. Ortik ba dirudi zati andia españarren kontura joaten dala, au da, Europa'ko itxas-ertzetako arrantzale estaduetan, España, bere indar eta garrantziz, irugarrena dalako.

Danok dakigunez, oituraz eta izatez danontzako ziran urak, mugatu egin ziren, merkatu komuna sortuaz batera. Orrek itxas politika bat ekarri dau. Guretzat, euskal arrantzialientzat geien be, kaltegarri izan dana.

Zegaitik?

Gure itxas egitura, libertadean jokatzeko eran sortua dalako eta alaxe eutsi eta erabilia.

Urak mugatzeak ez dogu esango guri bakarrik kalte egin dauskunik. Ba dagoz beste erri batzuk be ori ikusi eziñez, nekez irunsi dabenak.

Baiña gure egiturari zotin eragin dautse. Ikusi, esate baterako, Pasai zelan bertatu dan arrantza saillean azken urteotan.

CEE edo Europear elkartean jokabide bi ikusi dira argi.

Erri batzuen esanetan, europar merkatua, Elkarre orretan batuta bizi diranena izanarren, itxas onurak eta ondasunak bere inguruko erri bakoitzarenak dirala, eta erri au dala euren onura artu, banatu, zabaldu eta bertako ondasunekin baliatu eta aberastu bear dana.

Ori dala dirudi Irlanda, Ingalterra eta Dinamarka'ren pentsabidea.

Besteak, Frantze buru dala, merkatu batuak itxaso batua eskatzen dabela, au da, merkatua danena ba da, era berean itxaso be bere onurekin danena izan bear dala.

Estadu bakoitzak bere uren eskubidea berreun milletara zabaltzeak, ez dau esan nai izan ur orreitan bertako arrantzaleak bakarrik ibiliko ziranik, ur orrean eskubidea eskatzen eben erriko arrantzako ontziak bakarrik bertan ibiliko ziranik.

Irlanda'k, esate baterako, lege zabaleko berreun milla orrean barruan, barrurengo 50 milla gorde nai izan zitun beretzako bakarrik, itxasertzaren egaleren egiten ziran berrogetamar millak. Ez dau nai beste iñor eurretan sartzerik, nai eta Komunitadeko barruan dagozan txalupak izan. Origaitik bere lege gogorak, bere zotin eragiteko zigorrak, multak, toki orrei barruan artu edo arrapatu izan dituenentzat.

Irlanda'k ba dauka orretarako bere errazoia.

Irlanda'k arrantza giroa eta arrantzako bizimodua ugaritzen dua. Itxasontzi barriak be egin dira tresna asko barriztu ere bai.

Ba dauka esperientzi bat be. Ain zuzen bere 50 milla orreitan uretan arrantzaten zanetik artua.

Jakin bear da Irlanda inguruko 50 milla orreitan, arrantsu on eta aberatsak egiten zituela aspaldiko urtetan emengo askok. Eta ori, begien aurrekoa eskutatzea, gaitz.

Beste aldetik, ingelesak oituak dira beti ur andietan ibiltera, eta ezin leikie irlandarren eta benogetamar millen barruan jokatura pozik gelditu.

Itxaso zabalaguak bear ditue ingelesak. Toki geiago eurentzat. Kontuan euki bear da onetan euren indarra eta ugaritasuna andiago dirala. Ugarte (isla) bateko bizibideak nai ta ez itxasora begirako jokabide, ondasun eta alegin geiago eskatzen dau. Lurra bezin aberatsa da itxasoa ogibidean, arriskutan be zitalagoa dala ukatu barik.

Ingelesen esanetan etxeko itxasontzi txikien aurka jokatu bear ko leukie, irlandarren era eta arauetan jokatuz, eta eurak, ingelesak, ur geiago eskatzen dabe eurentzat bakarrik. Ez ei dabe gerrarik nai etxean, anai artean, arrantzale artean. Etxean ei dauke buruauste ugari, ta bertakoei kalterik egin barik, berrogetamar millak etxeko itxasontzi txikientzat bear, ogetalau metroko ontzi luzera edo esloraz ez dauken txalupentzat, beti be inguru orreitan ibillitakoentzat. Eta ez itxas zabalagoa besenteentzat.

Edozetara be, orrelako eskabideak larritasun ugari sortu izan dabe azkenn urtetan eta milla traba eta eragozpen ipini, emendik, mesede lez, joan bear ziranentzat.

Zeaztasun orreik alboratuta, goazen gaur-gaurko kontuetara, denporak eroan gaituen oraingo egoerari gure taiua artzera.

Zelan geratuko dira gure arrantzaleak merkatu komunean sartzean?

Asierako esan daigun, gure-gure izan diran arrantzalen Kofradi txikiak, arras-teko arrantza erabidea sartu ezkerok, bizi erdi galdu izan daben Kofradi txikiak; kai bakoitzean bat edo batzutan bi egozanak, gorputz bat lez osotu bearra euki dabela Kantauri itxas-ertzekoen artean, merkatu komunean sartzean bear ko dan tokietan, danen izenean, gizaldien gizaldietatik datozen euren eskubide eta anantzu erabide-tako euren abotsa indarrez eta pixua agertzeko eran. Ori "bajurako" deitzen diran arrantzalienen aldetik egin dabe.

Beste arrantzaleak, "arrastra" erakoak, edo "alturakoak" deitzen diranak, gauza askotan aldatu bearra eukiko dabe.

Ziurretik kupo batzuei lotsa gorde bear ko dautse. Itxasoan ibilteko egunak be, bear ba da, mugatu egin bear ko ditue. Arrain motak arrantzateak be baldintzatu bear.

Ez ori bakarrik.

Ondarroa lako portuak, kaiak, merkatu komunera begirako kai lez jarraitu al izateko, kaian arraiña atara, garbitu, saldu eta tratuetarako europar erabidetera moldatu eta egokitu bear ko dira, legorrean be arraiña dauen agirian eta jakiñean atara, garbitu, saldu eta tratuetarako. Orretarako arrain erabilteko tokiak moldatu bear ko

dira, gaurko bodegetako oitura eta erabide asko bastertuta. Dirudienez bai osasun bidetik, bai komertzio legetatik, bai arrantzen neurrietarako eta kontrolerako, zergaen ezarpenetarako eta abar, beste jokabide batzuk artu bearra egongo da.

Beraz europar Ekonomi Elkarateak lotuera barri asko ekarriko dauzala sinistu eta irunsi bear.

(Karmel, 1985-4, 48-51)

GABONAK ETA ERREGEAK

Urtero gabonei begira. Zertarako ?

Orra Mari Gabon tanboliñari eragiten.

Gaztañak erreten? Nungoak?

Anaietan pentsaten? Nungotan?

Bakeari kantaten?

Arre arre astotxoa...Baiña egazkiñak Belen'en.

Orio aza eta besigu errc.Ez alperrik begirik ketan erre.

Esnedun arroz eta intxaur saltsa....

Gabean lo egiteko zer da obeago, urdal betea ala kontzientziko bakea?

Gabonetan ez al da bear gau-on?

Gabonak! Zeru goietan izarrak eta beietan bizarrak. Gaur be loreak arantzak, eta bitsa txanpanak.

- Amuma, ogi koskorrik ez dozu bedeinkatu? Eta ari zuriagaz lotu be ez? Aldatu egin al zara? Kontzientzian arindu? Zorakeriak uxatu?

- Nik ogi koskorra gordeten neban, eta gabonetik gabonera sekula ez zan lizundu.

Zure tximurrak, orde, diñoste, azpaldi ziñala lizundu edo ta gaztetasuna galdu.

Gabonak. Ez gaitezen txitxi-purdika.

Familiak alkartu dira mai zabalaren inguruan.

- Aulki ori zer dala ta uts? Jesus umearen eskarian?

- Txeru guriaren oroitzan

- Oroitza be oitza da.

- Ala artzen danetan.

Amumaren tximurrak eta seme gaztearenak zenbat alderantzi?

Azken urte oneitan errekaizea nausi

*Jaio da, jaio
Jesus Umea Belenen,
Gabon gabontzeta,
Yosepe, jo tronpeta....*

- Zer dabilzan kantari Mari Gabon? Zorionik igarten al duzu iñon?
- Esperantzarik ez balegoko, ez litzake ezta ametsik. Illargira ez giñan elduko illargirik egon ez ba litz.

Eragin tanboliñari. Alako baten Jesus'en izarrak ikutuko dautso borondate oneko gizonari.

Goazen aurrera.

*"Trakatan, trakatan, Iru Errege,
trakatan, trakatan Belen 'era "*

Ba al dogu onetarako sentimenturik?

Ez? Aida beia, aida, aida! Orra umeak akuluka. Zeiñek orrelako akuluen zaz-tadarik artu ez?

Baiña ba ete dogu arri oliorik be aurrera joateko? Ez bildurtu:

*"Kamellutan oraintxe jinat
iru gira,
Herodes 'ek igorri gaitu
Belen 'era "*

- Esan, Peru, benetan: Sinisten al dozu Erregetan?
- Sinisten al dozu zeure etxean errege zareanik be?
- Egiz, urte garratzetan sartu gara, giro gordiñetan.
- Eta len? Aidean dabilz kantuak:

*Zeruko Erregea
jaio zan orduan,
munduan
Herodes Erregea
enbidiaz betea
bildurtuten asi zan.*

Konturatzen? Bildurtuten asi zan. Zegaitik? Zeren enbidiz?

Gizonkeriak. Edo Kontzientzia.

Egun onei, gabonetakuak, ezin ukatu kontzientziari deia diranik. Edozein kantu, olgeta-benetan, gizonari deia dira; eupada bat, esna-aldi bat, irrintzi bat.

Urte barriz atean deituko dautsue:

*Urte barri barri,
txarri belarri,
daunak eztaukanari
emon bear sarri.....*

Or gizona gizonari deika. Anaitasuna eskatzen.

Baiña gizaldien gizaldietatik dator gizonaren gogorkeria.

*Or goian etxea, jo daigun atea,
giz.onak bentanara nekez. urtetzea!*

Eta gizona errege da. Baiña ez bakarrik norbere umeena.

(Karmel, 1985-4, 87-89)

ARATUSTETATIK PASKOTARA

Aratusteak (iñauteriak, karnabalak) ba euken len alako entzute bat. Bear bada barau aldien bezpera lez artu eta jan-edan eta atsegiñei nasaitasun edo basterraldi apur bat emon nai izaten zan egun oneitan.

Gure erria, erri pobrea izanik, ez eukan egun oneitan jai andiak egiteko ez dirurik ez girorik. "Mamu" jaztea izaten zan egitadarik atsegiñena, edo andrazkoen eran jantzi eta kaleetan ibiltea. Gaur egiten diran antzeko gaztu barik.

Arrantzaleak oiturazko izaten eben urtean bein-edo, euren txalopei garbitasun berezi bat emon eta margotzea, pintatzea, eta zeregin ori txalupa bakoitzeko gizonak egiten eben aloger barik.

Ordez, arrain denporetan, diru apurkak lagaten zituen baltzuko kontutik, egun oneitan apari-merixenden bat egiteko. Eta orrela danak pozik.

Egon zan, baita, egun oneitan taldetan ibili eta beste jai batzuetan lez, bertsoak abestuz kalerik kale eskean ibilteko aldiren bat be. Ba dagoz ortazko kantu zarrak:

*Alkate jaunan baimenarekin
bakian gera atera,
kalerik kale kantuan gatoz
karnabal zelebratzera.
Urten guztiok balkoietara
mariñelak ikustera,
gauza ontxo bat emon egizu
limosneria ba zera.*

Auts egunez, nai ta bezperako ajea euki, banakak geratzen ziran goizeko meza-tan autsa artu barik. Denpora areitan ez zan egoten ez arratsaldeko mezarik ez eta eguerdikorik.

Eta auts eguna "lapak jateko eguna" esaten zan. Bijilia.

Esan bearreko da ba egoala egun oneitan beste oitura bat be : Kandelarioz

torradak jaten ziran etxeetan, ai az egiñak, baiña aratustetan fotagaz egiñak, au da, ogi arolagaz.

Irugarren aratuste egunetik Bariku santu egunerarte, Musika taldeak, Bandak, jai artzen eban eta ez zan dantzakorik egoten. Bardin txistulariak. Oneik, jai bezperetan oraindik be oiturazko daben kalez-kalezkoa joteari be itxi egiten eutsen, eta gaur be oitura ori gordeten dabe garizuma bitartean.

Bariku guztietan gurutzetakuak eukiten genduzan garizuman. Eta domeketan, bezperen ondoren "Miserere mei" abestuak, kandela moretu ta guzti. .

Len, parrokoak izan ezik, abadeak ez eben sermoirik egiten, gaur lez. Alaz eta garizumako domeka arratsaldetan, txandaka egiten eben (Maiatzeko domeketan be egiten eben lez) baiña Garizuman eleizako leio guztiak be estalduta, illunpean, itzaltasuna obeto sartu eragitearren.

Eta garizumako igande arratsaldetan, bezperak amaitu ondoren, mutil txikiak dotriña eukiten gendun, aldara nausian, erriaren aurrez-aurre, parrokoak pulpototik itaun egiñaz.

Barikuetako aragi usteak, zeatz beteten genduzan. Zabaldu be ez zan egiten, garizumako barikuetan arategirik.

Aste Santua, esateko, aurreko Barikuan asten zan, Ama Nekatuaren egunean. Egun onetan eleiz barruan egiten zan ibildeuna, eta Andra Mariaren irudiari, bere kapa baltzean, andra "piadosa" batzuk oiTatzak ipinten eutsezan, eta gero, orratz orreik txalopetara zabaldu, antxoatako sareei ipinteko, orrela bedeinkapen on bat eta zori ona emoteko fede onez. Bardin egiten zan Aste Santuko ibildeunetan ataraten ziran irudiekaz.

Erramu egunez goizean bedeinkatzen zan eriñotza, ate guztietan ipinten zan eta itxas ontzietan be bai, tximinietan eta agaetan. Baserritarrak be solo guztietan ipinten zituen txortak. Ostera abade eta erriko agintariak kanpotik ekarten ziran "palmak" bedeinkatu eta urte guztirako balkoirik onenean ipinten zituen.

Eguen eta Bariku santuz, Aita Bastarretxea ipaztertar jesulagunak orain ia berreun eta berrogetamar urte egindako pasiñoia kantaten zan eleizan. Orretarako abadeen eleizkizuna baiña ordu bete lenago joaten zan erria eleizara. Eta "Kristo" bizia egiten ebana eta apostoluak eleiz erdira urtetan ziran eta pasiño ori abestuten eben, damuzko errepika be kantuz egiñaz. "Kristo" k pasiñoia bertsoan abestu eta erriak estrofa bakoitz ondoren, "damu dot Jauna'ka" erantzun. Gure zarrak "pasiño" orretako irurogetak estrofak buruz ekiezan. Eta abadien ordua elduten zanean, sakristaua joaten zan apostolu batek biztuta eukiten eban kandela amatatera eta ori izaten zan amaitu bearraren ezaugarria.

Eguen santuz monumentu andi bat ipinten zan eleizetan. "Kristoren kartzela". Kanpairik be ez zan jotzen bein eguneko "gloria" abestu ondoren, pasku eguneko gloria arte. Eta paskuko biztuera au, kanpai, bolandera eta abarrekaz adierazten zan, eta errian egozan itxasontzi guztiak be euren turutak jotzen zituen kanpaiekaz batean. Esan bearreko da, garai aretan ez egoala gaurko "sirenarik" eta arrantzaleak,

arraíñagaz portura etozanetan euren turutekaz iragarten ebela etorrera ori, baiña egun oneitan ez eben txisturik joten, naita arraiñez beteta etorri tarteren baten.

Bein, eguen santuz Jesus bere monumentuan sartu ondoren, parrokoak alkateari emoten eutsen monumentu orretako sagrarioko giltza eta alkatea izaten zan Jesusen kartzelako ateko giltzaren zaindari.

Eguen santuz, abadeak, alkatea eta beste agintari batzuk, parrokoaren etxean batzen ziran bildotsa jaten.

Oiturazko zan ibildeunetarako apostoluak, Madalena, Beronika, Zirineoa, iru Mariak, San Migel, "palazeroak" eta abar, andra gizon bizi iruditzea, ortarako jantzita. Kristo berbera buru zala.

Gerra aurretik, "Aita Eternua", "Sanjuntxu" eta Ama Doloretakua erabilten ziran kalez kale, bitartean apostolu eta beste irudi biziak.

Barikuz, "Sanjuntxu", Kristo txikia, Jesus illa eta Ama doloretakua, egun one-tan jantzi ederragoekin.

Geroago asi ziran ortu Santua eta Antigua'ko "Nazaretarra" erabilten.

Apostoluak, bariku goizean, Santa Kutz'eko ermitara joan bear izaten ziran, kurutzetakuak egiñaz, ortozik.

Bariku arratsaldeko ibildeunean agertzen zan erriko musika banda, eresi itzalak jotzen. Eta orrek, gaztediari poza sartzen eutsan, "garizumea" amaitu zala-ta.

Irudi biziak egiteko jazten ziranak, eleizpean egoten ziran Bariku santu arratsaldean, gurutzetakoak eleizan egiten zituen artean. Eta ain zuzen be amabigarren geratualdian, "estaziñoian" zabaltzen eutsen ate nausia, eta orduan asten ziran "palazeroak" euren makillekaz beia jotzen eta alaxe sartzen ziran eleizan, lenengo "palazero" bi danen aurretik, gero beste irudigille guztiak eta azkenean beste "palazero" biak. Eta azken oneik aldara aurrera elduten ziran, laurak batera beia zaratsatu jo eta "kristo illari" begira geratzen ziran, bere zaindari.

Zertan esanik ez, **saiTera** onek eleizkizun guztiko itzaltasuna galdu eragiten ebala, eleizan egozanak nortzuk ziran jakin miñez eurei begira gelditzen ziralako.

Eguen-barikuz, eleizpean asi eta eleiz inguruko kaletan, erroka saltzailleak egoten ziran, kanpotik etorrira, euren otzara sakonetan erroka saltzen. Gaur be oitura au bizirik dago.

Eta Paskoagaz batera, gure zarrak, gure gurasoak, beste kezka bat eukiten eben. Paskokoa bete bearra, baiña onetarako "txartela" atara bear izaten zan. Txartelak "examiñau naz" ipinten eban izentzat, eta nai ta zeregin ori, geien bat, abadeagaz kontu esate bat izan, gure zarrak bildurretan egoten ziran "kalabaza"ren bat emongo eutselakoan. Eta ori, orduan, benetan be lotsagarri izango zan. Txartel ori eroaten zan urteko pasku-autortza egin al izateko.

Pasko zapatuz etxetako sua be bedeinkatu egiten zan, eleizpean bedeinkatzen zatien bat eroanaz eta ura be, ur bedeinkatu barria etxera eroaten zan, orduan gelatan egoten ziran "ur bedeinkatu ontziak" beteaz, edo ta urtean gertatu eikean "okasiño"ren baterako.

Gure garizuma luzea izaten zan. Baiña ondo zaindua. Eta Aste Santuko ibil-deunak, Udabarriko ate lez artzen ziran.

Esan be egiten zan antxoarik ez zala ganoraz arrantzatuten, santuak kalez-kale aizetu barik. Eta orduan, antxoa sasoia, arrantzale errientzat, bizi erdi zan.

(Karmel, 1986-1, 92-96)

ITXASERTZEKO OITURAK

Ez dakit lan au agertzean, zelan joango dan antxoa sasoia. Asiera, beintzat, nekez. Otzak, Apirillean, eta antxoa epel zale izaten da, udabarria zale.

Aurten ariñegi gertatu zan Aste Santua.

Ba dakie arrantzale andrak esaten, antxoarik ez dala ganoraz agertzen, Aste Santuko imdiak kalez kela "oreatu" baiño len. Aurten, edo santurik "oreatu" ez dalako, edo ta udabarria, egualdiz beintzat, nekez etorri zalako Apirilla tatarrez joan zan eta ain zuzen azken egunean sortu eban poztasun pixkat, egun orretan agertu zalako ainbestean itxarotako arrain ori.

Gero san Gregorio. Lenakoena : "San Gregorio, belarriko miñak kentzeko, eroan botilla bete orio"

Gaur aiña botikarik ez egoanetan, oiturazko eben ondarrutar etxekoandreak, gure auzoko Berriatua'ko Gregorio deunaren ermitako argi ontzirako botilla bete orio eroatea, eta andik artutakoa, argitan egonikua, etxera ekarri ta gordetea.

Oiturazko eben lez "san Pedro bedarrak" batu eta Berriatuko errian dagon san Pedro deunari erakutsi, errezu batzuk egin eta etxean eukitea.

Zetarako? Ba lengo denporetan, gaur lez motorrik eta baporik ez egoanetan, txalupak erramuaren indarrez erabilten ziran. Orrek gizonen tosta gaiñetan jarrita, gorputzagaz indar asko egitera beartuten zitun, eta sarri gertaten ziran gizonak zal-darrez beteta, mintsu, ezin errementatuta. Eta san Pedro bedarrak entzute ona euken arrantzialien artean, orrelako gertaeratarako. Obeto, andrak egiten eben lez, bedar orreik "izeneko jaube" berberak bedeinkatua.

Lekeitiarrak Gizaburuaga'ra joaten ekien. Oibar'eko eleizara, ango Andra Maria'ri arrenka. Erri bakoitzak berea.

Bestela, oituraz, gaixo gitxi egoten ziran Maiatzean. Kontuan euki ia eskolarik be ez zala egoten. Lagun bi edo iru bakarrik joaten ziran eskolara; besteak, sudurretatik kandelak dindilizka eukiten zituen ume mokoak be, lanetara joaten ziran

arrain lantegietara, pozik eta gogo onez gaiñera, batetik eskolara ez joatearren, eta bestetik an, andikien nastean, antxoei burua kentzen ekitera.

Esan bearreko da nekez lortu zala umeak amar urterako fabriketara bialtzeko oitura ori entzea, antxoa sasoiari. Iñoiz alegiñak be egin ziran agintarien aldetik, edo eureka joanda, antxoa sasoiari emon bearo ziralara itxas erriari udako eskoletako oporrak, antxoa-sasoiari traba barik ibili al izateko.

Gogoan daukat Mutriku orrelako lantegi baten lan egiten neban aldiari, orain ogetamar urte inguru, Donosti'n bermiotar bat eguala Langintzako ordezkarari nausi lez, Gandasegi abizenekoa. Arek ba ekian bere erriari itxasertzean zer gertatzen zan antxoa sasoiari eta zelako buruaustea egoten zan umeekin. Bestetik, antxoei banabanaka burua kentzeko, esku asko bear izan ziran. Eta antxoa, gaiñera, urte guztirako ondasuna zan "miseriari" bizi ziran gure erriari.

Esan bearreko da, antxoa sasoiari, negu guztian, ogikiñak zorretan emoten ebela ogia etxeetara, antxoak edo atuna, -oneik ziran bizibideko arrain biak ordaindu al izango ebalakoan. Zotza eroaten zan eta bakoitzari koska egiten eutsen ogikiñak eruanaldi bakoitzeko. An ez egoan ezpairik. Antxoaren lenengo "diru partillak" egitean, koska batzuk kendu bear beintzat.

Lengoari jarraituz, jakiña da 14 urterarte ez egoala iñor lanean artzeko agindurik, eta bitarte orretan eskolara joatea bearrezko zala. Egoten ziran salakuntzak. Langintzako Ordezkaritzara, baiña Donosti'n egoan lan arduradun bermiari alegintzen zan ille bi oneitan ez jakin, edo ez entzun, edo ez ikusi egiten.

Ordez ba egoan begirale, ispetore zitalak. Eta zela-ala "in fraganti" arrapatze-aiTen, erriari, bai Mutriku eta bai Getaria'n jakiten eben trenean orrelako begiralerik sartu ba zan (nik uste dot txartel saltzaillek begiz jota eukazala) eta lantegietako arduradunak agindua artzen eben aterik iñori ez zabaltzeko, eta umeak be esanda eukiten eben, kanpotarren bat atean oartuten baeben, ainbat lasterren eskutateko al eben tokietan, zirkulorik bakaneetan. Eta ori upel barruetan edo antzerakoe-tan sartuta ixilik egotea izaten zan, besteak alde egiñarte. Eta iñoiz begiralea Deba'tik Mutriku'ra bizikletan joan izan zan, autobusean sartzen ba zan, sartu baiño len fabriketan jakingo ebelakuan.

Asko kostatu zan umeak zeregin onetatik kentzea. Eziña zala uste zan. Bestela arrantzaleak alperrik joango ziralara itxasora, gero arraiña nok gertu ez ba egoan. Geroago, barru aldeko erriari andrazkoak ekarten asi ziran. Bestealde, "ijito" edo motxaillez beteten ziran itxas-erriak antxoatan lantegietan irabazten zan diru billa. Ez emen Euskalerrian bakarrik. Geiago gertaten zan Santoña aldean. Inguru a iji-toen burdi eta txosnaz beteta ikusten zan denporaldi onetan.

Ezagutu nitun Ondarroa'n, Gasteiz eta Logroño eta Leon aldetik eta urrunago-tik be urtero etorten ziran orrelakoen famili osoak.

Eta antxoa sasoiak San Pedroak arte irauten eban. Egun orren inguru izaten zan, orain ariñago, baiña lengo denporetan atunetarako gertaerak egiten zirana, bai gizonetan eta bai txalopetan.

San Pedro eguna, egun andi izaten zan. "San Pedro gizonak ardua edateko" esaera.

Eta gero, san Pedro txikiz, jai egin, urtean ildakoen aldeko meza lenengo goizean, gero jai eta gertu atunetarako, orduan esaten zan lez, Santoña-Ameriketara joateko, atuna, bere oiturazko ibilbideetan, andik errezago eta egokiago arrantzatuten zalako.

Atun sasoia, erria gizonez ustutea zan, Andra Mari jaiak arte. Bitarte orretan erriko andrak, arratsalde erdietan, gizonen oroitza zaindu nairik, erriko ermita eta santutegietan batzen ziran, orduan gaur baiño arrisku geiagoz ibili bear izaten eben gizon "koitaduen" errukiz eta gomutaz errezaten. Aldra andiak batzen ziran, batzutan senitartekoak, bestetan kalekoak, eta abar, eguneroko otoitzaldi orreitan.

Orduan ez egoan ez ondartzara joaterik, gizona itxasuan ebillan artean, ez zinerik, ez bideorik.

Eta ori, gure denporetan zan, gure urte marduletan. Eta oraindik, esaten dabenez, edo sinistu nai dogunez, ez gara ain zarrak.

(Karmel, 1986-2, 105-107)

SANTU BUSTIAK

Aita San Migel. Edo Mikel deuna.

Euskaldunok dantzari iruditu izan dogu aingeru au. Alai, lagun arteko eta jatun. Edo orretan diarduenen maitale.

Urteen urtetan gure zaindari.

VIII garren gizaldiaren asierarako Euskalerrian ezagutzen zala, diñoskue. Orrela gure oitura eta fedearen agerpenetan aidean erabiltea ez da arrigarri.

Antxiñetan sartu zan eleizetako ibildeunetan bera erabitzeko oitura, eta ez irudi tallatuetan, irudi bizietan baiño. Ala Aste Santu eta Korpuzti egunetako ibilleretan, an joaten da zaindari ori, ezpatea eskuetan dauala eta egoak zabal gure lurraldeko toki askotan.

Gero, len esan doguna: dantza zale edo dantzari maitale: Gogoratu Iyurretan abestuten dakiena:

*Aita san Migel, Iyrretako;
zeru altuko loria,
agure zarrak dantzan ikusi
ta ak egiten jok barria!*

Edo ta jan-zale:

*Aita san Migel Arretxiñako,
zer dogu apaitarako ?*

Zaindari be esan dogu, eta ez bakarrik ibildeunetarako. Zein ez da gogoratzen eskoletako paper eta tresnak mokoloez beteten genduzanean, garbi biurtzeko Mikel deunari erreguka ibiltzen giñala?

*Santa Ana amandrea,
san Migel aingerua,
eutsi paper bustia
ta ekatzu barria.*

Edo ta geroago euskera eta erdera nasteen erabilten asi giñanean, biak mordo-llo erabiliaz esaten genduna:

*Sikatu plana, querida santa Ana,
sikatu papel, querido san Migel.....*

Alaz eta uskerien zaindari baiño, erri zaindaritzako nortasuna emotea egokiago izango da:

*Mikel, Mikel, Mikel guria,
zaindu, zaindu Euskal erria.*

oooooooooooo

Egn batek biaramona ekarten dau: Orra beste santu zar, antxiñakoa: Jeronimo deuna.

Bizkai'ko Ereño'n, san Migelen ermitan jai. Bai Mutriku'n be, Mijoa ("Mixo") auzoan.

An bai benetan bustiagaz alkartzen dabela. Batetik euren premiñekin konturatuten ez diranak gurasoen eskuetatik joaten dira eta kandelak eroan, bustitasun ori legortu edo arautzeko eskabidez. Eta bestetik ezaguna da eguneko esaera:

*Gaur dala ta san Jeolimo,
gaua orduko txapela bustiko.*

Ez ori bakarrik. Beste toki batzuetan beste esaera au gogoratu eta erabilten dakie egun onetan:

*San Jeolimo
negua dator eta allimo.*

Mutrikun orain ezagutzen dan ermita au ez da zarra. 1893 urtea iragarten dau ate gaiñean. Baiña bertatik amar-amabi metrotara, oraingo errepeidea baiño lenago-ko Bizkairako bide zarrean, an agertzen da beste etxe txiki bat, len ermita izan zana- ren adierazgarri ukatu eziñak daukazana.

Gaur baifio errezago egiten zituen lengoak ermitak nunnai, batez be bide ega-leko amoin edo limosnak artzeko garrez. Ala egin eben Markiñan be, Erdotza Andra Mariagaz, edo ta bertan diñonez "zuri esaten jatsu Osasunekoa"gaz, ango bide barria egin ebenean, lengo amar metro ingurura geratzen zala, lengoa kendu barik, beste barri txiki bat bide ondoan jasoaz.

Batzuk diñoe Mutrikuko san Jeronimo zarra, gerraren baten deseginda geratu zala eta ermita bateri dagokiozan eleizkisun eta fedeko goraberak egitea itxi. Origaitik famili batek, (emaztea Josefa Txurruka, Olatz auzoko Beliotegi baserri-ko alaba zan) jaso eban barri au.

Gure gurasoak ez eben lagaten egun onetan bertara joan eta egoan oitura bat zaindu barik, au da, guraso ta umeak bertara eroan eta illuntzean inguruko zelaien baten, etxean gertutako "aragi piper gorriekin" betetako kazularari ordu bat eskini barik.

Gero ezaguna da beste esaera a: San Jeolimok gaiñean dauka euria.

Gaiñea, biaramon berbera, Urria da, Urrilla. Geienetan gure errialdean Urria euritsu gertaten da. Esaera zarra da : Urriko lanetan, agudo zopetan.

Gogoia doguz 1953'ko ujoldeak. Ondarroa'n Zubizarra be tatarrez eroan ebe-nak. Eta beste ogei urte atzerago joa da be, guk baiño garbiago esango dausku Lexo bertsolariak orduan gertatua:

*Milla bederatzireun da
ogei ta amairuan,
urandiakin izandu dira
kalte izugarriyak,
urte santuak eman dizkigu
aurten iztillu gorriyak
lenguak markak pasa dizkigu
urakanaren neurriyak
egin dituen euri larriyak
ondatu ditu erriyak.*

Orra, Mikel eta Jeronimo deunen inguruan gure artean darabilguzan esaera eta oiturak. Eta orra baita oroitzapen batzuk.

Amaitzeko, itaun bat: Zegaitik esate ete eben gure zarrak beste esaera zar au? Gogoan euki: San Migeletako aizea, amagiñarrebarentzako baiño erraiñarentzako ohea.

Zegaitik?

(Karmel, 1986-3, 96-99)

ARRANTZALIEN OITURAK DIRU PARTILLAK

Len, arrantzalien oiturak, ots andia eukiten eben.

Gure denporetako gizarte babes edo asegurantzak sortu aunetik, arrantzaleak, euren eziñean eta premiñen barman eta bear-izanetan, ba eukezan neuni berezi batzuk.

Arrantzale bizitza arrisku andikoa izan da gure denporak arte.

Batetik itxasoa, gaur bare ta biar asarre; gaur kalma zuritan eta biar ipar balztetan eta gitxien usteko denporetan, goizetik gaberako galerren itzal, bildurgarri eta zoroetan.

Bestetik itxasontziak, txalopak, egitura makal eta argalekoak, gizonen indar eta aizeen mende ibili bearreko egiturekin, noiz-nai tirabira egin, eta azpikoz gora geratzen ziranak.

Onelako egoerak, antxiñetatik bultzatu zitun arrantzaleak alkartasunean batzera, ain ugari gertaten jakoezan estutasun eta premiñetan laguntzeko.

Alkartasun oneik Kofradi izenagaz ezagutzen dira.

Kofradiak noizkoak dira, ez jakin. Egia da arau edo erregela idatziak, XIV garren gizalditik ezagutzen dirala, baiña ziurra da askoz aurerrago be ba egozala.

XIV garren gizaldian egin ebena, len oiturazko eta berbazko zituen legeak eta ekanduak, paperetan idaztea izan zan, baiña ori egitean garbi esaten zan, Bermeo'ko arauetako asieran lez, orduan batu eta idatziarren, antxiñetatik etozan arauak zirala, gizonak gogoratzen ez eben denporetatik, gitxienez bosteun urte aurretik.

Portu guztietan, Ondarrabi'n asi eta Zierbana'raiño, Gipuzkoa eta Bizkai aldean, santuen izenekoak ezagutzen ziran, geienak San Pedro'ren izenean; gero San Nikolas eta San Telmo be agertzen dira patroï lez, bai eta Karmengo Ama be. Ondarroa'koa Santa Klara izenez ezagutua izan da. Ezpairik ez dago, euren antxiñatasuna ezagututa, santuen izenak artu aurretik be Kofradi lez ezagutuak izango zirala.

EKONOMIIKUSPEGIA

Txalopak, au da, itxasontziak, geienetan, familikoak izaten ziran. Txalopa jaubeak, jaubetasun orregaz batean, askotan euretako gidaiitza edo patroitza euren gain eukiten eben. Gaitz billatzen zan itxasontzia arrantzale ez ziran dimdunen batzuen izatea.

Txalopa jaubeak, jaubetasun orregaz batean, arrantzarako tresnak berak ipini bear izaten zitun. Ordez, gizonak, mariñelak, euren alegiña, gau eta egun, askotan atsedean barik lan egiteko alegiña.

Irabazietarako, geienetan, erdiz erdi edo inguru orretako ainbatekoz neurtzen zan jaubetasunaren eskubidea eta andik gorakoa mariñel edo arrantzalien tokamena.

DIRU PARTILLAK

Izen ori emoten jakon irabazien banaketari.

Geienetan, asteen itxasoterik edo arraiñik egon ba zan, astero egiten zan partilla ori.

Oraintsurarte, nai eta Banketxe eta Aurrezki Kutxen erreztasun eta paperak kreditu osoa merezi, asteko dirutza atara egiten zan eta partilla egiteko egoan guztia mai gaiñean ipini, ontzi jaubearen etxean.

Onek, ordurako, batuta eukiten zitun "amankomuneko" edo guztien artean ordaindu bearreko zorren txartelak, eta areik irakurri eta lenengotik euren dirua alboratzen zan. Orrelako zorrik geienak janari eta edarietak ziran.

Gero, geratzen zana, gitxi-gorabera erdi inguruan txalopa jaubearentzat izaten zan. Jaubearen konturako izaten ziran sare, trein, masi, amuski, aparixu eta abar. Eta bestea arrantzale edo gizonena.

Gizonak ez eben bardin irabazten. Patroiak, askotan, gizon bik aiña, au da, soldata bi, edo tratua zelan egiña euken neurrian, sota-patroia edo patroia ordekoak be bat eta erdi inguru; makiñetakoak be neurri orreta; gero mariñel soillak geienetan soldata bana, eta "maistresak" be eukiten eben euren zatia.

"Maistresak" deitzen dautse txalopea itxasora joan eta leorrean txalopako gauzekaz arduratzen ziran andrazkoei, au da, sare, aparixu, janari eta abarren ardura eukenei.

"MAISTRESAK"

Emakume onei buruz, bermiotarrak onelako kantuak dakiez:

*Itxas ontzixek duazenian
besegutan itxasora,
neskatillak artuten dabe,
tresna guztixen ardura.*

*Loixetan gertatuten dire,
karnada ta aparixuek
bixaramongo egunien
prest dana euki daixien*

*Loixetako neskatilek
txalupak datozenien,
asten dira goraberetan
otzara zarren atzien.*

Beraz, partilla egitean, txalopan arrantzan ebiltzanak eta leorrean txalopean

ardura eukiten eben neskatillanak be kontuan eukiten ziran. Onez gaiñera, urte barruan norbait il ba zan, aren soldata osua emoten zan urte guztian, bai eta gaixorik egon eta itxasora joan eziñean aurkitzen ziran barruko mariñelena be.

Maistresen zeregiña izaten zan baita be, diru banaketa edo partilla egin ondoren, arrantzale bakoitzaren dirua bere etxera eroatea.

Baiña orrez gaiñera, arrantzaliak ba euken aparteko dirutxu bat euren sakeletarako gorde eta banatzeko oitura, etxera eroan barik. Gitxi gorabera euneko amar, batzutan geitxuago, izaten zan eskutuko dirutza ori.

IXILLEKO DIRUTZAREN DEITURAK

Era orretan banatzen zan dirutzari izen berezia emoten eutsen. Ain zuzen be oraintsu Etxaburu'tar Jose Mari'k "Ondarrabia" izenez agertutako kondairan, beste gaien artean dirutza orren barri be jasoten da. Berak diño, eta alaxe da, diru zati orreri erri batzutan "ardau dirua" deitzen dautsela, alaxe Ondarroan be; beste batzutan "Amuskia" ; beste nunbaiten "amari ez emon" edo ta "Laika". Ondarrabia'n "Txakurrana" deituten dautsela.

Gogoratu ezker "Laika" izena eukala errusitarrak lenengo probetan espaziora bialdutako gailluetan sartu eben txakurrak, erraz konturatzeko da "Laika" deitura ori "Txakurrana" deitura jatorraren ordez artua izan dala. Zegaitik "Txakurrana"?

Kontuan euki, lengo denporetan, itxas txalopetan ur txakurrak erabilten zirala. Txakur orreik erakutsita egozan eta oituta, itxasoan sarea zabaltzean, punta bateko soka aoan artu eta lotu al izateko beste aldean egoten ziran gizonei eroatera igarian. Orrez gaiñera, aparixuak jasoeran, amuetatik askatu eta uretara jausten ziran lebatz, besigu eta abar, oartu ordurako, txakurrak dsanga egin eta arrain ori aoan artu ta txalopara eroaten eben. Arrain ori jaubearentzat barik, gizonentzat geratzen zan eta beti lortzen zan dirutzen bat. Bestera kentzen eben zatitxoari, beste izenen artean, txakurrana deitzea ortik dator.

Txakurren entzutea, ur-txakurrena esan nai dot, zabala izan zan. Gogoratu, Constantino Esla'k idatzitako "Estampas Vascas" liburuan, ba dagola "Los Perros Pescadores de Ondarroa" deitzen dan kontakizun bat eta onelako au esaten dala: "En Ondarroa son pescadores hasta los perros". Bere esanetan, erbestetar batek itaundi ei eban bein zer egiten eben txakurrak itxasontzietan, eta agure zar batek erantzun eutsala: "Hacen lo mismo que nosotros...Viven y mueren en el mar..." Au da, gu-geuk egiten doguna egiten dabe: Itxasoan bizi eta ilten dira. ("Estampas Vascas" Constantino del Esla- Buenos Aires-1945)

(Karmel, 1986-4, 95-99)

BETIKO KONTUAK

Aurrera guaz urtetan, eta biziari filosofiz begiratzen ikasten. Zarren negua luzea izaten dala esaten da, baiña negua bera ez da laburra zarrentzat. Ori gaur toki eratsu asko doguzala, eta tokiz aldatzeko aukera asko, eta eguraldi berberari egala billatzeko egokitasun ugari. Baiña etxea maite dogu, aitaren etxea, eta or akatsak. Unoreak eta gogortadak be euren etxea guban billatu daben lez.

Alaz eta dirua da, edo bizi al izateko gaikia, aidean ibilten dana. Orretan zar-saridunok, txanda baten maixuak ibilten ziran antzera gabiltz. Beti gure pentsiño, edo "soldata" deitu geinkionari begira. Gero ta amets geiago, gero ta egokitasun geiago, baiña pentsiñoia urtean mailla txiki bat ezin goratuta. Zarren gaixoak iñor joten ba dau, erreumak iñor tatarrez ba darabil, ori pentsiñoia da. Nekez eta larri urtean bein mailla bat goratu, eta bertan lotu.

Bizimoduan askotan gertaten dana da: Bakoitzak asko irabazi nai. Baiña besteak asko nai edo asko eskatzen dabenetan, arin asarretu.

Edozetara be... Bizitzan ezer ez duala bera, esaten da. Bizitzako gauzetan, jakiña. Baiña gu zarrok, ezin ukatu gero ta berago goazenik. Gero ta aul, negarti, illetatsu eta unore geiagoz, ori bai. Baiña ori ezezkoaren ildotik doana da, ori bizitasuna galtzea da, makaldu, berantza joatea. Gertaera orreik aulkeri dira, eri, gaixo, makaltasun, ez bizitasun.

Ondo bizi gurea ezin kendu dogu gugandik. Lokarri bat da, baiña lotu eziña. Ain zuzen be gero ta geiago nai, gero ta gitxiago kostauta.

Udaran giroa aldatu, emen baiño euri gitxiago egiten daben tokietara joan, balztitu eta sendotu, baiña erdi prezioan. Neguan "erdi preziotan" dagozan tokietarako deiak egoten dira, baiña zein da "erdi prezioa" zar-sari edo pentsiño batentzat?

Negu ta uda ostatuak be zenbat eta izar geiagoko atsegiñago doguz, baiña orretarako zillar moneda sendoen orde, zeinak jandako paper merkez ordainduta nai gendukez.

Ezer ez duala bera...Eta zelan eta nundik jakin ez da be, emengoa "misterio" dalakoa dala. Igarri ez estu bizi gareanik, ziurtasun barik bizi gareanik. Dagonian bon bon eta eztagonian or konpon, esanda lez.

"Zepai" bertsolari zanagaz gogoratzen naz bizitzako gertaera askotan. Akilino Izagirre Amenabar zan izen eta deitura jatorrez. Jaiotetxetik, baserri izenetik artu eban eta geratu jakon "Zepai" izenordea.

Idiazabal'era aldatu zan bizitzera. Ostatu bat ipini eban an Etxegarate'ra daroan bide nausi egalean. Eta jakiña, tokian tokiko.

Gu ondarrutarroi arrain usaiña artzen dauskue edonun. Izan be Txomin Agirre zanak, "Kresala" nobelan esaten daben lez, "besigu eta atun tatoekaz asi eta lodituak gara gu". Zer besterik artu lei gure inguruan izerdia bera be arrainjatekoena ba dogu? Arrain sunda. "Arrain sundadun uri koskor bat zala-ta amarrua egin dauskue

guri" diño Txomin berberak. Bertan bizi garenok ez gaitu atzeratzen sunda orrek. Baiña itxas errietan sudurretan gora joaten ei yake barrutarrei sunda ori, ats ori.

Orrela dala, ez da arrigarri gu ikusten gaituenean, itandutea. Eta? An-aiña merke?

Guk orain ba daukagu len baiño en-azoi geiago erantzun txarra emoteko: Joan zeuok ben'eun millatatik kanporago ta ikusiko dozue andik zelako eskamak ekarten dozuezan.

Aitatu dogun "Zepai"ri be gaztai usaiña igarten eutsen. Idiazabal berak ze gogoratu eragiten dausku besterik ango gaztai on eta famatuak baiño?

Areri bein bertsoan itandu (galdetu) eutsen:

Gaztaia merke al dago

Idiazabal ortan?

Eta berak, berezko eban baserritarren filosofiaz, zain egon barik, bereala erantzun au emon:

Preziyo baju ori

beti gerokotan

baiña an ere artzaiak

etzebiltzak lotan,

asko pagatu bear

ona jatekotan.

Altza'ko bertsolari batek be, Jose Garmendia'k, ba eukan bere gatz lodia erantzun zorrotzetan.

Sekula bizi ete gara ondo esateko eran?

Beti illeta eta negarrez. Alaxe dala sinistuta gaiñera. Alkarri sinistu eraginda. Zartzako gaixoa da alkar erraz kutsututea esaerekin. Len, lan geiegi eta orduak sartu bear. Orain lanik ez eta nunbaitetik atara bear.

Alaz eta gero ta berago joanarren, gero ta obeto bizi nai. Eta oraindik obeto bizitzeko izan gaitetzala. Edozetan be, len eta orain, ez letorkigu txarto bein Garmendia'k bota eban bertso au:

Bizimodua nola duan gaur

garbi adierazten det,

ofziorik ez daukat baiño

bastante irabazten det,

janian ez det batere gulik,

gorputza merke jazten det,

etxian guzti entregatu ta

tabernan asko uzte det.

Garmendia orain irurogei urte inguru il zan.

Frailien antzera, nai eta eurak be izatez eta bizitzez berakadan jua, eguneroko esamiña egingo ba gendu, ez ete genduke esango bertsolariak erriaren begirale dirala, ezaupide zorrotza daukela, eta gure gauzetan erdi profeta dirala?

Aurrera doan biziari irri pizkat egiteko, tartetan onelako gauzak esaten ibiltea dagokigu. Askotan aurrean datorkiguna arindu naian. Eta aurrean datorkiguna... beste askoren artean au da: Autsaren eguna. Martiaren lauan, aurten beintzat. Baiña auts-egunak, beste burutasun illunagoak alboratu barik, ez ete dauka arrantzale errietan, len beintzat, bere amets edo ilusiño txikia? Mariñel zarrak, ia sekula txorixirikik aldian erabilten ez ebenak, irabazi be ez ebelako egiten eukiten eben euren ametsa egun au ondo igaroteko. Zelan? Ba...norbere alegiña baiño besterik bear ez eban lana egiñaz: Lapak batu eta lapak jan. Origaitik esaera: Auts eguna, lapak jateko eguna.

Bizimoduari bere alderdi ona artzen ikasi bear, orregaz asetzeko.

(Karmel, 1987-1,105-108)

PERUTXU ETA TRAGANARRUA

Perutxu'ren errian ez egoan ogi biderako beste urtenbiderik okotza eta sudur azpia, agirikoak beintzat, barbanek eta uleskaz beteten asten ziranean, zirazko jantzi zar baten jaube egin, eta etxean norbaitek bear ez eban itxasorako otzarea besapean artu jertseien bat eta ogi zati edo otondoen bat bertan eroanaz, eta txaluparen batera joatea baiño.

Orretarako ez egoan aurrez gertakizun andirik bearrik.

Ez eta igarian ikasi bearrik be, arrantzale askok buruan sartuta eukelako ondamentidiren bat gertatu ezkeru, ur azalean itxaropen barik igerian ibilteak agoliña luzatu baiño ez ebala egiten.

Eurentzat eskola, bizitzako eskola, or asten zan, "motor" edo "bapore" baten lenengoz ainka azurra sartzen ebenean.

Perutxu beste edozein antzeko zan mutil artean.

Bizi eta urduria. Tartetan eskola-igesi egiten oitua, eta, jakiña, ikasketetan erditik atzerako moltsoan pillatzen zana.

Tolaretako batza jaurtiten eben tokietan, txori lakio eta tranpak ipini eta egaletan eskutatuta txori txikien zain konturatu barik orduak galtzen oitua.

Ez eukan erreka ondoan ibilteko zaletasunik, ez arraiñetan, ez txirla, izkira edo laztatan, ez eta igarian be.

Itxas egaletako olatu andiak arrada eragiten eutsen, ikarea sortu. Bai eta itxasuren zirri-zarra, gorabera eta txiplí-txaplak.

Iñoiz joan zan, bein edo, itxasora batelean, lagunekin, eta txibi-koraiñagaz arrantzan ibilli barik, karel egalean makurtuta igaro eban arratsaldea urdail barruan eukazanak eta ez-eukazanak ezin atarata, mariñelak esaten dakien lez "txibiei jaten ematen".

Bildurrik andiena, oraindik beretzat eskutuko edo misterio lakoa "traganarrua" zan, iñoiz eguraldi baltz eta gordiñetan legorretik begiratu eta odeiak eta itxasoa alkar jotzen lez batzutan, eta bestetan odeietatik itxasora ur tengadaka igarten dan aize biurri eta zoro lakoa, itxasoko urak odeietara jasoten.

Amairu urte bete zitunean, ama maixuarengana joan zan, jakin nairik merezi ete eban semeak beste urte bete katonagaz eta sumar eta restarra ikasten galtzea.

Maixuak erantzun eutsan mutillak ikastekoa ikasita eukala; alegin andirik ez eبالa egin eta orregaitik ez zala gaixotu, baiña, burua be ez eukala bigun eta argia, edo beintzat bateatzean ez eutsella kandela argia luzaro biztuta euki. Orregaitik amari garbi esan eutsan mutillak denpora alperrik galdu barik, lenengotik itxasora-ko trasku batzuen jaube egiteko.

Amak ez eban egunik galdu eta laster billatu be orrelako gazte baten premiñan egoan bapore txiki bat.

Lenengo egunetan, oi dan lez, burua galdu, zorabiatuta, kamañan denpora geia-go egiten eban etzanda, sare eta aparixuekin tosta gaiñean baiño. Besteak irri egiten eutsen, obarik igaro bearko ebela-ta zirikatu eta estutzen.

Atzekoak, patroiak, bere albora deitze eutsan, itxas aizeagaz obeto igaroten zala zorabio ori-ta, kamañetako kedar eta tabako usain eta lununetan baiño. Gaiñera konturatu zan mutilla, gizon izate eta agerkeretan, oraindik atzeratu samarra zala, eta an, kamañetan, jokoa, lizuneria eta nabarmenkeria baiño ez zitula ikasiko, ao zabal eta ardurabakoak ziralako tostarteko batzuk.

Patroia, ibilleretako orduetan, alegindu zan itxas aizeen berezitasunak mutillari erakusten. Ala aize arin, aize il, aize biurri, airu, zakar, arru, apoñu eta ipar baltz, kalma zuri, aize berea, mendebala eta abar bereiztuten laster ikasi eban.

Gogoz entzuten zitun orrelakoak.

Itargiari bumz eskolan ez eban ikasi izena besterik, eta atzekoak laster sartu eutsazan ilgora, ilbera eta ilbarri eta beteak, bai eta euren gor edo berapeneko laurdenak.

Itxas uren gora berakoak noiz gertaten diran eta abar be erakutsi nai izan eutsazan, mariñelak "efatia" deitzen dautsena, au da, urte-geia, baiña Perutxu'ren adimena garunen ordez toletez beteta ete eguan esaten eban Mikol patroiak.

Perutxu'ren burukomiña, kezka, Traganarrua zan. Umetatik erabillan buru aus-tea.

Alperrik esaten eutsan Mikol patroiak gaitz zala orrelako gorabera baten ain zuzen be tengada berbertan gertatea. Itxasoa zabala zala eta luzea, bapore ontzia be ez zala ura aidean eroateko.

Perutxu berean ebillan:

- Gaitz dala, bai, baiña ez ba litz?
- Gure artean ez da sekula entzun.
- Eta gertatu be ez?
- Ez jakin. Ziurretik ez.
- Origaitik diñot nik, gertatuko ba litz?
- Ba litz eta ba zan biak alkarren kasan
- Ori esan egiten da. Baiña eta ba litz?

Antxoa sasoia ba etorran.

Udabarria laster, baiña oraindik neguko denpora.

Arrantzialentzat negua luze joaten da. Etxean egon bearreko egun asko, irabazirik ez eta ogitarako taia be kozkaz beteta, okiña be, zorretan emoten, egunetik egunera arpegi garratzagoz igarten zala.

Neguko eguraldia egonarren, talaixeruak ikurriña jaso eban talai etxearen albu.

Itxas zabalean antxoa "gorriak" ikusten ziran ezaugarria zan eta arrantzialentzat itxasora urtetea komeni zan adierazgarria. Gizonak baiño lenago ibili ziran andrak leiotik leiora edo kale ertzetik kale ertzera dei ori zabaldu eta gizonak billatzen. Bereala asi ziran motorrak eta baporak alkarren leian portutik urteten.

Itxasoan sartu eta Mikol patroiak agindua emon eutsan Perutxu'ri talai etxera begira jarraitzeko, sua zein aldetan egiten eban oartuten. Perutxu'k ba ekian talai-xeruak etxearen alde baten edo bestean egiten daben suaren keiagaz adierazoten dauala arraiña txalopak dagozan ezker aldera edo eskuma aldera dagoan.

- Ezkerrera, ezkerrera, deituten asi jakon Peru patroiari.

Mikol'ek lemia ezker aldera zuzendu eban eta adi egoteko agindu tostartekoei "gorriak" nun agertzen ete ziran.

Baiña Perutxu larritzen asi zan.

Ain zuzen be ezker aldera laiño illunak ikusten ziran, ia uraren gaiñean.

Gorputzean goitik berako arradea igarri eban, eta prakak eratzi bearra be eldu jakon, dardaraka.

Itxasoan komunik ez da egoten, eta karel gaiñetik egin bear. Irri egiten eutsen barruko mariñelak eta treiña gertu bear ebela eta arin egiteko ta, zirikalari, geiago estutzen eben.

Treiña jaurti eben eta egal bietako txikotak alkartu eta lotzen asi ziran. Ingurua, "zerkoa" egiña egoan eta arrantzaliak pozik, lenengo egunerako moltso polita batu ebela eta frutu barria eta diru ederra etxera eroango ebelakoan.

Perutxu ez zan konturatu zenbat arrain sareagaz inguratu eben. Aurrera begira ebillan, ta gero ta urrerago odei moltso ia euren gaiñean ikusi eta ain zuzen be tra-ganarrua.

Ezin zala tente egon eta kamañara joiala ta...tanbutxuko atea zabaltzen ebalakoan, arraiña sartzen eben kajerako estalgarria zabaldu eta an jausi zan, nun sartzen zan konturatu barik, eta bildurrez eta ikaraz etzanda geratu.

Arrantzaleak treiña batzen eioazala, inguratu eben arrantsua txupoiagaz erreza-
go eta ariñago ontziratuko ebela sarabardoagaz baiño, eta asi ziran kajeran iñor
egon eikeala koturatu barik, arraiña, ur ta guzti, barrura jaurtiten.

Perutxu, dardaraka, sinistuten asi zan berak ainbat bildur eutsan traganarruaren
erdian jausi ziralta eta traganarruaren indarrez, arrain, bapore eta barrukoak aidean
ebiltzala.

Eguraldi txarraren indarrez baporak zenbat eta zabune geiago egin berak ainbat
larri eta itsuago pentsate eban aidean ebillala.

Amaitu eben an-aiña txalopara jasotea. Treiña be batu eta igo eben.

Ainbat ariñen etxerako bidea artu nai izan eben, zenbat eta ariñago eldu, sal-
neurri obeagoa egingo eutselakoan. Pozik danak, gitxi gorabera zenbat arrain artu
ete eben eztabaidatzen, eta apostuak egiten, egingo eutsen dirua eta etxerako ero-
ango eben urteko lenengo "partilla"gaz ametsetan, bai gizon bakoitzak lortu eikean
"ardau diruari" buruz be, aspaldian patrikarak utsik erabillezalako.

Mikol patroia gogoratu zan alako baten Pemtxu'gaz, eta agindu eutsan tostar-
teko bateri, kamañan begiratzeko, zelan ete egoan.

Arek begiratu eta ikusi ez. Bildurra sartu jakon. Aztertu kamañako tarte guz-
tiak, manta zarrak jaso ta ikusi...t agiri ez. Galdara tokira begiratu, an berotzera joan
ete zan, eta an be ez.

Patroiari esan eutsan billatuarren, ez ebela aurkitzen. Patroia zurbildu zan. Egin
eben beste aztertze bat eta alperrik. Eurak arraiñari alde batetik begira iñarduela,
bestetik jausi ete zan uretara ta konturatu ez?

Eguraldi txarra egonarren, atzera egindako bidean biurtu, arrain billa ibili ziran
tokian osterata bi edo iru egin, baiña uretara jausi ba zan gaitz zala billatzea, gaiñera
igarian be ez ekiala jakinda, eta danak zurbil geratu ziran.

Patroiak "Aita Gure" bat errezatu eban eta nai eta oraindik beragaz artu-emon
andirik euki ez, batzuek malko lodiak igarri zituen arpegian bera jausten.

Gaiñera txikiena zan, eta errian zer esango be, kezketan asi eben etxerako bidea
negu osteko lenengo egunerako alako mutiltxoia ain ardura gitxiz galduta.

Portuko sarreran txistua jotzen sartu bearrean, arraiña ekarren txalupak sartzen
ziran lez, erosle, txalupako andra eta Kofradikoei adierazgarraia lez kanpaia jo,
otzarak gertu, garraioko burdiek etorri eragin eta sal-erosleak batzeko ixilik sartu
ziran eta jendea zer-esanetan ipiñi be bai, neguko alperkerietan baporeko txistua be
katarrotuten itxi ete eben eta antzerakuak esaten.

Molla egalera urreratu, txikotean lotuta ipiniagaz batera, Mikol patroia, iñori
ezer esan barik, Kofradiara joan zan mutilla galdu ebela jakin erasoten, eta gaiñera,
oraindik itxasorako bear aiña urterik ez eukalako, boletu eta baimen barik, eta erro-
lean sartu barik eukela jakin eragiten.

Oiturazko eben arrantzaleak orrelako zoritxarretan, arraiña ataraten asi baiño
len, orrelako albisteak tokietan emotea, eta baporeko andra maistresetako bat aba-
deekana joan zn eta laster agindu be il kanpaia joteko. Orrela errian itzaltasuna

zabaldtu zan, erri txikietan gertaten dan lez, danak ezagutzen ebelako Perutxo, Patxi Amarratz eta Marta Gonandi'ren semea, orain Marta alargunaren semetxoa.

Alako baten, baporean arraiña ataratea erabagi ebenean, orretarako lenengo bonbeagaz ura sartzen asi ziranean eta orretarako arrain tokiko gaiñekoa zabaldtu, txilioka asi zan Perutxo, azkena etorkolakoan. Orduntxe konturatu ziran barrukoak eurak galdutzat uste eben mutilla bizirik egoala barruan, eta baporeko tximiniko txistua be jotzen asi ziran, poza agertzen.

Perutxo atara ebenean, berberak autortu eban, sinistuta egoala Traganarcuak bapore, itxas-ur eta bertako arraiñak gora jaso zitula eta aidean ebillala, odeietan zear, eta gaiñera barmko gizonak bere inguruan ez ikustean, pentsatu ebala areik "kuberta" gaiñetik iruntsiko zitula. Eta bera, Perutxo, ez zala ausartuten zirkiñik egiten, euri zaparraden bategaz batera nun jausiko ete zan ez ekialako, eta denpora luzean Jaunari erreguka ego zala, tellatuen baten barik, bapore eta guzti itxasoan jaustea eskatzen.

Ordutik Perutxu'k bere izangoiti edo ez-ize guztiak galdu eta betirako barri bat, berak eta ondorengoak eroan edo entzun bearko ebena lortu eban: Perutxu Traganarru.

(Bilboko Uri Zaharreko III Ipuin leiaketan, lenengo saria 1987'k6 Epaillean)

PERUTXU ETA TRAGANARRUA'N ERABILTEN DIRAN ITXAS-TAR ITZ BATZUEN IZTEGIA:

airu.- *aize biguna, brix leuna*

apoñu.- *aize nastetsua*

ardau dirua.- *arrantzaleak, etxerako barik, bakoitzarentzat gordeten dauan irabazia*

atzeko.- *patroia*

bapora.- *baporez erabilten dan itxasontzia*

i

batza.- *sagardaua átara ondoren geratzen dan sagar ondakiña*

gorria.- *manjua, arrain moltsoa*

igari.- *igeri, ur gaiñean ibili.*

itxas otzara.- *arrantzaleak jantzi eta tresnekin itxasora eroaten dabena.*

kamaña.- *txalupetako lotako tokia*

lakio.- *txoriak arrapatzeko tresna*

lazta.- *ibaiko "cangrejo" zapala*

okin.- *ogi-egille*

otondo.- *ogi-ondo*

partilla.- *arrantzalien irabazietako banaketa.*

taia.- *zorretan erosteko erabilten dan ol zapala*

talaia.- *begira tokia. Itxas aurreko mendietan egoten dan itxas begiralearen etxea.*

talaixerua.- *talaiko arduraduna*
 tolara.— *dolare, sagardauari mustoa atarateko tresna*
 toleta.- *itxasontzietan erramuak (arraunak) estrapuz lotzeko egur zatia*
 tosta.- *txalupako jarlekua*
 tostarteko.- *itxasontziko arrantzale soilla*
 tragananu.- *toki batzuetan Trabañarrua, tragarroi, oroi-erroa. Erderazko tromba marina*
 trasku.- *olesko oiñetakoa*
 treiña.- *antxoia arrapatzeko sarea*
 txibi-korain.- *txibiak arrapatzeko arpoi txikia*
 txibiei jate emon.- *itxasoan, mareatuta, barrukoak uretara jaurtitea*
 uleska.- *ule meia, bizar biguna*
 zabune.- *albo-alboka*
 zirazko jantzi.- *itxastarrak erabilten daben buztitarako jantzia*

(Karmel, 1987-2, 95-102)

Itxasertzetik : TREINERU ESTROPADAK

Edozein arrantzale edo itxastar errik lez, Ondarroa'k eukiko zitun kirolik erabilienak jakiñak dira : Pelota eta estropadak.

Pelotearena argi dago. Udaletako agiriak irakurri eta laster aurkitzen dira pelota-toki barriak eginbearrak, edo ta zarrak konpondu bearreko gastuak.

Estropadei dagokionez, ez da aurkitzen agiririk, baiña kontu egin estropadak beti daukela itxasoa gertu, noiz-nai jokatzeko.

Alaz eta or dagoz denporetatik etorritako aozko kontakizunak, bertsolarien paperak, egunkariak eta abar

Ondarroa ezaguna zan ez bakarrik Gipuzkoa eta Bizkaia'n, bai eta Kantabria'n be.

Euskalerrian ezagutzen dan estropadetako lenengo bandera Ondarroa'ko Arrantzalien Kofradian gordeta dago, baiña ez Agirre Franco'k bere "Estropadak" liburuan esaten dauan lez, 1865'ko Dagonilla'ren 3'koa, eta Donostia'n jokatuta-koena, urte orretako Dagonilla'ren 31'an eta Bilbo'n jokatua baiño.

Berak argi erakusten dau noizkoa dan : "Regata de Bilbao celebrada el 31 de Agosto de 1865. Bandera de honor"

Alaz eta ez da ortik sortzen Ondarroa'ren entzutea estropadetan.

Askoz lenago Santander'en estropadak egoten ziran. Areitako baten ospetsu egin eta zabal ibili zan Antonio Garcia Gutierrez "El Mordaz" deiturakoak idatzi eta Barbieri'k doiñua ipinitako "Jota del Regateo"

- *entre otros insignes luchadores
de Ondarroa los famosos bogadores*

eta orrelakoak esaten dira.

Jota ori, euskal errietan, Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa'n txarto jausi zan. Gure errien asarrea agertu nairik Eusebio Maria Dolores Azkue'ren bertsoak sua darioe. Ala Ondarroa'ri buruzko bertso bate au diño:

*Ondarroan sortu zan
aize puzkadeak
Eleizan sartu al dituz
Castroko abadeak,
eskatuten Santa Ana
ta San Pelayori
miñean emoteko
indarra Castrori?*

Jakiña da itxasertzean, leorretik laster arraiña arrantzaten zan artean, batzutan arrain kalara ariñen eldutearren, edo arrain "gorria"ra lenen sartzearren, eta beste-tan portuan egiten zan arrain salketarako besteak baiño lenago agertzearren, beti be lenenak salneurrik onena lortzen ebalako, arrantzaliak itxasoan bertan, euren artean ibiltzen zirala estropadetan.

Zelako txalopak erabilten ziran?

Batzutan batelak, beste batzutan kala-potiñak, eta gero treiñak (sareak) agertu ziranean, sare orrekin arrantzara joaten ziran txalopetan, au da, treiña erabilten eben txalopetan. Ortik treiñeruak.

Estropadetarako bereziki gertutako itxas-ontzirik ez zan ezagutu 1888 urterarte. Arrantzan erabilezanak eta kitto.

Urte orretan Bilbo'n estropadak egozan, eta iñok ezer jakin barik Bermeo'k orrelako treiñeru arin eta zorrotzak agertu zitun. Beste errietakoak, arrantzan ebiltzazenekin joan ziran.

Ori ikusita, asarretu eta jokatu nai ez-ka ibili ziran, baiña bilbotarrak egin eutsezan erreguei men egiñaz, makurtu ziran jokatzera.

Ori ikusita, 1892 urtean Donostiarrak Mutriku'ko itxaslantegian egin eben treiñeru berezi bat "Golondrina" izenekoa, eta donostiarrak urte aretako estropadetan erabili eben. Orduko paperetan irakurten danez, Mutriku'tik bost itxasontzi jendez beteta joan ziran Donosti'ra, euren errian egindako treiñeru aretan konfiantza andia eukelako. Baiña ez eban berak irabazi.

Goazen, aurten bandera biren eun urtegarrena ospatu daualako, Ondarroa'k jokaturako estropadei buruz zerbait esatera.

GURE ESTROPADAK URTEZ-URTE

1865 urtean - Gorago aitatu dogun Bilbo'ko estropadetako bandera.

1887 urtean - Bilbo ekiñalean ebillan bere kai barri edo portuaren egitasmua aunera eroan nairik. Origaitik edozein aukeraz baliatzen zan Laterriko agintariak bertara ekarri ta bertan erabilteko. Orretarako jairik atsegiñena, estropadak izaten ziran.

Urte onetan 9 treñeru aurkezten ziran jokora. Ondarroa'tik 3, Bermeo'tik 3, Santurtzi'tik 2 eta Zierbana'tik 1.

Lenen eta bigarren Ondarroa geratu zan. Orduko bandera bi dagoz (aurten eun urte beteten dituenak). Ondarrutarren ospe eta entzutea luzeago ibili zan. Maria Kristina erregiña, iru urtedun zan gero Alfontso XIII garrenagaz batera Bilbora joan zan eta ortarako apaindu eta jantzi zan ontzi zapal andi baten, Portugalete'tik Bilbo'raiño eroan eben. Eta erregiñaren eskabidez, ondarrutar erramulari zarrak izan ziran zuri-zuri jantzita erregiña erabili ebenak. Gertakizun ori "Falua real" lez ezagutzen da, eta txalopa orren apaingarri erabilitako leoi eta apaindura batzuk ondarrutarrei eskeiñi eutsezan.

1888.- Kai barriko lenengo arria bedeinkatzea. Ori zala ta estropadak. Iru treñeru agertu ziran Ondarroa'tik, bi Bermeo'tik, Lekeitio'tik bat, Mutriku'tik bat eta Pasai'tik bat.

Estropada au izan zan bermiarrek nastea sortu ebena, eroan ebezan txalupakaitik.

Bermeo'k irabazi zitun lenen eta bigarrena, irugarren Ondarroa eta laugarren Pasai.

Estropada au zala-ta, Pasai'k iñor ba egoan jokatzeko bere aurka, gertu egoala, jakin erazi eban. Bermeotarrak ixilik. Eta orrela sartu zan Ondarroa. Getari'ko San Anton'dik Donostia'ra izango zan estropada.

Ondarroa'k irabazi, baiña estu. Lenengotan erraz joanarren, erremulari bik ardaua edan ebela, beste batzuk ura esaten dabe, arek kalte egin eta 15 segundutara sartu zan Pasai. Estropada onetan 84 minututan bete eban berea Ondarroa'k.

Baiña Pasai eta Ondarroa adiskide ziran eta ala geratu be. Ara zer diñoen orduko bertsoak:

*Jokatu eta orra irabazi
orra bentaja atera,
agur Pasaia, beste bat arte,
"Siglo "n ba goiaz etxera,
asarrerrikan batere ez degu,
len bezin adiskide gera,
amoriozko tratamendua
berriz nai neuke aurrera.*

1889.- Bilbo'ko estropadak. 13 treiñeru alkarren leian. 4 Bermeo'tik, 3 Lekeitio'tik, 3 Ondarroa'tik, Mutriku'tik bi eta bat Pasai'tik.

Bermeotarrentzat lenengo eta bigarrena. Irugarrena eta laugarrena Ondarroa'rentzat eta bostgarrena Pasaitarrentzat. Baiña laugarrena eta bostgarrena artean segundu bakar bat egon zan bitarte, eta pasaitarrak asarrea agertu eben, neurketa txarto egiña zala-ta. Ondarrutarrak, eurekazko adiskidetasuna zaintzearen, eurei emon eutsen laugarrena.

1890.- Donostiarrak egunkarietatik biskaitar treiñeruei desafioka. Ondarroa'k aidean artu axuta ori. Ordukoek diño e ziur egozala ondarrutarrak euren indarragaz.

Tratua egin zan eta Lekeitio'tik Getaria'ko San Anton aurrera, amar milla jokatzekotan ia leorreko kilometro bi daukazala.

Estropada donostiarrak irabazi eben, baiña ondarrutarrak ez eben estropada a garbi jokatzat ezagutu. Edozetara be Ondarroak apostu asko egin eban eta dana galdu.

Estropada oneri "siglo"ko estropadea deitzen dautse, eta ondarrutarren miñez ia urtero gogoratu izan da egunkarietan, berak irabazitako beste asko ixilduaz.

Andik ia urte bira, Ondarroa'ri irabazi eutsan Carril patroiairen txalopa arrantzan ebillan, Donostia'tik amar milla ingurutara. Aize brastada andi batek tirabira eragin eutsan txalopeari. Gizonak, al eben bestean, ordu luzetan, killari ezin eutsita egon ba ziran be, banan-banan indarrak galduta onduratzen joan ziran. Azkenez beste itxasontzi batek ikusi eta arek salbatu zitun lau, baiña bederatzi itto ziran, euren artean Carril patroia.

Ondamendi au ikusita, ondarrutarrak astu zituen euren artean egondako gordinkeri eta asarreak eta diruz eta ondasunez ondatuta ba egozan be, álegiñak egin zituen dirua batu eta alargun eta umezurtzen alde zabaldu zan eskabidean laguntzera.

Azken baten, arrantzaleak ziran danak eta ba ekien itxasoetako ondamendiak zelako ondorena lagaten daben etxeetan.

Ondarrutarren jokabide ori danak txalotu nai izan eben eta Madrid'eko egunkariak be euren goresmenak idatzi zituen ondarrutarren alde.

1897- Zeaztasun askorik ez dago, baiña bai Bilbo'n estropadak jokatu zirala eta Bermeo lenen eta Ondarroa bigarren geratu zirala. Edozetara be, zazpi urte ixilik egon ondoren, Ondarroa barrero ausartzen zan estropadetara.

1898 - Ondarroa mindu eta erre egiten eben noiz-nai artzen zitun destaiñak, galdu eban estropadagaitik.

Eta urte onetan Donostia'ko estropadetara joaten ausartu zan. Erantzuna emon nai ainbeste dei zirikalarietara.

"Flora" treiñeruagaz joan zan, Manuel Beitia patroia zala. Eta lenen sartu zan, bere atzetik 18 segundutara Pasai eta atzerago Getaria sartu zirala. Bigarren txandan Donosti lenen sartu ba zan be, Ondarroa'k 19 segundu kendu eutsazan.

Banderarako estropadan, barrero Ondarroa lenen eta 24 segundu atzerago Pasai.

Orra barriro Ondarroa bandera aizetara zabaldua Kantauriko menperatu eziñak zirala erakusten.

1902.- Bilbo'ko estropadetan Ondarroa irabazle. Bandera bat geiago.

Egun onetan bermeotarrak oiturazko ez zan erabide bat erabili eben erremutan. Soka andi bategaz erremuak lotu, eta soka ori geritik zear igarota erabilten asi ziran, orrela eskuen indarrari gorputzaren indarra be geitu nairik.

1925.- Estropada kili-kilia ebillan Ondarroa'n. Oraingotan Aurrera Kirol Alkartekoak ziran orretan iñarduenak. Arrantzale zarrak ez eben nai, asko jokatzan zala-ta. Baiña gazteak eurenagaz urten eben eta irabazi.

1926 - Orrek Donostia'ra joateko zirikaldua ekarri eban. Alaxe gertu be. Eta urte aretako estropadak, bai Donostikuak, eta bai Bilbo'n jokaturakoak, danak Ondarroa ezagutu eben irabazle. Ondarrutarren "Antiguako Ama 1" treiñerua "gabarra" bat zala, pixotsuegi zala, eta abar esaten asi ziran, baiña lau domeketan jokaturako estropadak, laurak irabazi ziran garbi-garbi.

Estropada orreitako ainbat bertso kanta geratu ziran eta atsegiñez abesten genduzan nun-nai. Bertako bertsolari Jose Brontxe, Jose Burgoa, Domingo Gorra, Berriatua'ko Ezkerra, "Ondarrutar bat" eta abarrek, "Mendaro Txirribistaka" be barruan zala, amabi bertso-paper ezbardin atara zituen eta danak atsegiñez goratu gure erria.

Orain ba dirudi Arraun Elkarteak bere gain artu nai dauala estropada auzi au eta ume, txiki, kozkondu eta gazteak or ikusten doguz erramu edo arraun ikasketan. Ondarroa'ri lengo ospea emoteko itxaropenez.

Edozetara be estropada bizi indartsu eta osasuntsua eskatzen dauan kirola da eta gaurko egoerak txalogarri egiten dau gaztedia beste zurkulu batzutatik urten eta aize osasuntsuak arnastu guraz ikusteak, eta beste ametsak bete ezkerro, obeto.

(Karmel, 1987-3, 95-102)

LENENGO MAILLAKO IRAKASKINTZA GURE ERRIETAN LENGO GIZALDIAN

Nik, Ondarroa'n, billatzen aleginduarren ez dot aurkitu lenengo maillako irakaskintzari buruzko agiririk Udaletxeko paperetan 1672 urte arte.

Urte orretan, Udaleko batzar baten au esaten zan: Udalaren eskabidez, Eskolako mutiltxoen maixu izateko eskintzen da Domingo Bixente Iturrino eta Aretxaga, ikaslea, gaitasun, menpetasun eta apaltasun andiko gizona. "Hombre de mucha capacidad, sujeción y humildad" diño erderaz. Bere eskintza irakurri, idatzi eta Dotriña erakustera mugaten zan. Itxuraz zenbaketarik ez, gai ori ez dalako agertzen bere eskintzan.

Ez da esaten umeen eskola orduan sortzen zanik, eskolarako maixu lez eskeintzen zala baiño. Beraz, ba dirudi eskola ba egoala ordurako, edo ta izan lei Udalak orduantxe sortzea eskola au eta bertarako maixutzat mutil ori aukeratzea. Udalaren eskabidez, esaten da.

Beste gauza jakingarri bat: Mutillen maixu. Ez ete egoan nesken eskolarik? Leikena da ori, eta ziurrago alaxe izango zan. Kontuan eukiten ba dogu Euskalerrian luzaro egon zala emakumeei idazten ez erakusteko giroa, bestela denpora asko galduko ebela itxura bako karta eta idazkiak egiten-eta.

Jakiña da orrelako aitzakia erri askotan erabili zala eta origaitik erri askotan mutillentzako irakaskintza ipiniarren, neskentzako ez zala ezer gertuten.

XVIII GARREN GIZALDIA

1729 urtean maixu bani bat aukeratu zan, Jose Jaio, murelagatarra. Urteko aloger lez 52 dukat agindu eutsezan, iru zatitan ordaintzekotan, eta orrez gaiñera lau ikatz karga egiteko aiña egur. Etxea libre. Oneri agindu jakona au zan: Umeei irakurten, idazten, zenbatuten eta Dotriña erakustea, eziketa ona emonaz. Eta umeak eskolan lez kalean be geldi eta naste barik eta zaratarik atara barik euki eta ibiltzen erakustea.

Iru urtetarako aukeratzen zan, eta berak utsik barik eta kanpora joan barik bitarte orretan bere zeregiña beteko eban berba emon eban.

Geiago danez irakaskintza makal eta asiera-asierakoa zan emongo zana, baiña egia da oraindik argi bagako denporetan bizi giñala be.

ITXASKETA ESKOLAREN PREMIÑA

Alaz eta ba dirudi arrantzalien artean, edo ta itxastarraren artean, egon zala itxasketa buruzko eskola bat sortzeko guraria.

1806 urteko liburuetan alaxe ikusten dogu.

Urte orretako Otsailaren 21'eko batzarrean, gaztediaren irakaskintzaren kezka agertu zan, esanez egitasmu edo plangintza bat bear zala gazteei lenengo letrak erakutsi eta Itxasketako ezaupideak be irarteko, eta orretarako arduari petxa ipintea erabagi zan.

Eskola orreri Martian emon jakon asiera, bertako maixu lez erriko seme Candido Jose Lezea izentatuaz. Urteko alogertzat, 400 dukat belloiko, etxea libre eta egur burkada bi agindu eutsezan.

Danok dakigu urte orreik, gerrak bitarte, txarrak izan zirala gure errietzat, erriak zearo pobretu eta al barik geratu ziralako.

1809'ko Uztailean maixu on-ek gogoratu eban, un-engo Martian beteten zitula bere tratuko lau urteak, eta beste tratu bat egin nai ebala.

Orduan sortu ziran istillu eta nasteak.

Batek esan eban erria ez egoala eskola oneri eusteko egoeran, inguru guztian ez egoalako Maixurik Lezea'k aiña irabazten ebanik.

Ille bete geroagodeitu eutsen, eta bere alogera beratu bear zala eskatu. Maixua makurtu zan orretara, urteko 50 dukat beratzeko gertu agertuz. Baiña beste ordezkari batek esan eban erria pobrea zala eta ezin eikeala ezelako begirapenik euki irakaskintzagaz. Eta egia au zan: Maixuari zor eutsezela oraindik 1807 eta 1808 ko alogerak.

Onak Korrexidorearengana jo eban. Arek zorrak erredu ta guzti ordaintzeko agindu ta azkenean erriak Arriaga baseni inguruan eukan soloa saldu ta aregaz ordaintzea erabagi eban.

Erria politikan nastuta ebillan. Origaitik maixuak be ba eukazan arerioak, bai eta aldekoak be.

Arerioak esaten eben Itxasketa eskola gazteentzat ipiniarren, lenengo sei illa-betetan euki zitula batzuk eta arrezkeru umeak bakarrik batzen zirala eskolan.

1814 urtean maixua kendu eben eta eskola san-atu.

Urte bete geroago baniru esaten da gazteak ez daukela ezelako irakaskintzarik ez eziketa (edukasiño) onik eta zerbait egin bear zala, besterik ezean lengo maixuagaz ituna egiñaz, baiña irabazten zitun 400 dukaten ordezkari, 200 bakarrik irabazita.

Alaz eta Iraillean erabagi zan 300 dukat ordaintzea.

1819'n maixu barri bat aukeratu zan, lengoaren asarrez. Zazpi agertu ziran zeregin on-etarako eta aukeratu zana urte baterako bakanik, "ikusite arte bere irakaskintza eta gaiñerako jokabidea maixu maillako gertaten ete zan".

Baiña orrez gaiñera beste 13 baldintza edo bete-bear leporatu eutsezan. Jakingarriak dira:

MAIXUARENTZAKO BALDINTZAK

1.- Goizeko zortziretatik amaiketara eta ordu batetatik lauretara, ezelako utsik barik eta bere ordezkari beste iñor laga barik, eskolan egon bear zala. Bitarte on-etan, txikienetik nausienera, eguneko ikasgaia artuko eutsela banan-banan, bai eta ida-

tziak zuzendu eta kontuak egiten erakutsi, orretarako zenbakiak berberak ipinita, lau erregelak jakitera eltzeke eran, ikasleak zigortu eskolara joaten ez ziranetan, edo zarataka ebiltzanetan, edo ta euren zeregiña alperkeriz beteten ez ebenetan, zigorra neurritz emonda, itsutu barik, eta ez makillekin, bestelako astikaiekin baiño (no con Palos sino con Azotes)

2 - Jai egunetan eleizkizunetara joan bear zala mutil guztiekaz, asiera berbertatik, bera danen buru egonaz, bearrezko lotsaz eukiten aleginduaz. Orrez gaiñera egunero, illuntzeko Errosariora joan bear zan ikasle guztiekaz.

3.- Zapatu guztietan kalez-kale ibili bear zala Errosarioa abestuten, eguraldi on gertatzen zan guztietan, Parrokitik asi eta bertara biurtu arte, azkenean bertan Salbea abestuaz.

4 - Maixuak ez ebalá beste ardurarik eta irabazpiderik euki bear irakaskintza baiño eta ondo zaindu bear zitula beste gauzak, bere ikasleak ez bakarrik irakaskintzan, bai eta oitura onak artu eta zarrei lotsa eta menpetasuna gordeten.

5 - Ez zirala beartuten lau urtetik berako umeak eskolan artzera.

6 - Irakaskintza emoteko tokia, eskoletxea, Maixu berberaren kontura izango zala, eta itxurazkoa bear zala, erri-agintarien gogoko zana.

7- Lau illabetetik lau illebetera, ikasleak maixuagaz batera, Udaletxera joan bear zirala, euren aurrerakuntza erri-agintarien aurrean erakusten, eta euren lana eta paperetako idatziak bestelako jendeari erakusteko aukera eukiko ebela, orrela danen on-irritiz maixuen lana ezagutzeko eran.

8- Eleizak eratutako ibillaldi guztietan Maixua bere ikasleen artean joan bear-ko zala, mutillak illaretan eroanaz, kandela edo beste ezer artu barik, umeen ardura obeto beteteko.

9.- Abendu eta garizuma denporetan, dotriña erakutsi bearko ebala bere ikasleen artean euskeraz, bai eta ikasi naiko eben beste ume eta gizoni.

10 - Umeak, eskolan eta eskolatik kanpora gazteleraz berba egin bearko ebela eta orretara beartuteko erastuna erabiliko zala, eta zapatu bakoitzean azkenego eroian mutillagandik Maixuak berak artu eta jasoko ebala, aurrez bearrezko zigorra emonda.

11.- Ez aita, ez ama, eta ez beste ume arduradunak ez ebela eskubiderik euki-ko Maixuari emoten zitun zigorretatik ezer esateko, neurritz emonak ba ziran, eta iñok orrela egin ezkeru, Maixuak eskubidea eukala Alkatearengana joateko, onek maixuagaitik txarto esaten ebenei legezko zigorra ipini al izateko.

12.- Erregetzak, aginduta eukan lez, Maixuak bere irakatsiak Torcuato Torio'ren liburutik emongo ebazala.

13.- Maixuari ez emoteko ezelako kontratu idatzirik, eta esandako baldintzak bete ezik, bere izentapena bertan bera itxiko zala balio barik.

Agiri onen alboan au irakurten da: Dekretu au 1819'ko Gabonilla'ren 26'an izenpetu zan.

Orra irakaskintzari bumz zelan jokutzen zan gure errietan oraindik azken gizaldian.

(Karmel, 1987-4, 77-81)

KOFRADIAK, ARMARRIAK ETA ABAR

Arrantzalienen kofradiak, geien bat arrantzalienen artean euren bizimodu larriaren ondorenez sortuak izan ziran, sortuten ziran kalte eta ondamendietan alkar laguntza eran jokatzeke.

Amalagarren gizaldian ezagunak ziran, eta inoiz euren lege eta arauak idatziz batzean, esaten dakie oiturazko lege eta arauak dirala eta ez dakiela noiztik datoza, et esaera lez erabilten dakie gitxienez bosteun urte edo orrelako zerbait izango zira-la autu ziranetik.

Kofradiak ba eukezan bizientzako laguntzak, alargun eta gaixoetan. Ba eukezan baita osasun laguntzak, osagille eta botiketean.

Ba dirudi kofradiak sortu ziranean, oituraz beintzat, nortasun berezi bat eukela errietako agintaritzea eta erabidetan, eta itxasotik bizi bear ziranentzat beintzat ia agintaritzea bakarra. Erri bakoitzean egozan arrantzale eta txalupak, beste aukera barik, errian sortuta egoan Kofradian sartuta egon bear ziran.

Ezin ukatu inoiz euki zituela auzi batzuk, batez be portu baten erri bitako arrantzaleak sartze ziranean. Ala Mendeja eta Lekeitio, ala baita Ondarroa eta Berriatuan.

Orrelako auzi baten goraberak XVII garren gizaldiko agiri baten zeaztuten dira, auzia erabagi aurretik deitu eutsenei egindako amalau itaunen erantzunetan. Agiri au Bizkaiko Aldundian dago.

Bertan Domingo Arana berrituarrak Ondarroan eukan txalopa jaubeak kofradiagaz euki ebana da, arek kofradiatik aske ibili nai eta kofradiak ori ezintzat emoten eutsalako, gizaldietatik etorran oitura baten aurkako zala-ta.

ONDARROA'KO ARMARRIA

Danok dakigu Baiona'n asi eta Bizkai azken egaleko portuetaraino, euskal itxas erririk geienak, itxasoa agertzen dabela armariaren (eskudoaren) gaitzat.

Batzuk txalupak bakarrik agertzen ditue, beste batzuk txalopetatik baleei jarraitzen eta arpoiak jaurtiten, besteak gure arrantzalienen arrokeria lakoa izan zan balea menperatuta erakusten dabe.

Edozetara be armariak, batzuk denporekaz be aldatu izan dira, nik esango neuke askotan txukuntasun geiago emon nairik, beste batzutan nortasun ezaugarriak, tituloak, agertu nairik eta abar.

Ba ete dakie udal askok "gutziz zintzo ta gutziz leial" duintasunik ba ete dauken be, nai eta eurak ala agertu euren armarrietan?

Karlistak be emon zituen azken gerratean euren tituloak Ondarroa'ri, esate baterako, "la muy esforzada" emon eutsen. Lekeitio'ri "fidelísima" eta orrela.

Baiña nire errira biurtuta, zein da Ondarroa-ren jatorrizko armarrria? Jatorria ete da orain Udalak bere paperetan erabilten dauana?

Iñoiz nire denporetan, N y L. (Noble y Leal) bakarrik ikusi izan dot; orain M.N. eta M.L. erabilten dabe, au da lengoari M=Muy geituta. Ba al dakigu iñok gure denporetan ortazko agiririk egon ete dan?

Ni ez nator ain zuzen be deiturari buruz ezer esatera, nai ta arira etortean orre-ri be ikutu.Irudia da zeaztu nai dodana.

Oraingo marrazkietan zubiaren aurrean bale bat ikusten da, bere buru gaiñetik ur parrastada dariola. Eta nire itauna au da: Ildako bale bat ure jaurtiten joan ete lei?

Len aipatutako XVII garren gizaldiko agirian au esaten da: "...esta dicha villa tiene por sus armas un puente y una chalupa con una ballena muerta atada a ella ". Au da, zubi bat eta txalupa bat eta oneri lotuta, ildako bale bat.

Agiri onek garbi diño lenengo armari jatorra nun dagoan be: "...estas armas tiene colocada también en su Iglesia parroquial, en la nave principal sobre el retablo de su Altar Mayor sacadas en piedra a la parte de la epístola, teniendo a la del Ebanjelio las de este noble Señorío..."

Eta alaxe da izan be.

Oraingo erretabloan be agiri dira armari oneik egurrean irudituta, baiña jakiña danez atzeko orman, arrizko eleiz-bular (abside) bat dago eta antxe dagoz arrian esandako armariak.

Dirudianez Ondarroa'ko eleiz nagusiko abside orren antzeko bat egon zan Bermeo'ko Tala'ko Amaren eleiz zarrean, au, jakiña bertako armariagaz. Eleiza ori gaur ez da ezagutzen.

KLARA DEUNAREN ERMITA

Agiri berbertan ainbat jakingarri agertzen dira Kofradiako zaindari dan Klara deunaren ermitari buruz be.

Bertan esaten da, ermita zarra izanik, itxas egalera jausteko arriskuan egon zala urteetan, eta orain urtebete gitxi gorabera diño, jausi zala, bere alboko orma bat oiñarritzen zan aitzaren orri osoa, eta ermita inguruan egiten ziran eleiz-ibillera, auresku eta ezetarako tokirik ez zala gelditzen. Origaitik Kofradiak bere kontura barrizatzea erabagi ebala eta orretarako Jzinto Alzaga azpeitiarrari erosi eutsala ango lur zati bat, 50 dukatetan eta ermita barria milla dukat inguru kostatuko zala.

Agiri berbertan esaten da, agiria ziurtatu aurretik, beste txalupa bi geitu zirala kofradian, bata Bautista Armaolea kapitanarena eta bestea Franzisko Iramategirena.

Orrez gaiñera jakiña dala errikide batek, bere eta familiaren kontura, Errenderian batzen dan burdinkia Donosti'ra eroaten ibilteko txalopa eukala.

Baita diño, Domingo Arana, Domingo Etxebarria, Joakin Urkiaga, Martin Basterre-txea, Pedro Iturriaga, Pedro Urkiaga, Domingo Amallobieta eta Santiago Ansetegik, berta-ko, Deba eta Berriatuko bizi-lagunak, Klara deunaren Kofradiko

bazkide lez ibili dirala eta sekula ez dauala iñok kofradiatik kanpoan ibili nai izan, esandako Domingo Aranak ezik.

Eta azken barri bat: Agiri berbertan esaten da Ondarroa'ko Kofradiak Martiko Andra Mari egunean ospatuten ebala bere oiturazko batzar nagusia bertako maior-domu ta burua aukeratzeko.

Orra dokumento zar batetik azal-azaletik atarata, gure errirako jakingarri leikezan azalpen batzuk.

(Karmel, 1988-2,102-105)

EGUTEGIA ESAERA ETA BERTSOTAN

Arrigarri da euskaldunok bertsoa egiteko edo egin nai izateko eukiten dogun gogoia eta orretarako agertzen dogun erraztasuna.

Jokoan dabiltzanei begira nago:

- Iru andira
- Eutsi ta kanta txikira
- Paso
- Daukanak jaso
- Lau paretara
- Ez nago orretara
- Jokora ordago
- Ori iruntsita nago....

Gure esaerak be, sarri, ainbesteko erreztasun eta berezkotasuna erakusten dabe. "Karmel" erako zerbait idazteko....ta zer obeto egutegiari bagiratzeta baiño? Aurrean daukat Irailla. Berari begira ekin daiodan. Nire olgetako kronika au aur-tengo berandu ba ledi, datorren urterako balio leidi. Irakurri ta gorde, nire boronda-tearen orde.

Iraillean sartu gara.

Orra lenengoan san Gil. Ira ebagitea zil.

Ezin egokiago ira-il baterako asierarik. Bear ba da giputxak ira ordez garoa erabilten dabenez, areik Irailla garoa ebagiteko aroa edo orrelako zerbait esango leuke.

Biganenean, san Antolin- San Antolin txistu ta tanbolin. Toki batzutan au geituten dabe: gona barriak aidean gau guztin.

Iru. Egutegiak diño Pello Zabaleta bertsolaria jaio zala Errenderin. Gogoratu bere bertsoa

*Alkar ezin ikusi
degu iñondikan,
ez, derizkiot danik
gogo rrago rikan;
ez ba degu izaten
anaitasunikan,
iritxi bear zaigu
gauza zuzenikan.*

Lau, bost...bardin da. Estropadak. Gero ta geiago.

*" Milla bederatzí eun da
ogeigarren aurten,
Agorrillaren bosta
señaladamente zan,
Donostiyan giñanok
estropada ikusten
arrituta guziyak
gelditu giñaden.*

Ori, itxastarrentzat, gaur, ez da arrigarri. Baiña len urtean iru-lau estropada orde, orain ogetak jokatzen dira.

Aurrera. Irailak 6. Elkano gipuzkoarraren ardurapean etorran "Victoria" itxasontzia Sanlucar de Barramedan sartu, iru urte baiño amalau egun gitxiagoko ostera egin ondoren (1522)

*Juan Sebastian Elkano
au izan zan pilotua,
eguzkiaren azpi guzian
berdiñikan gabekua,
itxasoetan onek izan zun
biotza korajetsua,
barku batian aurren aurrena
jiratu zuan mundua (R. Azkarate)*

Zazpigarrena - Andra Mari Gardotzakoari besperak esan ezkerro, jakea lepora.

Zortzi - Ai Maria Birgiña, agiñik ez dauanak ogi mamiña!

Beste bat: Arratekoa: Arrateko zelaiko bai floridadea,
andixek gora dago zerurako bidea.

Eta beste au "istorikoa":

*"1335 gn. Un Irayllan 8 astelenean
gaubes erresan Bermeoco Uria, non
erre cirien euskerazko liburu eta
oizaldeaz. itsasoco bai eta Uri gus-
tiacaz egon cirianac chito ederrac".*

(Ulibarri'ren "Gutun Liburua"tik)

Bederatzi - Arantzazu. Arantzazu egin dot promes, edo gau edo egunez.

Eta erri kantak:

*Arantzazura, bidea luze,
ara orduko kantsatu,
Birgiña Ama ta bere Semea
bidean ditut topatu.*

Eta aman-ean?

*"Sa Mikolas coronado
confesor es muy ondrado "*

Eskoletako erderakadak. Gogoratu erastunak, txitximurkadak eta atzamarkadak. Izan be letra sartzeko lumarik onenak makillak eta idizilla zirala pentsatzen zan denporak euki genduzan. Ala sinsituten zan.

Aurrera - Amalau. Santa Kurutze Irailleko,

II erdia. Biaramonean amasei: Nora eroango gaitu zarrak?

*"Santa Eufemire ba zoiez,
majarik maja jantzitxe,
antxe ikusiko zaitut
eiten ez ba dau eurixe "*

Amazazpi- Larraldeko Madalen neskatiila Baionan gillotinaz il. (1794)

*"Madalenatxo Larraldekoa,
Sara 'n sortu dan lorea,
noraiño z.oaz ain goiz ta apaiña,
ain eder ta gaztea,
gerra denpora bildurgarrian?
Nora bakarrik maitea ?
— Bera'rontz noa billatu naian
arimarentzatpakea" (Txomin Agirre)*

Emeretzi.- Esaerak itxi eta gogoratu kondaira: Beotibar'ko gudaketa.

*"Milla urte igarota
ura bere bidean,
gipuzkoarrak sartu dira
Gazteluko etxean,
Nafarrakin batu dira
Beotibar 'en pelean "*

Ba doa illa aurrera. Egunak joan eta egunak etorri, "Buruilleko euriak, maastiak ontzen"

Illak ogei (1931) "Bertsolariya" kaleratu

*"Gauza onikan ez clu ekarri
beñere alperkeriyak,
ortik datozte samintasunak,
txit garratz ta miseriyak;
alde batera utzi ditzagun
munduko txorakeriyak,
alkar obeto artuta ondo
biziko gara guziyak".*

Illak ogeitairu:

*"Jose Artetxe idazle ona
gure artetik juan da,
bere biotzak aspaldi ontan
asko sufritzen zuan da.
Amaika aldiz entzuna nago
lagun andia nuan da:
zergaitik gabiltz beti burrukan,
danok anaiak izan da? (M. Matxain)*

Ba doa illa aurrera. Bat, bi, lau, bost....Aralar'eko san Migelek ots! Santu andi, esaera ugari:

- San Migel, eldu zakidaz emen
- San Migeletan il berri, erosi zak idi berri.
- San Migeletan il-zar,saidu zak idi zar.
- San Migel il berriko elurra,neguko ta maiatzerañoeko elurra.

*Aita San Migel Iurretako,
zeru altuko lorea,
agura zarrak dantzan ikusi eta
ak egiten yok barreal*

*Aita san Migel Arretxiñako,
zer dogu apaitarako ?
-Orio aza gozo-gozoa
arto betoaz yateko.*

Aita Enbeita zarragaz be Aralar'era joan bear, arek eta guk erabili dogun gogoz otoi egitera

*Mikel gongotzon, Euzko-zaindari,
Zeru almenez betia,
Goitar ezpataz ebai zenduna
Luzbel'en gudaroztia,*

*Aralar-gaïndik ikusi ondo
non nai sortu dan nastia,
Ondamendiko txarren saretik
azkatu ludi guztia,
batez be, baña, zeure zainpeko
Euzkadi gure maitia.(1935)*

Orrelaxe joan da illa. Baiña oraindik azken egunean be san Migel gogoratu be-
rra dogu.

Ogeitamar.- *Atzo san Migel, zakidaz emen,
gaur ilda baiño obe erren.*

Eta ondoren basamortuetako santu aundien gogorapena.
*Gaur dala ta san Jeolimo
gaba orduko txapela bustiko.*

Edo ta: San Jeolimok barrena sikatu ta kaskarra busti.

Eta baita: San Jeolimo, negua ba dator eta allimo!

Orrelakoak esan ta san Jeolimo zarrari oetan bustiten diran umetxoen eskintza
egin bearko dautsagu, oitura zarra jarraituz. Oraindik be santuak ba dakie bizitzan
eurekaz gogoratu eragiten.

Amaitu da illa.

Batzuntzat Urria'ren bezpera. Bestentzat, benetan Buru-illa.

Joan ziranen alde, gaubeletan gogoratzen dan esaera gogoratu daigun: Bizitza
one ondoren beste obiago bat baldin ba dogu, zorionekua juan dana, zorigaiztokoa
geldi dana.

(Karmel, 1988-3)

"FRAY BARTOLOME SANTA TERESA EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA" ZENBAIT GAUZEN AZTERKETA

Fray Bartolome fede andiko frailea zan.

Fedean integrista zan aiña, euskeran anarkista.

Arau batzutan estu, bestetan nastetsu.

Bokaletan ugari, baten orde bi errezago erabilten zituna ta erabili nai zituna, gañera, gogorra zalako itzari ere indar emoten zaletua. Ez bokal bat edo beste bereziz. Edozein bokalez.

Gizona ez dau egiten bakarrik jakiñak. Odolak ere indarra dau beragan, bere agerpenetan, erantzunetan, itzak billatzean ta itzei nortasuna emotean.

Fray Bartolome, Azkue eta Txomin Agirre'k ez leuke alde andirik euki bear itzetan. Inguru labur bateko izkera darabille, ia lurralde berberetua. Eta itz bardaña, batzuk orruka esaten dabela dirudi ta besteak maitasun igortziz.

Azkue berberak esaten ekian Txomin Agirregandik bereiztu naian: Txomin odol zurbilla zala, bera barriz odol gorria. Agirre arpegi ziru ta izakera biguneko, bera gaizto eta oker.

Eta Fray Bartolome zer?

Agirre'k nekez "zabaltzen" ditu itzak, nasaitu, gizendu, bokalei indarra billatu nairik. Azkue'k sarriago. Fray Bartolome'k geiegi.

Nekez zitaldu eta gaiztotuko ditu itzak Agirre'k; Azkue'k ba dakiz biurritzen; Fray Bartolome'k ordagoka diardu eurekin. Ba dirudi bere eliz-itzaldietan pulpitoa jo ta durundia ataraten ekian antzera, itzei ere durundi antzekoa, oiartzuna billatu ta atara eragin nai izaten eutsela, ukabildaden otsa eta izten orrua, era berean, indarkeriz eta gogorkeriz sartu eitezan entzuleetan.

Bigundu gabeko baserriar atxurlaria da Fray Bartolome euskeraren alorrean. Jorratu gabea.

"Euscal-errietako Olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba" irakurri dogu.

Egillea: "Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Marquinaco Carmen Ortozeco predicatoriac pretauba"

Ezagutzeko asmotan zabaldu, irakurri, berrirakurri, aztertu eta erabili dogu liburu au.

"Hordago Publikapenak" saillean agertua da.

Eta guk jokera eta erabilkeraren kakoak aurkitu ditugu akatsak ala lege diran esaten ausartu barik. Denporak ere euren legea eukiten dabe sarri eta gure euskeran, zoritxarrez, askotan, zenbat buru ainbat aburu esan leike.

Gauza bat igarri dogu: berak "kondenetan" eban dantza nastu ta loia darabilala izkuntzan. Igairi gabe pekatura eroaten ditun dantzak eroaten dabe bera ere garbi-garbia edo beintzat ereduako ez dan izkuntzako dantzara.

"Pekatuko bide" batzutan eta bestetan integrista baten eutsikeri ta dollorkeriak aurkitu doguz, izkuntza aldetik, bere lanean.

Gain-gaiñetik egiten doguz azalpenak. Itzak eta joskerak labur eta ia soil kopiatuz. Itz edo joskera edo esan nai bakoitzaren ondoren bera billatu leiken orrialdeko zenbakia ipinten dogula.

ITZEN AMAIERAKO K

Azkue'k, bere "Diccionario Vasco Español Francés" dalakoan K idazkiari buruz au diño:

"En algunos dialectos se observa la tendencia de suprimir la K final, aunque la sobrevenga no un subfijo, sino una palabra independiente que empieza en consonante, considerándole como si hubiera de aglutinarsele.

En esta regla está comprendida la misma K de actividad. Es procedimiento que no debe acogerse en la escritura, aunque la lengua por dejadez o comodidad la establezca"

Fray Bartolome'k ez dau begirutzen urrengo itza konsonantez edo bokalez asi. Bata nai bestea gertu, sarri "jaten" dau berak K ori.

K IZKIA JATEA

ceuria da esquina guztietati (3-4)
gueu gaiti iltzen zacustazanenian bateti (4)
ta besteti, itsutasun...(4)
gusto laarregui emotia gaiti (5)
au gaiti aimbeste gauza (75)
naasteco dantzaac gaiti (75)
orregaiti ainbeste gauza esaten dira (9)
Moisen demporati ona (9)
Au gaiti olguetiaren gainian (13)
Au gaiti pensau dot (10) Dan gaiti (138)
Legueti urten bagaric (14)
Orregaiti cein arimaco ta cein gorputzeco (15)
Orregaiti bapere obaac ez dira (155)
Olgueetiaren beraren parteti (26)
denporiari parteti (37), edadiaren parteti (56) apaindurijaren parteti (56)
conciencia nasaijaren parteti (56) estadubaren parteti (56)
dinot arima arimati (4)

alboti bere etzun biar ezditubanac (64)
 Areec bere inundi albadaguijee (54)
 ta mutil bat alcarri escuti edo samati oratuta (73)
 Piestati echeruz nequez (72)
 Piestati echera nequez (73)
 Bitati bat (104)
 Eracusteen liburubetati (104)
 Emeti ezaututen da (154)
 Danen casa gaistoti datorrelaco (139)
 Evangelioo ercutsiti asko urten bagaric (98)
 leleengoti azquenera (99)
 geldi nenguan lecuti artuta (115)
 laster librauco da naste atati (113)

F'REN OGUZKERA

Ba dirudi errezago dala, gaurkoentzat beintzat, batez ere ezagunago ditugun erdal itzetan, Fren oguzkera erdaldunen antzera erabiltea. Eta idaztea ere bai.

Ala ere ontan Azkue'k garbi esaten dakin legea dago "Todavía hay muchos Vascos naturalmente refractarios a este sonido y tienen a pronunciarla como P. Los antiguos cambiaban las palabras dotada de F, que acogían de lenguas extrañas, sustituyendo P a F. Pago, haya, que, probablemente viene del latín Fagus: Piko, higo, que viene del latín ficus; Praille del español fraile, panparrón del español fanfarrón, etc.

Conozco hombre de carrera dotado de un oído tan cincelado a la antigua, que pronuncia generalmente y sin darse cuenta paka en lugar de faja hablando en castellano".

Ezpai gabe, Fray Bartolome'ren itzaldien bat entzuteko aukera ba gendu, orrelako zerbait gertatuko litzake, gure Aita gogor au, fedean antzerako gogorra eta eskuta dalako orrelako itzetan. Itz bakar batik ez da billatzen, billatu bai, aurkitu ez, onetan legea ausi dala esan litekenik.

P ERDERAZKO F'REN TOKIETAN

Itzen asieran:

Aita Prai Bartolome (1), Propeta paltsuen lecuban conteetan ditu (13), Pedia daucan cristinaubari (76), Tambolinagaz piesta (107), Plazaco piestaraco (43), Plazaco piestia (43), Erromedijeetaco piestaac (107), Piesta orreetan (130), Piestazale bedeincatu orreec (180), orraco piesteetaco (184), piestatijac (184), piestatic (179) ta piestarjac. presco prescorik (184). paltaric eguiten ez davena (107), eracusla pamaubac (129), dantzeen pavoreco (133), dantzeen pavore (132), prutu guichija (3), prutu madaricatuba (146), errietaco piel jaunac (151)

Itzen erdian:

Propeta paltsuen (13) olgheetaco apicinoia (20) opendidu bagaric (26), (194), Luciperrec ceruban (186), compesoriac ascoc (150), dantzazaliac santipicau (176), desapijozko burruqueen (145), opicijo impamia (149), impametan (76), impame (201), impamiac (7), impamiaren (146), (149), impermura (77).

B LOTUTZAILLEA

Azkue'k : "Como elemento gramatical desempeña dos funciones: una meramente de ligadura material, desprovista de todo valor ideológico; y es la de unir en algunas variedades dialectales la vocal U (y en alguna aun la vocal O) con otras: Burua, "la cabeza",= Buruba

Lo cual se observa en alguna localidad del B (reduciéndose cada vez más su uso) en muchas localidades del G y en San Juan de Luz".

Fray Bartolome, onetan, nastetsua da. Orri berbertan ainbat izenetan b sartuko dau eta orri berbertan, izen berbertan, ez dau sartzen. Ba dirudi, gai onetan, bietara jokatzen dabillala, zegaitik egiten daben bereiztasun edo ezaugarri berezi gabe.

B LOTUTZAILLE BEZELA

Capituluba (11), gatz-ozpinduba (1), predicadoriac prestauba (1), vildur santuba (6), eguiten azartuba (6), cristinaubeen goguan (7), asmau dituban (7), oitura galduba (7), escritura sagraduban (7), gorputz cansaubari (7), buru necatuba (7), eracuste oneco liburubetan (7), ta bai pecatuba (7), eguiten moduban (10), gura liuquee mundubac (8), diabrubac (8), eguiten ez citubeen pecatubac (8), Ebanjelioco espiritubagaz (9).

Eguiten daveen (9), (Ordez: daueen gachac (8), egun daueenac (9), dauenarentzat (8), esan dauee (9), dauena (12)), evenac (9), desonestubagoric (10), dantza galduba (10), madarikatuba (10), cristiñau itsubac (10), contuban jausi (10), davena (11,12), daveena (12), ez urrija, ez prestubeza (21), pecatubagan ta pecatubagaz (26), diabruagaz (79), luxurijaren suba (48), David baino santubago (47).

Oarra: orri berbertan, Sanson baino senduago (47).

S ETA Z, TS EDO TZ'N BIURTZEA.

Azkue'k Iztegian, au diño:

"Existe entre los Vascos una tendencia, cada vez menor de pronunciar mantzana, imentzamente, pantza, altzamiento, las palabras manzana, inmensamente, panza, alzamiento".

Baiña Fray Bartolome'k ez dau aldaketa ori erderazko berbakin bakarrik egiten. Bestera, euskal itzak dira geienbat gogortzen ditunak.

Azkue'k: "Fuera de los aldeanos hay pocos Vascos, principalmente entre los occidentales, que pronuncian bien hoy el sonido de TS. Se pronuncia lo mismo que TX..."

Onetan ba dirudi Fray Bartolome'k ba dauala bere zentzu apurra eta ba dakiz s eta z'k bereizten.

Biurtzei buruz, bardin dautso, orraitik, s eta z, TS edo TZ'n biurtu, edo ta TS edo TZ bear litzakenetan, edo ala dirudienetan, bestera jokatu.

Orri baten era bateko biurketak agertzen doguz. Bestean, bikoitzetik bakarrerakoak. Azken oneik urriago darabiltz, eta ba dirudi gaiñera, erderazko oguzkera bardiñean esateagaitik t barik esan nai ditula.

TS EDO TZ IZAN LEIKEZANAK, S ETA Z'KIN

Zeuc dacuszu nire naija eguijazcua ta arteza dana (5). (Besteetan deutsu erabilten daki).

chito sarri davilzanac (7), gorputz cansaubari (7), dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan (10). Au gati pensau dot (10), Escatuten duseet guztiai (11), ez naijela simplezat euqui (11), guizonac onzat emon ezin leguijee (12), laster cansaucoda, ecarten ditu exenpluzat (18), laneetan cansauta daguanian (29), contraco leguiac ontzat emonaz (30), pecatuzat condeneetan davee (30), oneen ondorioc eranzungo (105). Oarra: orrialde berbertan: erantzutera; pecatu mortaltzat eracusita (121). Cer pensau dozu? (130), casic edocein penseeta oneco (146), egongo ezda, penseetia (191), Jaungoiko ucazalliac (145), ez da iñor carçelara eruaten (147).

S ETA Z, TS ETA TZ'N BIURTZEAK

amodijuaren su vitzija (6), gogotsuen vitzijagaz jocatuten ba da (29), cristinaubac vitri deitezana (34) Oartu: vitei. Bestetan vitzi Alabaac vitzi dirian artian (85), impernucuen vitzitzia (58), ez eban Santia iñoc icutsi triste (23), jokua, eitza, pasiua...(28) eitza ta arrancatzia (31), escolaan atzijac (55), desenestidadeko escolaan atzijac (59), edoceinec dacuts (78), ez eutschuzan (79), chaarrian vitz izateko (149), vitzitzati eternidadera (163), engainatuta vitzi, ifiore vitzitzaac jaquitia (200), ocasioeric vitzjjenian (181), itxututa vitzi diriala (181), santubac ez cirian (190), inos olgau baitzirian (190), diabruen irabatzija (135), sermoiac irabatzijac (136), edo irabatzijac penaric emoten ez (150), pecatuz josita dagotzan (135), ser eratsou dautseen (184), noizbait atseetia (16) (asetu); deutsu, encargueetan deutsu (22).

BOKALAK BIRRESATEKO OITURA ITZ BAKOITZA INDARTU-TEKO ASMOZ

AA

gusto laarregui emotia gaiti (5), batzuc ez chaarrac (8). Bijac diriala charrak

(196), gauza ona charra dala ta gauza charra ona dala (10). Oartu: charra ta charra. Gurasuac eta eracuslaac (8), naasteco dantzeen bereno madadicatuba (10), naasteco dantzai beguiratu (11), bati jaaten (15), ta edaaten egon biar baleu (15), ta pozgarrijac edaatera (21). Guraari laarreguijagaz (28), bai conciencijaco dudaac, quezcaac, eta penaac (23). Eleisaan egonan-en (57), vijamoneco ganadu jaatecua echera batuti (57), iñoren vizitzaac jaquitia; errezoe eltzacaac (220)

EE

Olgueeta sarritaco (5), (olgueta santubeen); eureen luurrezco gorputz (5), conteeetan ditu (13), escu jotsijeetara bialduten dot (5), euki leguizaneen gatza (5), ezin leguizaneen ozpina, arimeetan ceure vildur santuba (6), Cristinaubeen goguan (7), deuteenac (7), eureenez pecatuzcuac (8), desondreetan daueen gachac (8), Arec esan dauee (9), bereno madaricatuba azaldeetara (10), oradiqueetan daveenac (13) castiguetan ditu. Asmau vedi, naijeen dan gauzia, geuijeen gusteeetan jacona (14). Oartu: Codicioso batec gueijen nai davena (14). Biarra mudeetan (15), diruba conteeetan ta gordeetan (15), eureen erregueleetan (19), religiosac atsetaco (19), atse[^] en era uiteco (20), Mana gozua gusteeetara (21). Painueluac javoneetia (57), caaleetia (57), ta endamas baseerijetan (57) esan beeban ezbeeban, edo emon beeban ezbeeban (202).

II

beti izango da egujjia (26), nja, egunja da (189) Ez da au eguijja (189)

OO

paineluac javoneetia, almidootutia, zeubeen lagunai ori burloori. zaldi bat oostutia (196), aldaguijeena echeti oostutia (201), basuan oostutia baino, eleizan oostutia (198)

UU

luurrez ezainduta (4), luurrezco gorputz (5), luurrezco pecatubeen (5)

IA = EA

Sarri darabil ia bigungarria "eufonikoa" ea'ren orde. Oituraz. Ia legez.

Bere errialdeko esan bidea dalako. Joera ori errezago yakolako.

Bide baten garbi jokutzen ikusten ba da, ementxe da. Esan lei legetzat daukala i ori bigungarritzat artzea.

Orrialde bakoitzeann edozenbat aipagarri billatu leikez gai ontaz.

Ara batzuk:

Olgueetia, ibiltja, denpora iragotia, aisia artutia, divertudutia....(7), izatia, libertadia, desonestidadia...(7), beti onian euquiteco (7), dantziaren gainian (9), olgueeta guztien ard an (9), arin sartuta (9), dantzia berez ez dala pecatu, ta besdac, dantzia (9), zaartuta bere berdiac (59), Umiac alacuac (59), vitzi dirian ardan (85), sail au luzatutia (88), baban campora (110), besban barrura sartzia (110), bastar baten illunian (110), Ez da asco esatia (113), gorputzari gustua emoba (123), Babiloniako labia, erijetaco pestia (86), tambolinagaz piestia ta naasteko dantzia (87), zu sariala medio, besdac (130), zabaldu cirianian (141), au zan gentileen sinistuda ta erligi-

noia (142), mecia esatera, edo meriari lagundutera (166) Abadiac eta praibac (167), Nasteco dantzaac icustia ta arei beguira egotia... (171)

BEREIZTASUN BATZUK

ENE, "NF'ren positiboa erabilten daki.
Ta ene ondorik beste batecargui geuijagogaz (11)

BAGARIK

Azkeneko K itz askotan kenduarren, bagarik erabilten dau baga ordez.
legueti urten bagaric (14), jocuari ichi bagarik (15), santu isatia atzeratu bagaric (18), izatiari ichi bagaric (19), Jaungoicua opendidu bagaric (26), (27).

GALDERA =ITAUNETAN

Sujeto actiboa erabilten dau : Esango dogu, Santu ande areec ez eveela euqui Ceruco arguija? (19). Ez eveela ezautu Evangelijoco Espirituba? (19)

ALKARTITZETAN

Bai-ala ezko lokarritzetan : Cein arimaco ta cein gorputzeko. Ala ezcondu bagacuagaiti, ala, ezcondubac gaiti. Ez da geure Jaungoicua ez zitara, ez urrija, es prestubeza, ez tristia; ez bada arteza, zuzena, zabala . . . (21). Pasiua berez ez ona ta ez charra da. Ez_jaco beliari usua esaten, ezbada belia (51)

D, T'REN ORDEZ

Odoltu erabilten dau odoldu'ren ordez. Odolduta....(4). Ordez, orrialde berbertan, estalduta.

GIPUZKERA

Bizkaitar jatorra da Fray Bartolome
Alaz eta gipuzkeraren kutsuak agertuten ditu.
Itz batzutan bizkaierari eusten dautsa, nai ta bere kidea gipuzkoarrena ezagunago izan.

Kontuan euki: Beraz itzik ez dau erabilten. Begaz baiño. Gogait itza ez dau erabilten, gobait baiño. Baiña beste askotan gipuzkerari men egiten dautso.

Orrela:

Gaisgui egiten (16), jausi ditezan (10), castiguetan ditu (13), zabalduten ditu-

vee (13), ez ditubanac (14), escatuten ditubanac (14), ecarten ditu (18), ez citubeela (19) sarri iragoten oituban (23), vizi ditezala (24), pusca bat (25)

ESAERA TRAKETZAK

Ainbat batu leikez bere liburutik:

Orra batzuk:

Popuertzako lana edo cereguiña ba litz leguez (20), Onetarako popuerzacua da examinatia (44), artu emon popuertzacuetan (200). Endemas cerbait geuijago (48). Endemas guichitan (48), Endemas baserrijetan (57), Endemas Aitac (58), Soluan nabasen (81). Sapatuba nabesen. Birao ordez bidao erabilten dau: eurai bidaoca dagozala (58), baque chaarrac, asarriac, bidauac (58).

Soinubari oi darraico dantzia. Donez ala parezca (28) Nonez izango da ziur. Daviltzala chito ezain (125). Chico esi bagaco, edo baso asto batzuc dirurijeela.

(Karmel 1988-4,19-28)

ITXASOETAKO ONDAMENDIAK

Itxasoetako ondamediak, gure gizaldiaren erdi ingururarte, benetan ondamendi arrigarri eta negargarriak gertaten ziran. Eta ez famili bat edo besterentzako, ia erri guztiarentzako baiño.

Gaur, bereziki, Ondami-begiz ikusiko dodaz, nai eta beste erriak be kontuan euki.

Lengo denporetan itxasoak erraz artzen zitun arrantzaleak bere mende. Ba egozan ortarako errudunak: ontzien makaltasuna, egitura, eta esku eta aize bidezko ibilbidea, au da, erramu eta bela bidez ibili bearra, oraindik bapore eta motorrak eza-gutu aurretik.

Gaurko teknikak ziurtasun geiago emon dautse gizona eta txalupei.

Ondarroa'k istori baltz luzea dauka itxas ondamendietan.

Ainbat bidar gertatutako gizon bakarra galtzeak bazterrean itxi eta ara emen, bear ba da tartearen banaketaren batek iges eginda, gure errian gogoratu leikezan batzuk; au da, ittotako ondarrutar batzuk:

Urtea:

1691.- (6) Donosti'tik korsario bizikeran urten eta sei itto.

1696 - (3) Frantzetar txalupa baten bale ta bakallautara joandako iru.
1700.- (4) Otsailean, arratzatik etozala lau, kairako sarreran.
1727 - (10) Arrantzara joandako ontzi baten, amar
1728 - (3) Portutik urteeran, iru
1741.- (5) Baletara joandako txalopa baten, bost.
1766 - (3) Portutik urten eta bereala, iru.
1773.- (2) Portuko sarreran, bi
1800 - (19) Portuko sarreran, txalopa bik tirabira egin eta emeretz
1810.- (3) Bilbo'tik etozala, iru
1816.- (8) Portuko sarreran, zortzi
1839 - (4) Portuko sarreran, lau
1841.- (2) Bi
1842.- (2) Baiona'ko sarreran, bi
1850 - (2) Hamburgo'ko aurrean, bi
1857,- (3) Itxas zabalean, iru
1860.- (5) Itxas zabalean, bost
1868.- (19) Donosti'tik etxera etozala, emeretz. Urtarrilla'ren 22'an gertatu zan. Ekaitzagaitik Donosti'n sartuta egon ziren. "San Antonio" izena eukan txalopak. Juan Jose Larrinaga jaube zala. Ekaitza baretzen etorralakuan, etxerantz asi ziran, eta andik urteeran itto.
1871.- (3) Matzaku aurrean, iru.
1878.- (9) Itxas zabalean, galerna baten mende, bederatzi.
Egun au, Apirilla'ren 20 garrena, zapatu santu eguna, benetan negargarria gertatu zan. Bermeo'ko 95 itto ziran, Elantxobe'ko 47, Lekeitio'ko zortzi, Ondarroa'ko bederatzi, Colindres'eko 35. Orrelaxe irureun lagun baiño geiago Donosti'tik Santander bitartean.
Ondamendi oneri buruz urrengo egunean, "El Noticiero Bilbaino" Bilbo'ko egunkariak au esaten eban:
Zapatu santu eguna, egun zoritxarrekoa agertu zan; giro atsegin eta epela, udabarrikoa. Ipar-sorkalde aize biguna. Origaitik, eta antxoa sasoi zalako, itxas ertzeko arrantzale guztiak itxasoratu ziran. Eguerdia aurretxoan amaika ta erdiak inguruan, Ego aizea asi zan, eta orrelaxe jarraitu, ordu bata laurden gitxiago arte. Eta uste barik urakana lako Ipar-sarkaldeko aize zakarra sortu zan. Iru ordu laurden, ordu bete laurden gitxiago, iraun eban ekaitz orrek.
Amalau txalopa bermeotar falta ziran, 106 arratzaletik 88 ittoak, euretariko 30 kae batekuak; Elantxobetik ogei ta amazortzi... Ala esaten eban egunkari orrek lenego egunean, baiña zoritxarrez biaramonean zenbaki orreik geitu egin ziran.
1879 - (1) Aurreko ondamenditik urte bete baiño len, beste bat. Ondarroa'n txalopa bateko patroia izan zan itto zana. Baiña Zumaia'n amabi; Lekeitio'n, "San Miguel" eta "Jesus Mari" txalopetan, ogei ta zortzi Urtarrilla'ren 8'an izan zan. Besigutan ebiltzala.

1902 - (10) Ondarruko portu aurrean ezin sartuta egon ondoren, Mutriku'ra joan eta an, portu barruan "Nuestra Señora de Iziar" txalupa sartu ondoren amar itto ziren.

1909.- (13) Maiatzeko galerna baten, amairu

(Galerna au iragarri eutsen arrantzaliei orduan Zarautz'eko bikario zan Orkolaga jaunak, baiña antxo gorriak ez egozala urrun eta itxasora joan eta sare ta tresnak itxasoan itxita batzuk Getari'ko portu ingurura sartzea lortuarren, beste batzuk itto.

1912 .- (3) Dagonillean (abustuan) atun denporan iru.

Ondarroa'n Santa Klara jaia ospatzen zalako, emengo txalopak erriratuta egozan geienak eta origaitik portu onetan iru bakarrik faltatu ziran.

Gogoratu bertsoak:

*Notizi triste ori
giñan adituak,
egun amasei Bermeoko
ba zirala ituak.
Iru ondarrutar ta amasei
Lekeitiokuak
Elantxobetik zortzi
ba dira naikuak
danak gure anaiak
Kantabriakuak (Jose Garmendia)*

1955 - (11) "Hermanos Arriola" arrastarua ondatzean, amairu.

Ikusten danez, Ondarroa'k ba dauka itxasoko istori baltza.

Bizimodu arriskuz beteriko onek, Jainkoaren fedean eutsi eragin eutsen arrantzale askori, jakiñez baiño bildurrez geiago.

Oraindik gure denporetan be ezagutu genduzan mariñelak, itxasotik etorri ta Antigua'ra ortozik joaten, Antigua'ko Amari euren estutasunetan egindako eskintza edo promesak betetan.

1878'ko Apirillean egon zan ondamendiaren ondoren, gizonak salbatzeko txalopa egoki baten eredia billatu nai izan eben, eta Jose Anton Arriola ondarrutar ontzi egilleak irabazi eban eredu orren saria

(Karmel 1989-1,105-108)

OSASUNAREN KEZKA ETA EDARI BIZIGARRIAK

Ondarroako kondairan zear, osasunaren kezka ia erriaren sortzetik igarten da. XV garren gizaldirako ba dago *San Jua ospitalaren* barri.

Eta beste batzutan *San Roke* izenekoa, edo ta *san Lazaro* (Lazaretua). Azken au santa Klara ermitaren azpian.

Ba dirudi bata ospital oia zala, batez be ezeukientzako, eta bestea gaixo txarrak agertu eta sortuten ziranean bakarrik zabaltzen zala, orrelako arriskudunak erritik aldendu eta an zaintzeko.

Izurriak zabaltzeko bildurra egoten zanetan, erritarrak zaintze edo guardiak egiten zituen erriko sarreretan.

Toki oneik onela zeaztuten dira paper zarretan:

Gipuzkoa'ko sarreran, Astilleru inguruan talde bat.

"Santa Ana" atadian beste bat. Orrela deitzen eutsen Errenderitik erriko sarerrari.

Antigua gaiñean beste bat. Konturatu Lekeitio'ko errege bidea, kamiñua, XIX garre gizaldian egin arte, Antigua'n bera etorrela ango bidea.

Eta Artibai ibaian, parrokiaren aurrean, itxas-txalupa baten.

Gau ta egun egiten ziran guardiak.

Bidetik etorten ziranak kedarratu (fumigatu) egiten zituen.

Gaixo denporan, ospitalean tokirik ez eta etxeetan eukiten zituen batzuk gai-xoak, euren zaintzapean eta erriaren kontura ordaintzen zan zeregin ori.

Orrelako denporetan kanpairik ez zan joten eleizakoak eta azken igortza (olea-ziñoia) eroaten, ez eta illeta edo enterrua egitean, bildurrik ez sartzearren gaixo ego-zanen artean.

Gaixoaldi asko egon ziran batez be XIX garren gizaldian eta kalte gogorrek egin zituen errian, batez be umetxoen artean.

Izurrite (kolera) denporetan alkitran barririk erreten zituen kaleetan, edo ta otak, orretarako mendietatik burdikadak ekarriaz.

Orrelako gaixoak ilten igarri orduko, etxetik kanpora ataraten zituen, kutsaduraren bildurrez eta gertatu ei zan iñoiz kanposantura ildakotzat eroandako bat andik etxera biurtzea. Origaitik etorri zan biaramonerarte lurrik ez emoteko agindua, asko, iltzakotzat eroanarren, oraindik bizi eroaten ziralako.

EDARIAK

Gure gizaldiagaz amaitu ziran maastiak Ondarroa'n, baiña Korteta, Arriandieta, Mustu-Txurru eta beste ainbat tokitan maastiak egozan eta sagastiak.

1625 urte arte ez zan Ondarroan ardaurik sartzen eta urte orretan asi ziran eka-

rri nairik. Urte onetako Udal-aginduetan irakurten da Lukas Ikaran bialdu zala Elorrio'ra, andik gure errira ekarriko ebanaren billa eta zeregin orretan egun bi igaro zitula eta bost errial emon jakozala.

1629 garren urtean "Andaluzia" ko ardaua eta Rivadabia'koa ekarten asi ziran. Ba dauka orrek bere azalpena. Kontuan euki oraindik Naparroa alderako biderik ez egoala, eta gure erriko merkataritzarik geiena itxasoz egiten zala, bai Galizia, Portugal eta Sevilla alderakoa.

Ez dakigu zer gertatu zan ardaugaz, baiña 1659 urtean ardaua ekartea galera-zoten asi ziran. Urte orretako Udal erabagia zorrotza da: Emendik aurrera ez leorrez eta ez itxasoz ardaurik ez ekarteko, Udalak orretarako baimena emon ezik.

Geroago, 1785 urtean erabagi eben erriko txakoliña amaitu arte, ardaurik ez ataratzeko saltzera. Geiago, Txakoliña salgai egoan artean, ardaua klareterik ez saltzeko medikuen esanetan txakoliñak kalte egiten eutsen pertsonetatik kanpora. (Udal aginduak, 13-VIII-1785)

Bakar bakarrik ardaua saltzea aske lagaten zan meza barrien bat gertatzen zane-tan, edo ta arrantzaliak urtean bein edo birritan egiten zituen txalopetako janetan. Eta ez danei, soldata osoa irabazten ebenei baiño, esatea lez, mutil eta gizon egi-ñentzat baiño.

Jakingarri lez esaten da, ia gure denporak arte oiturea izaten zala txalupa bakoitzeko mariñel edo gizonak egitea txaloparen garbiketa, pintaketa eta abar, eta orren ordeztu, irabazien baltzutik dirutxuak lagaten ziran aratuztetan edo beste urteko jai andiren baten txalopako jataldi bat egiteko.

Edozetara be 1785 urteko Gabonilleko erabagi batez galerazota gelditzen zan, tabernariak ezik beste iñork euren etxetara ardaua zaragiak eroatea. Zigor gogorra zan: zaragia kendu eta beste dukat biko isuna (multa) (Udal aginduak, 4-XII-1785)

Denporaldi luzean iru taberna bakarrik egoten ziran Ondarroan. Tabernariak euren kontura eukiten eben illuntzetan kale-kantoietakoko farolak biztutea (1719'n iru taberna egozan. 1828'n bardin. 1856 urtean bost tookietan saldu eikean ardaua).

Beste jakingarri bat: ardaugaz nasterik ez egoteko, ardaua erabilten ebenak, karriatzen ebenak, galerazota eukin ardaua naparr klareta saltzen eben tokietan laga-tea. Ori ardaugaz nasterik ez egitearren izaten zan. Galerazota eukin, ba, naparra saltzen eben tabernak klareta be eukitea. Galerazota egoan baita be ardaua karriokan ebiltzanak taberna jaube izatea edo ardaua saltzaille izatea.

Galerazota egoan baita be txakoliña saltzen zan tokietan ardaua saltzea.

Mandazaiñak ekarten eben ardaua errira, eta bein erriko bidean sartu ezkerok, galerazota geratzen zan ardaua erabillan burdia (karroa) iñun gelditzea. Ondarrura etozanak Kamiñaldetik sartzan ziran, Kale-nagosa igaro eta Erriberako kurutzan bira egin eta beratzen ziran Zubi ondoraiño, bitartean geratu barik.

1785 urtean, Jose Egurrola erriko ordezkari zanak agertu ebanez, erri guztia ebillan errian koñaka (aguardientia) saltzen ipintea eskatzen, orretarako premiña asko egoalako, batez be arrantzaliek artean, geienetan egun sentia baiño lenago

itxasora joan bear izaten ziralako, batzutan negu gordiñean be bai. Esaten eban ez egoala ezaupiderik errian onelakorik saldu izan zanik, bai orde z galerazpen zeatza. Baiña, bere esanetan, erriaren guraria onartu bearreko zan eta proba gisa baimendu bear zala aguardiente saltzea. Ori bai, nabarmenkeri eta oiturarik kanporakorik ezagutu ezker urtea betetean barriro galerazoko zala jakin eragiñez. Geroago zela-ko aguardientea ekarri eztabaidatu zan eta erriak, batez be arrantzaleak, Frantzeko aguardiente edo koñaka ekarteko zale agertu ziran. Orretan, giroan ezagutzen zan merkataritza-karrioa itxasoz egiña zala jakitean, erabat erraz ulertzen da ezaupide ori.

Arrantzaliertzako "espiritu bizigarria" zala aguardientea esaten da egun onetako agirian.

XIX garren gizaldiaren erdi aldera, bide barriak egitean, tabernak be geituten asi ziran, ardauaren ziza edo inpostua izan zalako bide orreik egiteko erriak billatzen eban dirua batzeko erarik bardintsuena.

Orrela, 1885 urtean 28 taberna egozan Ondarroan.

Sagardaua txakoliña baiño beranduago galdu zan. Oraindik gizaldi onetan be ainbat sagardautegi ezagutu zituen gure errian, eurretariako asko gero taberna biurtu ziranak.

Bilbo'n eta beste uri askotan entzute andia euki eban eraen gertuten zan sagardauak. Toki askotan ikusten ziran kartelak esaten : Sidra de Ondarroa. Nai ta askotan sagardaua bera berriatuarrak egiña izan eta Ondarroatik itxasoz Bilbora eroana izan. Edozetara be dana ez zan guzurra.

(Karmel 1989-2, 83-87)

EGUNOTAKUAK

Modan dabil, batez be politikoen artean, "influentzien trafikoa".

Ori da euskera ablatzeko maneria, esan daike norbaitek.

Ortik nua.

Ez daukat ez lurralderik ez beste ezer. Eta batzuk salatzen dabezan asmo, ekin-tza eta tratuetan ibilteko gogorik eta adiñik be ez. Tratua esan dot. Zegaitik deituten ete eutsen gure zarrak tratu zikiñei "tratu montaña"? Ori be aidean geratzen da. Gu ez gara tratulari. Gure denporak emen duaz: batzutan idazten, bestetan berba egiten eta iñoiz, nai baiño geitxuago, lo. Euskal esaera zarrak esaten ebana : Agure zarra durdura, sopak jan eta lo gura.

Alaz eta "influentzien" trafiku onek kezkatuten nau. Lengoan batek itandu eus-tan: Zelan esango zenduke zuk euskeraz "tráfico de influencias" ori?

Nik garbi eta argi azaldu nai dodan gauza bat au da: Sekula ez dala itzez-itzez berbaz-berba itzuli edo traduzidu bear, bestela orretan ainka sartze lotsagarria egi-teko arriskuan sartzen garealako. Itzulpena bakoitzaren izkuntzaren arau eta errege-lekin egin bear da, eta ez beste izkuntzen erregelekin. Eta beti be zer esan gura dan kontuan eukita. Eta jatorriz zelako esan naian egiña dan ondo ziurtatuta.

Sekulako astakeriak irakurten dira itzulpenetan, etxe beteko akatsak, nai ta banan-banan berba guztiak garbiak izan eta berba lez ondo egin.

Orrelakoak?

Inguruetan ikusten diran kartelei begiratzea baiño ez dago. Zenbat eskutuko irri egiten dan askotan orrelako batzuk ikustean! Tartean tarte, bidean zoazala, onelakoak irakurten dira: "Zubi azpiyan Albia" Nok itzuliko leuke ori, euskeraz zer esan nai daben ez da igarten-eta? Baiña ori onen itzulpena ei da: "Bajo los jardines de Albia". Ala ba da, lengoak esaten ebana, sinistu kredoa!

Beste bat: Bizkaí erri ospetsu baten dagon Akademi batena: Pernando'ren deuna ikastetxea. Iño! Ba dirudi Pernando'ri ezarri nai izan dautsen santu koroia zidarrezko eta benetakoa barik, txatarrakoa izan dala eta oker jausia dala.

Beste bat: "Bateko Santutxu obe" Zer da ori? Joan zaite geldi geldi euskera-tzen: Bateko =por un; Santutxu = Santutxu; obe = mejor. Baina itandu egiozu euskaldun jator bateri zer esan nai daben, eta a zelako erantzunak lortuko zendukezan!

Geiago: trenen azpiko gonak, combinaciones de trenes, adierazteko. Alako bertso zar batzuk gogoratu bear:

*Gure trenaren
azpiko gona
berea ba leu
ezer ez.
Bizi guztian
aldatu gabe*

*soñean darabil
arek...!*

Aurrera: "Todas las metralletas matan" = Metralleta guztiak il.

Eta ekin: Aolkari baten zuzenbidea : "Konsultak, X kalean, 28 zenbakian, bigarren landarean.

Itxuraz etxe-oiña edo antzerakoen orde, segunda planta = bigarren landarea.

Eta geiago? Toneladaka esan leiz. Batez be iztegia erabilten dabenetatik egin da ikusten diran itzulpenetan.

Mingarria au da: Iñori ezer esan ezker, aserratu egiten dirala, gogor jarten dirala, eurak ondo dakiela-ta.

Bibao'n, Erriberako azokan, lureko emaitzak egoten ziran tokian, nire ustez igaliak adierazteko, au da, frutuak esan orde, au ipinten eban ango saltoki baten : Igarleak. Ez dira bardin igaliak (frutuak) eta igarleak (profetak)

Bein ango andreari onez esan nai izan neutsan, a ez egoala ondo. Baiña berak erantzun, asko ekian batek ipinia zala eta bera ez eioala aldatzera.

Ekin neutsan. Ba dakizue zer erantzun eustan? Ba ekiala aldi onetan mordollockeri asko oituten zala eta bera ez ekiala euskerarik baiña berak euskera garbia gura ebala. Eta beretik ez eban urten nai izan. Eskerrak merkatu toki a barriztutzean, ez ebela bereagaz jarraitu.

Beste gauza bategaz konturatu gara aspaldi onetan, batez be illen eskeletan. Batzuk, erderaz, izen-abizen ondoren, bere ogibidea ipinten dabe, jendeari errezago konturatu eragitearren nor izan dan. Orrela batzuk "comerciante" ipini orde, "del comercio".

Eta "del comercio" ori danok dakigu dendaria esan nairik ipinten dala, baiña eskela askotan onelako esaera au irakurten da: "dendatik". Dendatik zemra joan dala adierazteko ete da ba?

Luze joango giñateke orrelakoak agertu eta adierazten. "Iri barruan barnetzen zera" eta orrelakoak, zenbat? Errezago, ulerkorrago eta jatorrago ez ete litzake erri-izkeran, erriak erabilten daben eran zeatz esatea eta danok pozik?

Beste moda bat: *H* izkia sartu bear. Nai ta ez. Ondo etorri edo oker. H'maniari atsegin emon beintzat. Eta ba ete dakie askok *h* nun erabili? Ba ete dakie berba baten asieran edo erdian sartu, berbeari esan naia osorik aldatzen dautsola?

Esateko aurra berban, haurra erabili edo ahurra erabili, eguzkitik itargirako aldia dago. ffaurra ume esan naian erabilten da, baiña a/zurra idatzi ezker, erderaz, "la palma de la mano" edo orrelako zerbaitetan geratzen da. Aurtengo idaz sariketa baten, ipuiñetako bat a/zurrez betea agertu zan. Orrelakoetan epaikari dan batek zer egin bear dau, begiak itxi eta *h* ri jaramonik ez eta danetan *aurra* irakurri? orretarako zetan gabiltz gabizen eran? Ba dakigu askorentzat gauza *h* sartzea dala ta or konpon. Dakianak ulertu dagiala eta besteak len beste. Baiña zein erakundetako legea da ori?

Guazen barriri "tráfico de influencias" delakora.

Or garbi dago eragin baten salaketa dala, beraz eragin berba erabili leikela zerbaiten ondorena salatzeko.

Euskeraz influentzi andia daukan bategaitik ba dakigu berba bat erabilten : ukondoa. Ukondo oneko gizona edo emakumea, asko al dauana, lagunarte ona dauana, aldabak nun jo dakiana.

Ori orrela ez litzake euskera garbi ta jatorrean esanda egongo, ukondoen eragiña, esate baterako? Euskeran ukondoa sartu nai dodala? Nik obeto esango neuke, euskera erabilteak itzulpenak egiten ukondoa sartzen itxi ta lagaten daustala. Eta niri lez edozeineri. Or ez dago jakintsu eta ez jakiñik. Or erabiltea dago. Euskera erriak erabilten dauan lez erabili eta berez etortzen da gauza.

Azkena emoteko, ondo legoke ukondoen eragiña? Artaz berbetan jardun ezkerro, nik uste dot baietz. edo ta aginteen erabilkeria, kerri orreri argalkeri edo oker erabiltearen kutsua emonda.

Euskera aberatsa da ta itxi berez urteten, bakoitzari euskal senak agintzen dau-tsan eran urteten, au da euskaldunen eran, eta kitto.

(Karmel, 1990-1)

TXOMIN AGIRRE ETA ITXAS GIROA

Ondarroa'n Txomin Agirre-ren jaiotzatiko 125 urtegarrena ospatu da.

Merezi dau "Kresala" eta "Garoa"ren egilleak bera gogoratzea.

Niri "arranon-dotar" lez, ba dagokit zerbait esatea.

"Kresala"ri buruz "azal-azaleko" ikutu batzuk.

Ain aberatsa dan Ondarroa'ko erri euskeratik Txomin'ek igarri barik, berez jasotzen zitun berba batzuk gogoratu nai dodaz. Batzuk bizirik dagoz, besteak ez dira il, baiña su ondorengo ke azpian lez gordeta; aizea bear txingarra sortu arazteko.

"Kresala"tik atara daiguzan batzuk. Auxe izango da bere omenik biziena.

Danok dakigu itxastarrak zaratatsuak dirala. Ala diñosku Txomin'ek : "Gizonen gozategi ta ardangelak nun dagozan beriala igarri leike, ostro bedarrik ikusi ezarren; naiko da zaratarik andiena nun dagon entzuten geratzea".

"Ketan eta deadarrez beti".... "arrantzaleak, izketa zakarrekoak..."

Kalean *makillaka* ibilliko dira mutillak, itxastarrak *agaka*.. "Agaka norbaiteri burua auzi..." Txalopetako agak gogoratuten dauskuz orrek.

Arraiñak . Arcain bakoitzari bere izatea ataraten daki.

- "Itxas *aingira* lakoxe treñeruak" (Luzeak)
 - "Amarratza lez erpak lotuta".
 - "Atuna baiño azkarrago...."- "Atuntsu onagaz zorrak kittutu..."
 - *Besigua*- "Neguan izaten da besigutea"
 - *Izurdak*- "Izurdien eraso aldiak". " Izurdak azpitik gora eta kaikuak goitik bera.." "Aren lepo lodi baltzak izurdearen antz pixkat ba dauka..." "Urdai zatiagaz, krusaillu orioagaz eta izurdearen zaiñagaz noizean bein bigundu oi zirean narruzko oiñetakuak". Kitolis'en gertaeran noiz ittoko semea zelan ibili zan adierazoteko "ordi bi ibili zala, diño, atuna baiño azkarrago, izurdea baiño gogorrago, balea baiño adoretuago...:"
 - *Mielga*- "Miega ustel gosekilla"
 - *Txibia*- " Txibiari laster jaten emongo leukioe oneik" (Itxasoan mariatzen diranekaitik)
 -*Zimarroia*- "Zimarroi ustela"
 "Milloi bat ba ei dauka zimarro orrek"
 "Milloiagaitik zimarroia edo izurde estela artu ber da senartzat?"
 - *Antxoia* - "Arrain otzaretan zidar urtua lez erionga" (Italiarrak, antxoia gazitua lantegietan eroatera etorten diranean, asko begiratzen dabe zidartsua dan (egunekoa ete dan) edo ta egunetakua, euren esanetan "ofuscada")
 Beste ikuspegi bat : Ondarru itxasoagaz gorputz eta arima izakeraduna da. "Besigu ta atun tatoakaz azi ta loditu ninduen....
 Eta beste arrain mota bat :*Euri arraiña*, zer? Gogoratu len ain sarri errira etortzen ziran galiziar txorrotzailleak. Areik ziren "euri arraiñak"
 - *Tolla*- Tollanak emon. Kristonak emon, esaten da leku askotan. Emen tollanak. Tolla arrain sailla da iltzeko ta origaitik jo bear izaten dalako.
 - *Aitz-arraiña*- Aitzeko arraiña.
 Arraiñak bere uaiña dauka. Arrain *sunda*, diño Txomin'ek.
 Arrain saltzailleak: Antxiña *astodunak* errietara astoetan arraiña eroaten ebe-nak egoten ziralako.
 Arraiñak *amua* bear dau : "Amoan ipinten daben jakiagaz bakarrik ez da jausiko"
 Eta arrantza patroiak bear izaten dira, Txomin'ek sarri *atzekuak* deitzen dautse: "atzekuak eskuak besapean berotzen zitun bitartean..." Arrantzan ontziak be bearrezko dira. Eta sarri *atoian ibili* bear, beste batek lotuta ekarri bear, ezbearren bategaitik. Txomin abadea zan eta ba dakiz orrelako berbak eleiztarrekaz erabilten: "Atoian legez eleizara..." "gure arrantzaleak "gorrira" baizen azkar eztira joaten txarteletara, eleizako ezkillatxoak dilin-dilin luzarokoan ibiliarren"
 Or dagoz bestetan ontziak, txalopak, *killaz. gora* tirabira eginda. Txomiñek azpikoz gora esaten dau.
 Eta danok dakigu txalopen *azpiak ondo garbitzeak* garrantzi aundia eukiten daua. "Atunetara baiño len azpiak ondo garbitu...." Esakera ori erabiltzen da baita be gizonak, aragikeriz, andrazkoen etxetara joaten diranean: Azpiak garbitzera joan dira.

Eta mariñela arrua da edo ez.

Txomin'ek *arrotasuna nun* egon leiken adieraztean au diño : "Oial barri ederekez euren gorputza apaindurik daroenen biotzean legez bizi da arrotasuna zar koipez da ezkata edo eskamaz betetakoaren azpian..."

Artalakatza- Sareak erabilten dabezan kortxoei, Txomin'ek artalakatza deitzen dautse.

Baga - (Olatua)

Txomin'ek maite dau berba au "Baga ta olatuen orruak..."

Azkue'k olatu sakon, andiari emoten dautsa izen onen nortasuna. Ola profunda, diño berak. Kresala'n onelakoak irakurri leiz: "Baga zuri" "Etxeak aiñako baga zuri sendoen artetik" "Aize ta baga..." "Baga indartsuak arkaitz gogorrekaz burruka bizian..."

Balea - "Balea baiño adoretuago" "Balía baizen indartsua, erramulari errimea..."

Baltz - Berba garratza da arrantzalie esaeretan, "Negu baltza", "Ipar baltza", "betondo baltza ipiñi ekatzari"

Baltzeran - "Agiri zan itxas apurra berde baltzeran irakindua egoan..."

Bisutsak - "Bisutsak estaldurik eukan..."

Bitsa - "Bitsa dariola..." "Bitsezko ari zuri luze biurri bat itxiáz..."

Arrantzaleak sarri erabilten dabe berba au arrokeri orde: "Arek lagaten daben bitsa..."

Brast-Brastada - "Aizeak lenengo brastada arpegian emon" "brast joten gaitu aize bunbada batek eta dsaust itxasora, txalupa barruko arrain..."

Brix - Aizearen ezaugarri. Bere pertsonaietako bat da. "Brix aizetsua". Errekaize egunetan umeak kaletan zarataka ezagutzen dira: Errekaizeak brix, errekaizeak, brix, deadarka.

Bare - "Kantauriko itxas bardinngabea agiri da bere betiko edertasunez apaindurik, ain laster urdin, bare ta baketsu urertzean txiplitxapla jolasean dagoala..." 'Bare bare egoan' "Olatu bare-barea.

Deizalea - Deia joten ebanari deituten dautsa. Txominek bere kartetako baten diño ez dauala besterik ezagutzen izen ori erabilten dauanik.

Dsaust - Uretara indarrez sartzea. "Dsaust danok itxasora, txalupa barruko arrain, otzara, sare ta tresna guztiekaz"

Durdo - Arrainn izena. "Durdo-durdo ezpanak, agiñak zuri-zuri ta kiskur-kiskur ulea..."

Eatxa - Bildur dautsa ekatxari. "Ekatxaren il soñu garratza" "Ekatxaren orrua"

Estropu-estrapoa - Espartsuz egindako txiringolea, erramuak toletean sartu ta bertan eutsi al izateko.

Esku zurda - Zurdakin egiten dan esku aparixua.

Eztul - Arrantzale zarrak garrntzi andia emoten dautse eztulari ta arrotasun lakotzat ezagutu eztulik ez egitea. Batez be sermolarien aldetik. "Mutilla, esaten daue, piperra baiño gorriago ta buruko ule guztiak tente dituela elizatik urtetean, - axe da eztarria, eztul bat be eztau egin"

Erramu-Erramulari - "Orain ogetamalau urte arek erramuari ataraten eutsan grakadea etzan bertanberakua..." "Erramua zala ta ezala beste txalopa batekoekaz asarratu giñan.." " Erramuak eskuetatik itxi barik, begiak ernai ta besoak irme..." "Erabili euezan erramuak zoli ta biziro.." "erramuetea galdu zanean, gertau zan arrigarritasuna sinistu ezinda""erritar erramulariak garaitu zituan txalopako agintari gizagaixoa ito zanea.." "Erramuari tenga ta tenga..."

Gorria - (Itxas zabalean igarten dan arrain multsoa) "Antxoba talde ugaria urgañean ikusita, itxasora begira dabiltzanak "gorria! gorria!" deituten dabenian, Arranondoko saretxalopak arraña dagoan tokira eruaten daben abiadea ta aparra benetan izaten da begiragarritzkoa"...Botaten deutsa txalopa orrek, azkar, jira guztian bere sarea "gorriari" ta eztago zer esanik, txalopa arena da irabazi guztia"

Grakadea - (Erramu ta toletari eutsita dagon estrapu arteko estuartzea)

..."erramuari ataraten eutsan grakadea etzan bertanberakua"

Iparra - Bizkaian Iparra ez da erderazko Norte, Nordeste baiño, "Iparraldeko aize otz eta meiak"

Ipargoia - Au da erderazko Norteri dagokiona. "Ipargoiko aizea, geiago barik, bat batean ta guztizko asarre amorratuan sartu zan Arranondoko erritxoan"

"...Ipargoitik etorren aizeak lenengo brastadea arpegian emon deuskunean,, ala mutillak deadar egin dau atzekoak..."

Itxas - Itxas itza oiñarri dala, ainbateri bidea emoten dai Agirrek:

Itxas-ate - Kaietako sarrera, erderazko barra

Itxas arro - Olatuz beteriko itxasoa

Itxas-apartsu — Bitsez betetako itxasoa

Itxas-amorratu - "itxasoari amorruta apar guztiak joan artean..."

Itxas kiskur - Itxasoa guztiz egoan arro, bere zabaltasun danean kiskur, bizi ta apartsu..

Itxas-irakin - Itxas larri beroa. "Itxas berde, baltzeran, irakindua.."

"Arrantzale batzuk, oraindiño, igari egin eben zerbait itxas irakin esnetuaren gaiñean..."

Itxas-barru - (Itxas barrenaldi)

Itxas-bide - ..."urteten dabe itxas bidera..."

Itxas-itxi - "Itxaso guztia itxi dau bereala (aizeak) ta or etorri gara gu, oker, Jaungoikuak daki zelan.

Itxas-gaña - Itxasoaren goi-aldea

Itxaski - (Ekaitza) "Jagi zan, nondik eta zelan eztakit, an nonbaiten ezkuturik bere orduaren zain egoan erruki bagako itxaski amorratua.."

Itxas-triko - "An bertan sortuten dira (atxetan) lapak eta mutxilloiak, marraskulu, lanperna ta itxastriku edo morkotzak..."

Itxssorate - Itxasora arrantzara urten aldia.

Itxas-alde —

Itxas-kate —

Kalak - Itxasoan dagozan arrain tokiak. Izen bereziak eukiten dabez. Kostarren-kala, Ixkote, Kalabelarri, tribis-kala eta abar. Ba dira txoriak be zabalta-sun baten kalatxori lez ezagutzen diranak, kaio eta abar. Ondarroa mitxeletak be kala-izena daroe: kalapitxiak. Arrantzarako gaikietan bardin :Kala-berun (plomoa), kalapotin (kalaetara eldu al izateko txalopak eta abar)

Koasta - (Erderazko kodaste, itxasontziei eutsigarri lez aurretik asita ipinten jakoen egur edo burdina). Ortik gizonei sudur orde, koasta berba erabiltea: Berbarik egite ba dozu, koasta len be ausita daukazu gero!

Karel - Itxasontzien egala. "Karel ondoan"... "Karel gañertzean.."

Lanbasa - Txalopetako ura legortzeko, ertz baten trapu zarrak eta txatalak lotu eta erabilten dan makilla. (Gaurko "fregona")

Lapa - Itsaskia, "Lapak atxari baño gogorrago eutsi..."

Laño - "Ur lañozko estalkia.." (Itxas laiñoa)

Legor - Lurralde. Legorra jo, legorrera joan...Legorrezko aizea (Terrala)

Legortu - (Zikatu) "Ondar gorria gañera boteaz, soñeko bustia etxera baño lenago legortu naiean.."

Loro - Itxastarrak arrain andietako aparixuetan erabilten daben lokarri meia.

Mallastu - Artoaren tukurra. "Mallastua baiño meiago.."

Maluta - Artaburuen estalkia. "Bakean da geldirik egozan kale bazterretako paper, zotz, zakar, lasto, buniko ule ta maluta galdu guztiak..." (lengo arrantza jokere-tan, txalupak atunetara joaten ziranean, maluta oneik erabilten zituen amuetan, atunari, janaria zalakoan, beregana urreratu eragiteko)

Mantxuba - (Manjuba) Arrain moltsoa

"Kresala'n, jaietan, andra-gizonen arteko "mandxuba" irakurten da : "Urriñetik begiratu ezker, enparantzako billereak moltso zabal bat zirudian, legorreko mnt-xuba gorri bat, izurde ta guzti; ta inguru guztian tente begira egozan atso, agure ta neskatilla gatzbakoak egiten ebien uztai andia, saretzat artu eikean.

Marboilla - Odei ertza

Masia - (Macizo, raba) "Masia bearco da or, masia"

Maste - Belak jasoteko aga. "Txalopa maste" "Maste nausia" ta abar.

Mokoloi - Itxas berbetan = nastea, soka ta amuen artean. "Aurreko egunean itxasotik ekarrirako mokoloiak askatu, arildu ta urkuletan sartzen ebezan.."

Must-egin - Ur azpian igarian ibili.

Nasa - Itxasontziak bearrezko tresnak artu edo atarateko urreratzen diran molla. "Nasara sartu zala potin bat.."

Nausi - Arrantzalieu artean bela edo agari buruz erabilten zan deitura. "Nausian dakarren izarrean,,,"

Odoldi - Ooldi, goroldi

Olezko zapatak - Txokloak. Traskuak

Ondar-mai - Ondar zelaia

Ondartu - Ondan-ez igortzi, bete. "Soñeko barrenak ondartu.." Berba au Azkue'k ontzi batek ondarra jo ta bertan geratze ordezt erabilten dau.

Ondatu - Galdu. "Kantauriko ondaretan ondatu"

Orru - Zarata itzala. "Itxasoaren oiTua baño sendoago". "Itxasoak orru egin", "Olatuen orruak"

Ontzi-gidari -

Ontzi-buru - Esan onein kideko dira: Atzekoa, patroia, lemazaiña, zarra....

Otzara - Otarra, "Arrain otzaretan erionga.." (Arraiña, otzaretan ura dariola)

Ondartza - Plaia. "Itxasoak bere goraldietan besuak zabaltzeko bear daben ondartzea..."

Ostarku-Ostilika - Arco Irisa

Popa - Atzea. Ondarroan ez da erabilten, gitxi baiño, ipurdi itzik. Ala Txomin'ek be: "Popan joten ba zaitut.." "Entzuizu, Traman zabala, atso popandia..." "Inguratu giñan igarian popaz gora egoan txalopara"

Sare-txalopak - Saregaz arrantzara joaten diranak. "Sare-txalopa bi, itxas aingira lakoxeak"

Soka - Lokarria. Korda. "Gerriko tendeltxu bat mokor gañean, ontzu sola lodi sendoaren antzera biurtua..." "Ibai ertz bietan, gizate soa lodi trinkoa"

Sokalea - Lebatzetarako erabilten dan soka mota.

Suezta - Urik artzen ez dauan txanoa, txapela, burukoa. "Suezta beste aterperik eztaukiela.."

Sunda - Arrain sunda. Usaiña. "Au ezta guri esan dauskuen erria, zirautsen. Arrainsundadun ur koskor bat zala ta..."

Taketa - Egur zatia. "Gizonak, taketa baiño gogorrago.."

Tantza - (Pita)

Tatarrez - Txalopa guztiak tatarrez.

Tato - (Zati bat) "Atun tatoakaz loditu ninduen"

Toleta - Ontziak, karel gañean sartuta eukiten daben egur ziria, estrapua bitarte dala, erramuak bertan eutsita erabilteko.

Tosta - Txalopa bateko jarrilekua. Tosta oneik, aurretik atzera, izen oneik eroaten dabez Ondarroan : Aurre, Kontrailla, Kontrabara, espaldako, kontraspalda, sagaltoki, tanbuleta, berniela, masteta, treintoki, ankako tostarte. "Tostapera jaurti.."

Treotzara - Egurrezko ol zapal bat, tretzat erabilteko, tolestuta, naste barik, zapalean.

Traola - Lau zati edo listoikin egindako lauki bat, aparixuak berta batzeko

Trinko - Lodi. "Soka lodi trinkoa"

Triketa - Txalopa aurreko bela

Truxu - Euri zaparrada. "Truxu ta bisuts" (Chaparrón y ventisca) "Aizearen atzetik etorri zan truxua.."

Treñeruak - Treiñagaz itxasora joaten diran txalopak. "Zirauna legezko sare-txalopa eta treiñeruak"

Txibikorain - Txibiak anapateko eroaten dan amu ugariz inguratutako koraintxo.

Tunda - Sua biztuteko su-arriagaz erabilten dan kordoi zatia. "Tunda zarra txapelean gordeta.."

Anantzale zarrak orrelaxe erabilten eben, askotan patrikararik ez eukelako, txapel barruan tabaku orria eta tundia.

Umant - Gizon andi.Heroia. "Baña Jose Maria Zubia'ri ezer kendu barik esan geinke, bere gisako beste umant asko dirala Euskalerrian, gure itxas errietan gizonek añã umant dirala.

Uragea - Erramua. Arrauna

Ujoldea - Uriola

Urاندیکو arraiña - Itxas-andiko arraiña

Gizon artean nortasun berezien bat daukanagaitik esaten da. "Ni eznaz izan Peru eta Mikol legez, urاندیکو arraiña..."

Ur-zelaia - Itxasoa "...urdin urdin, bare bare ta baketsu ur zelai galant ederra.."

Ur-bizi - Itxas jasoa

Ur-laiño - Ur ondoko laiñoa. "Bildurgarrizkoa egoan Kantauriko itxasoa. Ur-laiñozko estalki andi bat jarri jakon gain alde guztian.

Ur-txakurrak - Itxas ontzietan erabilten zituen txakurrak, gizonei laguntzen ekienak, sare-txikotak igarian eroaten, batu eta abar egiten. "Ur-txakurrak nagusiarren aurrean baiño urduriago.." Amuetatik soltatzen ziran arraiñak txalopa ondora eroaten be ba ekien.

Urkula - Sareak errezago jasoteko erabilten ziran aga urkulatsuak. Bai eta aparixuak naastu barik amuak urkulako adar baten finkatuaz erabilteko be.

Zabune - Batera ta besterako mogimentua. "Txaloparen zabunetan.."

Zaña - Arrain koipea. Gantza

Ziliboka - Atzipeti. "Ziliboka ta atzipeti"

Zizkoetan - Jantzien sakeletan. "Ez jakoe gauza andirik zizkoetan gelditu..."

Zezial - Gatzetan jarritako lebatza.

Ainbat tartean laga doguz. Itzez itz, berbaz-berba, "Kresala"ren aberastasuna arrigarria da.

Arrantza izkuntza, itxastarren berbeta, bere biotz eta gogoan bizi eta iraunkor ordetan ebala, erraz igarten da.

Giartsu da batzutan, soil-soil berbak erabiliz. Erromantiku bestetan, itzekaz jolastuten lez; Biozkor urrengoan, errukarri. -Kitolis-en esanaldia mundu guztiko literatur saillean lotsa barik atara leiken jarduna dala esaten eban Jose Artetxe'k

Irudietatik at, bere alkar izketak, bizi-biziak dira, gatz lodia dauke. Arranondoko atso popandiak urtu barik darabilten gatz lodi iraunkorra.

Laburtu eta amaitzeko: Itxasoa gora datorrenean ibaiko ura geitu egiten dan legez, itxastarren ezaupidean Txomin Agirre bitartez zenbat eta sakonago sartu, euskerari gatz lodiago emoten jakola, esango dogu. Or dogu, lekuko, KRESALA.

(Karmel 1990-2, 32-43)

ANTIGUA DEITURARI BURUZ

Antigua izenak, Andra Mariaren deitura geigarrietan, bere erantzupen eta adierazpen bereziak artzen dauz.

Batzuk eleiz-etxearen sortze eta kokalekutik datorrela ikusten dabe deitura ori. Au da, Ondarroan lez, len parroki edo ermita izana eta gero, barri bat jasotzean, len bear ba da Andra Mari izen uts eta soillez ezagutzeko zana, gero bazterrean ez, baiña lengo zeregiñetan eukan nortasuna galdutzakotzat etsiten dabe.

Irizpide ori egoki dator, esateko Ondarroan. Ba dakigu XVI garren gizaldirarte orain Antigua deitzen dana izan zala erriko parroki bakarra, eta gero, erriko toki erosoago baten barria egitean, urte batzutan ango parroko ta guzti jarraituarren, laster eskubide ori galdu ebala.

Euskaldunok gure dokumentu, agiri eta bestelako paperetan eta jardunetan, gaztelania erabilteko oitura izan dogun lez, erraz geratzen ziran lengo eleiz eta parroki zarrentzat "La Antigua"lako deiturak, au da, "la antigua iglesia", "la antigua parroquia" eta abar eta ortik izenak lekukotasuna artu.

Adierazgarri bat Ondarroan ikusten dogu. Gure erri au uri lez irazia, fundatua izan zanean, ez diño mesede orretako agirian parrokiaren, ez Andra Mariaren izenik: "Et más les do la iglessia de Ondarroa con su cimenterio, é los dos tercios de la diezma que sean de la Iglesia". (Marina Diaz de Haro, 28-Sept-Hera de 1365. Au da oraingo 1327).

Bardintsu gertatzen da Araba'ko La Bastidan. An parroki zarra goikoa da, eta origaitik gaur be, goiko eleiza batzuk Tolonio'ko Amarena deitzen dabena, geienak Antigua izenagaz ezagutzen dabe.

Gipuzkoan or dago Zumarragakoa. Zumarragako erri-paper zarretan agertzen dana, "Damos vos que ayades por juro de eredat el monasterio de Zumarraga" (Felipe IV garrenann Franzisko Lazkano'ri, gaurko urteen erabidean 1366 urtean emona). Ezelako izen berezi barik.

Bizkaian ba doguz Antigua deiturako Andra Mariak Ondarroa, Lekeitio, Gernika, Mungia eta Urduñan. Bai, Mungian be ba dago, baiña Aita Lizarralde'k diñonez, "Santa Maria la Vieja" deitzen eutsen, 1454 urtean jauntxoan artean eukitako erasoaldi bateko agirietan irakurri daitekenez.

Arabian, aitatutako Labastidakoaren gain, or dago Mendiguren deiturako erri-txoan, gaur kanposantua dagon tokian, adierazgarri bat: Andra Mariaren ermita egon ei zan. Gaur, Andra Mari ori, mandazaiñen zaindaritzat goratzen da, eta Antiguakoa deitzen dautse.

Or baita La Puebla de Arganzon eta Baños de Ebron be.

BESTE IRIZPIDE BATZUK

Ba dira uste dabenak Antigua deiturak ez daukala ze ikusirik denbore neurri eta antxiñatasunagaz.

Andra Mariak, denbora zarretan, beste ospakizun batzutan goresten zala eta ez gaur-gaur ezagun doguzan deiturretan.

Au da, Eleiza, denborekaz, Andra Mariari onespen barriak eta oroimen barriak geitzen joan dala. Antxiña deitura batzuk eukazala; gero etorri dirala beste ainbat deitura, Eleiza argitu eta nausitu ala sortuak.

Eta gaur ezagutzen jakon "antxiñatasuna" ortik datorkiola, len denboretako ospakizuna emoten jakolako berezitasun baten, geroago beste ospakizunak eta ezaupideak indar-artzean, aztu eta galdu eragin dabenetan.

NUN SORTU ETE ZAN "ANTIGUA'KO" AMAREN ERASPENA?

Ustez, Españar Estatuko iparraldean. Eta gero Andaluzian eta batez be Sevilla aldean ezagutu izan ba da, esaten da Iparraldetik eroandako eraspena zala.

Santiago'rako bideagaz be parekatuten dabe batzuk. Santiago'rako bideak sortu eragin ebala bide onen ingurutan Andra Maria ganako zaletasuna eta gero izen ori geratu, bide orren ingurutatik urrun geratzen diranetan be.

Santiago'rako bidea bederatzi-amargarren gizaldian asi zan itxuratzen eta denporaldi aretan asi baita Andra Mari onen eleiza eta ermitak jasotea. Emen gure artean esaten da Lekeitio'ko Antiguako Amaren aurrean Santiagorako erromes asko makurtzen zirala euren eskintzak egiten.

Palencia aldean, Tierra de Campos deitzen dalakoan, ogetak Antigua izeneko Andra Mari ezagutzen dira ermita, monastegi edo parrokien artean. Eta "Santa Maria La Antigua" izenagaz liburu idatzi dauzan Angel Revilla, Panama'ko Unibersidadeko irakasleak diño, bere ikastaro eta azterketetarako egindako ibillaldietan, larogei ta bost (85) toki billatu izan dauzala izen onetako Andra Maria gurtuten danen artean.

ANTIGUA AMERIKETAN

Ba dirudi Amerikar lurraldeak billakatzea izan zanean, ango lurraldetan lenengo eratu eta zabaldu zan gotzaingoa (obispadutza) Colombia'ko Darien lurraldean lekutu zala eta bere izena Santa Maria La Antigua del Darien izan zala.

Irakurten danez, Alonso Ojeda orduan La Española deitzen zan San Domingo'tik urten zan lau itxasontzi eta laureun gizonekaz. Bertan eioazan Pizano, Juan de la Cosa, au bizkaitarra zala esaten da, eta beste gizon ospetsuak.

Oneik Cartagena de las Indias deitzen dan lurraldean sartu ziran. Andik Atrato ibaia igaro eta inditar baketsuak bizi ziran lurralde bat aurkitu eben. Eta antxe jaso

eben Colombia'n Andra Mariaren omenez eraikitako lenengo eleiza eta Antigua'ko Andra Mari izena ezam eutsen. Tokia uritzat iratzi eban Fernando Erregeak 1515 urteko Uztaillaren 20'an.

Emendik Ameriketara joaten ziran askoren asmoa zer izango zan jakiteko, Vasco Nuñez de Balboa'k erregeari bialdutako karta bat irakurtea baiño ez dago "Mesedez, diñotso, osakidetzan batxiller ziran besterik ez bialtzeko andik zear, ara joaten ziran legetako eta antzerako batxillerrak deabruak edo deabru bizitza besterik ez erabilelako, eta iltzen ziran tokietan milla auzi eta okerkeri sortzen ekiezalako. Ori, iñorentzat mesedegarri ba zan, beretzat zala, esaten eutsen, lurralde a barri eta garbia zalako. Lurralde areri "Castilla de Oro" deitzen asi ziran aberatsa zalako.

Lenengo gotzaiña 1514 urtean eldu zan bertara. Burgostarra izan zan. Bejori toki menditsuan jaioa. An frantziskotar fraileak ebiltzan misiolari.

Andik bost urtera, Panama'ra aldatu zan ango gotzaingoa.

Geroago karmeldar eta klaretiar misiolariak lurralde aretako basoetan eginda-ko ibilladietan, aurkitu izan dabez antxiña Antiguako Andra Mariaren monastegia egon zan tokiko urratsak. Ain zabal eta ospetsu geratu zan toki aretan Antiguako Andra Mariaren entzutea.

Gaur Panama'n dagon Unibersidatea, sortu zaneke ogeitabostgarren urtea igaz ospatu ebana, ain zuzen be Antigua'ko Andra Mariaren izenekoa da. Bertakoak, erraztuteko USMA deitzen dautse, au da, Universidad Santa Maria la Antigua deituraren leneng izkiekaz osotutako laburpena.

Ago irakasle dan Angel Revilla'k liburu bi agertu izan dauz. Bat 1985 urtean, *Santa Maria la Antigua, un viaje al pasado*, deitureagaz, ea bestela *La Antigua-Santa Maria la Antigua* soillik.

Berak aztertutako bibliografian Busca Isusi, Caro Baroja, Arrazola, Lizarralde, Iturriza eta abarren artean, guk ondarrutarrok etxeko genduzan Castor Uriarte'ren "Las Iglesias salón vascas del último período gótico", J. Irigoien'en "Vagabundeo náutico. Dirección arqueológica en la recalada ondarresa", Okamika'ren "La Villa de Lequeitio" eta abar irakurri eta aztertua dala ikusten da.

(Karmel, 1991-2, 71-75)

OROITZA ZARRAK

Gu aittitta zarrok arritu egiten gara gaur gure loba txikiak jaiotzetako jantzi ariñekin ikusten doguzanean. Eta edozein egaletan, buruz bera etzanda ipini eta lo egiten ikustean.

Gure denboretan umea lotu egiten zan, alako koltxa antzeko mantuetan batu, gaiñetik paixa bategaz ainbat inguratze emon eta albora begira edo gora begira kuman sartzen zituenean.

Gure amak, buruz bera kuman ipini ezkerro, itto egingo zirala uste izango eben.

Baiña gu be azi giñan, eta urte mordotarako asi be. Gaurkoak be andituko dira eta urte askotarako izan daitezala.

Guk, pixkat koskontzen astean, argal eta mirrin ba giñan, bakallauaren kontsumatzaille egiten genduezan, itxastar jator lez. Bakallau saiña, bakallau gibelesko saiña artzen gendun, eta ez atsegiñez, eta Emulsion Scott be. Eta aurrera etorri giñan.

Gerratea etorri zan, eta guri beintzat, burukomiña euki edo ta urdaillekoa, edo ta nagikeriaren aitzakia, besterik ez euskuen emoten eta agintzen kinina baiño. Besterik ez egoan egon be-ta. Jateko arrantxoa, beruzkoagaz edo ta ziku ibili, bardin, eta zorriak jatea nai ez ba gendun, sarjentoen bateri baimena eskatu, kanpamentu inguruan errekarik ba egoan ara inguratu, ondarrez gorputza igortzi eta arras-katu ta eutsi gau guztian, goizaldeko iruntzak otzakiltzen itxi arte, narru bizian, gure zar guztiak aidean genduzala. Olaxe askatzen giñan zorrietatik.

Eta ez uste zorriak zirikalari makalak diranik. Bigunak, baiña erailtzaille zitak dira.

Nigaz, 40 urtetako azken illebetean, Algeciras gaiñeko mendietan, Las Inviernas inguruan, busturiar bi egon ziran. Amutxategi zan bat eta bestea Isidro Erretolaza. Bietatik bat beintzat il zala uste dot. Eta eurak lekuko, gure alboko txabola baten zelan il zan balentziar gizon mardul bat zorriak janda. Iru egun besterik ez eban iraun gaixo gixarajoak. Zorriak egoski eutsen odol guztia.

Eta beste bat be alaxe joango zan, oraingo au madritarra eta ango Bilbao banketxe bateko langillea, gure eskariz sarjentu bat zuritu ez ba gendun eta galiziar bateri eskupekoa emon eta erreka ondora bialdu, goi ta bei ta tarte guztiak areatu eta goizalderarte itargiari begira billoizik euki ez ba leu, eta erruki barik erabillazan jantziak erre ezik.

Sarjentu arek ba eukan bere kezka. Orduko egoera laster amaituko zala eurentzat, berak ez ebalu gudarostean jarraitu nai, eta udaletxeren baten edo serbitzu ofizialen baten sartu nai eban, eukazan emazte eta ume bien laguntzarako, eta bein eskatu eustan, ba ekiala nik zerbait ba nekiala-ta, berari gai orokor batzuk erakusteko, batez be idazketarako ortografia eta abar.

Gauza au zan: Gu, orduan, batalloi zigortua deitzen zanetako baten gengoan

Las Inviernas'en. Lanera joateko piku eta pala lepoan artu eta bost kilometro egiten genduzan bidean, berotzen edota obeto, nekatzen. Eta gu joaten giñan tokian ba egoan beste batalloe bat eta angoak etorten ziran gure txabola ingurura lanera. Orrela lanerako joan-etorrian amar kilometro egiten genduzan zigortzat, gure tokian bertan lana gendula.

Sarjentuak esan eustan bestiekin batean joan bearco nitzala, baiña bein lantokira eldueran ainbat lasterren eskutatzeko basoan an egozan alkornoke aundien artean, beste esne txarreko sarjentu batek taldeka eguneko lana izendatu baiño len.

Berak esana egiten neban; Sarjentua etorri artean perretxiku batzuk batzen nitun, ugari egozan egon be-ta, eta zotz baten ipini, erre eta jan. Sekula pentsatu ez tartean perretxiku kaltegarririk egon eikeanik. Sarjentua etorten zan, dikatadu batzuk idatzi eragin, eta barriro an geratzen nitzan, etxeratzeko korneta jo arte.

Ba neukan ordainketa. "Erregantxerako" aunean jarteko eskubidea. Nik ez neban ainbesterik bear baiña busturitar adiskideak, etxetik bialtzen eutsezan txorizo paketetan be partaide egiten ninduen eta ezin ukatu erregantxe ori.

Orrelaxe lau illabete egin nitun eurekaz, irurok txabola baten eta etxerako baimena etorri jatanean, penetan agurtu giñan.

Gogoan daukat etxerako baimena eldu zanean, niregaz batera len esan dodan madritar lagun zorritsuari be eldu jakola. Gibraltar'eko estu-unean gertatzen diran denporale egun baltza zan.

Sarjentoak esan euskun ez asteko bidean, ekaitz gogorra zala-ta, an geratzeko jan da lo. Amaika kilometro edo geiago genduzan Algeciras'era. Baiña gu ez gengozan an ordu erdi geratzeko be. Biok alkar adoretu ta asi giñan bidean. Baiña nire laguna ni baiño asko makalago ebillan. Eta kortijo batera eldu giñanean, berak atsedena bear ebala esan eustan. Ezin zala geiago ibili. Otzak eta bustiak kikilduta egoala. Etxekoak borondate guztiagaz agindu euskuen aterpea eta sua. Baiña nik prisa neukan etxerako. Eta bakarrik jarraitu neban bidean.

Algeciras'era eldu eta ekaitzagaitik ez itxas-ontzirik ez trenik ebillen.

Ostatu baten lo egin neban.

Urrengo egunean bardin.

Norbaitek esan eustan Algeciras;en egozan tren geltoki bietako baten, portukotan, etxerarteko txartela emongo eustela, Madridenten barriro txartela ataraten ibili bear barik. Eun eta amar edo amabost peseta zan txartela eta eskupekoa, bakoitzaren borondate.

Joan nintzan. Esan eusten modura, leiotillatik eskabidea egitean, kiñu egin eustan barrura sartzeko. Eta Deba arteraiñoko txartela emon eusten.

Arratsaldean geltokira joan, maleta ta guzti. Betien bete egoan. Bakoitza al eban tokian jezarrita, eta etzanda be bai, nik ez dakit zer gertatu zan, itxartu nintzanian iñor ez geltokian eta trena be egun bitan urten barik egon ondoren, urtenda.

Nire manta busti-bustipean beste egun bat itxaro bear. Oraingotan ez eustan iges egingo, ez. Alaxe sartu, Madrid'era; Madrid'en trena aldatu eta Donostia'ra,

iñok ez eustan txartelik eskatu. Baiña Donostiatik Debarako bidean, nun diñosta begiraleak txartel arek ez ebalu balio gure trenetarako. Eta ez eban errukirik artu. Ordaindu bear. Alaz eta Deba'n Ondarroa'ko autobusera sartzean, besarkadaka artu nindun nire tokaio batek eta alaxe eldu nire errira, 1941'ko Urtarrillean.

1936'tik etxera osterarik egin barik nengoan.

Zelan egon nintzan Algeciras'en?

Orrek be ba dauka berea.

1939 urteko Urtarrilla'ren 4'an kanjeatu ninduen. Bederatzi euskal kazetari, Zaragoza'ko beste ainbat kazetarien ordeiz.

Nik, egia esateko, ez neban eskatu kanjerik eta ez nekien iñor orretan ardurata ebillanik be.

Laredo'n jausi, gero Castro, Aranda de Duero, Miranda de Ebro'n egonaldi luze bat eta Guadalajara'ra bialdu ninduen langille batalloe baten. An illak igaro eta Donostia'ko Ondarreta espetxera, andik Azpeitikora, eta barrero Donostiara. Eta esandako egunean, goizeko amaikak puntuan mugan egon bear giñan eta beste muga baten beste zaragozatarrek ordu berean bardin egiteko.

Gure Endaia'ra joatea ez zan an geratzeko, andik Barzelona'ra joateko baiño. Baiña...beti egoten dira ustebakoak eta laguntzaille onak.

Egun berean Barzelona'tik telegrama bat artu eben emengo ordezkariak esaten "kanjeatu genduezan euskal kazetariak illebeteko baimena gendula"

Jakiña, baimen ori ez zan Laburdi'n igaroteko, Barzelona'n igaroteko baiño. Baiña bumz egindako telegrama zan eta gendarmean baimena emon euskuen illa-betea Endaia'ko Hotel Terminus'en igaroteko.

Bitartean, bata bat, besteak beste, nik "apendicitis" neukala ta Ilbarriz'en egin eusten ebakuntza ta gero, illabete baiño len Bartzelona makurtu eta jausi zan.

Zer egingo genduk guk Bartzelonarako bidean asi ba giña, jendea tatarrez mugara igesten asia zan-eta?

Dana dala, gero iñora ezin joan eta or geratu giñan. Baiña izparkariak giñala-ta, Donostiatik asarrea agertu eben eta gendarmeak barrurago joateko agindu euskuen.

Andik Ziburu'ra aldatu giñan, eta Udaletxe aurrean etxe bat artu. Eta an be bardin. Euskalerritik kanpora urten bear giñala.

Orrelaxe joan giñan Landes'etako Labene'ra.

An gengozala europar gerra asi zan. Frantzetarrak gerran eta gu an, eguzkia artu eta untxiak (konejoak) jaten (merkeenak ziralako), lotsatu giñan eta Tarbes'era eskeiñi giñan, arsenalan lan egitera. Baiña ara ordeiz Lannemezan'era bialdu genduezan. An oraindik ez egoan ezelako eraikintzarik. Zuloak egitea bakarrik. Eta niri sekula pentsatuko ez neban zeregin bat emon eusten: Trenetan, bagoietako lotueretako kateak askatu edo lotzea.

Bagoietan lo egiten genduan.

Baiña Jose María Cazaña, Bilbon bultzagille bizia zana, gugaz egoan eta ausartu zan frantzetarrei esaten gu boluntario eskeiñi giñala Tarbes'erako eta ez arako.

Laster aldatu genduezan eta alaxe ango arsenalean lanean asi. Lenengotatik babestu genduezan, asegurantza eta abarren agiriak zintzo emonaz.

A ibili giñan alemanak bertan sartu arte.

Sartu eta bereala agindu eben makiñak geratzeko. Andik egun bira agertu zan euren buruetako bat eta an gengoan erbestetarrei ia euskaldunak ala erdaldunak giñan itandu euskun. Euskaldun giñala erantzun gendunoi bertan jarraitzeko agindu euskuen. Eta españar zirala esan ebenei, andik konzentraziñoko tokietara aldatu.

Baiña egunak aurrera ta geldi egoten aspertu eta etxera etorri ete neikean itandu neban. Baietz. Konsuladuko paperak lortu eta bidean asi, baiña Laburditik zear esia ipinita euken alemaniarrak, igarobiderik ez eta Katalunian zear etorri bear.

An netorran lau maleta aldian nekarrezala, ezin erabilita eta Port Bou'ko geltokian, txapeloker bateri itandu neutsan nun artzen zan Bizkairako tren. Begiratu eustan eta apur bat itxaroteko esanez, norbaitera joan zan. Etorri zan eta berari jarraitzeko. Eta non eroaten nabon Figueres'eko presondegira!

An sartu, maletak erakutsi eta ikusi ebenean berrogeitaman'en bat korbata neukazala, arrituta geratu ziran. Nai ba eben artzeko pare bana eskeiñi neutsen ango atekoei. Pozik areik. Igarri eusten gizon onen bat nitzala eta barrura, sakonera sartu bearrean, nire arazoaren gorabarak argitu artean izango zala-ta, gela bat gertu eusten eta an egon nitzan pare bat astean.

Andik Reus'era. Ango kuartelean baiño gose-egun luze, larri eta itzalagorik ez dot iñun igaro. Batzuk, gosez burua galduta be ezagutu genduzan, gau ikaragarriak guztioi igaro eragiñaz. Ez gendun indarrrik betik lenengo etxeoiñera igoteko be.

Andik nora?, eta Madrid'era. Nik esaten neban ni kanjeatua izan nintzala, ni-neuk ez nebala ezelako epairik euki, baiña nire orde z kanjeatua eriotz-zigorrrera zemaitua egon zala. Alperrik.

Madrid'etik aurrera. Gibraltar ingurura.

Maletetako bat Reus'tik etxera bialtzea lortu neban. Inpernuko demoniñua baiño okerrago zala esan eusten an egoan alferrez bat. Galdakanotarra. Esan neutsan besterik ez neutsala eskatzen maleta bat Ondarrura faturatzea baiño. Eta ordurako Ondarroan idazkari lez une baten egondako batek nigaitik zerbait esana eukala esan eustan. Onartu eustan nire eskaria. Nire maleta osorik eldu zan etxera. Beste iru geratzen jatazan. Aspertuta nengoan Madridetik gugaz batera etorran gallego bateri egunean duro bat emoten, maleta bat berak erabiltzearen orde z. Eta La Linea de la Concepcion'en tren bide ondoan geratu giñan une baten, an ebiltzan andratak bateri esan neutsan, mesedez eskatzen neutsala maleta bat Ondarrura faturatzea. Korbata bat emon eta beste eskupeko bat. Andreak esan eustan bere aldetik pozik egingo ebala, baiña kontrabandoko lurraldea zala ta zabalik bialdu bearke nebala, bestela ez goala fakturatzerik.

Andreari erantzun neutsan (ain etsita nengoan) zabalik ba zan be bialtzeko. Ta eldu zan maleta ori etxera.

Irugarren bat, askatasuna eldu zan egunean, gure kanpamentoan itxi neban,

ordurako jantzirik geienak be bota bearreko itxuran, eta orra azken baten bakarraz gaz be naiko lan erabili.

Bost illabete igaro ziran, ezelako trabarik ez nebala eukiko-ta, etxerako asmo-tan muga igaro nebanetik.

Las Inviernas'ko mendi goietan, ango kortijotako bizilagunak, pozik egozan euskaldunekaz. Astero ilten eben an ugari ebiltzan txarri baltzetako bat eta egun bi ordurako euskaldunok erosten geuntsen al zan guztia.

An ez gendun bear izan umetako makallau zaiñik, ez Emulsion Scott'ik, ez eta kininarik be. Txabolan etzan orduko lo geratzen giñan

(Karmel, 1992-3, 73-80)

EUSEBIO ERKIAGA ADISKIDE BATEN ZER ESANAK

Gizon umoretsua izan zan bizitzan Erkiaga.

Akularia, adar jotzaillea. Gitxien uste zanetan erantzun zirikalariak eukazana.

Jakintsu zanez, buru argiko, erraz ataraten zitun emengo ta ango adierazgarriak, bateko ta besteko esaera zorrotzak. Erraz artu, sartu eta iruntsi ikasketak.

Gaztetatik ezagutu giñan. Etxeko egin.

Orrez gain gerratean zeregin batek alkartu : Izparkaritzza, kazetaritzak.

Ez bera ta ez ni ez giñan ortarako ikasketarik egiten ibili be. Ez eta Arizmendiarieta, orduan abade ikasle, eta Mendizabal mutrikuarra, abade ikasketa itxita eukana be.

Baiña nik esan neike, gure orduko lana, gure sormeneko lana baiño geiago izan zala itzulpen lana.

"Eguna" k ez eukan iturririk bere barrietan, nai eta "Euskadi" ren landoletan argitaratu. Origaitik gure lana beste edozein egunkariena baiño lantsuago zan, dana itzulpen biurtzen zalako.

Morroi itzultzaille giñan, orduak ordu orretan. Eta sekula ez gendun iztegi batik erabili, ez eta gramatikarik be. "Eguna" n ezer ez eukiteko ez gendun Euskal izte-girik, ez beste libururik. Ori, gaurko askorentzat arrigarri litzake, baiña egia da. Eta erriarentzat obe.

Egunari orretan euki genduzan benetan egun larriak. Arizmendi Begoña'n

eukan Teoloji ikasketetara joan bear izaten zan. Mendizabal'ek ba ekiazan tarte batzuk maite-miñei eskintzen.

Erkiaga eta ni kuartelean bizi giñan. Eusko Gudaritzak Eskolapioetan eukan Kuartel nausian. An jan eta lo. Eta orduak eguerdi aurrean pare bat ordu eta bazkal ostetik gau erdiraiño egunkarian, apaitarako bitartea estu ta larri zainduta.

Egun baten, biok bakarrik, ezin gendun lanik atara. Erkiaga minberatu zan. Ezin gendula era orretan jarraitu eta egun aretan egunkaria amaitu barik itxi bearko gendula. Gogor egin neutsan. Garratz. Asarretu giñan, baiña amaitu gendun lana.

Egunetara lankide barri bat bialdu euskuen. Iru egun baiño ez zitun gugaz egin. Oitu barik egoan eta lan astunegi begitandu. Euskaldun jatorra zan, baiña euskeraz gitxi irakurrita. Eta ezin jarraitu.

Bilbo'n egin genduzan egunetan,ba egozan beste egunkariak euskal idazle billa ebiltzanak. "Euzkadi Roja"koak esateko, "geuk nai genduna idatzita" atalen bat euskeraz argitaratzea nai izaten eben. Errusitar enbaxadarako bi-irutan bete zituen gure fitzak. Baiña alperrik.

Bilbo'n, zementuzko gerrikoa nazionalak zulatu, edo obeto, zuloa billatu ebe-nean eta erraz igaro, giroa asko beratu zan, makaldu, etsipena sartu.

Ordurako gu-geu Gran Via'ko Indatzu etxe andira aldatu ginduezan, gaur Foru Aldundiko Ogasun sailla dagon etxera. Nik uste dot pentsatu zala Bilbao'n laster sartuko zirla, baiña Abando, Indatzu, Basurto eta beste alderdiak, ibaiaren ezker aldekoak, aldeztu al izango zirla, eta andik egunkaria atarako gendula.

Baiña arratsalde baten lanean gengoza txirri-ostean sentidu gendun gure tella-tuaren ganetik lerkari bat igaroten, eta orrek danori barruko arrada eragin euskun.

Andik egunetara, goiz baten "Abeletxe" etorri jatan keixu, amarrak aldian, idaz-gelara. Izatez "Abeletxe" zan "Eguna"ko zuzendari, nai ta bera lanera sekula etorri ez. Ez eukan idazmairik be. Bere zeregiña, gau erdian etorri, irarkolara joan, ango plantxak ikusi edo begiztatu eta on ikusia emotea izaten zan.

Egun aretan, bakarrik nengoala etorri zan, larri. Minuturik galdu barik, gauzak egozan lez itxita, atean eukan kotxean Bilbao'tik Balmaseda'ra urten bear giñala esan eustan, ala agindu eutsela Alderditik, nazionalak Pagasarri aldetik sartu eta bidea eten eta inguratuta geratu baiño len.

Erkiaga laster etorriko zala ta itxaroteko esan neutsan. Estu egoan. Eskolapioetara jantzi eske joateo astirik be ez. Soiñean soiñekoekin urten giñan, besteak norbaitek esanda jarraituko ebelakoan.

Balmaseda baiño lentxuagoko Taramona deiturako eskola izan zan egun batzutarako gure ostatua. Andik Karrantza'ra. Baiña beti izan naiz zarrentzako lotsa zaintzen alegindu nazana, eta bigarren eguna orduko or agertzen ziran batean edo bestean, gure antzera gerrari abaune bat billatu nairik eroaten genduzann tokietara urreratzen ziranak. Eta tokia, lotsaz, arei laga bear.

Orrela ibiltan aspertu, Santoñan egoan gudaroste bateko komandante bateri esker jana libre lortu, nai ta lo endaz ondarrutarrak ziranen etxe baten egin eta egu-

nak aurrera ta gauak larriago, azkenean an egoan batalloiak Asturias'etara joateko deia artu ebanean, komandanteak alperriko osteria izango zala-ta an geratzeko eskatuarren, beragaz joan nintzan Asturias'ko Mieres'era, eta andik laster, atzeraka, Escudo mendietako erasoetan sartuta ibili eta barrero Santoña'ra biurtu ta gero....euskal mutil askorena, kalbario bidea.

Eta Erkiaga, Arizmendi eta abar?

Ezin astu nitzan eurekaz. Kezka larria, eguneroko kezka, zer gertatu ete jakoen, Bilbotik urten al izan eben edo ez...

Alako baten Miranda de Ebro'ko baituen zelaian gengoza, zela ala jakin neban Bilbao'n atxilotu zituela, eta auzitegietan erabili, eta estu gaiñera, batez be Arizmendi.

Eta nigaz benetan asarre egozala, eurak salduta itxita lez.

Denborak argi egiten dabe eta billatu neban Arizmendi'gaz nebillen tokitik karta-giñan asteko era eta aren bidez gauzak azaltzeko.

Orrela, Guadalajara'ko Torre-Sabiñan'en gengoza, egun baten Tercio de Begoña'ko soldaduak igaro ziran andik. Eta nire lagun batzuk esan eusten Erkiaga be areikaz joiala eta ni ikusi naian igaro zala. A zelako besarkada emoteko aukera galdu neban, zortzi illabete inguru alkar ikusteko zoririk euki ez neban adiskide miñari!

Gero be beste iru urte bearko genduzan alkar ikusteko.

Eta arrezkerero... azken berrogeita amar urte, beti euskera lanean ezagutu izan dot Erkiaga.

Berak nobela batzuetarako eta olerki batzuetan laburdiera edo ta euskera arrotzagoa erabilien, Lekeitio beti goguan. Eta Lekeitio'n Azkue, aita ta semea biak, eta Lekeitio'n baita angoa izan zan ez ba zan be an lan asko egiña zan Eguzkitza tar Jon, lemoar abadea gogoko.

Niri ez dagokit ainbestek gogoratu eta goratu daben bere euskal liburu eta lanen zerrenda barrero ona ekarterik.

Niri beragazko artu-emonan agertzea dagokit, eta beragazko jardunetan erabilien gendun irizpidea agertzea. Eta nik esango neuke nire berekiko irizpidea, zabalera baten, beragan ikusten edo igarten neban miña dala geien bat gaur egun gure artean, kazetaritza nai liburuetan, itzaldietan eta bestelako agerpidetan zabaltzen dan euskera salatze eukan ardura erakustea zala, min emoten ei eutsan gaurko euskerazko doñu, joskera eta erabilteak.

Nik ba dakit denbora batzutan zelan ibili giñan batetik bestera bai bertsolari-leiaketak asi ziranetan epai-maikide, bai beste euskal literaturako goraberetako epaikari garcatz eta ixil, eta sekula egilleen aitatasuna iragarriarren, adiskidetasun edo ta bestelako artu-emonen jaramonik barik, lan bakoitzaren irizpideko aoskatze zeatza emonaz.

Urte asko dira Lankide Aurrezki Kutxak euskal arrantzaluen erakunde eta bizitzari buruzko leiaketa bat iragani eta saria emon zala.

Erabagia agertzean, saritutako lanaren izena emoten zan eta sariketara aurkeztu ziran beste lau lanena be bai.

Nik **asaiTea** agertu neban, ez epaikarien erabagiagaitik, nik be lan bat garaiz bialdu eta zerrenda artean ezalako agertzen baiño.

Itxuraz, epaikariei banatu baiño aurrerago norbaitek nire lana eskuratu eban irakurteko, eta aztu epaikariei banatzean. Eta nirea barik emon epaia.

Iru ziran epaikariak. Batek berak emon ebala bere iritzia eta artan jarraitzen ebala nirea irakurriarre, ez joiala aldatzera, bestea nire alde geratu zan eta irugarrena Erkiaga, ain zuzen nire adiskide miña, bein erabagia emon ezkerro, epai maiak bere zeregiña bete ebala-ta, euren errua be ez zala gertatuarena eta or geratu zan, nai ta orduko gure bizitzan alako sari batek guri laguntasun asko emon, eztabaidan sartu barik, beti be iñori adiskidetasun edo senidetasun bigunkeririk erakutsi barik.

Eta Erkiaga leiaketa ugaritan izan zan epai maiko, beti gauzak zeatz irakurri, bere oarrak artu, eta kontzientziak agintzen eutsan botoa emonaz, izkelgiei begiratu barik, danak irakurten oitua zalako, eta gaurko beste berezitasun eta txikikeri askori jaramonik egin barik.

Erkiaga'k, al eban guztian bere ukandua erakutsiko eban euskeraren alde, Lekeitio'ko alkatea zuritzen lez, Azkue ikastola sortuteko.

Alaz eta Erkiaga, bera zan lez ikusten eta entzuten ebanaren kritikalarri zeatz izan da, ezin ixildu bere aldetik, ezin il esango neuke nik, bere esakera bereziagaz gaurko agerpen batzuk salatu barik, Lekeitio'ko aurtengo jaietako egitarauan argitaratutako olerki baten, batetik, Lekeitio'ko berbeta goratu eta bestetik komunikabide batzuen jokera "errearen zirrin zarran antzeko" salatu barik.

Ara Agur jaunak deiturako olerkiaren iru zati:

*Soinuuz beteriko berbeta
erabili izan dau aspaldian
lekeitiar jatorrak,
eta ez jako etxeko egiten
telebistako albistari batzuen
mintza-tonu bakarra,
errearen zirrin-zarran antzekoa.*

*Tokian tokiko, hor dira
hizkera atseginak,
baina inori ezer kendu barik
Arranegi inguruetako
berbeta honek
ez dau egiten palt,
ez dakar arrauzirik,
ez dau gogait eragiten.*

*Barriketa mamina da,
elkarrentzako soinu bizia,
gora ta behera
dzauan dzauan doian
esatemodu arina
musikaz egina;
hizkera gozo horrek dau
gure maitemina.*

Orrelaxe pentsaten eban Eusebio Erkiaga andiak. Beti erri maitale.

Nik lekeitiarrei bere omenaldian esan neutsen lez:

" ...beti, beti, zuen Aittitta Makurra lez, kalma zuri nai denboralerik latzenetan
be, tinko, zutik, bere ezaugarria emoten"

(Karmel, 1993-3,102-108)

TXAPELA

Ume umetatik euki izan dogu euskaldunok txapelaren ezaupidea, ardura edo ta premiña.

Orainduk ume moko giñala, "O mutil tonto, jateko pronto" eta antzerakuak baiño ez genkiezala, ba gendun erantzunetako bat era onetan:

- Burua zetako?
- Txapela eruateko

Eta oraindik gurasoak txapelik erosten ez euskuen artean, buruko ule prekilluak beteten eben txapelaren zeregiña, batez be abadeen aurretik edo inguruan igarotzean, agurtzeko txapelik jasoterik ez gendulako prekilluei eutsi ta goratzen genduza-nean.

Oh tempora, oh mores, ezta?

Gu-umeok orrela pentsatzen ba gendun, or egozan zarrak beste pentsakera au eukenak:

Bururik ez daukanak txapel bearrik ez.

Beste esaera au be erakutsi andiko da, eta batez be agureak nai gendukena:

Txapela buruan eta ibili munduan.

Edo ta txapelari nortasuna emonaz: Txapelak ez dau buru utsik beteten.

Esan nairik txapel aundia buruan erabiliarren, gizona izan daitekela garun makalekua, buru txikikoa.

Txapelaren duintasuna agertzen da or. Bai eta beste antzerako onetan be:

Txapel batekin buru bi estaltzen dituana, arpegi bikoien argalkeria edo txikikeria azaldu nairik dabil.

Edozetara eta beti txapela bere lekuan eta bere zeregiñean ezagututa.

NOIZTIK EZAGUTZEN DA TXAPELA?

Adierazpen luzeak agertu leikez gai onetan.

Risto'ren aurretikoa dala esaten da.

Orrelako zerbait ziurtatu gura da Austria'ko Watach'en aurkitu zan brontzean landutako irudi batetik.

Baiña ori luze ba dua be, El Escoril'eko Monastegiko liburutegiko Cantigas'etako liburu baten, txapeldunak igarri eta ikusten dira.

Eta Akitaniako Bellocq'eko eleiz atadiko irudietan, euskal txapelduna igarten da. Gogoratu Eleiz ori 1280-1300 ingurutakoa dala.

Tafalla'ko Andra Mari eleizan dagon Sebastian deunaren irudi bat txapelagaz egindako mirari bategaz ospatzen da, eta XV garren gizaldikoa da.

Jeronimo Larrea'k antxiñako gipuzkoar gudarien edo gerralarien burrukak gogoratzean, txapelekin iruditzen zitun beti. Eta irudi oneik 1600 urtea baiño leen-txuagokoak dira.

TXAPELA EUSKALDUNA?

Onetan iritzi ezbaridiñak ezagutzen dira.

Baiña italiarrak *berretto dei Basqui* lez ezagutzen dabe.

Eta ingelesak *basque cap* deitura emoten dautse.

Eta alemaniarrak *Baskiche Mütze*

Ez al da ori berori naiko ezaupide eta adierazle?

TXAPELA OSASUNTSUA ETE DA?

Osagille batzuk, mediku batzuk, euren gaitasuna, edo obeto esanda, euren "tituloa" kapeleagaz lotzen eben. Itxura baten duintasun geiago kapeleak jende aurrean.

Onetan euki izan doguz bestekoak. Pio Baroja bat, edo ta V. Juaristi ta abar.

Askoren ustea izan da txapela erabilteak, ulea lenago galdu eragiten dauala.. Egosi eragin, bigundu eta jausi. Bai eta otzaldi eta kostipadu geiago batzen dala txapelagaz odolaren garastan goi-beratze asko eragiten dakiazala.

Esan bear askok diñoela onetan ez dagola zentzuzko ziurtasunik.

Egon izan dira idatzi izan dabenak txapelak kalte orde z bizia luzatu egiten

dautsola gizonari, batez be adin batera eltzean, eta zer esanik ez aguretzean, giroaren aldaketetan burua babestuten daualako.

Ez ori bakarrik.

Gaur kotxeetan gerrikoa erabiltera beartu egiten da. Eta ba dira aldezen dabena txapela eroatera be beartu egin bear litzakela, berebizikoa dalako batez be zauri asko arintzen. Onetan esaten da euneko berrogei buruko zoritxar gitxiago gertaten dirala ez-bearretan txapela erabilten dabenen artean.

TXAPELAREN KOLOREA

Ze kolore bear dau txapelak?

Orra beste jakingarri bat.

Gaur geien erabilten dana baltza da. Baiña itxuraz, asiera baten, lutoaren ezaugarri lez erabilten zan baltza.

Ba dirudi antziñetan okre antzekoa izaten zala, edo ta Iur kolorekoa.

Bein kolore ezagunagoak sartzean, urdifiya zala esaten da ugariena, eta geroago gorria. Eta berdea gero ta oria ondoren.

Berdea gaztetasun ezaugarritzat erabilten ei zan.

Bizkaitarrak, karlista guda aldietan, txapel zuria erabilten eben ezaugarri.

Baiña Zumalakarregi gudalburuaren gogoia, Madrid'en sartzea lortzen ba eban, txapel gorriagaz sartzea ei zan.

Borbondarrak txapel urdiña artu eben ezaugarritzat.

Gaur, kirol eta abarretan, talde bakoitzak bere kolore ezaugarria erabilten daki, baiña ez txapel lez, bestelako buruko kasku edo atzekotan baiño.

Gogoratu Bilbao'ko Atletik'en ezaugarri dan leoia, bere kolore bidun txapela-gaz agertzen dala.

Txapelaren kolore ta abar, ezagunak dira bertsoetan be. Ara bat:

*Azpeitiko neskatzak
gona gorriekin,
ez dute dantzatu nai
txapel txurriekin.
Ai, ai, ai mutillak
txapel gorriekin.
Ai, ai, ai neskatzak
gona gorriekin!*

TXAPELAREN NEURRIA

Txapel aundi edo txikia.... ori bilbotarren aize boladetan ibilten ei da. Andia eroaten bilbotarrak ei dira lenenak, eta txikia eroaten be eurak ezagunenak.

TXAPELA....ZEGAITIK ARERIO?

Gernika'ko Batzar Etxeo Artxiboan, 1838 urtean Espartero generalak emonda-ko txapelaren aurkako pregoia gordeta dago.

Espartero'ren pregoiak diño:

"Txapela erabilteak dakarzan kalteak ezagututa, gure Erregin Ilgarren Isabel'en legezko eskubideen eta konstituziñoaren aurka dabizenen ezaugarri dala-ko, batez be jakinda guk aldeztuten dogun auziaren aurkakoak arro erabilten dabe-la, eta moda lez sartuta daukela ikusita, orretara naste ugari sortuaz, eta arerioen aurka joatean sortu leikezan nasteak be kontuan eukita, agindu au emotea erabagi dot:

L- Agindu au argitaratzen dan unetik asita, txapela erabiltea galerazoten da pertsona eta izaki guztiei, militarrei izan nai erritarrei.

2.- Agindua betetzen ez dabenak, lenengo aldiari 80 enialeko isuna ordaindu-ko dabe eta ordaindu ezin ba dabe, ille biko kartzela; bigarrenean zigor ori bidartu egingo da eta irugarrenean kartzela denbora urte bikoia izango da.

3 - Agindua betetearen erantzule izango dira nigandik urtetan daben aginduak bete eragitera beartuta dagozanak.

Eta agindu onetan esaten danak bere indarra euki dagian, eta ezagutzen ez daben aitzakirik agertu ez dagien, agindu au uri, erri, auzo eta nire agintearen men-peko toki guztietan agertzea agintzen dot, armetako nagusi, jaurleri eta agintari guz-tiei bialduaz, gudaritzako agindu orokorretan sartuaz eta toki agirietan ipini eta zabalduaz.

Agindu au 1836'ko Azilla'ren 27'an Logroño'n siñatua da."

TXAPELA ERABILTEA, ARROKERI?

Emen lekeitiarrena dago.

Bixente, txapela tente, popan doia almirante.

Onek, albo-alboka, Elkano getariarra dakarsku gogora.

Elkano getariarra, munduari lenengo bira emon eutsana, bere txapelagaz iru-ditzen dabe, bere egitarik andienetan. Beraz, txapelak ba daki munduko barri eta munduak txapelarena.

Ain zuzen Eleizak be ba dauka onen ezaupide bat eta Getaria'ko Salbatore parrokian euskaldunen txapela bedeinkatzen dakie.

Zerbaitegaitik esaten eban Aita Juan M. Lertxundi tolosar eskolapioak:

*Ispillu aurrean ikusten dute
Euskaldun egokienak,
edertasuna galtzen dutela
txapelik gabe daudenak.*

Eta kalean zelan erabili bear da txapela?

Onetan Paulo Zamarripa, Asuatarra jatorriz, baiña Laredo'n mundua lenengoz ikusi ebanaren bertsoa gogoratu:

*Txapela nai dot buruan,
mingaiñean barriz euskera:
biotz. barru-barruan
biak daukadaz batera.*

Euskaldun N.A.N. zeatz eta osoagorik bai?

ZELAN ERABILI?

"Ez fida poneta (txapela) makur dueskan gizonari" Duvoisin'en esaereta agertzen da.

Ba dira diñoenak txapela erabiltetik ezagutzen dala gizona eginkorra dan, sentikorra dan, bake-zale dan, egitsu dan, edertzale dan.

Edo ta nagia dan, ardurabakoa, burujaube ez dana, arrua edo ta fidakaitza.

Bakoitzak daki zelan agertu.

Edozetara be ba dira diñoenak txapel baten azpian filosofiari bat aurkitzen dala.

Eta orrek nortasun bat berez dakar.

TXAPELAREN GATZA

Gauza guztiak eukiten dabe euren izateko berezitasun bat, bakoitzaren "gatza" deitu leikena.

Txapelak be ba dauka berea. Guk txistena deitzen dautsagu. Erdi erdian gora begira daukan tentekoa. Beste batzuk txurtena lez ezagutzen dabe, bai eta txuntxur lez be.

Or ei dauka txapelak bere gatza.

TXAPELA ETA OTXANDIXO

1970 urteko Udan, Otxandio'tik dei bat zabaldu zan. Ango jaietarako txapela goratu naiko leiaketa bat iragarten zan: Idazleentzat txapelari olerkia. Eta besteen-tzat txapelik andienari, txapela egokien eta txairuen erabilten ebanari eta abar.

Olerkitxu bat egin neban eta ain zuzen nik irabazi txapela.

Txapela erabiteko agerbidera 32 lagun aurkeztu ziran. Donostiar batek, Patxi Alkorta'k irabazi eban txapelaundi saillekoa, 49 zentimetro ingurudun txapela-gaz.

Bere alaba izan zan emakumeetan lenengo saria irabazi ebana, eta bigarren saria eskoziar neskillilla dotore batek: Anne Reyli'k. Esan bear neska au gorulari jantzita agertu zala eta txalorik geien beretzat izan zirala.

Nire aldetik, olerkian txapela goratzean, erriaren izakera bat gogoratu nai izan

neban. Entzutetsuak dira Otxandixoko kate-lantegiak eta or billatu neban erriaren aipamena egiteko gaia.

Leiaketa orren ondoren Alikante eta Murzia aldetik iru karta artu nittun txapelari olerkia eskatzen, baiña bere itzulpenagaz. Txapelaren duintasuna zabala dala igarri neban, izpar-emole askok zabaldu ebelako jai ori.

Ara nire olerkitxoak:

TXAPELA ETA BURUAK OTXANDIOKO KATE DIRUDIE

*Txapelak ez dau bururik egiten,
buruak be ez txapelik,
baiña txapelik ezin erabili
artako buru bagerik.*

*Premiñazko dau burua txapelak
bere arlo ta zeregiñean,
ta burua ez. da bear motela
txapela ba dafin-fiña.*

*Buruan maitale da txapela
eta ez kaskarrarena,
ortatik da txapelaz dabilena,
zerbaitetan azkarrena.*

*Zor dausat nik txapelari agurra,
naizelako euskalduna;
itzen orde, mundu zabal barruna
berak damost nortasuna.*

*Baiña gaur keskaz. nabil bere koplari,
ez. bai dakit nundik eten kantuari:
Edo burua makurtu
eta txapela agurtu,
edo ta txapela kendu
eta burua omendu.*

*Otxandioko kate dirudie
txapela eta buruak;
kate maillak lez, alkarri lotuta
maiteko dituz. munduak.*

Ezin nei ukatu olerkiak biurri urten eustala, arlote; baiña ezagutzen dot alako-
xe naizela txapela erabilten be. Egia danen gaiñetik, egiak azkatuko gaitulako

(Karmel, 1994-2, 87-95)

ITXAS BIZITZA ETA GURE EUSKERA

Gogorapen eta goramen

Asiera baterako, ondarrutar lez, eta Txomin Agirre liburutegiko areto onetan, gure Txomin gogoratu eta goratuaz, bere berba batzuek azalduko dituzte nire aurkezpena:

"Ni enaz izan, euskera kontuan, beste batzuk legez urandiko arraiña"

"Besigu eta atun tatoakazi asi eta loditu ninduen"; "ia toleta baiño andiago ez nitzala" asi nitzan euskeraz idazten; "gure neguko izotzak gogortu eustazan azurrak"....

"Ez naz egundo ontzi andietan ibili eta Kantauriko uretatik ez dot urten, naita-naiezean edo arribadaren baten izan ezik"

"Alan be naiko neke igaro dot itxasoetan", nire kontuan euskeraren itxasoan.

Neke orren miñetako bat agertuko dausuet jardunaldi onetan.

Azalpena

Ogei urte inguru dira Euskerazaintza sortu zala.

Euskera zaintza, euskeraren erri akademia, edo obeto esanda, erri euskeraren akademia.

Gu ez gara urandiko arraiñak. Ez gara galoi askodun patrioiak nai ta euskeraren itxasoan, gure itxasertz onetako mariñel zarrak ausartzen ziran lez Lur-Barrietaraiño (Terranobaraiño) joaten ausartu, aldi aretan erriak eukan izadiaren ezaupideagaz: Ipar Izarra billatu, eta ori zurtzillo pandanguak alkondara ertzagaz baiño garbitzen ez ekien ume pongoliñuak be ba ekien, eta aren gidaritzapean edonora joaten ausartuten ziran.

Areik itxasoan ibiltzen ziran lez, gu euskeraren arloan, gure Ipar-Izarra gidari dala gabiltz.

Zein dan euskeraren Ipar-Izar ori? Erria. bere akats, illunpe, laiño, gurma eta guzti. Baiña egun sentiak be, goiz giroan, bere terraltxoak eukiten dau errekonduan, begietako makarrak garbitu eragiteko eta euskerak be ori ezagutzen dau bere idazle, bertsolari, kontulari eta esaleen aldetik. Edo ta Euskerazaintza lez, eta onetan ezin kendu euren alde onik beste erakundeei be, bere iturri garbiak artu eta gero, azalean sortzen diran ooldi eta ondar multsoak bastertzen alegintzeko, edo ta iturri garden orreik ingurutako kimika eta kutsadura barik euren zeregin eta eginbear oztopo barik bete dagien alegintzeko.

Orretan asi giñala ogei urte inguru dira. Amar urtetara lortu gendun legeztatzea eta Erri zuduzkotasanaren Aldarrikapena ezagutzea eta jakintza gaien gaitasuna Madrid'etik Gasteiz'era aldatzean gure Jaurlaritzaren ezagutzea be lortu gendun,

1.984'ko Maiatzaren 21'an Gasteiz'ek gure erakundearen elburuen osotasuna onartzean.

Beraz ez gabiltz batzuk uste daben lez mozolo arrapakari antzera lanean, edo gantzeru lapur antzera, egun argiz eta brankaz baiño nai ta Europar Komunitadetan gertatzen dan lez, eta ori Ondarroan ondo dakigu, baimenak eta lizentziak eta eskubiak batzuk artu eta besteak, ondarrutar txalopa askok lez, eteteko alegiñak egin bear itxasoari berea atarateko, au da, gure kontuan euskerari eskamak kendu al izateko.

Onezkero norbaitek esango eban:

EITÍ euskera! Eta Ondarruko euskeri zer? Lotsatuteko euskeri ez da ba?

Nik orreri labur erantzungo dausat: "Ez da jende ez kabalarik zerbait tatxa ez duanik".

Izkuntza ez da bakarrik itzekaz, berbekaz osatzen. OiTez gain izkuntzak bere egitura dau, bere doiñua, bere gurpilla, bere taixua, bere gatza.

Ez uste erderazko berba batzuk sartuarren izkuntza erdera biurtzen danik. Baiña ez eta be bestera: Euskal barbarik garbienak erabilita be, bere doiñua eta berezko dauan egitura emon ezik, euskera garbia danik.

Ortxe dago kakua.

Ara adierazgarri bat. Eibartarrakaitik esaten da: "Solaren kaloriak disipatzen du nubearen idensidadea".

Berbak bai, ez dira beintzak euskaldunak. Baiña zein erdaldunek zeatz zeatz itzuliko leuke esaldi ori? (Del sol el calor disipa de la nube la densidad) Orrela esanda, erdera edo gaztelania dala esango al dausue angoak? Esaera orrek erdal edo gaztelani jokera eukiteko, onela esana bearko litzake: Kaloriak solarenak disipatzen du densidadea nubearena.

Ba dakizue zek eta zeintzuk baldartzen daben Ondarruko euskera?

Aspalditik geuk artu dogun oitura zatar batek: Gu-geu lotsatuko ba giña lez, paperetan eta irratietan eta al dan tokietan erabilteaz.

Traductore traditore, esaten dakie italiarrak itzultzailliekaitik. Eta guk papereetan, edo ormetan, edo irratietan eta abarretan gure berbeta egin barik egiten doguna, zazkartu, okertu, baldartu, nastu eta itxuragabetzen alegintzen garealako. Askotan orregaz egiten dogun kalteagaz konturatu barik. Gu geu gara barrabasak eta ez gure berbeta, gure euskera.

Orrelakoetan euskal esarea bat gogoratzen dakit: Ez benetan, ez olgetan, ez norbere berbetaz egin ixekan.

Jaungoikoak daki emen Ondarrun zenbat berba eta zenbat esaera eta berba joku polit eta jator entzun eta bereala, entzun-ala ez idazteagaitik, ez batzeagaitik, astu edo galdu yatazan.

Nik lotsa barik esan daikedana auxe da:

Gure erriko euskera, batez be zarrena, jator jatorra dala. Aberatsa dala. Ugaria.

Eta igarten dala oarpen (oserbaziño) andia erakutsi eta salatzen dauan izkuntza dala.

Baiña.....

Ukatu eziña da azken irurogei urteetan, erderaren kutsadura nabari eta ugaria sartu jakola.

Erdal kokua sartu jako. Gorriña lakoa. Eta koko orrek jan egin dau, makaldu, auldu, ia agortu gure inguruko aberastasuna.

Egia da gure bizitzan azpi-egituraren aldakuntza bete-betea izan dala.

Etxeetatik asita. Janari, tresneri, gaillu, bizibideko oitura, jantzi, agerbide, sinismen eta oiturak, aldatu ez diranak be, barrikuntzaren eragiña artu edo euki dabe. Eragin ori ez da lengotik atara, kanpotik gureganatu baino.

Ogibidean, emen, itxas-erri izatean, batez be arrantzan, erabideak barrien barri artu dira. Gaurko txalopa eta lantokietako bizimoduak, ez erabilten diran tresnekin, ez gaikiekin, ez eskuratzen diran emaitzekin, ez dauke ze ikusirik, euneko ainbes-teko baten beintzat lengoekin.

Kaleko bizitzan, atsedean aldiko bizian, nai eguneko ordu askeetako bizitzan, gure oiturak, zaletasunak, gurariak, ibillerak, eta abar, danak aldatu dira izenez eta izatéz.

Orrek, eguneroko izkuntzan, berbetan, bera eragiña dauka. Eta egunerokoa da zotiñik geien eragiten dauana.

Gañera, artzen dogun barri guztia, bertan sortua barik, kanpotik sartua danez, guretzako, euskera kontuan, euskal agerbide kontuan, egoskatu eziña da. Ao-zeetu, maluskatu barik iruntziten dogu.

Ortik gaur izkuntzaren bizian egunetik egunera zabaldu eta nabaritzen igarten dogu argaltasuna. Ziurretik bizi-barritu ezin izango doguna. Gaurko giroan beintzat.

Izkuntza jator-jatorra dala esan dogu. Eta ugaria.

Orretarako lengo zarrak euki eben euren aldeko edo aldegarri bat. Beste izkuntzarik ez jakitea. Eta gizarteko bizimoduan izkuntzak jakitea mesedegarri dan lez, bakoitzaren berbeta edo izkuntzari dagokion jatortasun, garbitasun, kutsuakotasun eta berezkotasunean, be ongarri gertatzen da.

Ez nator beste izkuntzak ez jakitea txalotzen, ez gitxiagorik be. Izkuntzetan, bakoitzaren jatortasunean zer gertatzen dan edo ta zer jaso daitekena adierazten baiño.

Berba utsetan, itz soilletan, gaitz da izkuntza bat bateko edo besteko kutsaduraren aize edo ikutu barik zaintzea, batez be gaur, izkuntzetako mugarik ez dagon aldi onetan, eta alkarrekiko artu-emonak zela-alako adierazpen bidez batu, lotu, erraztu, argitu eta ugaritzeko, satelliteak izadian zear zabaltzen diardugun aldi onetan baiña nik uste dot geu jatorrago zainduta, gurearen aberastasunari, bai doiñu eta egituretan, obeto eutsi daikeogula gaur daroagun bidean baiño.

Gure euskera, eguneroko berbeta lez, aberatsa izan dala esan dot. Eta zeatza. Zeregin bakoitzarentzat, oarmenak eta eragiñak sortu eta iruditu eragindako berba bereziekaz.

Gauza askori ikutu neikio au ziurtatzeko. Lan luzea egin leike onetan. Baiña

gaur denbora mugatua daukat. Eta gure artean, oraindik alkarregaz bizitzeko aukera euki gendun gugaz baterako edo pixka bat aurretikoago izan ziranen berba txorta batzuk erabiliko dodaz ori ziurtatu eta egiaztatzeko.

Ara, asko zeztuten ibili barik aukeratuta berba bat: Orratza.

Orratza

Gure bizitza, ondarrutarren itxas bizitza izan dalako, arrain usaiña artzen asiko gara orratzetan.

Sare orratza: Gaur nailonezko sareak erabilten dira, baiña oraintsuarte arizkoak erabilten ziran, beti ez ziran zibot-zibotekuak izaten, mariñelak ez euken ainbeste ondasun be-ta. (Eten txiki bat: nundik asmatu ete eben gure sare konpontzailleak berba ori? Zibot, gaztelaniaz "capullo de seda"ren esan naiko da. Eta ain ari on eta ederreko gertatzean asmatu ete eben?)

Armateko orratza. Egitura nausirako.

Bietz orratza. Be aldeak josteko

Goibumko orratza. Sarearen goiburuak josten erabilten dana.

Mamiñeko orratza. Sare mamiñak, papuak, sare osagarri eta betegarri ugari konpontzen erabiltekoak.

Orreik, jakiña, erabili bear dan ariari buruzkoak.

Baiña *olezko* orratzak, izen ori dauke-ta, eta beti olezkoak erabilten ziralako, ba daukez euren zeaztasunak be: txiki, estu, lodi, eta zenbakiak 0-koak edo ta 1, 2, 3 eta 4 koak.

Bai eta sareko mailla zeztuten dabenak be. *Mailla* orratza eta *mailloi* orratza.

Esateko: Joskuretarako O'ko orratza erabilten da. Konponketarako 00 bikoa.

Aritarako totolua, au da, lodia eta luzea.

Bietzerako motza.

Kortxoepoko premiñak josteko, 1, 2, 3 eta 4 koak.

Mailloi berbak, gu txiki giñala, eskolan erabilten gendun berbeta gogora dakar-kit: Guk millo ordez milloi esaten gendun, eta geiago ba zan killoi, eta zenbatu eziña ba zan kinkilloi.

Orreri buruz esan dagigun malloirako orratza luze eta lodia, biak erabilten dirala.

Orratzei buruz ba egozan eta dagoz geiago:

Bela orratzak. Aizeak zulatu eta tarratadaz bete ondoren, bereala konpondu bear izaten diranean erabilteko.

Or dagoz baita *Paparreko* orratzak, pitxidunak. Eta *galtzeta-omtzak* eta beste abar asko.

Eta zelan ixilik euki *itxas-orratza* (gaurkoentzat konpasa), izen jatorra galdu-ta?

Ara Ondarroan itxas orratz bidez aizeak zelako ezaugarriak daukezan:

Kanpoko aizea, (kanpaxia), (Norte); Iparra (Nordeste); Mendesta (Este); Errekaizea (Sureste); Egoa (Sur); Galgoia (Sur-oeste); Mendebala (Oeste).

Baiña Este, Oesteka, Norte eta Suraka nabil. Parkatu, lengo zarrak Sorkalde eta Sarkalde, Ipar eta Ego erabilten zituen.

Olatuak

Txi orratzak eta aukeratu daigun beste gai bat: *Olatuak*

Emen be ainbat zeaztasun, ainbat ezaugarri.

Or dagoz *ardi zuriak* deitzen diran olatuak, itxasoan olatu zuri txikiz beteta agertzen danekoak.

Olastak, olatu txiki, indarbako, bigunak.

Erlaizeak, itxasoan olatu txiki baiña biziak apurtzen dabiltzanean;

Ondar olatu, ondartzetan bat batera sortu ta apurtzen dan olatua; *eskalapoa* be deitzen eutsen oneri, eta bits-dunari *katxioia*

Txipli-txaplak, jolasean lez ur azalean dabiltzan olatu txikiak.

Gero datoz gogorraguak:

Olatu-errebonba. olatuak itxasertzean irakiten lagaten daben ur egoera.

Olatu zakarrak, erruki barik gogor eta gordin jotzen dabenekoak.

Olatu sakonak, Barruko erasoaldiz sortzen diranak: bagak

Olatuen gaiña, au da, olatu gaiñaldia;

Birazoia, aize nastetsukin dabillan olatua;

Olatu plastak, birazoiaren antzeko.

Bonbezia, olatu arro edo jasoari, eta itxas sakonean gertaten danean.

Olarrua.

Tiraiña. Baiña tiraiña egoteko erreka bear da, errekarreak zear ibiltzen dan olatua dalako.

Olatu auzia, olatu giroa da. Olatua apurtzen jo ta auzi dabillanean.

Barraz-barrakoa, Barrako esien gaiñez-gain dabillana. *Olatu arrotua* be deitzen da. Zabal etorri eta itxas mugarren gaiñetan ibiltzen danari.

Kardala itxas urrunean eteten asi eta olatuen sortzea asten dan ingurua.

Eta olatuak deitzen dautsaguzan lez, *bagak* be deitzen dautsegu olatu sakonak diranean eta uiñak be bai; olatu batek uiñak ausi, esaten eben.

Ondanoako bizia agertzen dauan beste berba bat, *kala* da.

Danok dakigu *itxas kalak* arrantza tokiak dirala. Itxas zabal eta sakonean arrantzan egiteko eta ibilteko toki egokiak. Batzuk itxas ertzean be bai, besteak, gaur erraz baiña lenagoko arrantza bizibidean gaua itxasoan galdu eragiten ebenak edo ta eurentan arrantzateko egun bat edo geiago bear ziranak

Oraindik erabilten da gure artean, kanpora joan esatearen ordeez, *at* berba.

- **Nora zoaze?**

- **At'ako bandan.** Ori izaten da ondarrutarren erantzuna, kanpo aldera doazalaren esateko.

Kalak, geienetan, itxas zabaleko tokiak dira, nai ta errian sartu edo inguratzen daberen errekan be tarte edo sakonune batzuei kala deitura emon.

Ortik *kala beruna*, arrantzako aparixu edo tresnei, gitxi gorabera, ur azaletik berako ainbeste metrotako (arrantzaleak metro orde bezak esaten dabez) neurria emon eta lortu edo ta ziurtatzeko.

Gaur berunari plomoa esaten ba dautse be, oraindik aparixuetakoei beruna deitzen jarraitzen dabe.

Iñoiz berbetako zaratari be kalamatrika deitzen dautsagu. Ez ete dator ori kalatan erabilten dan edo erabilten eben berbetako eratik?

Eta ortik kalapitari, berbaldunari, iztunari.

Itxas ekaitz iragarle bez, egunak aurretik gure ondartzan, molla egal eta gane, eleizako tellatu, ibai ertz eta abar itxas txoriz beteta igarten dira. Ugarroi, txirrin, serora-andi, aparjale, antxeta, atuntxori, pottorro, lanperna-musu, dsangalari eta abar izango dira, baiña guk kaio edo kaixar bez ezagutuko doguz, ta zabalago eta enikoiago *kala-txori* izen eta deituraz. Iñoiz kalasantza be bai, ego baltzdunei.

Eta *kala* erabiliko dogu txikiteoan gabiltzala ara eta ona joateko: Guazeren gure "kalara".

Eta kala itza, berba erabiliko dabe txirristada bat egin naian ortik zear Bilbo aldera edo joaten diranean: andra kalara.

Len ontziak eurak, itxas ontzi edo txalopak, kaleru, kalesa eta abar deitzen ziran.

Eta kala-pitxia zer?

Iñok berba baten izenik bere ugaritasunean batu izan ba dau, Placido Mujika izan zan bere Iztegian.

"Mitxeleta", au da erderazko *mariposa* izena zeaztueran, Euskalerrian, an edo emen erabilten diran mamutz egalari orren 160 deitura agertzen dauz. Eta ain zuzen Ondarroan erabilten dan izenik aitatu ez, kalapitxi aitatu ez.

Eta ez da Mujika bakarrik orretan geratzen dana. Azkue lekeitiarrak be ez dau bere iztegian sartzen. Erkiaga'k diñostanez, an aspalditik mariposia erabilten dabe, nai ta zuri-zuri diranei Ama Birgiña deitu eta beste batzuei san Roke.

Aizeak

Itxasotik urten barik, aizeetan sartzen ba gara, ainbat eratako ezagutuko doguz euren egoera, kolore eta ikuspegi bez.

Orrela:

Aize baltz, aize beralan, aize berde, aize epel, aize erre, aize fresko, aize gangar, aize gori, aize otz, aize ustel, aize zakar, aize zoro.... edo ta andren aize, errekaize, barrako aize, terraltxoa

eta eurok bamian dirala sortu eta egiten diran ainbat esaldi jator.

Ezin ukatu gure bizitza itxasoagaz eta arraiñagaz irudituta, bardinkatuta, bat-eginda dabillanik.

Gure bizitzako edo ogibideko elburua, arraiña danez, arraiñak biztu dauzku iru-dimena gure esate, irudipen, antzirudi, agerbide eta ezaupidetarako.

Gure kaletan mendebal aldetik etorten diran txorrotzalien txiruliria entzutean, iñori ez jako bururatzen Santiago'ko enrjmesen bat etorri danik, edo ta bota-fume-roirik, ez eta erreguka dabillen itxas-maskordun eskalerik, nai ta maskorrek itxas-kiak izan. Edozeiñeri be, Ene!, *huri arraiña* agertu da, edo ta antzeko esaeraren batek urtengo dautso.

Gabaz tabernetan igaro eta etxera goizaldean datorranagaitik be, bestelako milla esaera egonarren, *albako arraiña*, edo *goizaldeko arraiña* dala esango dabe.

Iñoiz nunbaiten emakume alai, bizi nasai edo arin, eta lengo pentsakeretan, aske samarra edo uste ziranakaitik, lenengo berba, beste guztiak alboan lagata, "aingira baltzak" edo kidekoen bat izango zala esaten zan.

Edo ta geldi ezin, toki guztietan euren muturra sartu naian dabiltzanei, *aingira ziriñak* deituko dautse. Gogoratu aingirak koipetsu eta labanak izaten dirala, eutsi eziñak eta ortik deitura.

Bere buruari errespetuko lotsa edo errespetua sartu gurarik, edo anditzakotzat agertu naian ezagutzen danari, bere arrokeria salatzen lez, *urandiko arraiña* deituten dautse.

Ostera, iñor aintzat artzen ez dakian alako gizon mozolo, edo ausarta, edo arpegi zorrotz, betozko eta antzerakoekaitik. lagunarte berezietan ibiltzen dakienei... *izurdeak* deituko dautse edo eurekaitik esango da. Izurderik jakintsuenak legorrean, esaten da. Eukiko dau orrek bere akikuloa.

Gixajoen bateri, edozeiñen menpe ibili edo irrigarri ezagutzen danari, *ur txiki-ko arraiña*

Ordez gizon nai mutil tentel, ardurabako, nortasun bako, firili-farala edo jakituriz urri dabillanari, lantzoia deituko dautse. Amaika lantzo ba dabil errian, esaten da.

Eztena nundik sartuko, edo zirikalariet, *akulak*.

Arrantzan aukera onak euki eta arrantza onak eginda arro dabillen gizonari, nai ta bere alegin eta ekiñaren buruz egin, *arrain bitsa* dabillala esango dabe beragaitik.

Gizon argi, zorrotz eta urrunera begiratzen dakianagaitik *kaielak* baiño begi luzeago daukela esango da. Jakiña da *kaielak* (erderaz taulón) urrunetik igarten dabela arrain moltsoa nun dagon eta bizi-bizi joaten dirala euretara.

Gizon bat gaixotasunez, eritasunez, edo beste zerbaitegaitik argalduta ikusten danean, *kolaixo sikua* baiño argalago geratu dala entzungo da.

Eta argal, kolore zuri ikusten danean: "Mutxarriak" baiño odol gitxiago, esaten da. Arrain oneri buruz Azkue'k bere iztegian au diño: *Mutsarreri* (B-ond), aguacio, pececillo sin sangre, parecido a la anchoa.

Ibiltari danari *papardo*. Esaera be ba dago: paparduak lez, an zarean lakoan emen, zerbait arin egiteko agintzen danean.

Eta alegiñak egiñarren, norbaitengandik ezer lortu ez edo ezin danean, *olagarrrua* (amanatza) lez bereari eusten dabillela, esango dogu.

Gizon patxadatsu, ondo jandakoekaitik, *zimarroi gorria* esango dabe.

"Txibiei (txipiroiei) jaten emoten dakiana" ostera, itxasoan zorabiatu edo mariatu eta bota-botaka dabillanagaitik entzungo da.

Eta alaxe ainbat.

Txomin Agirre'ren "Kresala" irakurtea baiño ez dago. Tramana eta Brix'ek zelako itxas berbeta darabilen irakurri.

Oargarri da baita bizitzako eguneroko gertaera bat: Gaur Kristo erabilten da askotan lotsa eta ardura barik, gertaera asko iragarteko be. Kristonak emon, Kriston zapladak eta abar, besteak itxita.

Guk Ondarroan arrain bat artuta daukagu azpalditik orretarako. *Tolla*. Arrain gogorra da. Ilten zailla. Tolla arrantzatu eta txaloparatzen danean, jo egin bear izaten da, ilteko, bein baiño geiagotan jo be, orretarako erabilten dan egur zati lodi bategaz.

Joaldi orreri tollanak emotea esan edo deitzen jako. Ala guk be: tollanak emon, tollanak artu. Beti be arraiña berezi.

Mutil txiki batek bere giza ezaugarria, ar adierazgarria, aidean dabillenean, iñok ez dau esango toki batzutan lez... sakristiako atea zabalik dabillanik edo antzekorik. Emen antxoa txikia erakusteko daukala edo ta antxoa txikia dantzan dabil lala entzungo da.

Norbait erdibitu dala, familia euki dauala zabaltzen danean itaunduten da:

-Da? Zer izan da?

Sarri entzun edo jakingo dozun erantzuna au izango da:

- Antxoa txikia, mutilla ba da eta neskatoa ba da, mielga, edo merlenka edo arrain makalen baten adierazgarria. (Mielga, arrain zistrin, mazkal, aul, balio eska-sekoa dala agertzen da Kresala'ko oar baten.)

Bein jaiotza aitatu dogun ezkerro, geigarri lez azalpen bat.

Jakiña da len, oraindik gure denboretan be, orrelako gauzak kozkonduta gero be tabu ziranean, umeak Paris'tik ekarten zirala. Baiña gure errira, Ondarroara ez. Ondarroa'n Santoña-Ameriketatik, esaten zan. Ondarrutarrak atun denboran, atun arrantzaren asieran, Santoña aldera joaten ziran, atuna andik ugariago igaroten eta ibiltzen zalako bere itxas-bidean, eta an igaroten zituen San Pedro txiki egunetik Andra Mari egun bitartekoak. Eta itxuraz, itxasoetako bits eta aparretan billatzen edo aurkitzen eben umekia.

Beti be itxasoari ikututa, gure erriko bizitza edo bizibideko era, une, gertakizun eta agerpide guztietan. Itxasoari edo arraiñei. Gogoratu bat beteegi egin, eta txalopan baiño bandara geiago egiten dabillenean, zelako izenak erabilten diran. Batzuetan zatarrak, bestetan irrigarriak.

Eta ama askok umeen azkuntzan iñoiz batzen daben bularrak anditu eta gogor-tze-ondorengo egoera muntsuari be *titi-arraiña* deitzen jako.

Eta edozeiñeri be eskua zauri barik anditu jakola ta igaro bear izaten dauan gertaerari, esku-arraiña

Orrelaxe, ainbat eta ainbat. Ez da lan asko egin bear Ondarroan, gure erriko euskeran, orrelako izkuntzaren irudimen aberastasuna ezagutu eta batzeko. Txarrena da, gure gurasoekandik guregana bitartean ainbat galdu ez ba ziran be, gugandik gure semeekanako bitartean galtze ori nabarmendu egin dala eta arrisku andia dagola, alegintzen ez ba gara, artxiboetan be ezer ez geratzeko. Or ikusten dot nik gure euskeraren egoeraren itxaso beteko larrialdi bat. Naiago neuke oker ba nego.

Baimendutako orduaren barruan ibilteko, esaera zar batzuk, arraiña edo itxasoa aitatzen dabenak. Konturatu esaera zarrak filosofi andi eta sakona eukiten dabela, urteetan zear bizitzako goraberetan oiñarrituak izaten diralako.

Ara batzuk:

Apirilleko antxobia, santuen miserikordia.

Ardi urte (ez mendiko ardiak, arkakusoak baiño) atun urte.

Aberatsa inpernuko lebatza; pobri zeruko lori.

Kaladan kaladan pantxo bi.

Berdela agirian dabillan gizonak lotsarik ez.

Emakumea eta arraiña, aotik galtzen dira.

Gurmak itxasoan, okasiñoetako kandela arasa gaiñean.

Gizona gizon dana, itxasoan ezagutzen da.

Itxasoan ez dago jarrilekurik.

Itxasoa beteko guzurra esan.

Itxaso beteko moskorra arrapatu.

Itxasoan ez dago inpernurik. Goian zerua, beian ondua.

Izkira ta kirrizkak ezin alkar ikusi.

Etxekoak baiño itxasoko neskazarrak estimaziño geiago. (Neskazarra, arraiña, batzutan burriua deitzen da)

Otsaillean, katuak be arrain eskean.

Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale ibili baiño len. (Aste Santua baiño len. Uren berotasuna ta abar bitartean)

Itxasoko arraiñik onena, arrantzateko dagoana.

Mariñelaren alabak, argizaiolari kontu danak.

Txalupa zarrak ura egarri.

Txalupan nagusi asko, arrain gitxi ta zorra asko.

Txalopa saldu zorrei erantzuteko? Txalupa galdu ta zorra garbitzeko.

Orra batzuk. Baiña amaitu daidan, esaeren itxasoan itto ez nadin.

Ondo biziko giñala ta dana guzurre,

makallaua jango gendula ta bera azurre.

Ez orraitik guk bizitzako gertaera bat gogoratu barik.
Aldi baten, besperatik joten eben pregoia, biaramonerako aginduak emoten.
Bein "Polka", itxaso beteko abotsa eukan Polka ospetsua il ondoren, Ondarroako pregoilariak tanborra jo ondoren, galdu egiten ziran kaleko "traskotzean".
Eta andrak or ibiltzen ziran balkoirik balkoi alkarri deika, ze pregoi izan ete zanka.
Beti egoten zan biaramoneko olatuaren barri jakiten eban norbait, laster erantzuten ebana: Biar makallauak "sikatze" ataratzeko.
Makallauak sikatzera ataratea edo sikatzen eskegitea kolgadurak eskegitea izaten zan, balkoi eta leioak "kolgadurekin" jaztea.
Eta mundu guztiak ulertzen eban "makallau" usaiña artu orduko, zegaitik zan.
Gero esango dozue gure erriko euskera ez dala aberatsa, ez dala ulertzen.
Guk orrelakoei erantzuna emoteko iñoiz berba zatarrak erabiliarren, eta orreik be iztegiari dagoz, ba dakigu kresal usaiñez erantzuten be: Ulertu ez? Lapa zorrixak!

(Karmel, 1992-4, 33-48)

ITXAS LAPURRAK?

Egon ete ziran?
Itz gogorra, berba garratza ez al da deitura ori?
Kortsarioak, obeto ez?
Kortsu, kortsuketa, legez egiten zan bizi modua zan. Gobernu berberak emondako baimenagaz.
Izen be, bizimodu ori, bale denpora zarretan asia dala dirudi.
Lenengotan, gure gizonak orretan asi ziranean, España'ko erregak aginduak emon zituen baleetara joiazan txalupak armatuta joateko edo ta alkarregaz batera ibilteko, egiten ebezan joan etorrietan, beste naziñoetako txalupak lapurtu ez egiezan.
Gertaten zana au zan: Españi edo Frantzia eta Ingalterra, eta beste errialdeak, batzutan batagaitik eta bestetan beste zerbaitegaitik, beti ebiltzala alkarregaz gerratan. Eta XVI garren gizaldia ezkerre, ez egoala bakerik ez legorrean ez itxasoetan. Batzutan erligiñoiko gerrak, bestetan merkataritzakoak, edo lurren amets eta itsukeriak sortuak, bakerik ez beintzat.

Eta bakez eta ogi bidez joaten ziran bale edo bakallu arrantzaleak, egokitu ezin zirala kortsuketa bizibidera, alako ameskeri geiago eukalako, abentuta giro biziago eukalako edo ta irabazpide errezagoa eskintzen eutselako. Ori, jakiña, gauzak ondo urten edo gertaten ziranean.

Kortsari bizimodua, azken baten, era bat edo bestera, gerra egitea zan eta jakiña ba eukazan bere arrisku andiak batez be txalupak menderatu, baitu edo gero erbesteko kartzeletara eroaten ebezanean euretako mariñelak.

Kortsuketa ia legezkoztat egon zan XV garren mendetik 1856 urtean Paris'ko Ituna (Tratadua) izenpetu zan arte.

Eta zeregin onetan gaillendu zan erri edo portu bat aitatzekotan, Donibane Loitzun aitatu bear, bera izan zalako orretan istoririk ugari edo nastetsu eta adoretuena agertzen ebana.

Urte bat esateko, irakurten danez, 1757 urtera begiratu eta irakurri al izango dogu Donibane eta baiona artean berrogei ta bost (45) itxasontzi armatu zituela kortsuketan ibilteko eta zazpireun gizonetik gora ebiltzala txalopa orreitan.

Eurak egiten zituen baiketak ugari-ugariak izan ziran eta eskari bat egin eben frantzetarrak eurak baituten ebenen kopururik ez agertzeko paperetan, ingelesen gobernuaren berenetik ez atarateko.

Jakingarri bat: 1692 urtean donibanetarrak eun eta ogei ta bost itxasontzi baitu zituen eta ango portua txalopaz betien bete euken, alkarri lotuta, igesik egin ez egien.

Ba dirudi kortsarioak ba eukela gizonetik lotsa, eta begirapena eukiteko agindu zorrotza, eta alkarri gizasoiñean kalterik gitxien egiteko oitura.

Origaitik erabilten zituen txalopak erraz erabili eta gidatekoak izaten ziran, askotan bizkaitar balandra eta fragatak, beste txalupa astunagoen gain erraz jarki eta menperatu eragiteko lakoak. Iltzaileak, edo ta kañubetak iñor zauritzeko ataraten zituenak eta abar, zigortuak izaten ziran euren artean, orretan fedearen aginduei menpetasuna eutselako eta bildurra be bai.

Kortsarioen zeregiña izaten zan, baita, euren arerio ziran eniei janari, ale eta bestelako bear izenekin ornitzen ez lagatea. Ori gertatu zan 1577 urtean gure inguruan, au da, euskal itxas ertzean, frantzetarrak eta ingelesak itxasondo au mendetuta euki ebanean.

Orrelakoetan kortsuketa bearrezkoa izan zan errien alikadura ziurtatzeko be, gaur aiña barruko biderik ez egoan denbora areitan, itxasotik egiten zalako merkataritarik geiena erbesteko erriekin.

Ondarroako alkatea kortsuketan

Ondarroa'ko udal liburuetan agertzen da orain esan edo agertzera nuana.

Ez da esaten euretan gure gizona aurrez zeregin orretan ibilten zan edo ez. Gure gizona esan dot, obe gure alkatea deitzea, ala aukeratu ebelako 1711 urtearen asieran.

Itxastarra zan, itxas kapitana.

Erraz igarten da erria gose egoala, eta bera egitera eioana aurrez asmatu edo burututa eukela. Itxuraz Lekeitio eta Bermeotarrak olako zerbait egin ebela ba ekien ondarrutarrak. Eta minduta egozan gaiñera lortu ebenetik euroi ezer eskeiñi eta emon ez eutselako.

Zeaztu daigun Ondanoa'ko paperak esaten dabena.

Asierako lastoa kendu ta liburuari mamiñetik eutsiko dausat.

"...Orrela batu eta alkartuta gengozala, alkateak (Bartolome Armaolea itxas kapitana zan alkate urtearen asieratik) esan eban errian aurrez berbaz erabagi zanez, bertan eta inguruko errietan gosetea kontuan artuta eta bertako gari eta alekirik eza ikusita, illaren ogei ta batean ortarako gertutako txalopa bategaz urten zala itxas zabalera. Eta Laburdiko itxas-ertzean ebillala, Bretañatik Donibanerako bidean gariz betetako txalopa bat itxasoan ikusi eta egunaren giro egoki baten bere gain joan zala bizi-bizi eta bretañar txalopako patroiak lenengotan eutsi nai, aldeztu nai eta asarre gogorrak agertuarren, Donibanera ordez, Ondarrurako bidea eroatera beartu ebala. Eta unerik galtzen ez ba eban be bere asarrea agertzeko eta negarrak egiñanen, portura ekarri, txalopa plantxan ipini eta garia saltzera ataratera beartu ebala.

Txalopea kaian ikusi orduko erriak laster igarri eban ze gertaten zan, eta Lekeitio eta Bermeo'n egin zan lez emen be egin zan, bertan dagoan premiñagaitik.

Txalopa jaubeak besterik egin ezin eikeala konturatuta, eskatu eban ainbat lasterren saltzera atarateko, beste portuetan ordaindu eben prezio bardiñean eta errazen urtengo eban eran. Eta txalopa jaubearen gogoa gari anega berrogeitamar errialetan ipintea izan zan eta ekarren baba benogeian. Gureak be, alik eta kalterik gixien eragiteko, ainbat ariñen saltzea pentsatu eben, erriak bear ebena erosi, orretarako dirua billatuaz, eta Berriatu'ri be aukera emonaz, baiña ez Lekeitio'ri.

Udal gizonak eta erritarrak ulertu eben gertaera eta Alkateari eskerrak emon eutsezan, orrenbesteko mesede bat ain arin lortu ebalako. Eta esan dan eran, erabagi eben Berriatua'ri izan ezik beste iñori ez eskintzeko. Eta berreun anega artzeko errirako, eta ordaindu al izateko edo ordainketak egiteko, erritarren arteko talde bat aukeratzeko, orretan udal gizonik sartu barik, gauzak garbiago egiteko. Eta orretarako Franzisko Aldaolea eta Juan Otxoa Brevilla aukeratu ziran gizon egoki lez.

Edozetara be errian ez egoan janaririk eta dirurik be ez bretonari dirua ordaindu eta aske lagateko. Eta zela ala ori lortzeko ingurutan burdinkia batzea pentsatu zan, garia burdinkiaz ordaindu eta txalopa jaubeari burdiñatan ordainduz aske lagateko, gero erritarrekin garia saldu ala tratua amaitzeko.

Eta beste erabagi au be artu zan: Garia edo alekia erosten eben erritarrak eta bertan bizi ziranak, ez egiela kanpora bialdu, eukena kendu eta bakoitzean amar dukaten isuna (multa) ipintea nai ez ba eben.

Eta auzi au "legeztatzeko" erabagi zan Bizkaiko Agintariei baimen bat eskatzea ogei tonelada gari erbestetik ekarri al izateko eta Frantziako edo beste nunbaiteko txalopen baten ekarteko.

Or ikusten da zela-ala kortsuketa, edo itxas lapurreta ala deitu nai ba da, legepean eskutatu nai zala.

Ondorenak

Agiri onetan argi ikusten da kortsularien legea.

Erriko premiñak bete nai, utsuneak, ezak edo goseteak eraginda, baiña era bat edo bestera ordainduta, orrela alik kalterik gitxien egiñaz ondasunetan eta osasunean.

Armaolea kapitan au, ziurretik, bera be txaluparen bategaz merkataritzan ebillanen bat izango zan.

Beintzat bere alkatetza urte onetan bakarrik euki eban. Eta ori arrigarri da, kontuan eukiten ba da alkateak iru-lau urtetan, nai ta jarraikoak izan ez, alkate ezagutzen zirala.

Eta Armaolea ez da geiago udaletxeko agintaritzan iñor ezagutzen 1758 urte arte, eta urte onetakoa be urte bakar baten egon zan eta beragaz galdu zan abizen au Ondarroan.

Kortsuketaren egitatea gogorra ba zan be, askotan garraiotan ebiltzan txalopa jaubeak edo gidariak ba ekien zela ala "ezagutzen"

Beintzat Ondarroako gertaera onetan, andik urtetara ondarmtarrak baitu eben txalopa jaubea bere alabeagaz etorri zala esaten da, erria gogoratu, ikusi eta emen "ezagutu" zitun borondate oneko gizonak agurtzera.

(Karmel, 1993-1,115-120)

SOZIALISMOA BIZKAIAN

Jakiña da PSOE deiturako erakundea Pablo Iglesias'ek sortu ebala España'n 1879 urtean.

Eta UGT?

Iru urte geroago, 1882 urtean sortu zan Barzelona'n, urte aretan ospatu zan Langilleen Batzar Nagusi baten ondorenez.

Alaz eta esan geinke bere oiñarri eta araua ez zirala idatzi 1918 urte arte.

Baiña ez zabaltzen asi barik egoalako.

Estadistiketatik dakigu 1917 urtearen asieran 39 talde eukazala UGTk Bizkaia'n eta talde guztien artean 4.646 bazkide.

Zelan lortu eban erakunde orrek Bizkaia'n sartzea?

Danok dakigu industriko iraultza lakoa egon zala Europa'n XIX garren mendearen lenengo zatian.

Eta orrek zer ikusia euki eban Bizkaia'n, batez be zotin eragin Bilbo inguruan egoan meatzeko (miñetako) aberastasunean.

Jakiña da Bizkaiko industria etxeetako industri txiki izan zala luzaro. Ala izan zan gizaldi luzeetan. Etxeetako burdiñola edo errementariak egozan emen. Baiña Bessemer'ek fosforodun ez ziran meazkiak erabilteko erabide bat aurkitu ebanean, orduan galtzairu garbi biurtzeko era billatu zan, eta len emengo burdiñoletako lan berezi zana, orrela altsu eta indartsuen gintza biurtu zan.

Eta erbestetarren eskuetan geratu. Ala sortu ziran Triano, Orconeta, Franco Belga eta abar. Eskubide bereziekaz gañera.

Ba euken euren epe bat. 1.880 urtea ain zuzen. Urte orretan Bizkaia'n 2.684.000 tonelada meazki atara ziran eta euretatik 71.000 Barakaldo eta Begoña'ko sutegietan landu ziran.

Orrek izugarritzko eragiña sortu eban Bizkaia'n. Bilboko ibar ertzean ainbat industri laguntzaille sortu ziran. Gañera Bessemer'en erabidea Thomas'en erabidez erraztu zan eta orrek oraindik industri andiagoak sortzeko aukera emon.

Gañera, esaten danez, tren bideak sortzeak be garapen andia emon eutsan emengo industriari.

Kontu egin tren bideetako legea 1855 urtean agertu zala eta 1862 urtean Bilbao-Miranda egin zala; 1865 urtean Triano. Eta Nerbioi inguruan bertan jaso ziran lantegian artean 80 kilometrotako bideak sortu zirala.

Orrek gizon premiña andia sortu eban eta kanpoko jende askoren bertaratzea gertu.

Jenderik geiena Galizia, Kastilla erdialde, eta Castilla ego aldetik etorri zan.

Ortxe egon zan emengo sozialismoaren oiñaiTía.

Etorrera orrek gizabide barria sortu eban eta ortik sozialismoa.

Ezaguna da gizonei jagokezan baiño baldintza beragokoetan etorten zirala. Beartu egiten zituen kapatazen eskuetan egozan barrakoietan bizitera.

Janariak be, nai ta ez, kapatazaren kontrolpean egozan kantiñetan erosi bear izaten zituen. Jokera orrek mesede andiak erakarten eutsezan kapatazei.

Norbaitek gogoratu lei: Eta Bizkai eta Euskalerriko jendea?

1904 urteko agiri baten irakurten danez, kapatazak naiago eben euren menpean barrakoietan bizi bearra eukan jendea. Azken baten oneik onura ugariago emoten eutsen eurei, kapatazei, euren etxeetatik lanera joaten ziranak baiño.

Kanpotarrak nai ta ezko euken al eben tokian sartzea. Etxerik be ez egoan toki askotan. Ortik, nai ta ez, kapatazen babespean lan egin eta aren menpe eta baldintzetan jan, jantzi eta bizi bear.

Ortik laster sortu ziran asarreak. Ortik sortu zan langilleen lenengo oporketa, uelga, 1890 urtean, La Arboleda'n.

Orrelako egoera baten, norbaitek itandu leike zelan konpontzen ziran kanpotarrak eta emengoak alkar arteko lanean.

Zela ala konpondu bear. Ori da erantzuna. 1887 urtean egin zan erroltzetik dakigunez Bilbo inguruan 12.981 langille euskaldun ebiltzan eta 9.776 kanpotar. Barakaldo'n 2.593 euskaldun eta 1.998 kanpotar. Portugaleta'n 894 euskaldun eta 662 erbesteko; Santurtzi'n 1.514 euskaldun eta 1.429 kanpotar; Trapagaran'en 892 euskaldun eta 662 erbesteko; Sestao'n 1.096 euskaldun eta 1.988 erbesteko.

Or ikusten da gizaldi orretan zelako arrakasta euki eban Bizkaia'n erbestetarren etorrereak.

Jakingarriak ugaritzen

Gorago esan dogunez PSOE 1879 urtean sortu eban Pablo Iglesias'ek Madrid'en. Emen Bizkaia'n andik zazpi urtetara ezagutu zan. Facundo Zagua izan zan emengo lenengo lendakaria.

Oargarri bat. Sozialismoa, Madrid'en lez Bilbao'n be, irarkoletako langilletatik edo euren artean sortu zan. Orren atzetik etorri ziran 1888 urtean Argiñen elkarte (Sociedad de Obreros Canteros) eta beste bat 1890 urtean, Nasako eratzaille-zamatzailleak (Moldeadores y cargadores del muelle)

Orrelako joeretatik Bilbao, Estatu maillan, sozialista sutegi biurtu zala esaten da. Laster zabaldu zan erakundea ori Barakaldo, Sestao eta Erandio zear. Geroago Enkarterrira.

1892 urtean sortu zan Sestao'n Galdaragilleen alkarte; Barakaldo'n Laba Garaietako langilleena; Erandio'n, 1902 urtean, Mekanikari, doitzaille (ajustadore) eta tornuetakoena. Baiña lenago sortu zan Begoña'n 1896 urtean, Agrupacion Sozialista deiturakoa eta onek garrantzi aundia euki eban Bilbo'ko kondairan.

Gizaldi barria astean, au da, gure gizaldiaren asieran, Madrid geratu zan alderdiaren sorleku lez. Urrengo Bilbao. Bigarren Batzar Nagusia, kongresua be, Bilbao'n ospatu zan. Eta batzar orretan erabagi gogor bat artu zan: Irakatsia (dotriña) alboan laga eta zuzen zuzeneango ekintzak egitea.

Batzar ori dagonillaren 29'tik 31 bitartean ospatu zan.

Orduntxe erabagi zan urtero Maiatzaren lenen eguna ospatzea eta egun orretan ezin zan tokietan, lenengo jaiari agerkundeak edo "manifestapenak" egitea.

Eta orduntxe erabagi zan baita, kapitalistei, dirudunei indarra kentzen joan al izateko, urrengo auteskundetatik asita, sozialista aldun gaiak aurkeztutea.

Batzar ori egin eta andik lau urtera asi zan kaleratzen La Lucha de Clases ize-neko astekaria.

Bilboko Sozialista Alkartearen izenean agertzen zan. Bertan idazten eben euskaldunen artean Jose Aldekoa, Luis Agirre, Tomas Meabe eta Migel Unamuno agertzen ziran.

Gráficas Grijelmo irarkolan atarutzen zan asieran. Gero aldatu zan Tipográfica Popular'era.

Oporketak (uelgak)

Gorago esan dot 1890 urtean La Arboledan egin zala Bizkaiko lenengo gieldialdia.

Zeatz esateko, gogoratu bear gendun Markiñarrak, ango errementariak, Errege Katolikoan denporetan egin eben, geratualdi bat emoten dabela Bizkaian ezagutzen dan lenengotzat.

Ori azalduta goazen darabilgun gaira.

Zegaitik izan zan La Arboleda'ko asarraldia?

Langilleak esaten eben bizi eragiten eutsezan txabola eta barrakoiak osasun kaltegarri zirala, eta eskatzen eben nai ta ez erosketak egin bear izaten zituen kantinak be kentzeko.

Eta ordu gitxiago lanean.

Ori jakiña, egosten asia zan opilla zan. Nai ta aitzakitizat Orkonera'tik bost lagun kanpora atara zituela-ta asi. Orkonera au zan alkarterik altsuena.

Geratualdia Maiatzaren 13'an asi zan eta laster zabaldu zan inguruko lantegietara eta ogei milla langille gelditu ziran langieldialdian.

Orrek laster ekarri eban agintarien erantzuna. "Estado de sitio" esaten dana agindu zan. Donosti'n egoan Loma general militarra bialdu eben Bilbao'ra, soldau talde andi bategaz, bakea indarrez lortu eragin naian.

Esaten danez, Loma'k zentzuz jokatu ebalako ez zan odol ixurtze askorik gertatu ugazaben morroi eta bestelakoen artean.

Orrelako ekintzak beti ekarten dabe ondorenen bat eta orduntxe lortu zan langilleak nai eben tokietan lotarako ostatuak eukitea eta gura eben kantiñetan euren janariak erosteko eskubidea eukitea. Eta langilleak geiago nai ebena: galeraso egin jakoen kapatazei kantinak euki eta janariak saltzea.

Orduen goraberan, eguneko amar ordu lan egitea erabagi zan, baiña urteko denboraldiak kontuan eukita. Au da, 9 ordu Azilla, Abendua, Urtarrilla eta Otsaillean; 10 ordu Marti, Apiril, Irail eta Urrillean; 11 ordu Maiatz, Bagilla, Uztail eta Dagonillean.

Andik urte bira, 1892 urtean, Meatz-toki guztietan egin zan geratualdia, toki batzutarako lortu zana danetarako zabaltzeko. Baiña oraingotan langilleak ez eben ezer lortu. Amabost egun geldi egon ondoren barrero lanean asi ziran, makurtuta. Eta gero, 1894 urtean barrero, oraingoan laneako orduak gaitzat artuta eta ogi txarra emoten eutselako. Eta gero ia urtero, baiña konpañiak indar andiegi euken ezer lortzeko.

Ori da, beraz, sozialismoari indartzeko Bizkaia'n egon zan giroa. Beste gauza

bat, au be jakingarria. Zergaitik deitzen eutsen orduan ona etorten ziran langilleei maketoak?

Askok egiten daben itauna da. Eta erantzuna, batzun esanetan au:

Ia esku utsik etorten ziran jendeak lan billa, maleta edo antzerako ezer barik, makutotxu batzutan euren gauzak ekartzela. Eta ortik "los del macuto"tik sortu eizan maketoak deitura geratzea.

(Karmel, 1993-2; 65-70)

ARRANTZAKO TRESNAK, SAREAK ETA BOLANTAK

Gaur, itxaotan, batez be atunkien arrantza aldi onetan, "bolantak" dirala-ta asarre, naste, borroka eta ezatabaida ugari ezagutzen dogu.

Urteetan ez dogu ezagutu, ez eta entzun be, orain aiñako asarrerik.

Batetik portuetan.

Gogoratu Euskadi, Kantabria, Asturias eta Galiziako portuetako "bajura"ko arrantzaleak, Estatuko Iparraldeko porturik andienak sarratu eta blokeatuta euki zituela "bolanten" aurka eta batez be atunkien arrantzan Frantze eta Ingalaterrak eta beste batzuk erabilli dituezen arrantzateko erabidearen aurka.

Gogoratu geroago zelako nasteak eta asarreak Españako Egoaldeko arrantza-lieu artean, eurak be be-alde orretan "bolantekin" arrantzaten jarduten ebelako.

Gogoratu Europako Komunitatean sortu diran eztabaidak eta sartu diran salaketak. "bolanten" bidezko arrantzak urte gitxi barru leikezan ondorenak eta ekarri leikezan kalteak dirala-ta, kala jatorretan arrain berberaren urritasun eta desagertzea eragiñaz.

Eta askok itanduten dabe: Zer dira "bolantak"?

Zerbait esan daigun ortaz.

Arrantzako erabideak

Arrantzarako erabide eta tresnak beti izan dira eztabaidagarri, batez be barriz-tatzeak sortu eta agertzen diranean.

Antxiña eta beti, era bat edo besteko sareak izan dira arrantzarako tresna berezienak.

Sareak era askotakoak dira.

Jakiña, beti be, itxasoratzen diran ontziak, motordunak edo belaz ibiltekoak izan, erabili aal izateko neurritakoak.

Arrantza asko, antxiña, sardiña, antxoa, lantzo, akula eta abar, sareen bitartez egiñak izaten ziran.

Gure gizaldi onen erdikararte, orrelako arraiñak arrantzateko, arizko sareak erabiltzen ziran.

Arrantzako ontzi edo txalopa bakoitzak, txikia ba zan, sei-zortzi sare eroaten zitun itxasoratze bakoitzean, eta txalopak aunditzean, amabost edo ogei sare, bata-besteagaz itxasoan erraz lotzeko eran. Arrantza ori gauetan egiten zan. Arraiña egon eikean lekura, kalara, eldu eta sare orreik zabaltzen ziran.

Sareak, zelako arraiñetara joan, alako mailla euki bear izaten dabe, arraiñak konturatu barik muturra bertan sartu eta bertan ezin urtenda kakotuta geratzeko.

Antxoatako sareak, bein uretan zabaldu ezker, geien bat ordu batzuk eukiten dira uretan, eta origaitik arraiña euretan kateatuta odoluztuarren, "bizitasunez" ekarten zan portura ta gero sareetako mailletatik bana-banan atara edo askatu.

Mailletatik atara edo askatze oneri mariñelak, "despiskia" deitzen dautse.

Len erabilten ziran sareak, arizkoak, akats bat euken eta ez txikia. Bein itxasoan, sartu-urtena eragin ezker, bereala besteren bat egin ezik, leorreratzean txalopetatik atara bear izaten ziran eta aizetara eskegi, sekatzeko, legortzeko. Bestela sareen aria kresal urak erreta lagaten eban eta ariak erraz eteteko eran.

Origaitik itxas-errietan, edozein tokitan ikusten ziran sareak aga luzetan eskegita edo zabaldua, edo ta zubi nai orma andietatik dindilizka, txalopetan moltsotan eta pillotuta euki ezker kresalaren buztitasunak "egosi" ez egiazan.

Beste erabide bat

Beste erabide bat "ardorekua" deitzen dana da.

Onetan 250 metro luze eta 100 metro sakoneko sareak erabilten dira. Sare onei treiña deitzen dautse.

Arraiña nun egon leiken igarri eta treiña zabaltzen asteen argi gorriak biztuten dira, beste txalopei jakin eragiteko treiña jaurtitzen diarduela, eta azaleko kortxoetan bost argi berde, andik iñor igaro ez dedin eta kalterik egin ez dagien.

Gaur sare orreik erraz erabilten dira txalopak daukezan "aladore" edo trein erabiltzaille mekanikoei esker.

Orrelako arrantzari, gorago esan dan lez, "ardora"ko arrantza deitzen jako.

Zer da "ardora"?

Arrain asko batzen danean, moltsotan agertzen danean, gabaz argitasun berezia zabaltzen dau, ur azalean zidar kolorea lakoa zabalduaz. Orixe da ardora. Eta sarea zabaltzeko aukerako unea.

Erabide au ez da gaurkoa. Itxasoetan "baporak" eta "motorrak" asi ezker, sarri

erabilten eben ardorerako treiña eta aundirik ez eukenean trein bi alkarri lotuta erabili.

Erabide geiago

Beste arrantzako erabide bat: "Manjuba" deitzen dana. Bermiotarrak "manjunge" (j bigunagaz) deitzen dautse.

Auxe izan da antxoa arrantzateko erarik politena. Baiña ba dauka akats bat: gastu aundia errekiñean, txalopak erabilteko errekiñean.

Erabide au izurdei (itxas urdei) jarraika ibilita egiten zan.

Jakiña da izurdak aldetan ibiltzen dirala, arrain txiki moltsoen billa eta eurei jarraika, eta arrantzaleak, itxasora urten eta orduak ordu ibiltzen dira izurde orrei jarraitzen.

Esan bear da antxoa ur-epel zale dala ta Marti eta Apirillean, oraindik ur-azaleko urak otz agertzen diranez, ur sakonen epeletan ibiltzen dala, ur-azala baiño beerrago. Eta izurdak, eurei jarraituaz, ur-azaletara goratu eragiten dautse.

Eta orduan, pillatuta ikustean, sareak zabaltzen dira. Leenagoko aldietan 50 metro luze eta 15 edo 20 zabalean eukezanak erabilten zituen, eta eurekaz arraiña inguratu eta sarean inguratuta euki, batuta euki, eta sarabardoekaz txalopetara bizibizi jaso.

Orixe da "manjuba" deitzen dan arraintza erabidea.

Zeaztasun geiago

Ba dago beste sare edo trein mota bat. Itxas ertzean, sardiña arrantzateko erabilten dana: "Bolintxa" izena dauka.

Sardiña kalaetan zabaldu, inguruan "masia" jaurti (masia edo "masije", arraiñak erakarteko erabilten dan oreka da, batzutan gatz-uretako antxoakaz egiña; lengo denboretan Noruega'tik ekarritako bakallauaren tripa barru eta arbiak be erabilten ziran orretarako) eta sardiña bera jaten alkartzen danean, sareei ondoko berunetatik ten egiñaz batzen asi eta "kopoa" egiten erabilten da sare-mota ori, au da, bolintxa deiturakoa.

Ez dira sare andiak izaten. Arrantza onetan ibiltzen diran txalopak be ez dira andiak izaten. Erabilten daben sareen izenez ezagutzen dira: bolintxeruak. Geienetan erriko mariñel zarrak eta mutil gaztetxoak izaten diratxalopa orreitako arrantzaleak.

Atunkien arrantza

Udako arrantza da.

Lenengotan "kazan" egiten zan arrantza au. Au da, txalopa bakoitzean "espektak", a ga luzeak sartzen ziran aurrean eta atzean.

Zer ziran "espetak"? Zortzi amar metro luzerako eukaliptus arbola gazteak.
Aurrean ipinten ziran bik "xergio" euken izena. Beste gerriko andiak, txalopen kareletan gogortuta egoten zian espetoletan sartzen ziran.
Atzeko karelean, urkula bi ta aga luze bat, "peñola" deiturakoa.
Aurreko "xergio" espetetan, aparixo bi eroaten ziran.
Erdiko aundietan iru: puntakua, erdikua eta barrukoa.
Atzeko karelean beste bi, urkuletatik dindilixka; uberakuak, tentekuak eta onein erdian aparixu labur bat, "zanburrunio" deitua.
Aparixu au onela osotzen da: Lenengo amu aundi bat, ondo orraztutako maluta zuritan eskutauta; gero orren ondoan lotuta 35 edo 40ko lorua, gero sokalia, luze edo laburra, norako dan alako; espeta andiko puntan ba dago 100 metro ingurukoa; erdirakoan 60 metro eta barruragokoan 50 metrokua.
Orrez gaiñera espeta aundiak iru tximngola eukiten dauz bere txanpeletagaz, atunak eltzen dabenean, naastu barik, txalopara urreratzeko.
Gizonak, bakoitzak, sokalia ala eta lorua eskuetan artzeko, atzandela izeneko tela bat erabilten dabe.
Atuna, txalupara urreratzean, kakuagaz goratzen da eta gero mataputxetaz odoluztu.
Geroago, maluten orde, bestelako amuskiak agertu ziran, euliak eta antzekuak eta abar eta azkenez txalopetako "biberok" gertu ziranean, arrain bizia eroaten da biberotetan eta arrain bizi ori jaurtiten da amuetan amuskizat.

Eta "bolantak"

Zer dira bolantak?

Maila zabaldun nailonezko sare luzeak dira. Nailonez egindako sarea, nailonezko azaleko eutsigarriekaz (kortxo antzekoekaz) gaurko gailluei esker txalopatik ur azalera jaurti eta bereala itxasoan, berrogeitamar metro inguruko goitik berakoa artuaz, kilometrotrako luzeran barrera antzeko bat egiñaz lekutzen diranak, bertatik igaro leiken edozelako arrain bertako mailletan sartu eta kateatuta geratu aal izateko eran.

Beraz sare bakoitzak luzera bat edo beste eukiarren, gura dan neurrian luzatu leitekez alkarri lotuaz eta orrela amar kilometro inguruko luzerakoak zabaltzen dabez itxasoan zear eta ingurune luze ori artuta arraiñen bidea zearkatu, bertatik igaro leikezan atunkien neurri eta zabalera inguruko beste edozelako arraiñei bertan kateatu eragin ondoren, odoluztuta ia galdu eragiñaz.

"Bolantak" egun bat baiño geiagotan zabalduta egoten diranez, arrain batzuk erdi usteltzen asiak, atsa dariola geratzen dira mailletan inkatuta, inguruetara eldu leikezan beste arraiñen kutsagarri.

Sareakitsuak diranetik, edozelako arrainak kateatzen dira euretan, arrain bizi-tzarako mesedegarri diranak be galdu eragiñaz.

Gaur gaurkoz Europear Batasunak sare oneik baimenduta daukaz kilometro bita erdiko neurrian, baiña erraz alkartzen diran lez, erraz lotu, ortik amar kilometrotako luzeran be erabiltea.

Esan bear da baimendutako neurrietan erabilteko baimenak beste urte bi inguruko epea daukala baiña arrantzaleen ustetan, baimendutako neurria be benetan kaltegarri da oiturazko legetan dabiltzan txalopentzat.

Euren esanetan "bolanta" oneik, arrantzale jatorren irizpidez, gure itxasoetako arrantzarako benetan kaltegarri dira, geien bat gure itxasoetara datozen arraiñei bidera urten eta sare orreik zabaltzen dautsezalako, eta gure itxasoetako arrain berezien iraupenaren ondagarri diralako.

(Karmel 1994-3, 36-42)